MIKEL PERUARENA ANSA

SU ZELAIAK

MIKEL PERUARENA ANSA

Su zelaiak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Mikel Peruarena Ansa
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko urria
Edizio hau: 2014ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

1

Sarraskien aroa inauguratu zuen 1914ak.

ERIC HOBSBAWN

Menturaz dockerrak greban altxatuko balira berriro, orai hiru urte egin bezala, eta lantegiak ikatzez hornitzeari utziko baliote. Gurutzatuko balituzte besoak portuko zamaketari horiek. Saint Gobineko lantegirat igorririko gai kimikoak eta Forges de l'Adour lantegirat Bizkaitik datozen burdina zamak portuan husteari uko eginen baliote. Menturaz greba handi batean batuko balira langileak oro. Lortuko balu Baionako Herriko Etxean aurkeztea agiri bat bertze hautetsiekin. Pentsamenduen laino mehe horretan galdurik gogoa, Bokaleko Lafitte ostatu honetan garagarno edaten ari da Auguste Perrin ofizialea. Laino mehe bezain trinko hori aienatu zaio Forgeseko kaperako ezkilak entzutearekin bat: heldu da gerlan altxatzeko deia, eta joanen dira langile guziak, badaki Auguste Perrinek. Alde

bateko eta bertzeko, ezkilen dei horri segika, joanen dira elkar hiltzera, badaki. Menturaz hizlari handi bat ekarriko balute gerlaren aurka gogoen berotzeko eta langileen elkartzeko, Jules Guesde den bezalako hizlari handi bat. Kafetegi honetan berean ez zuen bada hitz egin Guesde handiak, duela... «Duela zenbat, ordea? Hogei urte ez dira iragan ordea!». Eta zertan da Guesde? Gobernamendua babestu du gerlan murgiltzeko, Jean Jaures Parisen hil duten artean bakea aldarrikatzeagatik. Bere kolkorat erraten aritu den pentsamenduak kanporat jalgi zaizkio Auguste Perrini: «Bo, ederra elkartasuna!». «E?», galdegin dio Pierre Martinek ondoko aulkitik. «Be!», ihardetsi Augustek, garagarnoa kilimiliklik irentsiz. Dandaka segituko dute ezkilek bulta batez.

Belez eta mikaz leherra bada bazterretan, uztak oro xehatzen dituztela, laborarien ernegu eta arrangura guziak horientzat baitira. Ametzei eta haritzei gaitz itsusi bat lotu zaie. Gaztainondoetarat pasatu gero. Japoniatik hasi dira ekartzen gaztainondo gazteak, hemen guziak galduko diren beldurrez. Baina mahastiak ere gaitzak joak dira aspaldi handian: gorbela. Ne-

guan hotzik egin ez, eta kara hitseko heldu da 14ko uda hau ere. Zer da, bada, zorigaitza bertzerik, laborari gaizoentzat? Uztail hondarrean, eta belarrak ustelduak eta artoak morrotuak. Ogi soroei beha dago Dominika Zubiri, sarde ttipia besapean tinkatua. Garauak lurrerat jausiak beroari buru egin ezinik, erran ezineko zama bat balute bezala gainean. «Ogiak ere galdu behar ote zaizkigu?». Zainarturik da Dominika, eta erran dio senarrari, Xalbat Mutrustegiri. Eskutara bat ogi hartu du lurretik, sarde ttipia besapetik askatu gabe. Jaun erretorea beharko du gaztigatu, erregu bat antola dezan on-ona, euri poxi bat izan dadin agorril honetan berean. Heletako elizako ezkilak dandaka lotu dira, Dominikaren erregua aditu balute bezala. Baina ez, Dominikak uste ez bezalako bertze aro bat dute iragartzen elizako ezkila ttipiek, dandaka, han beherean; dandaka, ezkila dorrea, lizarren eta oraino loretan diren ezkien artetik xut. Etxetik hiru semeak heldu zaizkio Dominikari, igitai eta arrasteluak besoetan, urez xahako bat. Arratseko lehen orena da. Azaoak egiteari lotuak dira ogi soroetan: Jeannette alaba gazteenak euskarriak hedatzen ditu, Dominikak atxikitzen ditu azaoak, eta Xalbatek ezartzen dizkie lastozko estekagailuak; Xemartin eta Paskal bi anaia gaz-

teak lan berean ari, zaluago. Xalbador, arrasteluarekin. Baina ez dute lana gaur bururatuko zernahi gisaz; arrasteluak, azaoak eta ogiak pentzean utzirik gaur bertan partitu beharrak izanen baitira Xalbador, Xemartin eta Paskal. Aita erreumatismoak jota, alaba gaztearen laguntzarekin finitu beharko ditu lanak Dominikak. Eta nork joko ditu ogiak gero? Nork uztartuko abereak etxe atariko larrainean, ogiak jo ditzaten? Eguraldiak galtzen ez baditu ogiak lehenago. Bele eta mika tzar horiek ez badituzte xehatzen uztak lehenago.

Ogi puska bat, ikatz zati bat baino beltzagoa, bide bazterrean, eta bele saldo bat haren porroskatzen. Ernest Fort jaunak, makilaz uxatu eta bele saldo hori, lurretik jaso du ogi zatia, nondik begiratzen zaion ikatz zati bat iduri duena. «Ogia eta ikatza... Jatekoa eta sua... Horra oinarrizko bi gai bakarrean, biziarentzat». Liluraturik behatzen dio Fort jaunak ogi zati horri, koadro bat egin behar duela pentsatuz. Bodegoi bat, zehatz erranik: ogi zati batzuk ezkerrean, ikatz zati batzuk eskuinean, eta artean ogi edo ikatz den bereizten ez den zera bat, eskuetan duen hau. Pitxer bat gibe-

lean beharbada; ur poxi bat. «Horra, zuria eta beltza: zeruko ogia eta infernuko ikatza, bi gai bakarrean, biziarentzat». Eta, izugarrizko aurkikuntza egin duela pentsatuz, Fort jauna badoa etxerat, koadroa margotuz bere pentsamenduetan, ikatza iduri duen ogi zati beltz hori besapean, eta makila inarrosiz bide bazterretik alde egin nahi ez duten bele deabru horiei.

Ezkilak lehen danda eman duelarik, eskua bururat eraman, txapela erantzi, eta elizari beha hasi da angelus otoizten Ellande Karrikiri. Iholdiko plazan, ez da bakarra. Ellanderen keinuari segika, txapelak erantzi dituzte plaza bazterretan diren gizonek, eta buruhas eman zaizkio otoitzari. Eguerdi oroz ohi dutenez. Estonatua, etxeko bortarat jalgi da Bixenta Larregarai, sumatuz eta oraino ez dela angelusaren tenorea. Plazarat luzatu soa... Han ari da Ellande Karrikiri, txapela sabelaren kontra estu harturik, angelusari tinki lotua. Otoitzean ari den gizona ez bortxatzeagatik, eta badaezpada tronpatua den ere, Bixenta Larregarai hasi da ezkila dandak kontatzen eta, baiki, 33 aldiz jo du Iholdiko elizako ezkilak, baina gero segitu du, bertze behin, eta bertze behin. Ezkila hotsak kontatzeari utzi-

rik, plantatu da Ellanderen aitzinean, eta eskuetarik kendu dio txapela. «Pasatua duzu Angelusaren orena». Txapela berreskuratu du Ellandek Bixentaren eskuetarik eta, ezkilak jotzen segitzen duela konprobatuz, ihardetsi dio «Zer deabru duzu beraz? Su deirik bederen ez duzu horietan». Jendarmeak agertu direlarik karrikaren buruan, beren hede xuriekin, afixa handi batzuk eskuetan, gerturatu dira Ellande eta Bixenta. Bi frantses bandera elkar gurutzatuak eta, hizki larritan, «ORDRE DE MOBILISATION GÉNÉRALE» dakarte izkiriatua paper handi horiek, jendarmeak hormetan ezartzen ari baitira, beren hede xuri ekiaren izpietan dirdaitsuekin, gibeletik daramatela Petain atabalaria, turrutarekin *La Générale* joka.

Sarako errebotean, partida gaitza. Espartin xuriak urratu eta belztu arterainoko guduan ari dira, zein baino zein, Katxo eta Laborde erretorea batetik, Dongaitz anaiak bertzetik. Martzel Garikoitz xaxaria, txotx bat eskuan, puntuen kirrimarratzen ari da errebotearen bazter batean, lurrean berean. Epaile dute Txantxin, zeina tenore honetako ardo bat edo bertze edana baita. Partidari beha dira jaun erretorea, jaun medi-

kua, jaun mera eta zenbait laborari, aziendez eta udaren lehorraz eta bazterrak oro xehakatu behar dituzten bele eta mika tzar horiez solasean. Badira ere emazteak, aterki beltz handien gerizpeetan gehienak, bero baita agorrilaren lehen honetan. Hamar liberatako trabesa jokatu baitute Kanboko Xikitok eta Arno Suertegaraik, Xikitok «Biba beltzak!» oihu egiten duen aldi oro Arnok «Biba xuriak!» dio ihardesten. Berotuak direnez gero bi-biak, eta pilotariei baino arreta handiagoa ematen baitiote elkarren espantuei, mutiko saldo bat irri karkailaz ari zaie gibeletik, non eta Laborde erretoreak indar guziz jo baitu pilota, eta matelezurrean kolpatu haur horietarik bat. Lurrean jarri eta, Elena Sistiagek artatu du, Martzel igorririk gurasoen xerka. Elenek ebatzi du: bi hortz hautsirik ditu haurrak; deus larririk ez, sortuko zaizkio berriak. Laborde jaun erretoreak ez du haurraz arranguratzeko oren laurdenik ere, jendarme bikote batek erreklamatu eta eraman baitu. Jendarme horiekin mintzaturik, «ezkilak beharko ditugu jo, beraz!» garrasi egin eta lauko batean abiatu da Laborde jaun erretorea, oraino sotana gerrian trenkatua duela ohartu ere gabe, elizari buruz.

Rafael Pikasarri. 60 urte. Garaiera: metro bat eta lautan hogeita bi zentimetro. Zabalean, bada haritz bat adina. Fama du beso bakarrarekin hirurehun liberaz goitiko harria altxatu izana gaztetan. Ezpeletako jaun mera da. Prusianoen aurkako gerlan, orai berrogei urte direla, balentria handiak egina zen haren aita zaldizkoetan eta, holetan, familia errespetatua izan da beti Ezpeletan. Linette Organbururekin hogeita hamar urtetan ezkondu eta bi alaba eta seme bat izan ditu geroztik. Orai Pikasarri Zaharra erraten diote aitari; Pikasarri Gaztea, semeari. Prudent semea, soldadugoa eginik lau urte lehenago, erresalbuan da orai. Gerlarat joateko deia heldu delarik Ezpeletarat, gazteenak mobilizatu dituzte lehen aldi. Baina Pikasarri Zaharrak badaki erresalbuko soldaduen ordu ere izanen dela berant baino lehen. Alemanen kontrako gerlarat beharko dira pusatu gazteak oro, erabili indar guziak, hustu bihotzak. Pikasarri Zaharrak anaia bat du ere Donezteberat ezkondua, eta harekin egin du harremana. Pikasarri Gazteak muga iraganen du igande gauean, sos batzuekin moltsan, eta osabak hartuko du Doneztebeko etxean. Gerla fite bururatuko den esperantza badute etxean; menturaz, urtea finitu aitzin

etxean izanen da berriz Prudent. Pikasarri Zaharrak ez du utziko seme gehiena gerlan suntsi dadin, etxea galtzeko arrisku izanen bailitzateke alaben senargaietarik bat etxearen nagusi uztea. Ezpeletan nehork ez du, oraino, etxea zutik atxikitzeko pikasarritarrek hartu duten deliberoaren berri; fite hedatuko dira albisteak ordea, eta Pikasarri Zaharrak jaun meraren kargua utzi behar lukeela pentsatuko dute herritar batzuek; aski delibero burutsua izan dela, bertze zenbaitek. «Gure semeetarik bat hiltzen badute gerla horretan», epaituko du eztabaida Ursula Eiheramendik, «joanen naiz ni etxe horretarat kontu eske».

Ezterenzubitik goitiko pentzeetarat ez da elizaren ezkila hotsik hedatzen. Pentze hauetan aditzen ahal diren ezkila bakarrak ardiek lepotik zintzilik daramatzate. Battitta Garatek entseatzen ditu doinu batzuk txilibituari putz eginez, ezker begiarekin artaldea zelatatzen duen artean. Ardi eroxka horietarik bat balitzaio mugaz bertze alderat menturatuko, guardek atzeman eta Otsagabiarat eramanen liokete. Eta gero beharko luke juntarekin solas egin, eta auzi luze bat hasi, menturaz ardia berriro nehoiz ez berreskuratze-

ko. Hobe, beraz, behar den tenorean behar bezala begiratzea. Lan horretan uros da Battitta Garat halere, txilibitua joz. Oren honentzat ardiak oro indigo tinduarekin markatu ditu, eta eguneko lan gaitzenak bururatu. Badu esperantza, bertzalde, gatzagiaren egiteko pastilla berri horiekin zer-nolako gasna eginen duen. *Eskualduna*-k iragarria bada, ezin kalterik egin. Zernahi gisaz, ardien jezteko lanak bururaturik, beharko du itxaron aste batzuez lehen gasnen dastatzeko. Pentsamendu horietan ari dela –lehen gasnak noizko izanen dituen salgai ezartzeko gisan; hobe duela ardien ontsa begiratu, mugaz bertze alderat ihes egin ez diezaioten; bele bikote anitz badabiltzala aurten–, eta egunaren tenore honetan ez baita ohiko behereko parte horretarik nehor igatea goiko pentzeetarat, harritu da guziz Caroline arreba gazteena lasterka igaten ikusi duelarik errekan goiti. Txilibitua utzirik saihetsean, «Zer deabru gertatu ote duk?», pentsatzeari lotu zaio, ezin bertzerik buruan erabili, «Zer mila deabru?», eta arreba hatsanka parerat heldu zaiolarik hala egin dio galdea: «Zer deabru gertatu dun?».

Barrenatu du laztabinarekin, egin du zuloa, metro eder batekoa bai bederen, eta izerdiak lehortzen ari da Bernat Agirre. Zuloa hurritz-makilarekin garbitu eta dinamita kartutxoak sartu dizkio Denis Mendibek; lau, osorik. Pistoia eman dio azkenari metxan, aliketarekin estutuz. Korapiloa egin dio metxari. Utzi ditu hamar bat zentimetro; heina ontsa hartua du. Bizkitartean, mokanesarekin izerdiak lehortuz, babeserat abiatua da Bernat. Domingo Lopez gurutzatu baitzaio bidean, gibelerat egiteko keinu egin dio Bernatek, Denisen alderat burua biratuz. Metxari korapiloa egiten ari zaio Denis. Labana atera eta muturra ireki dio metxari. Pospoloa piztu aitzinetik, Bernat eta Domingo gordeak diren alderat behatu du. Baietz egin diote buruekin. Piztu du pospoloa Denisek, eta lauko batean abiatu da lasterka. Bizpahiru minutu baino ez ditu gordegiaren bat atzemateko. Haitz batzuen gibelerat heldu denarekin batera sartu dira Gixuneko elizako ezkila hotsak harrobi barnerat. Bernati eta Domingori behatu die Denisek, buru keinu batez galde eginez. Fitsik ez dakitela errateko betarik ere ez dute izan Bernatek eta Domingok. Zapartatu da haitza. Harri koskor batzuk aireratu dira Denis gorde den haitzerat, baina, garaiz kakotu baita, ez diote den mendreneko kalterik egin.

Hegazti batzuk hegaldatu dira leherketak zainarturik, eta, haien artean, bele batzuk karrankan hasi, ezkilen deiekin konpasean.

Philippe Thys belgikar ziklista handiak Baionan bezala, esprintean hirugarren egin du Janpierra Berruetek. Eta uros da halere; uros, hirugarren egin baitu! Frantxua Etxeberrik egin du lehen, Angelutik Miarritzerateko errepidearen bi saihetsetako pinu handien parean. Alegiazko helmuga horretan, Henri Gramrandek egin du bigarren. Helmuga iraganik, ur edaten, pausuan dira orai hiru ziklistak. Janpierra Berruetek profitatu du mementoa, oroitzeko Thysek Baionako etapan hirugarren egin zuela esprintean, baiki, baina geroan Frantziako Itzulia irabazi zuela. Ereiaroaren 6an, hilabete eskas lehenago, Baionan ziren hiru adiskideak, ziklisten azken kilometroetako balentrien ikusteko. Arroxelatik abiatuak, 379 kilometro egin ondotik heldu ziren Baionarat ziklistak, 13 oren 25 minutu eta 29 segundo –eternitate bat– eginik lehenak bizikletaren gainean. Batera heldu ziren lasterketa buruan, Lapurdiko hiriburuari buruz doan errepidean hauts zuria harrotuz. Hamahiru orenen buruan, azken zango kol-

peak eman beharrean oraino, bizikletak andarka errepidean. Helmugan Oscar Eggek egin zuen lehen postuan. Ereiaroaren 8an utzi zuten Baiona, Luchonerat bidean, Aubisque, Tourmalet, Aspin eta Peyresourde egunean berean gainditzeko esperantzaz. Egun hartan bigarren egin zuen Thysek; aski izan zuen sailkapenean burua hartzeko eta handik aitzinerat lehen postu hori ez uzteko. Ziklistak Baionan ikusiaz geroztik herra batean baitziren Frantxua, Henri eta Janpierra, nor izanen ote gehiago esprintean, gaur hartu dituzte bizikletak, egin dituzte kilometro batzuk Angelutik Getariarat, berotzeko, itzuli dira, eta egin dute lasterraldi basa hori Angelutik Miarritzerateko errepidean. Alegiazko helmugan Frantxua iragan da lehen; eta Janpierra, azken. Baina kuraiatu da Janpierra, Thysek ere Baionan hirugarren egin zuela oroitaraziz adiskideei. Henrik ez du hitza alferrik galdu, ordea, hiruretarik hirugarren egin duela oroitarazteko Janpierrari. «Ohorezko postua, egiaz!». Baina mihia zorrozturik du Janpierrak, baioneta batek nola, ihardespenaren emateko: «Oroimenean duzu Baionan nork egin zuen bigarren lekuan?». Isilik, Henri. Ezin oroitu. «A, bo, ikusten duzu? Nehor ez zaizu oroituko bigarrenez. Baionako etapako hirugarrenaz, ordea, denok oroit gaituzu:

Thys!». Janpierrari arrazoia emanik bakearen izenean, zirtoak utzirik, badoaz hiru adiskideak Miarritzerat, bizikletak eskuekin herrestatuz orai, ostatuan osagarri on baten hartzeko asmoz. Bihar mobilizazio eguna izanen baita, fini dituzte esprintak bulta batez.

Jean Etxandi eta Emile Intxauspe, pipatzen, Hotel Centralen atarian, Donibane Garazin. Gosariak zerbitzatu ondoko tenore honetan, pausuan dira memento batez. Zurzurietan zintzilik dira oraino Jean Ibarnegarai diputatugaiaren aldeko afixak. «Bozka eman zenuen?», galdegin dio Intxauspek Etxandiri, zigarretarekin seinalatuz Ibarnegarairen afixa. «Bo, ez dut nik politikakeria horiez fitsik ere jakin nahi». Ez dira guziak Etxandiren iritziko. Ereiaroaren 13an bozak izan dira, eta gudu bizian arituak dira Blaise Gerazage Donapaleuko jaun mera, zeina gorrietarik baita, eta Jean Ibarnegarai abokatu gaztea, xurien hautagaia. Bozketa aise irabazi dute gorri tzar horiek, baina Ibarnegarai diputatu izendatu dute halere, Gerazagek baino puskaz boto gehiago eskuraturik zirkunskripzioan: 5.930 boto Gerazagek, 7.614rentzat Ibarnegaraik. «Badizut esperantza gizon horrentzat», Intxauspek,

Ibarnegarairen afixari buruz. «Bozka eman zenuen, beraz?», Etxandik. Baietz, zigarreta pipatuz, Intxauspek. «Zer esperantza, ordea?». «Gizon zuzena duzu hori, guti bezalakoa». «Bo! Jendeek boz ematen dute Gobernamenduko laguntzen esperantzaz, edo bertzela erretorearen...», jaun mera eta axuanta baitira iragan karrikan goiti izialdura bat handia aurpegietan, esaldia eten du Intxauspek, gizon presatu horiei oihu egiteko: «Bestendako prestaketak finitu ezinik?!». «Zer besta eta zer bestondo?», marmarka. «Gerla duk, gerla!». «Fini dituk bestak!», ihardetsi die jaun merak, besoak espantuka higituz eta bele talde batek baino garrasi larriagoak eginez berak bakarrik.

Bertrand Riand jaunak sei semeak elkartu ditu etxeko atarian, Angelun. Haietarik zaharrena baitu kapitain Baionako Infanteriako 49. erreximenduan, bertze bat oraino kaporal, eta bertze bat lotinant, gainerateko hirurak lehen aldi soldadu joatekoak. Formazioan ezarriak, eskuak gibelean, adi dituen semeen aitzinean, mintzaldi bat egin du Bertrand Riand jaunak. «Orena heldu da kuraia guzia ager dezazuen», erran die fermuki, «nazioaren independentzia eta batasuna

bermatzeko, gure etxeak eta gure askatasuna, Errepublika bera, bermatzeko!». Koronel izana bera ere, erretreta harturik hamar urte lehenago, Rhin ibaian prusianoek inguratuak zituzten hiru soldadu frantsesei gertatuak gogorat ekartzen ari da Bertrand Riand zaharra, bihotz altxagarri izan dadin gerlarat doazkion semeentzat, non eta korrika ttipian agertu den Marie Riand, alaba bakarra. Atariko borta nagusia tarrapatan hetsi eta anaien herronka berean ezarri da, baliza handi bat utzirik oinen aitzinean, hesola bat bezain xut. Diskurtsoa eten du koronel zaharrak. Monokuloa altxatu, eta garbitu du mokanes zuri batez. «Norat zoazela uste duzu ordea? Gerla ez da emazteentzat», erran dio alabari zorrotz. «Gurutze Gorrian emana dut izena, aita, ene haurrideen zerbitzuko».

Etxeber erretorea, beretterra aitzinean duela xilintxa astinduz, urrezko ontzian ostia zuri ttipia, badoa bidez bide sakramentu saindua partituz erien etxeetan. Hazparneko xokoak korritzen dituela, belaunikatzen zaizkio bidean gurutzatu fededun guziak, salbu eta bihotz iluneko gizon bat edo bertze. Erretoreak lan erdiak eginak dituela, gibeletik lasterka atzeman du

Faustin Oihanburuk. Osaba hilzorian dutela eta, fite etxerat joan beharra dela azaldu dio erretoreari, hatsa hanpaturik. Beretterrari urrezko ontzia eman eta elizarat igorri du Etxeberrek, oliodura sainduen xerka. Oihanburutarren etxerat heldu direlarik Faustin eta erretorea, azkenetan atzeman dute Jean Oihanburu, Faustinen osaba. Arbola batetarik jausirik, zauri itsusiak eginak ditu, eta jaun medikuak azkena eman dio. Bizkarrezurra zartatua du gaizoak, saihets batzuk hautsiak bertzalde. Oliodura sainduen emateko doidoia heldu da beretterra oihanburutarrenganat. Mihise xuri batekin estali dute defuntua, sorbaldak eta burua bistan. Arrosarioa eman diote eskuetan. Begiak hetsi dizkiote. Izeba Graxianak xirio bat piztu du. Eta orenak joan dira negarretan eta otoitzetan. Hazparneko ezkila hasi da hil-zeinuak jotzen, lehentxeago aiduru hitseko bertze ezkila hots horiek eman dituen gisa berean. Faustinen ama, Anetta Oihanburu ari da biharko prestakizunetan, ostatuko lanak utzirik. Semeak mobilizatzeko deia baitu goizean goizeko, ez da izanen osabaren elizkizunetan; armadak deitua da Faustin, aleman makurkeriak betikoz akabatzeko. Beila lehen auzoek eginen dute gaur gauean. Bihar arratsean soineko ederrenekin beztitu, eta hilkutxan

emanen dute Jeanen gorpua. Etxeko sarreran ezarriko dute gorpua kutxan, bi xirio saihetsetan pizturik. Ura benedikatu du erretoreak, erramu adaxkak ber. Bihar, Faustinek ikusiko ez duen zeremonia horretan, Etxeber erretoreak *De Profundis* bat erranen du, eta *Miserere Mei Deus* kantatuz abiatuko dira etxetik, gizonek kutxa sorbaldetan harturik. Gibeletik izanen dute segizioa, lehen auzoekin aitzinean, senideekin eta gainerateko auzoekin ondotik. Faustinen amak badu arrangura bat, ez dela izanen gizon gazterik hilkutxaren eramateko, mobilizazio manu horren pean baitira guziak. Baita etxeko jaun batzuk ere. Nork eramanen du Jeanen gorpua oihanburutarren etxetik Hazparneko elizarat eta handik hilerrirat? Jaun merarekin solas eginen duela hitzeman dio Etxeber erretoreak. «Nik ere ez jakin... Baimenen bat beharko dut eskatu menturaz». Altxatzeko adinean dela bera ere. «Badakizue, orai elizgizonentzat ere ez da barkamendurik gerlarentzat». Zernahi gisaz, eta berak ezin badu, Mendiburu bikarioak eginen dituela zerbitzuak, ez arduratzeko. Etxeber jaun erretoreak kontsolatu du Faustinen ama gaizoa, erranez mobilizazioaren aitzinetik eginen dituela egin beharrekoak oro, Jean Oihanburuk izan dezan lurperatze bat arras egokia. Bertzerik ez

bada, orga batean eramanen dutela hilkutxa elizarat, eta handik hilerrirat.

Herio batean izkiriatu ditu azken ahapaldiak Jean Indak. Oker samar azken letrak, baina ulertzeko maneran bederen. Sukar batean amaitu du 24 bertseteko sorta hori. Mobilizatzeko deia bihar izanen dela jakin duelarik eseri da kadiran, sukaldeko mahaiaren aitzinean. Herio batean izkiriatu ditu azken ahapaldiak, birritan pentsatzeko astirik gabe. Iazko Baztango eta Errobiko uholdeak aurkeztuak zituzten gaitzat. Iduri zaio akabantza ezin hobea eman diela bertsoei: «Armadak eramanen / ditu alemanak / nola uholde tzarrak / Errobiko lanak». Sartu ditu paperak gutunazalaren barnean, zigilatu du, joan da Baionako Bourgneuf karrikako 69. zenbakiraino. «Hemen da lore jokoentzat bertsoen aurkezteko bulegoa?». Hamabortz egunen buru egitekoak dira lore jokoak, Iholdin. Zail izanen da, baina menturaz finituko da gerla orduko, eta joan ahal izanen du Iholdiko lore jokoetarat. Hamabortz egunen buruan finituko ote, gerla? Finituko da kazetek diotena sinestekoz, eta menturaz izanen du astia sariren bat jasotzera itzultzeko, segur

baita halako bertset sorta zoragarriarekin sariren bat irabaztea.

Intxaurrondo baten gerizpea, Kanbon. Ederreniako atarian, Etien Petit eta Jean Cazaux aulki luzean jarriak dira, adin handikoak baitira permititzen zaiena. Kontu berriak ezagutzen elkarrengandik, kontu zaharrak arraberritzen batak bertzeari, arno pitxer bat eskuraturik, kartetako lagunen esperoan. Jeani ez zaio oroimenerat heltzen, baina Etienek ekarri dio gogora hamalau baigorriarrena: lehen inperioaren aldi, Rhin ibai bazterrak utzi eta, pilota partida baten jokatzera jin ziren hamalau soldadu gazte haiena. Baimenik gabe partituak, Baigorrirat sartu, errebotean jokatu, irabazi, eta armadarat itzuli ziren, jin bezala. Austerlitzeko gudurat joanak, su zelaiko partida hura irabazi ote zuten ez du gogoan Etienek, nahiz eta saiatu. Jeanek, kontu horren berririk ez bazuen ere, gogoan du Eugen, Gaxuxaren seme gehiena, zeina orai aste batzuk herriratu baita Argentinatik. «Amerikanoak ere gerlarat joan beharrak izanen ote dituk?».

Baionan oro da aldamio, obra, burdina, harri, orga, zikin, kedar eta izerdi. Saint Esprit zubia handitu berri, Mayou zubia eraikitzen hasi, eta tren gararen handitzeko lanetan ari bertzalde. Seminario handian nahi lukete teilatua berritu, gainera. Langile espainolak, soldatetan urri, bertze nehork nahi ez dituen mando lan horientzat. Espainiako Portaletik San Leongo gurutzerat bide berri bat behar dute egin. 60 urteko langile batek min hartu du hor, sute bat pizturik. Gasaren tutua izan den, edo elektrikaren burdin hari bat, igarri ezinik ari dira jendarmeak. Auzoen erranei kasu eginez gero, gasa askatu, eta pipariren batek aurtiki zigarretak dio su eman. Itsuski zaurtua da, erietxean, 60 urteko langile espainol hori. Salbatuko den, ezin jakin. Berria kontatu diote sinagogaren parean, eta zeinua egin du Bettirik, txapela erantzirik. Adiskidea han utzi eta, abiatu da Bettiri karrikan beheiti, katedralari buruz, zaurturiko gizon horri otoitzean. Badoa Baionako gara eta tren hitsak gibelean utzirik. Badoa Saint Esprit plazako botika saltzaile eta jaun medikuen bulegoen artetik, Alsace-Lorraine bulebarra ezker utzirik. Alsazia; Lorrena; gerla han beharko dute bururatu gazteek. Bettiri bezala adinean sartuak direnei otoitza gelldituko zaie. Otoitza, Saint Esprit zubia iragaten

duela. Hor dira *brick*, hiru mastako, bapore eta goletak, Aturri gainean, gabarra salgaiz emokatuak, txalupak, ontziak; nitratoa, burdina eta ikatza ekartzen, arno, azukre, txokolate ekartzen. Otoitzean Bettiri, Reduiteko plazan, eskuinerat behatuz Bokaleko lantegietako tximinia garaiei, ibai bazterreko bulebarrari, non promenatuko baitira sehiak handikien haurrekin. Badoa Bettiri, errukiz betea Baiona arraberritzen ari diren langile espainol horientzat guzientzat. Ezkererat behatuz Baiona Ttipiaren gainean goititzen den Gaztelu Berrirat, pean duela Saint Andre eliza, Zuberoatik eta Nafarroa Beheretik heldu dilijentziekin. Eta badoa Bettiri, Credit Lyonnaisen egoitza –bada jaun euskaldun bat hor, Amerikatik emigranteek igorri txekeak kobratzen laguntzen duena– eta Herriko Etxea uzten dituela eskuin, Libertatearen plazan, Suprefetura han gibeltxoago zaindari. Badoa Bettiri Victor Hugo karrikari buruz, non laugarren zenbakian baitu egoitza Lague tindatzaileak. Gogoan du semearen hiletako arropak beltzez tindatzera eraman zituela botiga horretarat –galdatu eta hamabi orenen buruan egina zioten lana artoski–. Badoa Bettiri, hilik ote den ere ez dakien 60 urteko langile espainol horrentzat otoitzean, Bettiri bera baino doi bat gazteago den horren-

tzat. Badoa Gambetta karrikako bidegurutzerat, eta han utzi ditu, beti aitzinerat baitoa, Zurich asurantza etxea, Grands Magasins du Printemps, Au Robinsonen aterkiak eta Leon Bartheren armak; Dihartzeren bisuteria botiga eta A Soulard kinkaila saltzailea, Argenterie karrikan. Notre Dameko katedralaren plazarat atera delarik, Baiona hits eta guzia obra den honetan, otoitzean beti Bettiri, hara non Bouresmau jaunaren ikatz-garraiatzaile batek abantzu zanpatu duen eskorgarekin. Irri karkailaz ez dute bada hartu Charles Berrogain oihal saltzaileak, botigaren ataritik beha, eta karrikan horma saltzen ari den gizon mutur beltz gazte horrek? Arropak astindurik, otoitzak bet-betan ahantzirik, hartu du katedraleko sarrera nagusirat Bettirik, non eta galdetu baitio Bidegarai andreak, katedralaren aitzinean, ea ez duen bada gaur *Eskualduna* erosi behar. «Bada gerlako berririk?». «Zer gerla, ordea?». «Ezkilak joz orai iragarri behar dudana». «Zer gerla, diozu?». *Eskualduna* besapean sarturik, badoa Bettiri Baionako katedraleko ezkilak jotzera, gazteak mobilizaziora deituz, Alsazia eta Lorrena horietarat joan daitezen. Badoa Bettiri, otoitzak ahantzirik orai, Baionako ezkilak jotzera, azken 48 urteetan egin bezala. Badoa, dagoeneko ahantzia zuen ezkila

doinu baten jotzera, bere semea ezin baina bertze batzuen semeak iratzartzera.

Luhuson, bordagaraitarren etxean, senideak mahaian, amak plantatu jatekoen dastatzeko prest dira senide guziak. Bazkariko solasaldiak –laborantzako lanak, aro lehorraren makurrak, politikakeriak, azken bozkatzeak, kabalen eta jendeen eritasunak, auto istripuak, heriotzaren bat, zorrak eta etxe saltzeak, bele eta mikek baratzeetan egin desmasiak– oro isilarazi ditu Jean Bordagarai etxeko jaunak. Otoitz egiteko tenorea da, mahaian diren jakiengatik eskerren bihurtzeko Jaunari. «Mar-mar-mar» erraten duelarik aitak, «tar-tar-tar» ihardesten dute haurrek. Zortzi urte izanen ditu zaharrenak. Denbora luzez elkarrekin eginen duten azken apairua da. Finitu dutelarik, bortz haurrei bederazka eman die musu Jean Bordagarai aitak, bekokian, usu ez bezala. Helene emazteak isil-isil egotea deliberatu du, pentsatuz eta ez dela oren egokiena senarrari oroitarazteko andarka eta musean diru guziak galdurik jin zela etxerat bezperan.

Mizel Irigarai lekunberritarra eta bertze bi adiskide, bata baionesa eta bertzea landesa, soldadugoa finituri baina soldadu jauntzitan oraino, Bordelen dira tenore honetan, botiga baten aitzinean, arno xuri, bizkotxa, gasna, urdai, edo zer erosiko ebatzi ezinik. Oren biren buruan izanen dute Baionarateko trena, eta nahi lukete ahoratzeko zerbait eduki bidaian, etxerat eramanen dituen bidaian, non eta agertu baitira bi jendarme karrika buruan. Gerturatu zaizkie, eta erran diete mobilizazio aldi dela, zer mila deabru egiten duten karrikan soldadu jauntzitan, itzuli behar dutela kasernarat jauzi batean. Mizel Irigaraik eta haren adiskideek ihardetsi dute soldadugoa finitu berri dutela eta etxerateko trenaren hartzeko zain direla, bidaiarentzat arno xuri, bizkotxa, gasna, urdai, edo zer erosiko deliberatzen. Jendarmeek hartu dituzte aitzinean, eta itzuli Rocheforterat, nondik partitu baitira Mizel Irigarai eta bertze bi adiskideak goizeko lehen orenean, ustez eta soldadugoa finitu zutela, ustez eta etxerat eramanen zituen trena hartuko zutela gaur.

Gaxuxa eta Janamari Ugarte ama-alabek solasaldi xalo bat dute, Urruñan, beren etxeko atarian, iruten

ari. «Hitsa bai, joan den negua», alabak. Hotz egin zuela neguan, hego haizea altxatu zuela otsailean, suak sortuz, eta ondotik, gainera, eurite handiak izan direla, maiatzean hasi eta uztail arte. «Alaiagoa ez ote zen izan iazko negua, epelago, goxoago?», alabak. «Hago, alaba», amaren ordu: «Lehengo negua izan dinagu aurtengoa». «Lehengo negua?». «Lehengo negua, bai. Erran nahi baita negua bere tenorean, abendutik martxo arte, negu baliosa dela laborantzatik bizi behar duenarentzat». Bulta batez isil-isila segitu du alabak iruten, galdeak ihes egin dion arte azkenean: «Eta lehengo neguetan ere senargaiak gerlarat partitu beharrak izaten ote ziren?». Iruteari utzi dio Janamari amak, lehen aldi baitu senargai konturik entzuten diona alabari. «Gerlak beti izan ditun, lehengo neguetan eta beti». Eta iruteari lotu zaio ama berriz. «Zein etxetakoa dun?». Burua gorde du Janamari alabak, herabeturik tanpez: «Jean». «Larretarra?». Buruaz keinu ttipi bat egin du alabak, iruteari utzi gabe, baietz.

Monjolosen eta Ainhizen ez da bertze konturik. Nork edo nork, Maltxetaburu aldean, dinamitazko kar-

tutxo batzuk ebatsi eta zapartatu zituela bart gauean, Monjoloseko etxe guziak dardarikatuz. Lekunberriko hedexuriak izanak direla halako eta halako etxetan galde egiten. Hobendunak atzeman ezinik, kontua hedatu da Donapaleuko trenbide berriko lanetan ari diren espainol kara hitseko horietan ote diren ebasleak. Baina, kuidado, gamartearrek erran bide dute hemen bereko jende gazte batzuen obra izan dela. Erdibituak dira Monjolosen eta Ainhizen, espainolei buruz batzuk, herriko gazteei buruz bertzeak. Hedexuriek urratsik ez argitzen nehondik. Ganix Laxagek eman du ebazpena, gerla hastearen berri heldu delarik herrirat, zer eta hedexuri horiek hasi direlarik «ORDRE DE MOBILISATION GÉNÉRALE» letra larriak dituzten afixa batzuk lotzen arboletan: «Ez ote genukeen hobeki eginen kartutxo horiek gordez. Guziak baliatu beharko ez ote ditugun oraino».

Hatua eta balizak bart gauean oheratzeko prestatuak zituen Katixa Bonetbeltzek. Bihar behar zuen partida tristeak, igandearekin. Hilabete inguruko bidaia izanen zuen. Klara Bonetbeltz kusia joanen zitzaion Ellis Islandeko kontrolerat. Urte hasieran errana

zion, letraz, kontrol gogorrak izanen zituela Amerikako Estatu Batuetan sartzeko, baina arrangurarik ez izateko, kusi maitea han izanen zuela, behar ziren paper guzien kirrimarratzeko. Gobernamenduaren emigrazio agente Barbier jaunarekin mintzatua zen Katixa. Ordainketak eginak eta adioak, erranak. Dirua, bildua eta ontsa gordea. Hatua eta balizak, bart gauean apailatuak. Donibane Garazitik Bordelerat Barbier jaunak lagundu behar zuen taldea. Katixari errana zion Bordelen bazela Hôtes des Basques & du Béarn, garatik hurbil. Apairuak eta ganberak merke izanen zituztela, jendeen ahalen arabera. Barbier jaunak berak lagunduko zuela ontzirat. Gero, hilabetexka bat Atlantikoko uretan, buruilean Ellis Island famatua zapaltzeko. Han izanen zuen Klara kusi maitea, lau urte aitzinago harat joana. Familia on batean sehi lana hitzartua du Katixarentzat. Ingelesa fite ikasiko du. Partida tristea bai, baina ez du zertaz arrangura. Gaur eguerdian, ordea, sukalderat jausteko galdegin, kadiran jarrarazi, eta «Jaunaren bideak ezin asmatuzkoak izaten ohi dira», erran dio amak. Donibane Garaziko ezkilek mobilizazio deia egin dutelarik finitu da Katixaren bidaia, hasi aitzin. Amak xeheki azaldu dizkio arrazoiak: alaba bakarra dela, haurrideak –lau; gizonezko-

ak oro– gerlarat altxatuko dituztela bihar, aitama gaizoak bakarrik baratuko direla etxean, ez dela nehor izanen azienden alhatzeko, soroen ereiteko, pentzeen epaitzeko, baratzearen jorratzeko. «Zahartzen ari gaituzu guhaur ere». Etxea jaustera ez uzteko. Amerika hor izanen dela gero ere. Aste edo hilabete gutiren buruan finituko dela gerla, eta Amerika ez dela lekutuko, haurrideak gerlatik etxeraturikoan han segituko duela, eta izanen duela joateko tenorerik oraino, hori badu gogoa. Seme gehiena ezkontzekoa denez, ez dela emazteki gabeziarik izanen etxean. Baina gerlak iraun artean bederen beharko duela etxean baratu, Zaron. Idazteko letra bat Klara kusiari, bidaia gibelatuko duela jakinarazteko. Katixa Bonetbeltzek negar egin du sukaldetik ganberarat bidean. Masailak mokanesarekin lehortu, eta desegin ditu bart gauean dagoeneko apailatuak zituen hatua eta balizak.

Jeanette Bordaxuri eta Paskal Etxekopar senaremazteak, orai lau hilabete ezkonduak, elkarrekin gosaltzen ari etxeko sukaldean. Emazteak baditu galdeak, Senpereko merkatuan zer izan zen bart, eta senarrak baditu arrapostuak, gopor esnea hurrupatzen

duen artetan, ikusi zituenak oro azaltzeko xehetasun guziz: Arbonatik, Uztaritzetik, Ahetzetik heldurik errekardariak; auto berri horietarik zenbait, Saratik eta Ezpeletatik; xerri tratulariak; buxerrak; karroak, arbola azpi eta etxe aitzinetan barreiatuak, saski eta otarreak irekirik, oihal zurien gain zernahi saltzen, zela gasna, zela arrautza, zela baratzekari, zela fruitu; karranka batean oilo-oilarrak, garrasika ahateak, lasto gainean jauzika lapinak; zaldiak, putinka; bizkotxa saltzaileak, zapata saltzaileak; behi, txahal, biga, zekor, ergi... klase guzietarik azienda ederrak. Egin zuten pilota partida bat gaitza herriko gazteek, eta adiskideak musean aritu ziren Xilarrena ostatuan. Arbola azpi batean plantatu zen buhame bat, botila zenbait lerroan emanik, jendarmeak gibelean zituela, agerian armak eta ernai begiak. Gazte batzuk zituen bereganatu buhameak. Horra zertan zen tratua, Paskalek esplikatu Jeanette emazteari: zurezko eraztun batzuk behar zituzten botiletan sartu, libera batzuk irabazi ustez. Bazen josteta eta irria merkatuko bazterretan. Baina bazen kontu hitsik ere. Xantiago Fourcadek gizon talde bat zuen inguratua ostatu atarian, zenbait pipatzen, zenbait arno xorta baten hurrupatzen, jaun erretorea ere tarteko zutela. Xantiagok azaldu zuen joan

den astean batzar bat egina zutela Lurdesen, gorputz sainduko sakramentuaren ohoretan; jaun erretoreak baieztatu zuen. Aita sainduak igorri zuen kardinal bat haren izenean, eta baziren oraino bertze bederatzi kardinal, 200 apezpiku eta 8.000 apez, ehun mila fededunentzat. Jendeketa bat gaitza, Lurdeseko igandeko mezan, Santa Bernadetari erregutzeko Frantziatik urrun barreiatzeko gerla mehatxuak. Jean Ibarnegarai diputatu berria ere Lurdesen baitzen biltzar hartan, lagunei erran zien gerla bat izugarria eraikitzera zihoala, eta frantsesak oro beharko zirela gudukatu. «Zortzi egun baino lehen hasiko zela erran zuen Ibarnegarai jaunak», azaldu dio Paskalek emazteari, etxeko sukaldean, gopor esnea hurrupatzen duen artetan. «Zortzi egun...», Jeanettek, gosariaz ahantzirik. «Bai, zortzi egun izanen dira bihar», Paskalek, gopor esnea finituz. Ogiari ausiki egiten ari zaio orai Paskal. Emazteak ez du esnea finitu. Ogi papurrak ahotik mahai gainerat jausten zaizkiola, Paskalek: «Austriako jaun handi bat, erregeen seme bat, hil dute han nonbait». «Serbian, diotenez». Sukaldeko leihotik sartzen hasi diren ezkila hotsek isilarazi dute Paskalen mintzoa. «Otoitz egin dezagun», erran dio Jeanette emazteak, esku biak harturik senarrari. «Lurdeseko otoitz horiek gu-

ziek ez dute bada emaitza handirik ekarri», pentsatu du Paskalek. Baina gero, damuturik eta lotsaturik pentsamendu horiekin, fermuki lotu zaio emazteak gidatu otoitzari, pentsatuz eta ideia zoro horiek fueratu eta zintzoki portatzen bada emaztearekin larrutan eginen duela gerlarat partitu aitzin, behin bederen.

Urdozetik goiti abiatu eta, bide politik bada, landa eta baso artetik, mugarat heltzeko. Jakes Oihartzabalek begiak hetsita eginen luke Urdozetik Erratzurateko bidea; Jakesek, kuraiatzeko den edo, bere buruari erraten dio begiak hetsita ere eginen lukeela. Bide ederra da, guardek sobera begiratzen ez dutena, arteka ez bada. Behin Urdozetik atera eta Erratzura heldu arte, abelgorri batzuk, ez da gehiagoko arimarik izanen. Kaiet anaiak iaz hartu zuelarik Argentinarateko bidea, errazago izan zitzaion: egun argiz eta Bordeleko portutik partitu zen. Baina erokeria litzateke tenore honetan Bordelerat joatea, errana dio aitak Jakesi: «Jendarmeak izanen dituk garetan, eta paperak galdeginen ditiztek». Aita-semeak bazkalostean adostu dira Erratzukoa izanen dela bide segurena, gero Pasaiako portuan entseatzeko Argentinarateko txartel baten

eskuratzen. Eta, bistan dena, gauez beharko du egin bidea. Jakesek baditu oren batzuk, beraz, arrantzarat joateko adiskideekin, pertola eta mahungak harturik azkeneko xarboren bat atzematen entseatzeko. Xantzarik bada, taloaz gainera izanen du bertze apairurik ere gauean. Eta begiak hetsita eginen du bidea; segur da.

Adolphe Berdeko enoatua da, sozialistekin hastiatua, nardatua. Funtsean, aitari etxean entzunak ditu errepikatzen, «Errepublikano deabru horiek!», «Infernuko bestia tzar horiek!», «Sozialista urte horiek!». Berotzen dute adiskideek Baionan, Marengo karrikari buruz doazela: «Hori, Berdeko, errazu!». Bi aste bertzerik ez dira «sozialista urde horiek» Atharratzen egin dituztela apairuak eta mintzaldi harroak, uztailaren 14ko ospakizunetan. «Errazu, Berdeko!». Ez zituzten bada alemanak hauspotu?! Berdekoren adiskideak, harridura keinu eta espantu artean, Marengo karrikan. «Futxo!». Gerlarik ez, haurride behar zutela aleman tzar horiek eta frantsesek. «Errazu, Berdeko!». «Sozialista deabru horiek...». «Errazu!». «...behar genituzke igorri alemanenganat guziak, leher eta zapart di-

tzaten ukaldika!». «To, Berdeko!». «Hori, hori!». «Eta Jean Jaures?», jarraiki zaio Berdeko, adiskideen bitoreek hanturik. «Ez du bada grebarat deitu gerlaren aurka?». «O! Baina, baina...». «Zer da hori, Berdeko?». «Nork errana?». Asaldura eta izialdura, Berdekoren ingururat elkartua den lagunarte gaztean, bihar zizpak hartzera kuraios partituko den gazte talde horretan. «Errazu, Berdeko!». «Infernuko bestia tzar hori... Bart kalitu zuten, Parisen». Baiki, Croissant kafetegian hil dute, tiroz, Jean Jaures buruzagi sozialista, Alemaniari gerla deklaratu bezperan. «Ontsa egina!». «Bai alafede!». Berdekok ez du erran azken hitza oraino: «Lastima». «To, Berdeko, zertako lastima ordea?». «Lastima... nihaurek behar nuen eta kalitu!». Besoetako gihar eta zainak hantzen zaizkiola, eskuekin alegiazko lepo bat bihurrituz, lurreraino belaunikatua da Berdeko. Adiskideak karkaila eroetan lehertu dira zubiaren erdian, eta Julien Bizkaik oroitarazi die ortzegun gauekoa, Elosu doktorea eta bertze hiru sozialista mando horietarik atzeman baitzituzten karrikan traktak partitzen, Saint Esprit auzoan gerlaren kontrako batzar bat egin asmoz. «Sans votre consentement l'oeuvre de ruine et de destruction est impossible» izkiriatua zuten paper tzar horietan. Hilabete batzuk

baizik ez ziren bazter nahastaile horiek berak ibiliak zirela auto batzuetan *Internazionala* kantatzen eta «À bas les trois ans» izkiriaturik oihal handi batzuetan, hiru urteko soldadugoaren kontra. «Urde alferrak!». Errabiatuak, beraz, ehunka gaztek buru egin zieten traktak partitzen ari ziren deabru gorri horiei, eta batzarrik ez zuten egin azkenean. Kokoteko eta ostiko, gazteek izan zuten haserrea non erauntsi, bederen. Garat jaun merak gidaturik joan ziren gero Arma Plazarat, 49. erreximenduko musika bandaren kontzertua han izaki. *Le Chant du Départ* eta *La Marseillaise* joarazi bandari, eta nolako esku zartak Arma Plazan. Fite bai fite 49. erreximenduko peza izanen diren gizon gazte horiek, ortzegun gaueko oldarra oroitu eta, eman zaizkio *La Marseillaise* kantatzeari, bele batzuen azantza ederrago bailitzateke, Marengo karrikari buruz doazela.

Debidart erretoreak izan du egun bat dorpea, hagitz dorpea, eta gogoetan da une honetan, aperitifa eskuan. Hasteko, goizean hartu behar izan ditu katixima ikasle muin gogorreko batzuk. Bat hasi, eta segitu zaizkio guziak galde izugarriak eginez. «Mesias delako

hori, zer da orduan? Goitizen bat? Etxearen izena?», galdegin dio Jauregiberriren seme pulo horrek. «Eta San Jose hori nola bizi zitekeen emaztea hunki gabe?», harroturik, postari gorri horren seme mandoak. «Nik ulertzen ez dudan kontua da, otoi azal ahal balit berorrek, zera... Ama Birjinak hartu zuen hazi hori nondik sortua zen», Saldiserenak. Haur deabruak. Beharrik garaiz manatu dien isiltzeko, deabruaren mihitik ez gehiago hitzik errateko. Beharrik, garaiz tinkatu dion belarria Jauregiberriren semeari, hura izan baita sua piztu duena, «Mila deabruen urde hori!». Zer gauzak erranarazten dizkioten ere erretore gaizoari. Baina hori balitz soilik, bertzerik ez. Mezaren garaian, *Confiteor*, *Introit*, *Kyrie eleison*, *Oremus* eta horiek guziak pasaturik, Ebanjelioa irakurri, ostia eta kaliza sainduak altxaturik, *Nobis quosque peccatoribus* eta *Pater*-ak erranik, eliztarrei zuzendu zaielarik *Agnus dei* errateko –«Jainkoaren bildotsa, munduko bekatuez kargatu nahi ukan duzuna, garbi itzazu ene bekatu guziak, zure odolean hain kario erosi duzun bake lurra ukan dezadan zurekin, nire lagunekin eta nire burua-rekin»–, Mailluket harro horrek ez du bada ahotsa goititu elizan: «Bake ederra izanen dugu, bai, lurrean!». Jo eta kaliza aurtikiko zion bururat managaitz horri, ez

balitz eliza barnean gertatu. Azkeneko ebanjelioa behar izan du aldatu, inprobisatuz, Mailluket deabru horri hatza luzaturik: «Jaunaren erreinua ez da izanen mihiluzeentzat eta tenorea delarik isilik egoten ez dakitenentzat!». O, baina hori balitz guzia, fitsik ere ez litzateke! Ainharbeko elizako ezkilak jo behar izan ditu eguerditan, herritarrei gerla heldu dela jakinarazteko. Eta orduan, etxerat heldu zela, sumatu ditu bertze gazte zoro horiek, gerla apaizek sustatua dela erraten. Haietarik bat, ohartu delarik Debidart erretorea heldu zaiela, «Le corbeau!» erran, eta belearen karranka egiten ez da bada hasi, mando tzar hori? Hartu harri kozkor bat lurretik eta, ez bat, ez bi, zuzen aurtiki dio erretoreak kopeta erdirat. Bele karrankak eginez kukutu zaizkio gazteak lasterka, oi ainharbear hauek. «Ez da zereginik ainharbear mando hauekin», pentsatu du Debidart erretore jaunak, aperitifari hurrupa eginez. Bederik gerla tzar horrek ainharbear harro horiek guziak fundituko balitu, ez luke damurik izanen Debidart erretoreak. Eta orai, pentsamendu hits horietan itoa delarik –«Oi, zeinen egun dorpea, hagitz dorpea»–, behar luke itxaron, edo behar luke, paper zuri bat eta luma harturik, galdea egin herriz

alda dezaten? Eskaria luzatu apezpikuari? Zer bertzerik behar ote du sufritu zeruaren irabazteko?

Rene eta Joseph Ameztoi anaiak Errobi ertzetik heldu dira Baionatik Milafrangarat, merkatuan saldu gabeak dituzten angula egosiak janez eskutaraka. Iratiko oihaneko zurak Baionako porturat, kontrako bidean beraz, daramatzaten ontziekin gurutzatzen dira. Portuan nahastekatuko dira barnealdeko mendietako artzainen artile kargamentuekin, zeinak trukatuko baitituzte kakaoagatik, gariagatik edo arrainengatik. Rene eta Joseph Ameztoik ikusiak dituzte truke horiek merkatuan. Moltsa diruz dakarte, angula gehienak saldurik. Baina angula soberakinak eta moltsa beteak soilik ez, notiziak ere badakartzate Baionako merkatutik. Gerla gaitz bat hasiko dela aleman doilorren aurka, eta gazte guziek beharko dutela bihartik aitzinerat armadan izena eman. Etxeko lurretan sartu direlarik, gabarra askaturik dela ohartu eta, otarreak Joseph anaiari utzirik, Errobiko uretarat murgil egin du Renek, gabarra galduaren xerka.

Oilarrak kukurruku jo aitzinetik esnatu da Kattalin Aizager. Ohetik jalgi aitzin, burua leihorat itzuli eta, ilun da oraino kanpoan. Bertze alderat biratu du burua, gibeletik estu tinkatzen ari zaion senarra esnatu gabe. Gaueko mahaia, eta haren gainean lanpara ttipia, ezantzarekin sutzen dena; kadira ttipia, eta haren gainean soinekoa eta buruko zapia, bart gauean utzi zituen berak, gaur goizean berriz beztitzeko zain; hormaren kontra kutxa, eta haren gainean brodatu bat, amak dotean emana, zuriketa bat hartuko lukeena; brodatu maiztua, eta haren gainean erramu benedikatu adaxka batzuk. Clement Ibarrart senarraren besoa sumatu du kamisoiaren petik gerria estutzen. Esnatu da beraz. Haragi zati gogor bat sentitu du gero ipurmasailen aldean. Begiak hetsi ditu Kattalinek, lo balitz bezala. Haragi zati gogorrari bidea aurkitu dio senarrak; gorputza beheitituz, emazteari zangoak apur bat irekiz, Kattalinen barnerateko bidea hartu du senarrak, hatsanditurik. Lo hartzen saiatu da Kattalin, otoitz egin du loak har dezan oilarrak kukurruku jo arte bederen. Lo egin. Gero eta hats hanpatuagoa du senarrak. Lo egin ahal baleza. Inarrosaldi batzuk, gero eta basagoak. Lo, poxi batez bederen. Intziri egin du Clementek. Eta haragi zati bigun eta busti

bat atera du Kattalinen zangartetik. «Esnatu ez banintz, bederen», Kattalinen gogoeta: «Bietako bat esnatu ez balitz bederen». Hasperen ttipi bat egin eta bere alderat biratu du senarrak gorputza. Zutitu eta, fitsik ere erran gabe, galtzoinak beztitu ditu. Ekia jalgitzen hasia da Garruzen, eta argi zirrinta bat sartu da ibarrartarren etxeko ganbera nagusiaren leihotik. Begiak hetsita segitzen du Kattalinek, baina itsu ere sentituko luke argi zirrinta hori noiz hasi den kutxaren ezker hegala argitzen. Itxarongo du bulta batez, begiak hetsirik, argi errainuak kutxa gaineko brodatua argitzen has daitezen arte, ogi soroetarik heldu diren beleen karrankak isil daitezen arte.

Uztail hondarrean istripua izan zuen Urdiñarbeko eskola laikoko haurren orgak. Mauletik etxerat heldu zirela, eskola laikoek festa egin baitzuten Zuberoako hiriburuan, gurpil bat jalgi zitzaion orgari, eta xantza izan zen amildegi handiagoa ez suertatzea parean. Errejenta zen orgaren gidari, hogeiren bat haurrekin; zamaria zen kolpatu, zango bat bihurriturik; haurretan, nehork ez zuen zauri itsusirik. Lazare arotzari eraman zioten orga, konponduko ote zuen. Errejenta

Maulerat joan zen inkestan, eliztarren batzuek eskola laikoari «sabotajea» egin ziotela uste baitzuen zinez. Inkestak ez zuen ondorio argirik eman. Ezbeharra baino ez zela suertatu, hala hedatu zen herrian; eta errejenta zoratzen hasia zela, hori ere bai. Itsu eta gor inguruari, giristinoak eskola laikoko haurrak hiltzen saiatu zirela tematurik segitzen baitu oraino, errejenta ez da ohartu ere armak hartzera deitu duten ezkila hotsekin. Adiskide batek oroitarazi dio soldadugoko paperen xerka joan beharra dela. Zuberotar horiekin hastiatua eta hisiatua da errejenta honezkero, ordea. Emaztearekin solas eginik, diru gehienak haren izenean ezarri, libera batzuk hartu moltsan, eta Larrainerat abiatu da, bihar goiza argitzeko muga iragateko esperantzaz; alderantziz eginen du espartingileen bidea. «Hilabete bat izanen da, ez duzu zertaz arrangura; eskola sartzerako finituko da gerla, eta etxerat itzuliko naiz berriz». Baldin eta arte horretan giristinoek ez badituzte eskola laikoak funditzen, pentsatu du errejentak, emazteari fitsik erran gabe halere, ez dezan hark ere pentsa senarra zoratzen hasia duela.

Hamalau urteko mutiko batek izeba hil omen du Baigorrin, belaskotarrenean, etxeko sukaldean, jolasean ari zela, eskopetarekin tiro eginik. Belaskotarrekin etsaitua den sendi bateko aitak erran omen du, etxeko sukaldean hark ere, «Lastima aitari ez jo izana». Hori aditurik, amatxi hasi da zeinuaren egiten, «Aitaren, semearen eta...», baina oroituz eta belaskotarrez mintzo direla, tanpez isildu da, zeinua bururatu gabe, eta eskuak ezarri ditu, bata bertzearen gainean, magalean.

Eskiulatik ere heldu dira mezuak espainolekin izan direla afera itsusiak. Etxebarnian sartu eta lapurretan atzeman dituztela haietarik bi; belartegi batean lotan, bertze bi; gurutze bati ostikoka ikusia dutela bertze bat oraino bide bazter batean. Ez dira hainbertze aste Ligin kasaila gorria eragin zutela 700 gizonek greban altxaturik. Lau jendarme brigada igorri zituzten langileak apaltzera. Langile espainol eta gailegoak dira hor suari eragiten, Ligi eta Santa Grazi xoko horietan. Italiarrak ere badira obra horietan, onik ez batere. Nagusiek 120 kanporatu zituzten grebaren ondotik. Bertze bat justiziaren eskuetan eman zuten, Espainiak galde

egina ziolako harengatik Frantziari. Kalixtrok ez du dudarik, Santa Graziko eliz atarian, mezaren ondoko eleketan ari, erretoreak eman baitu gerla handi bat hastera doan berri: «Hemengo obra horiek utzi eta espainol eta gailego horiek guziak behar lirateke igorri Alsaziako obra horietarat, lehen lerroan ezarriak». Pierre Agerrek, hitzetik hortzerat: «Batailoi ederra behar zuketen osatu, mutur hits horiekin, beldurtuko zituzketen alemanak oro». Mari Jeanne Errekaltek finitu du eleketa: «Ez dituzte horiek gerlarat igorriko; guk beharko dugu hil, urde horiek segi dezaten gurutzeen uzkailtzen eta etxeen ebasten».

Amatxi Katerina eta Aitatxi Tomas sardeekin, ilobasoak arrasteluekin, belarrak harrotzen ari dira Ziburuko pentze batean, hobeki lehor daitezen. Azkainerat heldu den buhame komediante arrotz aldra horri buruz solasean ari helduak, sugandila bat atzeman nahian lotu dira ilobasoak. Azkaineko pilota plazan zuloak egin, txapitula ezarri eta herri guzia inarrosi zuten buhame horiek, beren zinbal, atabal, tronboi eta turuteriekin; herriko haurrak arranguraz, ezin jokatuz pilotan. «Nahi duten guzia eginez hor dabiltza», aita-

txi Tomasen epaia. «Horiek bezala ibili behar bagenu guk, fite genituzke hedexuriak gibeletik». Lotu dira aitatxi eta amatxi buhameen ohituren kritikatzera: eskean edo lapurretan ibiltzen direla, haurrak beren gisara bataiatuz erreketan, abere gazteak zahar balira bezala saltzen eta klase guzietako jukutriak antolatzen lanik egin gabe bizitzeko. «Orai sortu duten gerla hau ere, haiengatik beharko dugu egin»; segur izanen dela jukutriaren bat asmatzea, soldadu joan ez daitezen. «Zer dira ba? Beltzak! Petril horretako beleak baino beltzagoak!». Arte horretan itzuli zaie Joanes semea, Herriko Etxerat joana baitzen mobilizazioari buruzko argibide eske. Entseatu da jaun merarekin hautsi-mautsi baten egiten, etxean gordea duten urre gorri poxi hori baliatuz. Debaldetan. Altxatuen artean eman dute Joanesen izena. Jaun meraren kontra sakreka lotu da aitatxi Tomas, sardea inarrosiz.

Eugen Mendiri Atharratzeko Herriko Etxeko idazkaria zainak airean dabil. Kusi baten sortze datak aldatzea galdegin dio izebak. Janpierrak lau seme-alaba ditu, eta 44 urte. Territorialetan eramanen dute mobilizaturik, baldin eta kusi idazkariak ez badu asmatzen

zer edo zer. Egin dezakeen bakarra, otu zaion bakarra, Janpierra Mendiriren izena sortze agiritegitik ezabatu, eta bizpalau urte lehenagoko liburuan ezartzea. Baina nehoiz ez du tintarik ezabatu behar izan agiritegian... Nola eginen du halako jukutriarik, ez ikusteko maneran? «Karatxo! Kusi madarikatu hori... Sor zitekeen hamar urte lehenago!».

Bi kontrabandista atzemanak izan direla bart gauean. Goizetik dabil zurrumurrua, eta Ainhoako emazteak hasiak dira arrosarioak higatzen sukaldeetan. Gizonek berriak galdatzen dituzte karriketan. Nehork ez du segurantzarik ainhoarrak diren. Gazteak direla, hogeita hamabortz pintako ontzi bat zeramala batek bizkarrean. Horretan kito. «Baliteke kontrabandoan ari diren guziak ez diren aberasten, baina ez da nehor izanen kontrabandoan ohorea galdu duenik». «Ez, ez, kontrabandista ez da ohoina, klarki erranen dizut». «Guk hazten ditugu eta guarda horiek! Zer uste dute bada?». «Gure beharra badute horiek». «Eta gero, herri honetan ez zen lehenago kontrabandorik, zeren ez zen mugarririk». «Arrazoi handia». «Zertako eman dituzte muga horiek Dantxarian?». «Kontrabandoa ez

da bekatu, jaun omonierrak eni errana». «Nihaur ere entzuna naiz, gizonen legeen kontrako egintza bat izanik ere, kontrabandoa ez dela Jainkoaren legeen kontrako». «Auzapezak ere badira eta kontrabandoan arizanak». «Laborari gaizoak bere familia haztekotan zer du bertzerik, bere burua kontrabandoko arriskuetan sartzera bortxatzea baino?». «Gurean betidanik izan gara guziak kontrabandistak, ez plazerez, baizik eta beharrez». «Guhaur ere bai. Espainiatik ekartzekoak ziren kabala batzuen begiratzera joana zen gure aita eztei bezperan, horra egia». «Guarda horiek senideak dituzte ere kontrabandoan ari direnak!». «Elkarren beharra ez dute bada guardek eta kontrabandistek!». Emazteak, Ainhoako etxeetako sukaldeetan, arrosarioen higatzen, guardek arrastatu gazteak ez daitezen etxekoak izan. Gizonak, Ainhoako ostatu-karriketan, ahapeka mintzo, berrien galdatzen. «Eta zer izan zen hogeita hamabortz pintako ontziaz?». «Konfiskatu izanen dute». «Bai naski, sotoaren gizentzeko!». «Bo! Zer den ere, fite izanen dira libro». Mariano Bethek azken hitza: «Libro, bai: gerlarat igortzeko!».

Arnegiko basoetan, haritz eta pago arteetan aitzurrekin eginiko zabaldietan, txondorrak ketan. Filipe Lurok artatzen dituenak izanen dira oparoenetakoak. Elektrika hori agertu denetik eskasten hasiak dira ikazkinak, baina bere langintza atxikitzen du Lurok, eta arteka tabakoa landatzen. Kusi batek mugaz bertze aldetik ekartzen dizkion tabako haziak aldatzen baititu txondorrek beroturiko lurretan. Guardek atzeman dituzte tabako landare horietarik zenbait, eta sasi artean itxaron diote Lurori. Arrastaturik eraman dute, etxea miatu diote, tabako landareak oro konfiskatu. Amanda ordaindurik, libro heldu da Luro Donibane Garazitik Arnegirateko bidean, beleak harrika uxatuz arteka. Zubi erdian muga, han karabineroak, errezibidorea nagusi dutela. Zubiaz bertze alderat, Espainian, 30 sosetan merke emanen liokete apairua. «Espainian bazkaldu eta Frantzian kafea hartu, aberatsek bezala», Luroren gogoetak. Horixe eginen du Arnegirat heldu orduko, libro dela ospatzeko. Txokolategirat joanen da bertzela. Frantziako partean, zubia iragan eta, herriaren gainean eliza. Eliz-dorrearen goiko puntan, Marlo ezkila deika ari. Ambroise Goitino erretorea dandaka ari zaio ezkilari. Frantziako azken erreka zolako azken herrixkako eliza ttipiaren tontorretik dato-

rren dei hori zeri zor zaion asmatu ezinik heldu da Luro, etxeko tabako hondarrak pipatuz. Ezagun egiten zaizkio zeinuak, baina igarri ezinik doa, harik eta herriaren sarreran Piarres Hasketekin topo egin duen arte. «Ez zara oroitzen orai bortz urte egin genuen martxa?». Baiki, herriko 37 gaztek martxa egin zuten eguneko zeinu berak dira Marlo ezkilak gaur ere ematen dituen horiek. Oro soldaduz bezti, Xarlex Mokozainek gidaturik egin zuten martxa, ofizioen ondotik, erretorearen etxerat. Arno gozoa eman baitzieten ezpainen bustitzeko. «Zer duzu, beraz? Soldadu giristinoen martxa izanen dugu aurten berriz?». «Ez duzu jakin berria?».

«Muturra xehatuko diot». «Erran berriz», Santosek. «Muturra xehatuko diot urdekume horri!». «Sinesten duzu erran duzuna?», Santosek. «Sudurra birrinduko diot!». «Erran berriz, egiaz sinetsi arte!», Santosek. «Behin suntsitu eta aski izanen da bada?». Santosek irri egin dio Etien Bonnaten arrapostuari. Muntra sakelatik ateratzeko, harea zakua askatu du Santosek, eta Etien hatz odolduak idortzen hasi da galtzetan, gerla handia hasi aitzineko istant honetan. «Kosta behar

zaizu nehoren sudurra birrintzen gurinezko eri horiekin», kitzikatu du Santosek: «Joateko tenorea». Hatzak estutu ditu Etienek, eskuak ukabildu, zainak tenkatu, eta lepoa askatu ezker-eskuin. «Jaso *punching-ball* hori. Ikuzteko baduzu ura bazter horretan»: Santosen hatz luzea gimnasioko bazterrerat luzatua, non baita errobineta bat, pegarra eta palankanarekin. «Hetsi borta ateratzean. Ez dut maite gauez katuak sartzea. Itzali argiak jalgi aitzin, eta ireki leihoak». «Zinemarat eramanen nauzu gaur beraz?». «Zortzietan, Arma plazan». Sarreraren ondoan dilindan utziak dituen jakakapeluak harturik badoa Helio Santos karrikari buruz. Borta ondorat heldu delarik, dei egin dio Etienek: «Santos!». Gibelerat behatu du entrenatzaileak. «Suntsitu eginen dut!». Irriz hetsi du borta Santosek. Etien Bonnaten eta Lasarteren arteko boxeo matxa 1914ko buruilaren 13an izanen da, igandearekin. Jokatuko da Baionako Moderne trinketean, goizeko hamaiketan. Ezarri du mahai gainean 15.000 franko boxeolari bederak. Helio Santosek hetsi zuen tratua Lasarteren managerrarekin. Baionan boxeo matx bat antolatua den lehen aldia baita, suprefetak sinarazi dio paper bat Santosi, neholako kasailarik suertatzen bada okupatuko dela Santos bera gastuez. Bertzalde, Avirone-

koek izena dute jokoan, matxari sostengua emanik eta boxeolari hasberriari entrenatzeko lekua utzirik. Gainera, berria hedatu delarik, sortu dira aldeko eta kontrako bazterretan: *La Semaine*-k igorria die mezua irakurle sinestunei, ez daitezen joan matxaren ikusterat; «deabruzko ikuskizun» izendatua du. Axola handirik ez Santosi, publizitate ona irizten baitio: alde eta kontra, mintzatuko dira guziak matx horri buruz. Eta Lasarte zanpatuz gero, udaberrian Bordelerat joateko gisan izanen dira, matx bortitzago baten entseatzeko, arerio azkarrago baten kontra probatzeko eta, ontsa eginez gero, maila bat goiti igateko. Etien Bonnaten izena barreiatuko da Atlantiko ertzean, eginen du bide boxeoak lur hauetan ere, eta anitz diru irabazteko xantza izanen du Santosek. Irabazi beharra dute buruilaren 13ko matxa beraz. Irabaztea, ez da bertze aukerarik. Boxeo ingelesa ez da ezaguna Baiona inguruetan. Badira, aldiz, savate praktikatzen dutenak. Boxeo frantsesa. 1900eko Pariseko joko olinpikoetan gimnasia ariketa gisa onartua zuten savatea, baina arriskutsuegi jo eta baztertu dute gerora. Kolpeak, eskuekin ez ezik, zangoekin ere tiratzen ahal dituzte savatelariek, eta bastoiarekin ere jokatzen ahal dute. Santosek Bilbon izan zuen savatearen berri lehen

aldiz. Auskalo zer zorretarik ihesi Bilbotik Miarritzerat heldu aitzin, Donostian egin zituen egunetan ezagutu zuen savatea, Club Deportivo Esperanzan. Baina Santos boxeo ingelesean trebatua zen, Gimnástica Zamacoisen, han Bilbon, Aranarekin eta Amilibiarekin. Londreseko joko olinpikoez geroztik bide egiten hasi zen boxeo ingelesa, borroka frantsesa baztertuz. Eta, bertzalde, Santosek ez zituen maite ostikadak. «Mandoek tiratzen dituzte ostikoak. Gizonak behar du eskuekin borrokatu, gizonen arteko borroka izanen bada». *Jab*-ak, *cross*-ak, *hook*-ak, *uppercut*-ak, *crochet*-ak... Horiek bai kolpeak. Miarritzerat heldu eta, Etien Bonnat ezagutu zuelarik, fite antzeman zion ez zuela fitsik ere balio boxeo frantsesarentzat; besoetan zuen indarra, ez zangoetan. Konbentzitu zuen, eta orai saltsa ederrean sartuak dira biak: matxa jokatu behar buruilaren 13an, eta gogor entrenatu behar bi hilabete eskas hauetan. Horregatik, Santosek zinemarat eraman nahi du Etien, lehenago nehoiz holako aretorik zanpatu gabea baita. Oren eta erdiko film bat emanen dute. Jack Johnsonen eta Jim Jeffriesen arteko matx bat, 1910ekoa. Renon, hamabortz roundetan, Johnsonek knock out utzi zuen Jeffries. Urteak geroago, azkenean, Europarat heldu da filma, Amerikan debekatua

izan ondotik. Pisu astunen munduko txapeldun izan zen artean, Johnson beltzarekin borrokatzeari uko egin zion Jeffries zuriak. Beltza munduko txapeldun egina zen zuriak erretreta hartu eta segidan. Gizon zuriek boxeolari zuriak igorri zituzten Johnson beltzari buru egitera: beltza beti garaile. Erretreta hartu eta sei urtera, Jeffries zuriari gogoa eta moltsa berotu zizkioten gizon zuriek, Johnson beltzari munduko titulua ken ziezaion. Baina Johnson beltzak knock out utzi Jeffries zuria, hamabortz roundetan, Renon. Beltzak karriketarat jalgi ziren, poza ospatuz, eta poliziek hogei bat lagun hil zituzten, beltzak guziak. Erbesterat ihes egin zuen Galvestongo erraldoiak; Espainian ibilia zela entzuna zuen Santosek, baina esperantzarik ez baitzuen Johnson berriz borrokatzen ikusteko, filma ikustearekin akort egin behar. Bertzalde, Etienek norekin ikasiko du Galvestongo erraldoiarekin baino hobeki? *Jab*-ak, *cross*-ak, zango-gerrien mugimenduak... Poliki moldatzen da Etien, baina bi hilabete eskas dituzte matxaren prestatzeko. Ikasiko du zerbait film horrekin. Santosek uste du Georges Carpentier adina izatera hel litekeela baiones gaztea. Etienen gorpuzkerak eta higitzeko manerek badute zer bat Carpentier oroitarazten dutenak izan ere, nahiz eta gogor beharko

duen entrenatu haren mailarat heltzeko. Hori, naski, ez dio nehoiz erranen Etien berari. Errazago erranen dio «Zer eginen diok hik mando horri, gurinezko eri horiekin?». Halakoa du estiloa Santosek. Amorraraziz berotzen ditu apopiloak. Egiaz matx handia izanen zen buruilaren 13ko hura, nehoiz jokatu izan balitz.

Luzien Lavielle botikaria eta haren hiru adiskide Baionatik Miarritzerat joanak dira oinez, eta bidean goseturik erabaki dute bazkaltzea han bereko ostatu batean, terrazan jarririk. Lau adiskideak baitira etxe hoberenetarik, harramantza handirik gabe mintzo dira bihartik aitzina hastekoa den gerla horri buruz. Guzien etxeetan solas ezaguna da azken egunetan. Heldu behar ez zuen eguna bazen ororentzat, heldu delarik ez du nehor ezustean atzeman, eta ez du nehor ttipituko mobilizatzeko deiak. Lavielle, zinez harremanetan baita politikari baiones bizkorrenetarik zenbaitekin, kadiratik jalgi da, gizon pulo bat, oro jauntzi zuriz, karrikan goiti igaten ikustearekin bat, sehia terrazan zerbitzatzen ari zaien kafeaz ahantzirik. «Ez duzue ezagutu?», galdegin die adiskideei. Ez, nehork ez du ezagutzen jauntzi zuritan karrikan goiti oinez doan

gizon pulo hori, kohorte bat gaitza duela gibeletik. «Porfirio Diaz!». «Mexikoko presidente ohia dugu beraz?». Emazteño pinpirin eta gizontto galai zenbaitez inguratua doa Herriko Etxearen alderat, Mazagran karrikari buruz, urrezko ukabila eta burdinazko kirtena dituen makila airoski higituz. Martin Etxegaraik, zirtoentzat prest beti, garrasi batean, eskua aho ondoan ezarririk oihartzun egiteko: «Alfonso XIII.arekin izanen du hitzordu, billar partidarentzat». Eskerrak gorreriak joa den Mexikoko presidente ohia. «Gure aitak errana, Alemaniako Gillen kaiserraren adiskide dela gizon hori», Luzienek eman datua. «Tekila eta koñak gau batez Napoleoni bibaka entzuna dute», Jean Salaberrik, kafeari hurrupaka. «Magazin handietako merkealdietarat eramanen ditu ilobasoak; hamasei ba omen ditu», Silvain Tucouletek, lepoa Porfirio Diazenganat bihurturik. «Hori dugu beraz gizona». «Kafeak hoztuko zaizkigu». Kafeak ez, baina solasa berotu da handik aitzinerat. «Gerlarekin fite alde eginen du». «Mexikorat ez dela itzuliko errana du bada». «Bistan dena, errebelde horiek ez dute atsedenik izanen Mexikoko Gobernamendua eskuratu arte». «Gerlak bazter guzietan, adiskideak; gerlak, odolaren berritzeko». «Bulta

batez gerlak utzi, eta eginen dugu mus partida bat, adiskideok?», epeldu du solasa Martin Etxegaraik.

Itsasuko eliza XVII. mendean jaso zuten, Pedro Arostegi indianoaren diruarekin. Urrez eta harribitxiz egin kaliza bat omen da eliza barnean gordea nonbait. Urte anitzez hedatu hitza da. Pettan sartu delarik bazkalostean ezkilak jotzera, han atzeman du gizonezko bat xokoen miatzen, kaliza horren xerka hain segur. «E!» garrasi egin diolarik, aztoratu da gizona, ihesbide bat probatzen ahalegindu da, hain zorte txarreko, ezen egin baitu laprast, eta hartu baitu kokoteko handi bat aulki baten kontra. Joatera utzi du Pettanek, aski zigor izan duelakoan hondar kokoteko hori. Usatua da Pettan; zenbat jende ez ote den entseatu kaliza horren aurkitzera. Gerla hasiko delarik hedatuko dira beharrak, eta izanen dira oraino ebasle gehiago. Bo. Ezkilen jotzeko tenorea du, berantetsi gabe.

«*Goazen etxerat, goazen etxerat, erretira ordu da! Botoila ere hutsa da eta zato etxekanderia. Ez dakizia kantaria maiz dela egarria? Zoazte etxerat, zoazte*

etxerat, erretira ordu da! Botoilak oro husturik eta hustu behar da lekia. Ez dakizia edalia maiz dela mozkortia?». «Puta! Koño!». «Manex, ontsa haiz?». «Koño! Mierda!». «Zer duk, Manex, ontsa haiz bertzenaz?». «Ostia!». Goiza argitzen hasi gabea oraino Irisarrin, hontzak uluka. Bi adiskide, Manex Donetx eta Gaston Delvalle diren bezalakoak, etxerat sartu nahian, kantuz heldu dira ostatutik. «Deabruaren putza!», sasiei ostikoa tiratzen ahalegindu, oreka galdu, eta txiza egin berri duen lekurat jausi da berriz Manex. Hortzen artetik erran du azkenekoz «Mierda!». Besotik heldu eta zutitzen lagundu dio Gastonek. «Zer habil ordea?». Txiza egiten hasita espartinak busti ditu Manexek. Karta jokoa luzatu, eta orai etxerateko bidea atzeman ezinik doaz bi adiskideak, sorbaldetarik heldurik elkarri. Andarka. Eta kantuan, bele batzuena baino boz latzagoz: «*Goazen etxerat, goazen etxerat, erretira ordu da! Orai iluna bildurik eta nekeago da bidia. Ez dakizia ilargia maiz dela gordetia? Goazen etxerat, goazen etxerat, erretira ordu da! Mendian dira laminak eta sorginen akelarria. Ez dakizia gauerdia maiz dela galgarria?*».

Erretoreak behar du meza eman, kofesioak hartu hamaika orenak arte, gelariak prestatu txokolate beroarekin egin hamaiketakoa, katixima irakatsi haurrei, ofizioak erran lauretan, ofizioak erran berriz gauean, herritarrei entzun eta kontseilu eman, eta bertze lan anitz. Erretoreak errespetua irakatsi behar du, ezin du balizarik erabili karrikan, katiximako haurra igorriko du dilijentzian leku har diezaion, ez die emazteei musurik emanen, ez eskurik hunkiko ere eskularrurik ez badute. Jendeek erranen diote «Zerbitzari, jaun apeza» karrikan ikusiz gero, eta eskuan muin emanen diote. Heletan, ordea, jaun merak bide egitera deitu du Leon Etxeberri erretorea. Sakreka heldu da erretorea, lepo aitzinekoa altxaturik eta sotana laburra jauntzirik. Jaun merak malobran nahi du jarri Leon Etxeberri jaun apeza, pala bat emanik. Atzoko predikuan erretoreak manatu zien eliztarrei gaurko egunez ez zitezen ezkondu, ez eritu, ez haurrez erditu, ez hil ere, jaun merak nahi duelako erretorea eguneroko lanetarik jalgi. «Bihar ez da emazterik erdituko, ez da nehor ezkonduko, eta hobe du nehork ez eritu eta ez hil! Hautatu duzuen jaun merak nahi gaitu elizgizonak peoi ezarri, zeren ez baitu Eliza amak egun oroz egiten dituen obra handiez ohartu nahi». Gaur goizean,

bide egitera joan da Leon Etxeberri, errana lege, zer gerta ere, lepo aitzinekoa altxaturik eta sotana laburra jauntzirik. Baina, nehork ez dakiena malobra egin behar den lekurat heldu arteraino, Gazteria Katolikoko hamar mutil mobilizatuak ditu erretoreak. Arraberritze lanak egin beharrak diren biderat heldu direlarik, palak, aitzurrak eta pikatxoiak besagainetan, Gazteria Katolikoko hamar gazteak han ari dira bide bazterren garbitzen. «Hau bai armada ederra, jaunaren armada» erran, pala jaun merari itzuli, eta herrirat itzultzeko bidea hartu du Leon Etxeberrik, hortzak lurreraino luzatuak dituztela utzirik jaun mera eta gainerateko herriko gizonak.

Goizean ematen ohi dira argi ezkilak. Eguerdian, eguerdi ezkilak. Eta iluntzean, ilun ezkilak, ilun zeinu ere erraten zaienak zenbait tokitan. Horietan guzietan behar da otoiztu; gizonek, boneta edo txapela erantzirik. Elizetan eta etxe ofizialetako dorre edo buruetan ezarriak dira ezkilak komunzki. Elizkizunetako deiak egiten dituzte ezkilek, orenak ere ematen dituzte artetan, eta meza edo bezpera deiak ere egiten dituzte. Su ezkilak ere izaten dira, laguntza eske jotzen dire-

nak, auzoak ur baldez hornituak jin daitezen. Oraino badira dei bereziak, errepikak eta ezkil-inguratzeak, bataioentzat, ezteientzat, agonian direnentzat, festa hasteentzat eta prozesioentzat. Eta badira, finitzeko, hil-zeinuak. Bat eta bedera beren errepika bereziekin, lengoaia bat balira bezala antolatuak. Usu, herriko gizon bat izaten ohi da ezkilak jotzeaz arduratua. Etxe bakoitzak ematen dio zeregin horrengatik gaitzeru bat ogitan truk. Hala da, bada, Bidaxunen ere. Battitta Etxepare elizarat abiatu da, gerlarat deitzeko ezkila zeinuen emateko. Baina zein da gerlako ezkila zeinua? Bidaxuneko ezkilez arduratu den hamabi urteetan ez du nehoiz gerla ezkilarik jo behar izan. Elizari buruz, trublaturik doa Battitta Etxepare, galderari arrapostu eman ezinik. Zer zeinu behar ditu jo beraz? Suarenak menturaz, laguntza eske? Bataioarenak, sortu berri den gerlarengatik? Bestentzakoak? Hil-zeinuak? Ez dira, bada, aieru txarrekoak izanen Heriori dei eginen dioten ezkila zeinuak? Baina su zeinuek larritu eginen dute jendea, eta aztoratu... Hil-zeinuak jotzea izanen du egokiena, larritasunaren adierazteko. Bertzelako zeinuren bat behar ote luke asmatu? Bo! Ez luke nehork jakinen zer liratekeen zeinu berri horiek, eta pentsatuko lukete Battitta tronpatua dela, edo zoratua.

Elizako borta iragatearekin erabaki du ez dela orenik pentsamenduetan agortzeko: hil-zeinuak emanen ditu beraz. «Azken buruan, zer da bada gerla, etsaiak hiltzeaz bertze?». Iluntzean, itzalak hedatzearekin, su gorri batek hartuko du zerua, «Arrats gorri, goiz argi» pentsatuko du Battittak etxe atarian pipari su emanez, bele batek, hesola baten gainetik jautsirik, hildako sagu bat irentsiko du.

2

> Ulertzen dut esklaboak hain aise makurtzea, ez baitzaie soinean indarrik gelditzen matxinatzeko (...). Ulertzen dut zanpatzaileen jakinduria, zanpatzen dituztenei ezinezko egiten baitiete beren adimenaz baliatzea, lan nekagarrietan itotzen dituztenez. Batzuetan (...) sumisioaren hegian sentitzen naiz, guzia onartzen duten animalien pasibitate horren hegian, zeina baita norberaren ukazioa. Itorik, onartu eta etsi egiten du nigan pentsatzeko gauza den horrek. Ohiturak eta diziplinak, nire baimenaz ahantzirik, artalderat eramaten naute.
>
> GABRIEL CHEVALIER, *La peur*

Fanfarrea joka ari denez eta airerat suziriak ere aurtikitzen ari direnez, aiseago ahanzten dira pleinuka ari direnen arrangurak. Partitzeko imintzio bat egin du trenak, ke zuri bat isuriz, Mauleko gara guzian hedatu dena. Mokanesak eta eskuak airerat, besoak inarrosiz

ihardesten dute trenean sartuak diren gazteek. Karrikak gainez izan dira ebiakoitzez eta igandez, oro harat-honat, oro azken adioak egiten, oro irriz, oro adiskide. Igande goizez elizaren atarian bildu zen talde handi bat berrien aditzera: Ingalaterra gerlan sartu zela jakin eta, bibaka; Italia neutral gelddituko zela jakin eta, sakreka. Gau hartan ere lo ttipia eginik esnatu dira gutiz gehienak astelehen goiz honetan, guziak zainarturik. Batzuk, partitu beharrak direlako; bertzeak, norbait badoakielako. Jendeketa gaitz bat bildu da, beraz, Pauerat soldadu doazenei adio egitera. Fanfarre hori ere hor ekarri dute, pleinuka ari direnen arrangurak ahanzteko. Bertze imintzio bat egin du trenak, ke zuri gehiago isuri, eta, orai bai, partitu da, gibelean utziz sorlekua, aitzinean besarkatuz soldadugaiek etorkizun dutena. Trenean elkarren ezagutza egin dute zuberotarrek. Kalixtro eta Pierre Agerre berehala nabarmendu dira, kantuan eta zirtoan ari, bihotzak goititzen. Zalgizeko gazte batzuk arranguraturik eta isil samarrik sumatuz, haien ondoan jarri dira biak. Zertaz arrangura diren galdetuz eta tetelekeria batzuk erranez, Kalixtro eta Pierre saiatu dira gazte horien sosegatzen. Baina armadari buruz dituzte galdeak Zalgizeko gazteek, nehoiz soldadu izan gabeak, eta espli-

kazioetan lotu da Kalixtro beraz: «Armadako gorputz batek baditu 40.000 gizon, horietarik hiru laurden soldaduak direla, jeneral batek gidaturik. 120 trenetan sar litezke gizon horiek, guti goiti-beheiti». Hasi bada hasi, tarrapata batean segitu du, arteka Pierrek xehetasun zenbait emanez laguntzen duela. Armadako gorputz horietarik bakoitzak baditu artillarien gorputza, zaldizkoen dibisioa eta infanteriako bi dibisio. Gainera, badira bi ingeniari talde eta zerbitzuez arduratzen diren bertze bi talde. Gorputz horietarik bakoitzak baditu kuartel nagusi bat eta zerbitzuburuak (55 ofizier eta 280 soldadu, hiru auto eta 30 *hippomobil* dituztenak beren zerbitzuko), artillarien kuartel nagusia (jeneral komandanteaz gain, bortz ofizier, bi bizikletari, eta gidariekin), ingeniarien kuartel nagusia (lau ofizier badira hor), intendentzia (bortz ofizier eta hamazazpi axuantekin), azpi-intendentzia (300 garraiatzaile, 450 zaldi eta 180 auto badituzte bana bertze, ofizier eta administrari parrasta batekin), ganadu parkea (zazpi ofizier eta 125 axuantekin, eta ganadua tokiz higitzeko hamasei kamioirekin), osasun zerbitzua (lau anbulantzia, ospitale guneak, hiru mediku, bi administrari, lau apaiz, sei mediku laguntzaile, 215 erizain, 83 andari eta 100 zaldi dituztenak, eta 27

auto, 140 anda eta 5.000 aposito eramanen dituztenak), diruzaina (mendean dituela bortz ofizier, zazpi azpi-ofizier, hamahiru zaldi eta sei auto), albaitari bat eta haren laguntzailea. Gorputzaren gibelean dira kapitain komandantea, eskuadroi burua eta konboien ardura duen kapitaina. Eta azken lerroan kokatuko dira 30 bat jendarme, nehork ez dezan izan su hegitik alde egiteko tentaziorik. «Baina ez da hori guzia», oharta-razi ditu Kalixtrok: «Hori balitz guzia, aise gidatzen ahal litzateke armada bat». Armadako gorputz bakoitzak baldin baditu bi dibisio infanteriakoak, dibisio horietako bakoitzak izaten ohi ditu hiru erreximendu. Eta erreximendu horietarik bakoitza, ber eran, zatitzen da hiru batailoitan edo lautan. Eta batailoi horietako bakoitza, ber denboran, hiruzpalau konpainiatan da zatitzen, kapitain bedera buru dutela. Borroka unitatea da batailoia; haren barne diren hiru konpainiak aldizkatzen dira zereginetan. Batailoi bakoitzak ditu, gainera, CID instrukzio zentro bat eta CM edo mitrallusen konpainia bat. Baina batailoietan eta haien barneko konpainietan gizon talde handiak baitira oraino, antolaketa xehekiago jarraikitzen zaio: konpainia horietako bakoitzak baditu lau sekzio, eta sekzio horietarik bakoitza bi sekzio erditan bereizten da, sarjanta duela gida-

ri bakoitzak. Sekzio erdi bakoitza, ber denboran, bi eskuadratan da zatitzen, eskuadra bakoitzak hamabortz soldadu dituela, kaporal baten manuetara. Erran nahi baita, bertze maneran, sekzio batean lau eskuadra direla: granada aurtikitzaileenak eta zizpekin dabiltzanenak. «Eta kalkuluan iaioa denak fite asmatuko du, sekzio batean lau eskuadra baldin badira, konpainia bakoitzean hamasei eskuadra izanen direla; gizonketa gaitza, bistan dena, baina, azken buruan, soldaduek eskuadrako hamabortz kide horiekin izanen dira adiskideen, tratu ttipiagoa izanen baitute gainerateko eskuadretako gizonekin», Pierrek. Eskuadra horien artean ezker-eskuin eta goiti-beheiti ibiltzen dira bertze zenbait soldadu loturak egiten, nagusien manuak ez galtzeko eta eskuadra guziak batera aritzeko. Arteka pelotoiak ere osatzen dituzte, batailoiko gizonak berrantolatuz ekintza jakinentzat. Konpainiak baditu, bertzalde, danbor eta kleron jotzaileak, erizain bat, lau andari, bi zelatari, aizkolariak, zapatari bat, jostun bat, gidariak, ordenantza bat, bortz bizikletari eta telefonista bat. Ehunka gizon. Behar gisan hedaturik, kilometro erdiko eremu bat har dezakete luzeka. Pierre Agerrek eta Kalixtrok, Zalgizeko kuadrilla hori adi entzuten jarria dutela parean, Paueko Infanteriako 18.

erreximenduarenganat daramatzan trenean, hanpatzen dute solasa azalpenak aitzinatu ahala. Pierre Agerrek eman dio azken hitza mintzaldiari: «Finitzeko, erranen dizuet armadako graduazioa, ontsa ikasi beharra izanen duzuena: soldaduak behar dio kaporalari obeditu. Kaporalak, sarjantari. Sarjantak, lotinantari. Lotinantak, kapitainari. Kapitainak, komandanteari. Komandanteak, koronelari. Koronelak, jeneralari. Ofizierrak falta direlarik, behar zaio kasu eman goren gradua duenari edo, bertzela, taldean esperientzia gehien duen soldaduari». «Eta jeneralak? Nor behar du obeditu jeneralak?», galdegin du Zalgizeko gazte horietarik batek, aurpegian zuldar batzuk agerikoak baititu. «Jeneralak nehor obeditzen duen, ez da argi», Pierrek. «Jainkoari, menturaz!», Kalixtrok, irriz. «Zernahi gisaz, soldaduak aitzineko hori jakitearekin aski du». «Aski du, bederen, jendarme batek edo pelotoi batek ez diezaion buruan tiro bat eman». «Bo! Ikusiko duzue, izanen duzue parada adiskide eder batzuen egiteko, guk soldadugoan egin ditugunen gisakoak». Soldadugoa duela bortz urte eginik, erresalbuko soldaduetarik baitira Kalixtro eta Pierre. «Errazu, Kalixtro: irabaziko dugu gerla hau?», bertze gazte sudur kakodun baten galdea. Aitzinerat makurtu, besagaine-

tik gaztea heldu eta, bereganat ekarriz, ahapeka baina bagoiko gizon guziek entzuteko maneran ihardetsi dio Kalixtrok: «Musean hiru erregez baino aiseago». Santa Graziko eta Barkoxeko adiskideenganat gibelaturik, ozen, xahako horretarik trago bat galdegin du Pierrek. Zalgizeko adiskide berriei eskaini die xahakoa, berak ausarki edan aitzinetik. Hiru gizon gazte, Kalixtrok uste baitu Mendikotakoak diren, kantuari lotu zaizkio: «*Arranoak bortuetan, gora dabiltza hegaletan, eta ni laket andereekin ganberetan...*».

Gizonak oro, 21 eta 48 urte arteko gutiz gehienak eta zenbait gazteago ere bai boluntario aurkeztuak, partitu dira beren etxeetarik trenetan, karrosetan, bizikletetan, zaldi-mandoetan, oinez, dilijentziaz, autoz oraino zenbait, partitu dira eta badoaz herrietarik, Donazaharretik, Iholditik, Gixunetik, Baigorritik, Bidarraitik, Luhusotik, Garruzetik, Hendaiatik, Itsasutik, Arnegitik, Irisarritik, Kanbotik, badoaz Baionari buruz, bezperan mobilizazio libretak eskuratu eta. *Dubliners* publikatu du James Joycek, eta 23 egun baino ez dira falta Bruselan Julio Cortazar delako bat sortzeko. Armen hartzera deitu gizon hauetan Joyceren berririk

ez du nehork, gutiago Cortazarrenik, bistan dena, oraino sortu gabea baita. Literaturaz bertzelakoak dituzte solasak gizon hauek, eta deus gutik batzen ditu, salbu eta libreta hori bat, soldaduarena, eta paper gorri bat, non agertzen baita norat behar duen aurkeztu bat eta bederak, eta zein orenetako; deus gutik batzen ditu, salbu eta alemanak oro zapartatzeko grina itsu batek; deus gutik batzen ditu solasetan ere, salbu eta gerlako berriek eta soldaduen ikasgaiek, zaharrek gazteei atsegin handiz irakasten dizkietenak. Badoaz gizon horiek guziak Baionarat, amak eman Lurdeseko amabirjinaren zilarrezko medailarekin zenbait, herriko erretoreak oparitu medailekin bertze zenbait, are medailarik eta sinesterik gabe bertze batzuk, baina ber asmo eta kuraiarekin guziak edo abantzu guziak. Zalgizeko gazteak, Mendikotako kuadrilla hura kantuan, Kalixtro, Pierre Agerre, Pauerat abiatuak dira, Infanteriako 18. eta 218. erreximenduen aitzinean aurkezteko, baina gainerateko herri gehienetako gizonak, 21 eta 48 urte artean dituzten eta armadarat deituak izan diren gizon hauek, Baionarat doaz gaur. Infanteriako 49. erreximenduan edo 249. territorialean aurkeztu beharrak dira gehienak, Akizerat segituko zaizkio bertze batzuk, eta badira urrunago doazenak ere:

37. kolonialerat deituak dituzte zenbait, 144. errexi-mendurat bertze zenbait, ehiztari alpinoetarat batzuk, dragoietarat bertzeak. Gazteenak eta soldadugoa egiten ari direnak lehen lerroetarako prestaturik, territorialetan sartuko dituzte adinez handienak. Azken horietan izanen da Xalbat Mutrustegi, zeina mobilizazio egunaren zain den oraino, hiru semeei adio egiten ari baita Dominika Zubiri emaztearekin, etxeko atarian. Semeei adio erranik, Heletako pentzeetan dituzten ogi soroetarik ikusi du Dominikak tren bat iragaten, soldadu eginen diren gizonez emokatua; eta ikusi ditu oinezko batzuk eta zaldizko batzuk ere, taldetan doazenak Baionarat; ogi eta ur zerbait eman ere die gazte batzuei, plazerez eman gainera, gizon horiek beharko baitituzte gorde Frantziako xokoak aleman tzar horiengandik. Senarra eta semeak gerlarat joanen zaizkiola ikusteaz gain, badu malerusik sobera Dominika Zubiri laborariak, laborariek ohi dutenez, aroa nehoiz ez baita behar bezain argia edo behar bezain euritsua, eta landa lanentzat beti badirelako ezbeharrak; bazterrak oro lehertu behar dituztela iduri duten bele eta mika saldo horiek aski ez, aleman tzar batzuek bere lurrak hartzea bertzerik ez luke behar tenore honetan! Ellande Karrikirik eta Bixenta Larregaraik ere ikusi di-

tuzte partitzen Iholdiko gazteak, eta haien alde otoitz bat kartsua egin diote Santa Genobebari, Angelus otoizteko orena ez denez oraino; otoitza bururatu duelarik, bertze otoitz bat egin dio Ellandek Tourseko San Martini, eskertuz eta hirutan hogeita hamar urteak ontsa beteak edukitzea, gizon horiekin partitu beharra izanen baitzen gazteago balitz. Jean Cazauxek eta Etien Petitek aulkian jarririk ikusi dituzte partitzen gizon horiek guziak, Kanbon, Ederreniako gerizpean: badoaz gazteak eta hain gazte izan gabe ere armadarat deituak izan diren gizon horiek, arrangurarik gabe, irri zabal bat aurpegietan, lehen inperioaren aldian hamalau baigorriar haiek pilota partida irabazi eta Rhin ibaiaren inguruetarat itzuli ziren ber sasoiarekin. Jeanette Bordaxurik muxu luze batekin despeditu du Paskal Etxekopar senarra, Senperen; sei biderretan egin du senarrak buruarekin gibelerat, adio egiteko, emaztea begietarik galdu zaion arte. Irute lanak utzirik, Gaxuxa eta Janamari Ugarte ama-alabek, Urruñan, etxeko leihotik behatzen dituzte errepideetarik, bideetarik, sendetarik, pentzeetarik, Baionari buruz doazen gizon taldeak; Janamari alabak, begien aitzinean zernahi duela ere, Jean Larre bertze nehor ez duela begietan. Katixa Bonetbeltzek pleinurik gabe agurtu ditu lau

haurrideak, Donibane Garaziko garan; otarre batean eraman dizkie ogi-gasnak, eta xahako bat arno gorri. Aitatxi Tomas eta amatxi Katerina bertze nehor baino fiteago dira jaikiak Ziburun, bart igandea zenez ezin izan baitzituzten bururatu belar lanak; fiteago jaikiak dira, lanak bururatu ondotik soldadu doazenei adio errateko, azkenean haien artean izanen baitute Joanes semea ere. Ainhoatik, kontrabandistak eta guardak oro batera dira abiatuak Baionarat bidean, batzuen eta bertzeen senideek oro dituztela agurtzen, elkar harturik guziak, iragan ortziraleko auziak zokoraturik bulta batez. Etxeber erretoreak ere behar izan du partitu Hazparnetik Baionarat, gainerateko guziekin batera, tartean dela Faustin Oihanburu, zeinak azkenean izan baitu osaba Jean hilobiratzeko xantza bezperan. Heletan ere, Leon Etxeberrik, elizaren ataritik, behatzen ditu gerlarat doazen gizon gazte horien bisaiak; zeinen gazte apartak, Gazteria Katolikoko horiek berebat, Herioren izialdurarik gabe kantari doazenak bidean aitzina. Baionan, Helio Santosek ez arranguratzeko erran dio Etien Bonnati, izanen dela boxeo matxa jokatzeko xantzarik oraino; dirua bahituran dela gerla bururatu arte, eta Etien zainartua izanen dela gerlatik itzuleran, aiseago duela garaituko ring

gaineko arerioa, gerlan gogorturik giharrak. Santos eta Bonnat mintzo diren karrikatik hur, Bettirik, Genieko zubiaren izkina batean bermaturik, orenak eta orenak egin ditu gizon saldo horiek Baionarat sartzen ikusten eta haien alde otoizten, bonetaz adio egiten soldadugai gazte horiei guziei, trenez, karrosaz, bizikletaz, zaldien eta mandoen gainean, dilijentziaz, autoz, eta gaineratekoak oinez, heldu diren gazte aldra horiei, eta hain gazte izan gabe ere mobilizatzerat deituak izan diren gizon horiei. Oldeak eta oldeak ikusi ditu Baionarat sartzen Bettirik. «Zeinen armada ederra behar duten osatu», pentsatu, eta damu izan du 30 urte soinetik ezin kendua, gizon horien guzien haurride gerlarat partitu ahal izateko. Bertze gisaz errateko, Bettirik ere nahi lituzke Barbier erretorearen hitzak entzun tenore honetan, «Bai Jainkoak nahi du zure xokotik joan zaitezen gurea bezalako anitz xokoz egina den Frantziaren begiratzera», soldadu gazteak kuraiatzen ari, benedikazioak partitzen. Bettirik ere nahi lituzke instrukzioak eta manuak jaso gazteluan, eta Alsazia eta Lorrena horietarat joan, ez Baionako Alsace-Lorraine karrikarat, baizik eta Alemaniak beretu nahi dituen bertze eskualde horietarat; Bettirik ere nahi luke joan eta botxe tzar horiek guziak kalitu,

baioneta sastakatuz erraietan; Bettirik ere nahi luke, gaur den egunean baiones zintzo orok nahi duen gisaz, Frantziaren alde hil. Gaur den egunean Baiona oro soldadu baita, oro odol gazte, oro frantses trapu, oro jendarme, oro gerlako eta mobilizazioko afixa, oro karrikan «Dernière dépêche!» oihuz ari diren mutikoak eta berrien xerka kazeta horien erosten ari diren gizonak, oro espantu eta «Biba Frantzia!», oro solas, azantza, kantu eta besta. Bettirik ere nahi luke, Baiona guziak nahi lukeelako, eta Baiona guziak nahi ez badu hala iduri du bederen, gerlaren etsairik nehor baldin bada ontsa gordea behar duelako gaur den egunean. Soldaduek ez dute falta motiborik eta armadaren sosik kafetegietan eta ostatuetan orenak luzatzeko. Chaho karrikatik Arsenalerat, eta Arsenaletik Lisses inguruetarat, karriketan goiti eta beheiti dabiltzan soldadu gaztez emokatuak dira ostatuak, argiak berant arte piztuak, biarnesen *Beth ceu de Pau* kantuaz eta euskaldunen irrintziez alaiturik. Baina, egunak iragan ahala, soldaduak ere bakantzen doaz Baionako karriketan,

erreximendu, konpainia, eskuadra eta abarretan hedatu ahala desagertzen doaz soldaduak Baionatik, eta ixten doaz botigak eta ostatuak ere, botigariak eta ostalariak gerlarentzat partitu ahala. Hiria berriz ere kara hitseko baratuko den orena gerturatzen ari da, soldaduak partitu ahala. Baionan osatua den infanteriako 49. erreximenduaren hiru batailoiak larunbatarekin partitu dira garatik, iparralderat. Lau egun ttipi baizik ez ditu iraun gerlaren atariko bestak Baionan. *Eskualduna* kazeta gaizoak, astekaria baizik ez baita, gerla hasteko berria galdu zuen joan den astean. Luzien Lavielle, Martin Etxegarai, Jean Salaberri eta Silvain Tucoulet adiskideek eskuratu dute ale berriena agorrilaren 7an, partitu aitzin. «Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!», irakurri die Laviellek adiskideei goraki: «Ote da, ote daiteke deus hunkigarriagorik; deus, bihotz altxagarriagorik, nola baita ikustea, Frantziaren buru batetarik bertzerat, herritar guzien batasuna gerlari buruz? Ez da gutartean gehiago xuri ez gorri, bereizkunderik. Oro frantses Frantzian; Eskual-herrian oro eskualdun, elkarren anaia. Donibane-Lohizunetik Atharratzeraino, eta han harat azken herrietako azken mugaraino, dezagun egin guziek bat Frantziarekin. Jainkoa lagun, nehork ez gaitu garaitu-

ko». Ekiaren errainuak kasernarat sartu aitzineko minutu horietan, Laviellek adiskideei irakurri hitzek badute ahalmen pizgarri bat, bibaka eta «Kuku alemanak!» garrasika hasi baitira Lavielleren adiskideak hitz horiek entzunez. Gero, behar gisaz beztituak astelehenez eman zizkieten jauntzi berriekin, galtza gorriz eta jaka bluz, kepiak oro buruetan ontsa kakotuak eta jakako botoiak oro lotuak, kapotak gainetik emanak, hedeak tinkaturik beren tokietan eta oinetako dirdiratsuekin, François Marie Baionako apezpikuaren aitzinean eman dira guziak lerro-lerro, egin diezaien Gerlako Otoitza frantsesez: «Jauna, zu armaden Jainkoa deitua zarena, geriza ezazu Frantzia, ez dezan gal, egina zaion gerla honetan, bere buruaren eta bere fedearen jabe egotea. Jauna, gure Jainkoa, zuti zaitez, eta ihes egin dezatela zure Elizaren alaba lehenari jazartzen zaizkion etsaiek». Kaperan ezin kabituak baitziren, atarian belauniko soldadu guziak, fededun eta sinesgogor, oro belaunikatuak apezpikuaren aitzinean, eskuak gurutzatuak, lurrerat so, buruak makur. «Jauna, zure begiak amultsuki jaus daitezela Frantziako armaden gainerat. Otoizten zaitugu gure soldaduentzat, maite ditugunentzat eta beren bihotz leialak gudurat eramanen dituztenentzat: gure senarrak,

gure aitak, gure haurrak, gure anaiak, gure adiskideak dira. Gure erresumako lurra, gure etxeak, gure elizak dituzte begiratzen. Jauna, beren eginbidearen betetzera joateko utzi gaituzte; zure gerizaren azpian ematen ditugu. Ez daitezela izan gudu horietan hilen direnetarik. Jauna, zure nahia egina izan bedi, ez gurea! Baina otoizten zaitugu entzun dezazun gure oihu mina. Otoizten zaitugu, Jauna, guretarik hiltzera doazenentzat; urrun itzazu haien bihotzetarik herstura eta etsimen gaixtoak; oroit daitezela, Jainko ona, beren bataioaz, beren lehen komunioaz, eta erdiets dezatela zuregandik beren azken barkamendua». Apezpikuaren boza, apala baina fermua, bertze txintik ez da aditzen soldadu burumakurtu saldo honen aitzinean; apezpikuari urrundik eta barnetik heldu zaion boz bat, bertzerik ez. «Jauna, ematen dizute beren bizia; har ezazu emaitza hori haien eta gure bekatuen barkamendu osotzat. Emaiezu betiereko sosegua. Otoizten zaitugu, Jauna, guretarik hilko direnentzat. Oroit zaitez haien guduez, beren buruaz egin duten emaitza osoaz. Pairatuko dute gure herri katolikoa begiratzeko». Apezpikua jarraiki zaio «Maria bekaturik gabe kontzebituari» eta «San Martin Frantziaren gerizatzaileari» erreguka oraino, eta soldadu batzuek ezin

izan diete negar malkoei eutsi, zeinaren kausaz makurtu baitituzte buruak oraino eta gehiago, soldadu adiskideak ohart ez daitezen flakezia horretaz. Otoitz hunkigarria finiturik, kapotak soinean ezarri eta zakuak bizkarrean emanik, Luzien, Etxegarai, Salaberri eta Silvain ezarri dira gainerateko soldaduekin, zizpak zerurat zut, Frantziako banderaren eta Baionako Infanteriako 49. erreximenduaren estandartearen gibelean –oi, Solferinon eta Aljerren eta auskalo zenbat gerla toki gehiagotan egona den zetazko trapu saindu hori!–. Ezarri direlarik formazioan karrikarat jalgitzeko, gomutan dituzte *Eskualduna*-ren eta Baionako apezpikuaren azken hitzak. Musikari lotu zaio banda, turuta eta atabalekin errabia gorrian, eta partitu dira soldaduak oinez, Saint Espriteko zubitik beheiti, azken lau egunetan ikasiak agertuz; partitu dira aitzindariak zaldiz dituztela aitzinean, ezpatak agerian lurrerat beha tinki; partitu dira *Iruten ari nuzu* kantatuz. Hiri guzia zain dute. Zenbaiti senideak ere zaizkio herritik jin, partitzen ikustera. Aitzindariek gaztigatuak dituzte soldaduak, ez dezaten irrintzirik egin, ez dezaten keinurik egin nabarmenegi, armada diziplina denez gero, eta serios behar dutenez joan aitzinerat so, gorpu bakar bat nola. Baina karrikarat jalgi dira emazte,

heldu, gizon zenbait eta haurrak, irriz, algaraz, oihuz, oro harramantza, eta badira oraino etxeko leihotik txaloka ari diren horiek ere, eta, abantzu nehor ohartu gabe, begi kliska bat handik harat eta sobera nabarmendu gabe goitituriko esku bat hemendik honat, bistan da hunkidura ezin atxikiz desfilatzen dutela 49. erreximenduko soldaduek. Emazte batzuek ezarri dizkiete arrosak edo lore buketa osoak arma kanoiaren puntan soldadu batzuei, eta lehertu da karrika: «À Berlin!», «Biba berrogeita bederatzigarrena!». Soldaduek, harramantzek kuraiaturik, hegan bezala egin dituzte treneko urratsak, arteka gazte ausart batzuek pausoa hausten dutela emazte gazteen multzoei «Adio, ederrak!» edo galaikeria gordinagoen errateko goraki, emazteak irriz ezarriz. Liberte plazan, Saint Espriten, zubietan... jendea bada xoko guzietan, aro beroaren pean soldaduei adio egiten, aterkien pean zenbait, aro astunetik babesteko. 49. erreximenduko soldaduak badoaz aitzinerat, beroa ezin eraman, kapotako botoiak askaturik eta izerditan halere, uniformearen mahukarekin lehortzen dituztela kopetako izerdiak arteka, baina irri handietan halere. Bizkotxak, musuak eta txokolateak sortu dituzte ikusleek, soldaduen kapotatarat jauzi egin dute haurrek. Sol Mi Mi Do

Do Sol Sol Sol, Sol Mi Mi Do Do Sol, badoa infanteriako 49. erreximendua. «Berlinerat!». «Biba Frantzia!». Garan sartu direlarik, trenek berdin «À Berlin!» izkiriaturik dute kanpo aldeetan, harridura ikur eta guzi, kuraiaren bizkortzeko. Luzienek, Etxegaraik, Salaberrik eta Silvainek zin bat egin dute bagoietarat igateko oren horretan, Gillen printzea kako batetarik zintzilik behar dutela ekarri Baionarat. Trenetan zamatuak partitu dira soldaduak. «À Berlin!». Gaur izan da partida handienetarik, baina bart ere baziren soldaduak abiatuak, eta heldu den asteartean eta asteazkenean ere partituko dira bertze zenbait. Soldaduak, soldadu gehiago: gerla da. «À Berlin!». Zenbat jende, zenbat gazte, ezin jakin. Milaka. Guziak. Egun zenbaiten buruan hutsik izanen da Baiona, gizon heldu, elbarri, espainol, langile behar eta gisa horretako batzuk kendu eta, emazteak, atso-agureak, haurrak, eta abere batzuk baino ez dira izanen Baionan: abantzu gizonik gabeko hiri bat. Gizonak trenetan sarturik baitoaz, zamariekin, «À Berlin!», gara handietan metatzen diren jendeketa gaitzei, bideetarik eskuak goitituz beha baratzen direnei, etxeetako leihoetarik gerriz goiti atera eta besoak inarrosten ari direnei, trenbide bazterretarik adio egiten dieten guziei garrasika, gelditzen diren

garatan lore, esne, fruta, freskagarri eskaintzen ari zaizkien neskatoei beha. Bagoietan bero itoa eta zaldien usaina metatzen doaz. Bi egun oso eginen dituzte gisa horretan. Baina etxetik eraman jakiak, arno xahakoak, tabako belarrak, museko kartak eta, batik bat, trenbide bazterretan eta garatan agurtzera jalgitzen direnek bihotz berritzen dituzte soldaduak, etsai alemanaren kontra kuraiaturik garrasi egiteko: «À Berlin!»,

baina «À Berlin!» heldu aitzin gelditu dira. Goizean, bagoiak esku zaflaka joz esnarazi dituzte, eta orduan ohartu dira arrastatua dela trena. Ontsa ahantziak dira aitzineko bi egunetan hustu arno xahakoak. Eta ganibetak eskuan funditu gasnak, azal eta guzi. Elkarren beroan esnatu dira soldaduak, bagoiei kanpotik kolpeka hasi zaizkielarik. Martzel Garikoitzek eta Katxok, jostalari, «Berlinerat heldu gara, mutilak, prest zizpak», irriz diotelarik. «Atera ganibetak, alemanei bizarraren egiteko tenorea da». Hartu zakuak bizkarrean, beren kinkaileria guziarekin –platerak, kantinplorak eta gainerateko trasteria guzia, zenbat kilo gizon bakarrarentzat–, eta jautsi dira. «Ez da, bada,

gerla hots handirik xoko hauetan», ernegatu da Luro. Bista heda ahalako zelai batzuk, zekale, olo, beterraba, lur-sagar, ogi... zernahirekin landetan; mendirik ez, baina oihan handiak eta bide xendra zuzenak: eta, bide saihetsetan, aranondoak, sagarrondoak, akaziak. Bazter berrien ezagutzen ari dira soldaduak, baina fite ezarri dituzte formazioan. Fitsik ere azaldu gabe abiatu dira 49.eko soldadu guziak pauso bakarrean. Aitzindarien hitzik gabe, norat daramatzaten jakin gabe, egin dituzte hiru egun oinez. 49. erreximenduak bidean galdu du lehen soldadua, François Latournerie izena zuen gizon bat. Bero kolpe batek hila da: jauntzi guziak, berrogei kiloko zakua bizkarrean, zizpa, kartutxoak, agorrileko bero astun hau, eta kilometroak eta kilometroak eginarazi dizkiete lau egunez. Txori bat bezala zorabiatu eta jausi da bidean. Itorik. Julien Bizkai, Adolphe Berdeko eta ondoan negarrez dituen adiskide batzuei gorpua jasotzeko manatu die Leon Iturri kapitainak zalditik jautsi gabe. Lehen heriotza horrek ez du soldaduen kuraia sobera histu, bideari lotu zaizkio berriro, eta oinezko laugarren egunarekin heldu dira Toulerat, agorrilaren 12an. Zizpak askatu gabe lurrean lo eginen dute gaur gauean ere. Han harat lehen kanoikadak entzun dituela erran du Mar-

tzelek. Lotinant bati galdegin diote. Pont-a-Mousson aldetik obusak lehertzen ari, han dira beraz alemanak; han, su zelaiak. «Puzkar horiekin behar ote gaituzte kikildu?», Martzel ez izaki aise lotsatzen den horietarik. Irriz ezarri ditu 49.eko gizonik gehienak. Bada, ordea, zizpa eskuez estekatu eta gaua lo hartu ezinik egin duen bat edo bertze. Lotinantak beilari ezarri du Martzel bera. Gaurtik aitzina beilariak beharko dituzte txandaka ezarri, gaineratekoek lo poxi bat egin dezaten. Gaurtik aitzina, ezin jakina izanen da erasoa nondik eta noiz jausiko zaien. Handik harat erabili dute erreximendua hurrengo egunetan, kanoikadak sumatzen bai, baina su hegirik dastatu gabe. Kuraiosenek egin dituzte espantu zenbait, noiz behar duten eta suari lotu. Heldu da notizia Belgikarat hedatzen ari dela alemana. Trenerat itzuli dituzte 49.eko gizonak, beraz, iparralderat garraiatzeko. Domremytik hurbil iragan direla ezaguturik, Jeanne d'Arc sainduaren herria dela oroitarazi du Adolphe Berdekok eta Etxeber erretoreak galdegin du otoitz bat egin diezaioten Frantziako sainduari; gutiz gehienek egin dute otoitz hori isilean, erretoreak gidaturik. Sobera sinestun ez izaki, Manex Donetx eta Gaston Delvalle izanen dira bagoi honetan otoitz egin ez duten bakanetarik. Isilik

egon behar, ordea; nehork jakin ote dezake, tenore honetan, Jeanne d'Arc beraren laguntza ere ez ote duten beharko. Fourmiesen jautsi dituzte bagoietarik, eta agorrilaren 20arekin heldu dira Hestruderat, Belgikan. Leon Iturri kapitainak azaldu die Belgikako lurretan sartuak direla. Bide ertzeko baserrietan biderat jalgi zaizkie jende xehe batzuk, arras umilak, arrautza, burra, etxeko ogia eskainiz. Martzelek eta Txantxinek konbentzitu dute etxeko jaun bat, sos batzuen truke arno xorta bat eman diezaien xahakorat. Egun bakarraren buruan heldu dira Thuin alderat; fite horregatik, bi kilometrotan hedatu dute erreximendua. Txantxinek notiziak ekarri ditu 57. erreximendua ere han harat dela, euskaldun anitz baitira haien artean ere. Ezagunei adio bat egitera joateko baimenik izanen ote litzatekeen galdegin nahi du, baina frantsesez egiteko lotsatzen, Katxori galdegin dio lotinantari galde diezaion. «Zoaz zure tokirat! Falta larria duzu postua uztea», ihardetsi dio lotinantak, mustatxa handiko gizon fier batek, Katxori, eta Katxok halaxe itzuli dio euskarara Txantxini. «Bo, Thuineko su zelai horietarik arteka heldu diren tiro bakan horiek ahantzirik, zer da bada adiskideei kuku egitea memento batez?». Ernegaturik itzuli da Txantxin bere tokirat. Adolphe Berde-

ko eta Julien Bizkai estonatuak dira, ordea, Txantxinek frantsesez ez dakielako, eta galdeketa gupidagabea egin diote, frantsesez naski, gaizoari lo hartzen ere uzten ez diotela. Lurreko bere kamantzatik jalgi eta Katxok behar izan ditu bi jaun horiek isilarazi, biharamunean ezarriko dituztelako zizpekin tiroka zubi bati buruz, eta lo poxi bat egin nahi lukeelako,

biharamunean ezarri baitituzte zizpekin tiroka zubi zirtzil bati buruz. Deus ez lotsatzekorik. Hilaren 23arentzat baita iragarria oldarra, suzko bataioa izanen dute 49.eko soldaduek. Gau guzian begiak sobera hetsi gabe, goizeko bederatzietako baionetak zizpetan ezarri eta, hiru orenez zain izan dira. Eguerditan hasi dira frantses kanoiak orroka. 12:45ean heldu da partitzeko manua. Oihan batetarat sartu dira 49.eko soldaduak, aleman obus batzuk buru gainerat zapartatzen zaizkiela. Lehentxeago leku beretan zapartatu obus frantsesek hil dituzte husar batzuk beren zaldiekin, oihan honetan berean. Hor dira lehen gorpuak, husar hilenak beren kasko zorrotzekin, eta zaldi lehertuenak. Gorpu horiek beren tokietan utzi eta oihanetik jalgi nahi izan dute aitzinerat, baina aleman mitrallu-

sak lotu zaizkie, eta erretretan behar izan dute itzuli, heriotzaz gomutatzeko sobera astirik gabe. Kartutxoak urez trenpatuak dituztenez gero, kexu dira soldaduak. Thuin hegal batetarik herrestan iraganik, zubi bat pasatu, eta tiroka lotu dira zizpekin su eta gar, baina berriz egin behar gibelerat, halako hirurekin ihardetsi baitiete alemanek. Txara batean babes harturik, 15:00etan heldu zaie aitzinerat egiteko manua, berriz ere. Kartutxo trenpatuak baztertu, zizpak ahal bezainbat kargatu, eta abiatu dira. Aitzinatu dituzte urrats batzuk, herri ttipi batetarat sartzeraino. Baina alemanak lotu dira kanoiekin bazter guziak porroskatuz, orroka, eta mitrallusekin bazter guziak zulatuz, karraskan. Frantses kanoiek, bertzalde, lagundu baino kalte gehiago dute egiten: kapitain frantses bati lepoa epaitu diote, ofizier bat itsuski kolpatu bertzalde. Artean Martzel bete-betean jo du aleman mitrallus horietarik batek, eta sabel guzia zirtzikaturik jausi da Txantxinen altzorat. Gibelerat egiteko aitzindarien manua sobera berant heldu da Martzelentzat, eta negar egiteko astirik gabe baztertu du Txantxinek Martzelen gorpua altzotik, gauean gorpuaren xerka itzuliko dela zin eginez. Gauean heldu da bertze manu bat ordea, baionetak zizpei ezarri eta gorputzez gorputz borroka-

tzeko. Ez da astirik gorpuak su zelaitik altxatzeko, eta jalgi dira 49.eko soldaduak oldarrean, baina halakoa izan da alemanek igorri arrapostua ezen erretretan gibelatzeko manua emana izan baitzaio 49.ari abantzu segidan, nahiz manurik gabe ere gibelatzen hasiak ziren soldaduak, jausi direnen izenez galdegiteko hatsik gabe, Katxo ere granada batek tanpez lehertu duela ohartzeko astirik gabe. Alemanen turutak aditzen dira gauez, 49.ak erretreta hasi duelarik, Martzelen, Katxoren eta bertze ehunka batzuen gorpuak bertan utzirik. Nehor ohartu ote da ere Baionan sozialisten kexu zen Adolphe Berdeko horren gorpu bizirik gabea su zelaian gelditu dela? Etxeak sutan dira, eta bazterrak oro obusek erraustuak. 57.ak han harat zerbait eutsi bide dio alemanen oldarrari, baina, gainerateko lerroak jausten ari, gibelerat egin eta lerro sendo baten ezartzeko tenorea da haientzat ere. Ez da astirik hilen zenbatzeko, idazkariek eginen dute lan hori gauean, eta soldaduak badoaz beraz erretretan, hamabortz egun lehenagoko kantu eta harramantza loriosak ahantzirik, badoaz gibelerat, gibelerat, eta gibelerat oraino, ilargi handi zuri-zuri batek bidea argiturik, aitzindariek loarentzat ere pausurik hartzen uzten ez dietela. Badoaz gibelago, oren laurden gu-

ziez kamioiak iragaten zaizkiela saihetsetik, frantses kanoiak ere erretretan eramanez, alegia eta guzia galdua balitz bezala. Badoaz beraz 49.eko soldaduak, eta egunak dira badoazela gibelerat. Badoaz husturiko herrietatik barna, behiak basa ageri dituzten pentzeetan barna. Alde eginak dira jendeak oro Parisi buruz, alemanen oldarra geldigaitza izanen dela igarririk. Julien Bizkaik atzeman ditu lau txita oilorik gabe. Rene eta Joseph Ameztoi anaiei erakutsi dizkie, eta haiek Etxeber erretoreari erran diote. Txita bedera izanen dute afaltzeko, su bat pizterik baldin badute; gordean beharko dituzte frijitu, gainerateko soldaduek ikus ez dezaten eskuratua duten altxorra, eta alemanei ez diezaieten tokia salatu. Herriak hustuak eta jakiak urrituak, baina edatekorik eza da gaitz handiena. Etien Bonnat alditxartua izan da hiru egunez, bide bazterreko ur zipu batetarik edan izana kausa. Sukarretan eta kakeriaz leher egina behar izan du segitu erretretako martxa. Bai baitoaz 49.eko soldaduak gibelerat, eta gibelago oraino, etenik, atsedenik eta pausurik gabe, ezta ura edateko ere; non dira Baigorriko arno onduz bete xahako haiek? Leon Iturri kapitaina zaldi gainean iragaten ikusi dutelarik, soldadu landes batzuk «Traidore zikina!» garrasika eta sakre-

ka hasi zaizkio; Manex Donetx eta Ameztoi anaiak fite lotu dira protestara, «Obusik ere ez dugu baina!», «Traidoreak! Non dira munizioak!». Kapitaina fite lekutu da, handiagorik suerta ez dadin. «Hiltzerat eraman gaituzue!». «Non ziren gure balak?». «Zer gertatzen da?», galdegin dio Txantxinek Manexi, irain horiek ulertu ezinik. Soldadu gosetuak, soldadu egarrituak, beti erretretan doazen soldaduak, traizionatuak sentitzen hasiak direnak. Jean Bordagaraik atzeman du beterrabazko soro bat, eta hari esker engainatu dute gosea, eta gosea baino, egarria. Eta abantzu okerrago dena: gau honetan erreximenduaren bandera galdu da. Nehork ez baitaki non-nola gertatu den. Sebastopoleko eta Solferinoko guduetan egona zen 49.aren bandera zetazkoa, oihal saindua, aitzindariak musu eman zion hura! Sei egun gibelerat herrestan, egun oroz oinez eta gau oroz alemanen izuz lo hartu ezinik, sei egun urik gabe, eta makurrena gertatu da: erreximenduaren bandera galdu. Suntsituak dira 49.eko gizonak, hiru aste aitzinago Baionatik kuraiaz beteak abiatu ziren haiek, lore buketak armen kanoietan. Marne ibai handirat heldu direlarik jaso dute arrastatzeko manua. Beharrik. Arno Suertegaraik erran duen gisan, bertze bi asteren buruan Saran iza-

nen baitziren hola-hola segitu izan balute. Eta, 49.eko soldadu bat edo bertzek pentsatu duenez, Saratik bertze alderat egun bakarrean iraganen baitziren. Sardina hotz batzuk janik, fite prestatu behar izan dute defentsa. Beti urratsa urratsari segika dituzten botxe tzar horiei tiroka aritu dira bi orenez. Mitrallusak hasi dira kafe erroten gisa karraskan. Alemanek bi batailoi igorri dituzte atakadan. Eta atxiki dituzte. Orai armak berotuak eta eskuak bolboraz belztuak dituzte 49.eko gizonek. Erauntsia amaitu delarik ohartu dira Mutrustegi anaietako bat, Xalbador, hilotz jausia dela; tiro batek garbi zeharkatu dio burua, kopetatik sartu eta garezurra zeharkatu; muinik ere ez agerian, odol xirripa bat bertzerik ez, eta kepia zulaturik gorpuaren ondoan. Begiak hetsi dizkio Luzien Laviellek. Andariek jaso eta han gibelago lurperatu dute, bide bazter batean. Handik aitzina hola-hola eutsi diete alemanei, Marneren parean hartua duten tokian. Gibelerat gehiago ez egiteko manua jaso dutelarik, alemanei noiz oldartuko zain dira orai, erretretan joateaz aseak. Etxeber erretoreak jakin du Pio X.a aita saindua hila dela, eta kardinalen konklabea fite elkartuko dela aita saindu berriaren hautatzeko. Kardinalek aita saindu on-on bat hauta dezaten, otoitz bat galdegin die Etxe-

ber erretoreak 49.eko soldaduei. Etxetik eraman medailak eskuetan dituztela otoiztu dute, aita saindu berriak izan dezan botere gerla bururatzeko eta Frantziaren interesak atxikitzeko. Handik hiru egunerat ezagutu dute Benedicto XV.a izanen dutela aita saindu berria, eta, batak bertzea eragin balu bezala, bi egunen buruan heldu da Joffre jeneralaren manua: hezur eta bizar baizik ez diren soldadu hauek osagarri guziekin beharko dute aitzinatu biharamunean, alemanen fueratzeko beren lurretaraino. Buruilaren 6an hasirik oldarra, 8an suan sartu dira 49.eko gizonak. Arratsalde guziz oldar batean arizanik, gauean La Meuliere eta Auvois-Milos ibar muturrez jabetu dira. Kuraia pitta bat hilzorian ziren gizon hauentzat. Julien Bizkaik beso bat galdu duela, hori baizik ez, obus bat zapartaturik. Kanpainako ospitalerat eramanik, ez da segur bizirik heldu den. Bidean odolusturik hil dela entzun dute batzuek, oraino ebakuntza larria egiten ari zaizkiola, bertze batzuek. Biharamunean berriz aitzinerat egin dute, eta hurrengo egunean aitzinago. Vaux, Unchain, Beaurieux, Craonnelle eta, Plateau de Vauclerc aldeko eiheratik aitzinerat, Craonne azpian guduan lotu dira alemanekin. Harrobietan iltzatuak bezala baitira botxe tzar horiek, hiru egun egin dituz-

te gudu gorrian, ez goiti, ez beheiti. Luzien Laviellek izan du heriotza bat hitsa gudu horietan. Oldarrean abiatu, kanoi peza batek zango biak lehertu, eta bi suen artean bizirik baratu da oraino. Sua atertu delarik eta lainoa altxatu, nehoren lur horren erdian agertu da Luzien, odolusten ari bi zangoetarik, pleinuka eta heiagoraka, soldadu adiskideei tiro bat galdatzen otoi. Martin Etxegarai, Jean Salaberri eta Silvain Tucoulet adiskideak zoratu bezala dira ikusgarri horrekin eta belarriak estali dituzte Luzienen harramantzarik ez entzuteko; otoitz eroei lotu dira zein bere kautan. Oren baten buruan, ikusirik alemanek ez dutela beren lana finitu nahi, Bernat Agirrek eskaini du bere burua. Zizpa zuzen ezarririk, kopeta erdian eman dio erematea Luzieni. Eldarnio batean oraino, Luzienen adiskideek ez dute asmatu eskerrak bihurtu behar ote dizkioten Bernati, edo muturreko bat eman, baina onartu dute, azken buruan, su zelairat gorpuaren xerka abiatzea alferreko lana litzatekeela. Esker on mezuen esperantzarik gabe itzuli da Bernat bere tokirat, egin beharreko lana bururatu duenaren trankiltasunaz. Von Kluck jeneralaren armada harrobietan tinki lotua izaki, hiru egunez eutsi diolarik oldarrari, Frantziako Armadak zehe bat gibelago igorri ezin duelarik, lohitu da

gerla. Alemanek nola, lurrean erreka zuloak egiteari lotu zaizkio frantsesak ere. Erreketako gerla hastera doa. Buruilaren 16an zuloetarat sartu dira 49.eko gizonak, satorren gisa,

eta ahamenik ere gabe ahoratzeko. Azken txokolate zatiak, hilabetez gordean eduki dituztenak, milikatuz jan dituzte Filipe Lurok eta Manex Donetxek. Etxetik ekarri azken tabako hondarrak elkarrekin pipatu dituzte eta, gero, itxaron egin behar, noiz helduko ahoratzeko zerbait, eguna joan eta eguna etorri, eta buruilaren erditan baitira honezkero, Ganix Laxageri kaskoan sartu zaio onddo sasoia dela eta behar duela itzuli bat egin han gibelean, artillarien lerro hartarik gibelago den baso batetarat. Burua nahi badu bere lekuan atxiki hobe izanen duela ez menturatu, Manex Donetxek ihardetsi. Baina bertze konturik ez baitu Ganixek, kargu hartu dio Manexek azkenean, eta kasailan hasi dira biak; Filipe Luro tartean sartu ez balitzaie eta memento horretan erreximenduko orga agertu ez balitz, handiagoa piztuko zuten. Ogi puska zenbait eta haragi zati batzuk aurtiki dizkiete orgatik, 49.eko soldaduek harrapazka ehizatu dituztenak, ahalaz airean eta

ezinez lurrean. Histurak eta kasailak utzirik. Orai aizkora baten galdeginez ari da Rene Ameztoi, «Aizkora txar bat ez da nehon?», ogia ebaki ezinik. «Hortzak nahi dizkiguzue hautsi?!», Gaston Delvallek amorruz, hartu eta ogia aurtikitzen diela orga gaineko soldaduei. «Bo! Haragia on balitz bederen!», segitu zaie Etien Bonnat, ehizatu berri duen haragikia aurtikiz lohitarat. «Ez baduzue apairurik nahi, ontsa zarete!», arrapostu egin die orga gainetik soldaduetarik batek, euskara garbian, ogiak aurtikitzeari utzi gabe: «Izanen dute apairua arratoiek!». 49.ari gaur goizean errefortzu heldu zaizkien hiru hazpandar badira konpainian, ikusten ari direnari zur. Sardina latak eta gasna zatiak badituzte oraino beren zakuetan. Txiletik jin berriak dira; gerla hastearen berri izan eta, ontzia harturik sartuak ziren Parisen. Goizean goiz heldu dira, tenore egokian, eta orai begiak ezin emanik daude hirurak, xoko batean, beren sardina latetarik jaten, ogi eta haragi zati horiengatiko borrokan sartu ere gabe, estonatuak. Lurok galdegin dio haietarik bati, gasna zati bat emanen ote dion. «Ellande Arraiet, Hazparnekoa», aurkeztu du bere burua heldu berriak, gazta zati bat eskainiz. Lurori azaldu dio Txilen izan den urte horietan ahaztu zaiola lehendik zekien frantses doia, espai-

nol pitta bat ikasi haren orde. Orai lanak, aitzindarien manuak ezin ulertuz hor baitabil Ellande gaizoa, eta azken buruan adiskidantza egin dute biek. «Hara, harritua bazara ikuskizun honekin», esplikatu dio Lurok: «Fitsik ikusi gabea zara oraino. Emanen dizkizut bi aholku: manuak oro isil-isila bete, ez goititu burua zehe bat, eta kakotu errekaren arteketarik iragatean. Aitzindariren batek nehoiz deus galdatzen badizu, jar zaitez tente, eta erran *Oui* guziari. Beldurrik ez! Itzuli eta oren erdi batean ahantzi izanen ditu manatuak oro. Kaporalei behar diezu kasu eman, sarjantei ere, baina horien ulertzeko ez duzu arazo mikorik ere izanen, euskaldunak dituzu eta gutiz gehienak». Azalpenak zigarro bat merezi duela erran dio Lurok, eta dudatu gabe eskaini dio tabako zerbait Ellandek: «Arnegitik ekarriak nituen tabakoak oro fundituak ditut», azaldu dio Lurok. Hiru egunen buruko, Lurorekin solasean zainak sosegatu eta, gaurko harridurak ahantzirik izanen ditu Ellandek, ikusiko dituelarik gizon hauek berak lohi artetan haragi mutxitu horiek xerkatzen, bi egun lehenago harrika aurtikiriko ogi kozkorrengatik arratoiekin borrokan. Har meta bat pittaka irensten ari zen haragi mutxitu horretarik jan du Xantiago Fourcadek ere. «Goseak hil baino nahiago dut, bada, begiak

hetsita jan haragi zati eder hau». Beheitiko lotsemangarri batek eraso dio. Ez da hil, halere. Lurok eskerrak ematen ditu baduten tabako funts berri bat. Bart gauean beilan zela, soldadu aleman batek atzeman du Ganix gibeletik, eta lepoa egin dio; zerri bat odolusten den ber gisan kalitu du eta bet-betan finitu zaizkio onddoen biltzeko esperantzak Ganixi. Eskerrak Bernat Agirrek garaiz atzeman duen botxe tzar hori, ganibeta sastakatzeko urdailean. Luro ere lokartu ezinik baitzen oren horretan eta gertatuak oro ikusi baititu, Bernat eta bien artean partitu dituzte Ganixen tabako belarrak. Pipa eta pipa, orai badute gosea zerekin engainatu bederen; pipa eta pipa, tabakoa agortuko zaien beldurrik gabe, biharamunarentzat deus gordetzeak zentzu handirik ez duenez su zelai hauetan,

nahiz eta biharamunak ere ezustekoak sortzen dituen arteka: pipa eta pipa ari ziren egun horietarik batez heldu baitzaizkie etxetik lehen letrak, gaur berrogei egun edo gehiago partitu zirela Baionako garatik. Letrak dakartzan sarjantaren aitzinetik heldu da letren berria errekarat. Isiltasuna manatuz sartu da sarjanta, letren zakua lohitan herrestatuz. Hegaldaka

badoaz letrak, eskuz esku, sarjantak zakutik atera eta izena irakurri ahala. Ateratzen du letra bat, «Denis Mendibe» erraten du apal-apala, adibidez, ondoan dituen bizpalau soldaduk aditzeko gisan justuki, eta letra badoa hegaldaka, soldadu batek hurrengoari emanik, Denis Mendibe dagoen lekurat heldu arte. Eta Denis Mendibek irekitzen du letra, ezpainei ausikika heiagora ez egiteko: anaia ttipienaren lehen komunioa izan zutela bertze igande batez eta aulki gehienak hutsik zirela, eta herriko emazte gazte guziak tristatuak bezala direla gizon gazterik ez delako herrian, hara zer kontatu dioten Denis Mendiberi. Elizaren aldare aitzinean xirio handi bat piztu eta hura itzaltzera ez uzteko deliberatuak direla Luhuson, Jean Bordagarairi; 200 familiak izena eman dutela egun oroz, goizeko zortzietarik iluntzera arte, lerro-lerro, oren oso bat egiteko elizan, beti soldaduentzat otoitzean. Gixunen adorazio bat ederra egin dutela, Bernat Agirreri; Jainkoa ahantzirik zutenak ere jin direla, ahuspez, belduerrez eta negarretan. Hiri anitzetan zizpekin ari direla zaintzen karrika buruak eta gazteluak, Manex Donetxi; gauez kate lodiak ezartzen dituztela Donibaneko bideetan, gaueko bederatzi orenak joz gero ez dela haizu karrikarat jalgitzea, etxean behar dutela egon

guziek. Aleman tzar horiek, diotenez bezala, haurrak jaten ote dituzten, galdea Gaston Delvalleri. Letra erakutsi dio Manexi, eta irriz aritu dira biak, hotsik egin gabe irriz. Soldaduentzat diru bilketa bat egiteko kontzertua antolatzekoak direla Baionan, Jean Indari. Espainolen beldur direla, Xantiago Fourcaderi; aditua dutela Belateko lepoan barrena heldu direla karlistak, frantsesen kontra egitera, Beran eta Elizondon metatuak direla; defendatzekotan, emazteak eta oro soldadu moldatu beharrak izanen ote dituzten. Espainolak gerlan sartuko diren berri horiek guziak Ahuntz Karrikatik heldu direla, Paskal Etxekoparri; jaun erretorea aritua dela bazterren lasaitzen. Soldaduen hil mezu batzuk helduak direla Arnegirat, Filipe Lurori; ea guziak ontsa ote diren, haiek baietz, eta esperantza dutela Filipe su hegian izanen ez den, baizik eta gibeleko lanetan; Julien anaia lotu zaiola ikazkintzari, egunero eta Filipe anaiaren aire handiagoa hartzen ari dela, eta hasia dela ere tabako hazien landatzen. Saran ez dela gehiago pilota partidarik errebotean, Txantxini, eta gisa bereko kontuak Arno Suertegarairi ere; fite bururatuko al duten gerla hori, gazteak berriz errebotean jokatzen ikusteko desiratzen direla guziak. Ardiak ontsa direla, Battitta Garati; Caroline arreba ar-

duratua dela haiekin, eta aise ikasten ari dela; Ezterenzubiko pentzeetarik jausteko tenorea izanen dela fite, osagarri onean direla guziak, eta ber gisan izatea opa diotela. Ortzegun guziez gerlako meza eginen dutela Milafrangan, Rene eta Joseph Ameztoi anaiei, jaso baitute letra bakarra bientzat; badakitela Paris eta hiri handi horietan, Baionan berean, dekadentzia baizik ez dela, jostetan eta bestan bizi direla emazte gazteak, elizaz ahantzirik, masailetan arroz hautsen ematen, ostatu eta zinema lohi horietan sarturik oro, eta gordetzeko otoi halako emazteengandik. Ellande Arraietek ez du letrarik jaso, Txiletik heldu berria baita, senideek ere justuki jakinen baitute non den orai berean. Baina gainerateko soldaduei, hilabete eta erdiz bihotza guziz gotortu eta beren buruez ahantzi diren soldadu hauei, negar malkoak jausi zaizkie uharka; iduri du errekako lohiak biderkatu direla negar horien guzien ur gaziekin, zotinka behar baitute aritu, alemanek ez dezaten fitsik ere aditu, eta iduri du, lohiak biderkaturik, erreketan zangoak barnago eta barnago lurperatu zaizkiela, lurrak irentsi behar dituela, lehendik abantzu lurperatuak bezala ez badira. Arrapostuak biharko galdegin dizkie sarjantak. Paper puskila batzuk eskuratzen entseatu dira soldaduak, badituzte la-

pitza zenbait, lumaren bat ere, trukatuko dituzte, baina bihar beharko dituzte letrak izkiriatu: iluna da, eta ez da haizu argirik piztea su hegian. Biharamunean ere ez dute xantzarik izanen: botxe tzar horiek aurtiki dituzte, gaua heltzearekin, suziri batzuk frantses armadaren erreken buruetarat, eta musker koloreko argitu dira errekak oro. «À la baionette!» garrasika dira hasi ofizierrak oro, «À la baionette!», lo zirenak ernaraziz, «À la baionette! En garde!», esnatzen ari diren soldaduei zizpak emanez eskuetara. Azkenak jalgi direneko erreketan barnatzen hasiak dira soldadu alemanak. Ellande Arraiet zulatu dute lehen-lehenik, sabelean. Aleman bizar handi bat izan da. Ukaldi bat eman eta baioneta sabel erdian sastakatu dio Martin Etxegaraik urde horri. Rene eta Joseph Ameztoi anaiak bizkarrez bizkar borrokatu dira, zizpa kargatu eta tira batak, baioneta inarrosi bertzeak. Gaston Delvallek, zizpa hartzeko astirik ez eta, pala batez kolpatu ditu botxeak; zenbat matrailezur ez ote ditu hondatu, eta zenbat hagin atera. Frantxua Etxeberri ostikoka moldatu da egokien, etsaiari muturren xehatzeko eta belaunen birrintzeko. Jean Indak baionetarekin sastakatu ditu dozena erdi bat behinik behin; azkenean, baina, soldadu aleman batek eman dio tiro bat

buruan, eta bertan hilotz utzi du; fini dira lore jokoak Jean Indarentzat. Azken tiro hori eman eta erretretan joan dira alemanak, jin bezala, jauzi batez. Tokia defendatu du 49.ak, baina gorpu meta izugarriak daude erreka zolan, aleman eta frantses, oro nahastekaturik. Hilobia iduri du errekak orai, zerurat ireki hilobi handi bat, lurra gainerat aurtikitzea bertzerik ez falta. Izanen dute lana gorpu meta hau guzia gibelerat eramaten eta hobiratzen. Aleman tzar horien gorpuak hobiratu beharrak ematen du min gehien, baina lur azalean uztea kalte litzateke. «Arratoien alhatzeko utzi behar lirateke hor berean», kexu da Jean Salaberri. Preso atxiki dituzten hiru alemanak ezarriko ote dituzten lan horretan, baina kapitainak manua eman die eurek ditzaten hilak hobiratu, preso alemanak bakean utzirik. Gorpuak hobiratu aitzinetik, *Requiem* bat erran dute orok bat, Etxeber erretoreak gidaturik, arrosarioak errunez. Holetan, berria heldu da 249.eko gizonetan ere galera handiak izan direla, berri etsigarria, horretan ere bai baitira euskaldunak anitz, helduenetarik, aita familiakoak anitz. Apenas haien berririk izan duten Baionatik partitu zirenetik, eta heldu diren lehen notiziak ez dira loriatzekoak. Ibarnegarai diputatua ere han baita, ontsa behar du, hala errana

dio bederen ofizier batek Jean Etxandiri. Pierre Agerrek, Kalixtrok, Mauletik Pauerako trenean kantari zihoan kuadrilla hark, menturaz, heriotza bizkor bat izanen zuten. Gaineratekoek bizirik irauteko manua dute, alemanak baino berantago hiltzeko zeregina, irautekoa. Aitzindariek manatu dute, bertzalde, jaketako galoiak oro behar dituztela kendu soldaduek. Etsaia aihertzen zaie sobera bizkor, ikusiz eta galoiak dituzten soldaduak nortzuk diren. Aitzindariek behar baitute beren burua babestu, manuak emanen dituen nagusirik gabe tropak beldurtu eta sakabanatuko liratekeelako, ofizierrak fite lotu dira galoiak jaketarik kentzera, lana bururatzeko hurrengo eguna argitu aitzin,

34.eko soldaduak aldizkatzearen egitera etortzekoak baitira ordurako. 12.eko konpainia batzuk ere heldu dira haiekin. Ingelesak han harat dira, iparraldean. Oren honetan, ekia jalgitzen ikusi eta, ez du iduri gauean zer infernu izan den erreka hauetan. Sakreka badoa Filipe Luro pausurat bidean, lurretik herrestan. Bigarren lerrorat sartu direlarik sarjantari galdegin diote letrei ihardesteko egun bat gehiago bede-

ren izanen ote duten. Galdeginen duela, sarjantak arrapostu. Hirugarren lerrorat sartu direlarik itzuli da sarjanta Lurorenganat. «Ontsa da, baina bihar goizeko sei orenetako behar dizkidazue letrak eman. Eta badakizue ezin duzuela erran non zareten, ez gerlako berri bihirik eman ere, nehork ez baitaki letra horiek noren eskuetarat hel litezkeen». 49.eko gizonak oro lotu dira paperetan letra batzuen idaztera, lapitzak elkarri utziz. Buruilaren hondarrean euria pesiaka hasia dela. Errientak bezala apaizak ere gerlan ari direla. Alimaleko apairuak egiten dituztela, xanpain eta guzi. Errekak lohi direla, baina egunak labur iragaten direla. Frankotiratzaileak badirela alemanetan, baina nehoiz ez dutela beren helburua erdiesten. Alemanak tira eta tira arizanik, fite behar dutela funditu munizio guzia, eta orduan izanen dela frantsesen aldi. Ederrak direla toki hauek, eta penagarri dela aleman tzar horiek bazterren hola porroskatzea. Azienda bikainak dituztela xoko hauetan, gerla bururatu eta beharko direla hemengo behi batzuk eraman harat, ikusteko esnetako egoki diren; gasna hautak egiten dituztela hemen bederen. Anitz jende gazte badela batailoian, eta elkartasun handian bizi direla oro. Nork bere fantasiak eta mentsak ezartzen ditu paperetan, esna

ametsetan balira bezala. Guti dira, horregatik, gerlaren makurrak behar gisaz azaltzera ausartzen direnak, zer eta, ofizierrek letrak ireki, irakurri eta etxerat igorri gabe utziko dituzten beldurrez; euskaraz izkiriaturik ere, ofizierren eta axuanten artean badira euskaldunak anitz. Hezur edo gezur, txokolate, zigarreta, izkiriatzeko paper, trikota eta galtzerdi pare eske ari dira guziak; egia erratea baino beharragoak baitituzte tenore honetan. Holetan, sarjantari letra horiek eman eta hirugarren lerrotik pausurat abiatu direlarik, jatekoak hobetu zaizkie 49.eko soldaduei, eta orduan bai atsegina: ogi handi baten erdia, kontserbako haragia, arno xorta bat bazkaritako. Arnoa ekarri dutelarik ontzi handi batzuetan, zer guduak, guziak harramantzaka, zein lehenka. Geroxeago salda bero bat ere eman diete, ogi zerra alimale batzuekin, eta kafe iduriko bat, beroa bederen. Azukrea xuhur izatea. «Bo, azukrea han beherean ere kariotua dela erran didate, beraz...», Henri Gramrandek berri eman, etxekoen letra oroituz. Bezperetako egunak akorduan, nehork ez du gaitzik gaurtik aitzina janen dituztenekin. Bada aguardient xorta bat eta tabako belar poxi bat ere arteka. Eta, batez ere, ez da alemanik xoko hauetan. Eta, anartean, sarjantari eman letrak badoaz zaku

handi batzuetan, azaletan izkiriatu adrezetarat. Guziak helduko diren ez da segur. Zernahi gisaz, soldaduei urriaren lehen egunetan helduko zaizkie senideei letraz galdatu jaki eta jauntzi gutiz gehienak. Salbu eta Denis Mendiberi, gelditu baita paketarik gabe; etxe behar bateko semea izaki, gurasoak maizter, eta familiak orai aste batzuk galdu baitu etxea. Etien Bonnati amak igorri dion paketan, galtzerdiekin batera, postal bat heldu da, semeari erranez gaixo izan dela zenbait astez, baina osagarri onean dela orai, nahiz eta aroa hits den Baionan. Domingo Lopezi, berriz, jakinarazi diote izeba bat hil hurren duela. Elkar kontsolatu dute Domingok eta Denisek, negarrik egin gabe halere;

horregatik, menturaz lehendik egin gabeko negar isuri guziak atera zaizkielako, malkotan urtu dira Domingo Lopez eta Denis Mendibe Omiasainduko mezarekin, hazilaren 1ean. Bai eta 49.eko soldadu gutiz gehienak ere. «Sineste ttipi bat baizik ez zuen soldadu bat nintzen ni», aitortu zaio Gaston Delvalle Etxeber erretoreari: «Zure hemengo egintzak ikusteak eta gerlak berak errotik bertzelakatua naute». «Burla guti

dabil heriotzaz, Jainkoaz eta apezez», erran dio erretoreak Mendiburu bikario gazteari: «Gerla hastearen sasoian egun guziez apezen jaten ari zirenetarik zenbait... ikustekoak dira orai: zein otoitz kartsuak». «Negarrez begiak hanpaturik, gainera», azkartu du Mendiburu bikario gazteak. Etxeber erretoreak mezan erran duelarik ebanjelioa, arima ez dela hilen, Frantziarentzat jausi martirrak sariztatuak izanen direla zeruratekо orenean, zeinen kantu kartsua egin duten soldatu guziek, orok bat eginik, baita Gaston Delvallek berak ere: «Pitié, mon Dieu, c'est pour notre Patrie!». Suaren hegian musikariek ez dute haizu musikarik egitea, hirugarren mailan soilik jotzen ahal dute, pausuan, eta ez beti. Gaur meza handi bat egiteko eta kantuan aritzeko xantza izan dute hirugarren mailan, enborrez eta hostoz eraiki estalpe handi batean. Lehen mailan, mezarik ezin hartu eta, arrosarioei loturik otoitz egin dute soldadu anitzek, orobat euskaldunek, hildakoen ohoretan. 49.eko gizonek meza entzun eta beharko dute lehen maila horretarat igan. Goizaldeko lauretan lotuko dira guziak. Herronkan jarririk bata bertzearen ondotik, su hegirat sartuko dira, herrestan, erreka arteetako lohiak oro bilduz jauntziekin, eta uros soldadu alemanen batek atzematen ez baditu bidean. Oren

pare bateko bidea egin herrestan eta erreketarat sarturik zutituko dira berriz. Soldadu baten garaiera dute errekek, baina leku zenbaitetan hain dira estuak, saiheska joan beharrak baitira; halere, errekek izan ohi dute metro bateko zabalera bana bertze. Tokirat heldurik, bakoitzak beharko du bere zakua ezarri, kartutxoak hartu, eta zizpa hegian ezarri, beila hasteko. Konpainiaren erdia beilan baratuko da, zizpei loturik, eta bertze erdiak errekak konponduko ditu, aitzur eta palaz. Goizeko hamarrak irian helduko dira sukaldariak, bi normalki. Zopa, haragi pitta bat eta ogia izanen dituzte apairu. Burdinazko tupina handi batzuetan ekarriko dute sukaldariek, ziri luze batetarik zintzilik sorbaldetan, eta tupina artilez estalirik ekarriko badute ere debaldetan izanen da: berdin hotz helduko da zopa lehen maila horretarat. Sukaldari gaizoek hiruzpalau kilometroz eraman tupina horien xerka joan behar dutelako soldaduek gibelerat, platerak edo godaletak eskuetan, eta berriz itzuli su hegirat. 49.ak baditu sei kozina eder eta garbi, beti sekulako usain ona barreiatzen dutenak, baina ezin asmatu jakien bero atxikitzen. Kozinari guziak euskaldunak dira, bizpahiru izan ezik. Erreximenduko soldaduek ez dute kexu handirik jakiekin azken asteetan. Ohituratu ere dira. Su

hegian direlarik zopa hotz izanen dutela, bertzerik ez. Bertzela, lohitua bezala da gerla. Arteka goititzen da behar ez zuen maneran soldaduren bat, edo beilatokian higitzen behar ez zuen gisan, agertzen du burua, eta Helmut batek edo Fritz batek, beti baitira frankotiratzaileak prest alemanen erreketan, tiro egiten dio bururat, xuxen-xuxena. Halaxe kalitua dute Paskal Etxekopar. «Geldirik ezin egona baitzen gizona». Bernat Agirrek eman du ebazpena, zaku batzuen gainean etzanda, alemanen lerroei beha mitrallusa laztanduz. Nahiz eta soldadu batzuen ezinegona handitzen doan egunak iragan ahala, lohitua da gerla, hori da egia. Alemanak haien erreketan, frantsesak beretan, ez da bizi zeherik ere batzuen eta bertzeen arteko su zelai horretan. Paskal Etxekoparri, guziz itzali aitzinetik, begietarat jin bazaizkio ere etxeko karolinak, zumarrak, urkiak, sahatsak, sagarrak, gereziak, intxaurrak... ez da deus halakorik erreken arteko lur eremu horretan. Ez da ez arbolarik ez belar bihirik ere. Pinudiak bai, eta lizar bakan batzuk ere, ageri dira pentzeetan eta haitzetan goiti, han harat, kanoiek oraino zanpatu gabeko eremuetan. Erreken arteko gudu eremu horretan, ordea, ez da biziaren mikorik ere ageri, ez oterik, ez iratzerik, ez deus. Lurra, harriak eta lohia baizik ez,

guzia kanoi ukaldika itzulipurdikatua eta zulatua, lohi putzu handiekin arteka. Alemanen eta frantsesen arteko lur hori gizonik gabeko eremua ere da, «No man’s land», Denis Mendibek soldadu ingelesei ikasi dienez. Mr. Snoid delako batekin adiskidantza egina du pausuan, tabako finenetik baitu delako ingeles jaun horrek. Ez landarerik, ez lorerik erreken aitzinean, baina burdin hari elorridun batzuk, zurezko astoetara kateaturik. Alemanek badituzte beren burdin hariak, eta frantsesek ere bai berenak, batzuek bertzeenak erraustu nahi. Atakada prestatzen dutelarik, aleman kanoiek porroskatu eta zartatzen dituzte frantsesen burdin hariak, oldarrean erreketarat sartzeko bidea libro utziz. Frantsesek, aldiz, igortzen dituzte soldaduak binaka, gauez, aliketa batzuekin, burdin hariak eteten saiatzeko. Ez dira josteta atseginak, baina badira boluntario aurkezten diren gizonak. Zenbat holako diren suntsituak, alemanen burdin hariak eten nahiz. Frantxua Etxeberri ere halaxe zuten funditu. Txantxinek eta Arno Suertegaraik beilatokietarik ikusten ahal dute Frantxuaren gorpua oren honetan, aleman burdin hariei estekatua. Zenbat egun dira gorpua hor berean dela, haizeak jaka eta ileak astintzen dizkiola. Ikuskizun hitsa da, eta Frantxuaren adiski-

deek, Janpierra Berruetek eta Henri Gramrandek, galdatu dute, arren eta otoi, Frantxuaren gorpua ikusiko ez duten beilatokietan ezar ditzaten. Zernahi gisaz, su hegiko frantses erreken aitzinean ez ezik, gibelagoko erreka arteetan ere badira burdin harizko hesiak, etsaiak ez ditzan aise egin lehen mailatik hurrengo mailetako urratsak, baldin eta lehen mailan sartzerat kuraiatzen bada. Bertzalde, erreka kantoi guzietan badira beilariak, gau eta egun. Lehen bi maila horietarik gibelerat eraiki dituzte erreka hertsiago zenbait, eta han, saihetsetan, etxola batzuk, soldaduen eta haien tresnen gerizpe. Lehen erizaindegiak ere han dira, sobera urrundu gabe, lehen lerrotik 400 bat metrotara, soldadu kolpatuei lehen artak fite egiteko maneran. Kilometro bat gibelago da bigarren maila, hark ere aitzinean duela erreka bat burdin hariz moldatua eta mitrallusez zaindua. Haien gibelean dira kanoi ttipi ontsa gorde batzuk, eta gibelago, kanoi handien lerroak. Artekak, burdin hariak eta oztopoak badira oraino lerro batetarik bertzerat, ez baita komeni etsaiari lerroak aise iragaten uztea. Hirugarren maila, holetan, su hegitik hamabi bat kilometrotarat da. Han badira klase guzietako trasteriak: hein guzietako kanoiak, automobilak eta kamioiak, zamariak, tresneria metak,

kozinak, ebakuntzetarako etxolak, zurezko aterpeak deskantsuarentzat. Honezkero guziz eta gehienik andeatuak dira inguru horietako herriak. Burdinbideak hirugarren maila horretaraino luzatu dituzte; baina badira bertze burdinbide ttipiago batzuk, bigarren maila arteraino igaten direnak, soldaduei hazkurriaren eramateko tren ttipi zenbaitetan. 49.eko soldaduek ontsa ikasia dute mekanismoa honezkero. Aste guziez lekuz aldatzen dituzte soldaduak: bana bertze, eta gerlako egun bakarreko ukaldiak nola diren, astebete egiten dute lehen mailan, bertze bat hirugarren mailan, eta hilean behin zortzi egun edukitzen dituzte bigarrengoan. Ez beti toki berean, lehen mailan direlarik ere suerta liteke eta errekaz aldatzea, maila berean. Jean Bordagarai zeharo ernegatzen dute aldizkatze horiek. Nahiago du beti toki berean ematea orenak eta egunak: «Aldizkatze horietarik batean gaituzte kalituko. Izanen dira pleinuak orduan». Erreketako guduari heina harturik, 49.eko soldaduei lanik nekeena bilakatu zaie bigarren mailatik lehenerat trasteriak garraiatzea. Lauzpabortz oreneko bidea da, leku bakarraren eta eguneko guduen arabera, kartutxo, granada, ur, arno upel, hazkurri, lasto, zura, burdineria, argi egiteko tresna, arropa eta bertze zernahi gai harturik

bizkarrean, kiloak eta kiloak, mandoak iduri dutela, makurturik, zehe bat ere goititu behar ez dutenez errekatik goiti gorputz atalen bat sobera ez agertzeko, Joseph Ameztoiri gertatua ez errepikatzeko, alegia eta bizkarrean ageriegi zeraman ur zahagiari tiroka lotu zitzaiola Fritz bat, harik eta zahagia zeharo zirtzikatu zion arte. Ur guzia gainerat jausirik, trenpatua heldu zen Joseph, eta urik gabe. «Ileak balez orraztu ez dizkizun artean, uros», kontsolatu zuen Rene anaiak. Baina lohitua bezala da gerla bertzela, eta, noizbehinkako ezusteko horiek goiti edo beheiti, hiri ttipi baten iduri funtzionatzen du erreketako biziak, inurri bedera bere lanekin harat eta honat, nor bere errutinei lotua, nor bere aitzindariaren manuak betetzen, edo betearazten. Jean Etxandi, esaterako, usatu da neurketak egitera, ostalaria izaki bizi zibilean: kalkulatu du, batailoi batean badira mila lagun eta hartzen badituzte 700 bat metro zabalean, eremu horretan jausten direla, egunero, 25 aleman obus bana bertze. Horietarik hogei bat izan ohi dira arinak, airean lehertzen direnetarik, eta bertze bortzak, larriak, lurrean lehertzen direnetarik. Lehen mailako bigarren errekarat eta horiekin lotzen diren arteketarat aurtikitzen dituzte obusak maizenik. Eguneko, obus bakarra sartzen da erreken

barnerat, bana bertze. Bizpahiru kolpatu dituzte astean, horien eraginez; hildako bat, hamabortz egunean behin. Arma tiroak gauez baizik ez dituzte egiten komunzki, salbu eta frankotiratzaile horiek, Fritz edo Helmut horiek, kasailan hasten ez badira. Ezagutu berri duen erizain batek lagundurik egin ditu kontuak Etxandik, gerla hastean kapitain baten axuant izana baita. Ez da erreximendukoa gizon hori, gibeleko erizaindegietan aritzen baita, baina andari ere aritzen denez kolpatuak garraiatzen, holetan ezagutu du Etxandik. Mariano Bethe du izena, eta Ainhoakoa da. Etxandiri kontatua dio gertakari bat, duela bizpalau astekoa: erreken arteko *no man's land* horretan hilak ziren hogei bat gorpuren biltzeko, oren batzuen su etena hitzartu zuten alemanek eta frantsesek. Ez zen hemen berean gertatu, iparraldean baizik. Jalgi ziren andariak, alde batekoak zein bertzekoak, beren oihal handiekin. Gorpu bat guziz xehakatua antzeman zuten, uniformea ere guziz erraustua, andari alemanak eta frantsesak elkarri beha baratu baitziren, gorpua nork behar ote zuen altxatu asmatu ezinik. Nolazpait adostu zuten gorpuak frantsesa behar zuela izan, hazpegiei eta heinari kasu emanik, aski ttipia iritzi baitzuten alemanetarik izateko; eta, orduan, andari ale-

man batek erran zion Marianori, nehoiz gerla bururatuko balitz, Alemaniarat behar zitzaiola bisitan joan. Holetan, bertze hitzik trukatu gabe, izena eta adreza izkiriatu zizkion alemanak paper zati batean. Etxandiri erakutsi dio oharra Marianok. «Suntsitu ezazu paper hori!», zainartu zaio Etxandi. «Aitzindariren batek atzemanen balu!

Aitzindariren batek atzemanen balu! Ez dakit zer eginen lizukeen!». Zenbat aldiz oroitu zaion Etxandiren esaldia azken orenetan Mariano Betheri. Lotinant batek kausitu du paper zati hori, eta fite heldu zaizkio galdeak Marianori: ea nor den Bertolt B. delako hori: ea nola heldu zaion eskuetarat paper zati hori, zeinak baitu izkiriatua Alemaniako adreza bat: ea noiztik ari den alemanentzat lanean: ea nori pasatzen dizkion informazioak: ea bakarrik arizan ote den azpilanean. Zainak airean dituela jarri da Mariano, ez du asmatu lehen aldian ihardesten, oroitu zaio Jean Etxandik erran ziona: «Suntsitu ezazu paper hori!». Mihia korapilatu zaio, arrastaturik eraman dute. Gerla kontseilua fite bururatu da. Azalpenak xeheago eman ditu Marianok; izan du bere buruaren defendatzeko kuraia,

baina ez du aski argibide eman epaile militarren iduriko. Aleman soldadu horrek paperean izkiriatua zion «Keinen mann und keinen groschen» horrek zer erran nahi duen ere epaiketan ezagutu du Marianok, alemanez fitsik jakin ez, epaimahaiak bertzerik pentsatu badu ere: «Gizonik ez eta sosik ere ez». Gerlarentzat alegia: ez gizonik, ez sosik. Espia aritzeaz eta traizioaz akusaturik, hamabi laguneko pelotoi batek fusilatu du Mariano Bethe, eguna argitzearekin. Berri hitsa izan da Etxandirentzat, ulertu baitu isilik beharko duela gelditu. Eskerrak berriro ere su zelairat igorri dituzten, ez baita su hegiko karraska hau baino hoberik buruko errotaren azantza isilarazteko. Oulcheseko kaskoan ezarri dute erreximendua, eta bada lanik: alemanen bertze oldar bati iharduki behar izan zaizkio soldaduak, eta errekak egokitzen ari dira pala eta aitzurrez. Gogoz saiatzen ari da Etxandi, unatzeak lo egiten lagunduko diolakoan. Artean, ez botxe tzar horiek bakarrik, negua ere oldartzen hasi zaie soldaduei. Aitzineko lohi beltzekin nahastekatu dira lehen elurrak, eta estalki harrapaka dira ari soldaduak oro, surik ezin piztu dutenez su hegian. Xemartin eta Paskal Mutrustegi anaiak elkarri elur edo lohi bolak aurti-

kitzen lotu dira, halere, irri karkailaz eta jostetan ezarri baitute pelotoi guzia

azken buruan; iduri du ahantzi dutela anaiaren heriotza memento batez bederen, elur zuriarekin jostatuz. Elur zuriarekin batera bihotz altxagarri heldu diren berriak ere badira hazil honetan: adiskide errusiarrak guduak irabazten ari direla ekialde hartan, eta Pontoixeko eiherarat helduko direla fite atzerriko legioko soldaduak. Berri harrigarriena Janpierra Berruetek ekarri du, ordea. Soldaduen enkarguekin, bizikleta bat harturik, herrirat jautsia zen Thys bera baino bizkorrago, hortzetako pastak, paperak eta postalak, tabakoak, xaboiak... erosteko manuekin. Han non topo egin duen Donibane Garaziko kusi batekin, ofizierren axuant ari dena Estatu Nagusian. Xikito Kanbokoa sarjant izendatu dutela jakin du harengandik. «Xikito, bai, Enrike VIII.a Ingalaterrako erregeari xistera bat oparitu zion hura bera!». Sarjant izendatu dutela, alajaina, artean kaporal izan gabe. «To! Eta nola izan da hori, Janpierra?», galdegin dio Etien Bonnatek. «Xikito horrek pilotako xisterarekin ditu granadak aurtikitzen alemanei!». Sei kapitain aleman, zazpi lotinant, hama-

lau kaporal eta 200 soldadu ditu kalituak gisa horretan, Janpierraren errana sinestera. Fismetik ekarri arno xahar botila bat ireki du Silvain Tucoulet lotinantak, Xikitoren ohoretan topa egiteko. «Biba Xikito!». «Biba euskaldunak!». Gaston Delvalle zutitu delarik «Biba Frantzia!» garrasi egitera, zangoa trabatu zaio lohitan, eta belaunetaraino sartu. «Kotxino! Arnoa isuri!». Oinetako galduen ordainak badira nonahi, zernahi neurritakoak, hildako soldadu horienak guzienak, ez du arrangurarik lohiak irentsi zapatarengatik. Baina lurrerat isuri duen Fismeko arno xahar horren gisakorik nekez kausituko du eztainuzko edalontziak berriz: betiko lurrundua da. Filipe Lurok eskaini dio bere kaliza Gastoni. «Ez duzu nahi?». «Ez dut nik holako gezur batengatik topa eginen. 200 soldadu kalitu, berak bakarrik? Xisteraz granadak aurtikiz? Zoratuak zarete?». Zizpa hartu eta badoa Luro bertze xoko batetarat, bakean pipatzera. Baina beti eta beti bada zertaz arrangura, eta baztertua den alderat lehertu da obus bat, lur metak irauliz erreka barnerat. Tabako belarrak eskuetarik irauli zaizkionez lohitarat, sakreka ari da Luro, eta adiskideek baliatu dute zirikatzeko: «Futxo! Hurrengo letretan behar ditugu galdegin xisterak». «Bai, bai! Granaden aurtikitzeko Helmuti!». «Pilota

partida gaitza izanen duzu!». Kapotatik lurra astinduz zutitu da Luro, kepia kendu eta inarrosaldi bat eman dio galtzen kontra. Isil-isila eseri da gero xoko batean. «Sukar ustelak eraman ditzala!». Damurik gabe pentsatu du, herrak gainez eginik, baina tarrapatan jin zaio Txantxinen aurpegia, hiru egun lehenago sukar ustel horrek jo eta hil gogor gelditu baita. Jean Salaberri ere gaitz handi batek joa egon da eri hiru astez bederen. Sendotu da, eta hor da, ezker hegal horretan, beilari, kolore hagitz onik ez badu ere. Bertan egon behar. Zutik, ahal dela. Gripe tzar batzuk eta erreumatismo batzuk ere agertu zaizkie soldaduei, deus larririk ez, baina txertoak eskas dira, garbitasunak urri, eta gaitz ttipiena ere konplikazio bihur liteke su zelaiaren hegi honetan. Galde biezaiote Jean Bordagarai gaizoari, zakur eztul batek itoa baitabil bertze xoko horretan, eskuak berotu ezinik estalkipean, guziz kukutua lur meta baten gainean. «E, to, Bordagarai, arto biltzen izanen dira Luhuson tenore honetan». Lurori begiratzeko burua goititu du estalkipetik Jean Bordagaraik. Irriño bat egiteko burua goititu, eta berriz itzuli da lehengo jarrerarat, estalkipean kukutuz. Obusa zapartatu eta, eguneko ezusteko larriena pasatua izanen dela pentsatuz laketzen ari dira; erran beharrik

gabe soldaduen artean hedatzen diren pentsamenduak dira: «Bo, izan dugu gaurko errazioa». Etxeber erretorea agertu zaie, erreken itzulia egiten ari. Bihotz sakratuaren irudiak oparitu dizkie Lurori eta Bordagarairi, kapotan ezar ditzaten. Euskaldun anitzek daramate irudi hori kapotan josia, zorigaitzetik gorde ditzan. «Jostekoak ments...», erran dio Lurok erretoreari, eskerrak bihurtuz. «Badut zerbait hemen». Kutxa irekiz, erretoreak sortu ditu jostorratz bat eta hari mutur batzuk, bata bertzeari lotu dituenak. Poincare presidentea eta Ingalaterrako erregea tropen ikusterat jinen direla kontatu die Lurori eta Bordagarairi. «Eta dotore agertzeko oparitu dizkigu, beraz, bihotz sakratuaren irudiak», Lurok. «Ez da aise zuen gisako mando batzuen edertzen», Etxeber erretoreak. Barre egin dute bulta batez bederen. Bulta batez, ez luzaz ordea, harri kozkor bat jausi baitzaie oinetarat, alemanen erreketarik heldua iduri. Harri kozkor bat, eta letra bat hari itsatsirik. Zer deabru ote den ere, tentu handiz ireki du Etxeber erretoreak. Frantsesez izkiriatu letra baldar batzuetan, mezua: *Ager zaitezte hildako lagunen ehorzterat, ez dugu tirorik eginen*. «Zer izan da hots hori?», Silvain Tucoulet lotinanta heldu zaie, harriaren hotsa aditurik, Fismeko arnoz bete go-

daleta eskuan oraino. Erakutsi diote harria; erakutsi, letra. Irakurri du lotinantak. Tanpez, «Ez gara agertuko!», garrasi egin du aleman errekei buruz. Baina segidan: «Jalgi guziak kanporat, nahi baduzue gu ere ilkitzea!». Arno Suertegarairenganat gerturatu eta hondar zakuen arteketarik zerbait ikusten ote duen galdegin dio Silvainek. «Fitsik ez». Soldaduenganat itzulirik, «Ikusten duzue nolako jukutriak darabiltzaten aleman hauek?», erran die lotinantak. «Jauna...». Arnorenganat itzuli da berriz Silvain. Largabista zulo ttipi batean ezarririk, errekatik jalgi gabea badaezpada, lotinanta harriturik da: «Futxo!». Gizonak gibelean metatzen ari zaizkio lotinantari. «Zer da, jauna?». «Jalgitzen ari dira... Armarik gabe... Eskuak agerian... Izanen dira hogeita hamar bat...». «Zer eginen dugu, jauna?», Denis Mendibek galdea amaitu aitzin errekan goiti jalgitzen hasia da Filipe Luro, zizpa lurraren kontra xutik utzirik, eskuak agerian. Kapotatik tiraka hasi zaio Emile Intxauspe kaporala, baina ez du Luro lurrerat aurtiki. Alemanak ere jalgitzen ari, Lurori nehork tirorik egiten ez: Manex Donetxek ere goititu du gorpuaren zati bat errekan goiti. Elkarri beha lotu dira batzuk eta bertzeak. Elkarri behatu diote ere Manexek eta Lurok. Haize hotza ari du. Pittaka, gero eta gehiago

dira gorputzak erreketarik ateratzen ari diren soldaduak. «Emadazue pala bat», manatu du Lurok. «Bertze bat hemen», Manexek. Biak jalgi dira erreketarik, mantso bai mantso, palak eskuetan eta alde guzietarat behatuz. Alemanek igorri dituzte bertze bi gizon, palaz hornituak haiek ere. Lauren artean ehortzi dituzte hor berean ziren bortz lagunen gorpuak, guziak frantses armadakoak baina 32. erreximendukoak, hil baitzituzten 49.eko gizonak su hegirat heldu bezperako oldarrean. Lurok eta Manexek ez dute ezagunik hil horien artean. Lau gizonak palaz hobiak irekitzen eta hilak haietan hobiratzen eta berriz lurrez estaltzen aritu diren artean, bi armadetako gizonak egon dira erreketarik jalgiak, isiltasun betean. Lana bururaturik, eskua elkarri eman diote lau hobiratzaileek, eta zein bere tokirat itzuli dira, mantso bai mantso. Ez da tirorik izan egun guzian gehiago. Bakea. Bertze sei egun eginen dituzte lehen lerroan oraino. Tiroren batzuk izanen dira egun horietan naski, ez oldar gaitzik ordea, 49.ak su hegiko lanetan txanda finitu arte bederen,

hazil hondarrean, Maizyrat igorri baitituzte pausuan, eta Baionatik heldu soldadu gazteak gehitu erreximenduari. Horien artean da Luis Bartaburu, gazte mehakoil bat, kantu zaharrak arras maite dituena; zakuan ekarri baitu soinu ttipia, ontsa inarrosi beharra izanen du hurrengo egunetan. Maizyko pausu egunak alegerak baitira: ostatuetan ausarki isurtzen da arnoa, eta emazteek uros erakusten dute papoa; bada tolerantzia etxe bat ere, zangartearen arintzeko. Lanak eta manuak ez dira desagertzen pausuan halere, martxak egin behar, armak garbitu, gimnasia egin, ikasgai berriak hartu... Baina, batez ere, ostatuan kartetan eta edanean aritzeko egunak dira Maizykoak, arrautza, arrain eta arno xuriz bazkaltzekoak, emazteei bularraldeak igurztekoak, granadekin arrantzan egitekoak, pilotan aritzekoak horma zaharren bat atzemanez gero. Soldaduen iritziko bizkorregi finituko dira egun alegera horiek, halere. Eguberri heltzear, su hegirat itzuli beharra da 49. erreximendua. Hartu zakuak, zizpa, kartutxoak, estalkiak, bizkarreko zakuak eta gainerateko trasteriak oro, eta abiatu dira, Eguberri etxean iragateko esperantzak Maizyn utzirik. Permisioneak izanen ote diren zurrumurruak hedatu dira, baina... Zurrumurruak. Urte berriarekin agian. Bede-

ren izanen dute apairu bat hauta Eguberri egunez: xingarra, laranja, sagarra, xanpain botila lau lagunendako eta, gehiago dena, tabako belarra ausarki. Jean Salaberri, honezkero eztulak ahantzi eta guziz sendotua baita, Jean Bordagarai, Filipe Luro eta Martin Etxegarai eman dira elkarren ondoan, xanpain botila horren funditzera eta musean partida baten egitera, non eta hasi baitira alemanak beren erreketarik musika tzar batzuen egiten. Bernat Agirre, beilan ezarria baitzen, azantza hori ezin eramanik, tiroka lotu zaie, lortu duen bakarra izaki alemanak azkarrago kantuan ezartzea. Xantiago Fourcadek eta Silvain Tucoulet lotinantak erdietsi dute Bernat baretzea: xanpaina godaletean emanik, gibelatu dute beilari postutik. Luis Bartaburuk soinua atera du zakutik orduan, arrapostu ederrena musikaz emanen dietela pentsaturik. *Maita nun zira* kantatuz hasi dira, *Andre Madalen*-ekin segitu, *Ikusten duzu goizean* emateko gero, eta hola, aspertu diren arte. Gudu latza izan da: kantuari atxiki, edo etsaiak irabazi. 49.eko gizonek irabazi dute azken buruan, eta, ospatzeko, «*Pipa hartu ta xoratzen naiz, arno edan ta mozkortzen naiz, moxkortu eta erortzen naiz, nola demuntre biziko naiz?*», kantatu dute *a capella* eta goraki. Bibaka ospatu dute garaipen musika-

la. Handik bi egunetara Battitta Garat jin da, gibeleko lerrotik, albiste harrigarriekin: Ieperko eremu hartan, Belgika aldean, soldadu frantses, belgikar, ingeles eta alemanek egin dute adiskidantza bat Gabon eguneko goizaldean. Armak utzirik, hasi dira afixa batzuen erakusten, *We not fight, you not fight* diotenak batzuetan, *Frohe Weihnachten* diotenak bertzeak. Hasi dira jalgitzen erreketarik, ehortzi dituzte erreken arteko *no man's land* horretan egun luzez usteltzen egon diren hildakoen gorpuak, hasi dira senideen potretak elkarri erakusten, aguardient eta tabako belarrak partekatzen, segitu dute Eguberri egunez gisa berean, jatekoak ere elkarbanatzen dituztela, sartu dira batzuen eta bertzeen erreketan nahasteka, kantatu dituzte gabon kantuak elkarrekin, eta futbol matx bat jokatu dute azken buruan. Alde bateko eta bertzeko ofizierrek adostu dute gerla fini dela. Egia ote? 49.eko gizonek adi entzuten dute Battittaren kontakizuna. Zer egin? Pareko botxe horiek ez dute, bada, gerla finitzeko asmorik ageri. Egia da hilak lurperatu dituztela elkarrekin. Egia da ere Gabon gauean kantuan aritu direla, baina nor bere erreketarik jalgi gabe. «Ez da, bada, alemanen bertze jukutria bat izanen?», Bernat Agirre ez da fio. Silvain Tucoulet lotinanta, gutiago. Itxarotea

deliberatu dute. Urratsik ez egitea da zuhurrena. Baina, badaezpada ere, hitzartu dute tirorik ez egitea datozen orenetan. Gaua iragan da, holetan, ezusteko handirik gabe. Goizean berriz beilariak aldizkatzen ari direla, zanpantzar bat jausi da erreka barnerat, alemanek airean igorririk. Fite bai fite, gerizpeetan kukutu dira soldaduak, alemanek igorri zanpantzar deabru hori zer den igarri ezinik. Beilarien postuak ezin baitira hutsik utzi, alemanek tenore hori balia dezaketenez oldarrarentzat, lotinantak Xemartin Mutrustegi igorri du zer demontre den ikertzera. Beilariaren postutik behatu eta alemanak geldirik direla segurtaturik gerturatu da zanpantzarrarenganat: Xemartinek baioneta puntaz ukitu duelarik zapartatu da, lastoz bai baina bonba ttipiz ere betea izaki. Zortzi puskatan zatitua gelditu da Xemartinen gorpua, eta zortzi puskatan zatitu zaizkio negarrak Paskal Mutrustegi anaiari ere. Gaineratekoek ez dute arrangurarako astirik: Silvain Tucoulet lotinantak fite berrantolatu ditu beilariak, eta Denis Mendiberi eta Domingo Lopezi manatu die zanpantzarraren eta Xemartinen gorpuaren hondarrak biltzeko. «Kamerade!» garrasi egin dute orduan alemanen erreketarik. «Kamerade! Putx, putx, putx!», barre egiten dutela infernuko deabru horiek. Akabo

Gabonetako su-etena: Battitta Garatek ekarriko dituen berriek gero eta prezio ttipiagoa izanen dute hemendik eta aitzinerat. Gerla ez dela nehoiz bururatuko pentsatuz itzuli dira 49.eko gizonak hirugarren lerrorat, baina han bada berri on bat bederen, letraz galdatuak heldu zaizkie etxetik: trikota bat igorri diote Arno Suertegarairi Saratik; ardi larru pare bat Battitta Garati Ezterenzubitik; hiru gasna handi, bat behi esnez egina, Bernat Agirreri Gixunetik; bi galtzerdi pare, bat kotoizkoa, bertzea artilezkoa, Filipe Lurori Arnegitik. Holetan, erreximendu gutiz gehienak jaso ditu urtatseko opariak, handik eta hemendik igorriak. Bertzalde, partitu diete ere baselina, zangoen gogortzeko, hotzeriaren kontra. Jean Etxandik kontatu du Eguberri egun horietan zer duten egin soldadu batzuek baselinarekin: hamasei kilo emanak izan zitzaizkien, eta su eman zieten, gaitzeko argi batzuk eginez besta egunaren ospatzeko. Guzia erre zuten arte. Koronelak egin omen die otoitz bat atsegina, zer uste duten eta, bestarentzat jinak ote diren gerlarat? «Bestarentzat, hor ditugu Maizyko egunak», pentsatu du Battitta Garatek,

besta egunak iduri baitute Maizyko egun horiek, pausuan delarik 49. erreximendua. Maizyko egunak bai, izan daitezkeelako esperantza bat su zelaitik bizirik jalgiko diren. Maizykoak bai, ostatuetan, eta emazteekin. Baina fini dira Maizyko egunak ere. Urtarrilaren 25ean, 26an eta 27an alemanek egin dute oldar bat gaitza, eta frantses armadak tarrapatan utzi behar izan ditu Oulcheseko, Beaurieuxeko eta Maizyko lekuak. Fite iharduki dute frantses kanoiek, 75eko ttipiek zein 105eko handixkoek eta, ez lehen ukaldian baina, alemanak fueratu dituzte azken buruan. Erreketarat itzultzea lortu dutelarik 49.eko gizonek, ohartu dira ez dela errekarik gehiago. Lehenik aleman kanoiek, segidan frantses kanoiek, guziz erraustu dituzte. Hartu aitzurrak, palak, hartu zurak, oholak, hartu iltzeak, sokak, eta lotu lan dorpeari. Beharrik, frantses obusek aleman errekak ere zerbait zirtzikatu dituzten. Hurrengo egunetan edertuko ditu armada bederak bere azpiegiturak. Lan dorpeagorik. Eta zer kiratsa hedatu den erreka guzian: gizon hilak, ustelduak, kea, bolbora, odola. Mokanesak lepo inguruetan bilduz eta ahoak estaliz hasi dituzte lanak, gaua heldu delarik. Anartean, bateko eta bertzeko andariek jaso dituzte ehunka eta ehunka gorpu. Oihal zuri batean gurutze

gorria margotua duten autoetan eraman dituzte, hilak ala biziak, sarri hilak bizitzat harturik, edo biziak hiltzat. Erietarik zenbat hilko diren, oraino, ospitalerat heldu aitzin. Han harat baratu dira alemanen eremurat sartzen ausartu diren soldaduen gorpuak, Frantziako Armadak oparitu kapota blu eta galtza gorriak lohiaren kolorez oro berdinduak; han harat baratu dira, lehendik bertze batzuk baratu ziren bezala; han harat, lehen bertze jauntzi batzuk gorputzez hustu diren ber gisan hustuko dira horiek ere, hari elorridunei estekatuak; han harat, adibidez, Bernat Agirre, ihesi zihoan botxe horietarik bat gibeletik sastakatu nahian ari zela mitrallus batek bete-betean jo eta xifritu duena. Heiagorarik eta marrumarik gabe hil da bederen, bat-batean. Heriotza bizkor bat desiratuko zuen Gaston Delvallek ere, baina ez du xantza hori izan. Obus ttipi baten leherketak itsuturik, lanbro artean galdu da gaizoa, eta hiru soldadu alemanekin tupust egin ustekabean. Eman diote tiro oin batean, segitu du lasterka kontrako alderat, zangoa herrestan, lanbro artean, eman diote bertze tiro bat beso batean, segitu du herrestan, beso eta zango bakarrez, lanbro artean, eta hari elorridun horietarik harago joan ezinik baratu da, hatsanka, animalia bat balitz bezala marru-

maka, egun oso bat iduri izan duen oren batez. Lanbroa poxi bat aienatu delarik errematatu du Fritz batek. Dozena erdi lagun zenbatu ditu Silvain Tucoulet lotinantak konpainiako desagertuen eta hilen artean; esate baterako, Denis Mendiberen berririk ez du nehork. Nehoiz existitu ez balitz bezala desagertu da. Zaurtuak badira bertze zortzi, horietarik bi, larriak. Partea emanik, errekak poxi bat konpondurik, Etxeber erretorearekin otoitz bat egin hilengatik, lo egiteko tenorea da; beila eta beila arteko loaren tenorea alegia. Erreken arteko gordegi horietarik batean sartu da Filipe Luro, sardina hotz batzuen jateko, su ttipian zangoen poxi bat berotzeko, arno godalet baten edateko, lastoen hartzitzeko makilaz, etzateko, beila eta beila artean lo egiteko. Etien Bonnat, Jean Bordagarai, Arno Suertegarai eta Battitta Garat musean ari dira, Maizyn edanen duten arnoa jokatzen, Maizyn arnorik gelditzen bada, alemanek erraustua izanen baita guzia beharbada. Arratoien kirri eta karra ozenekin loak hartu ezinik, eztainuzko ontziei karraskan ari baitira deabru horiek, kanporat egin du Lurok, eta Clement Ibarrart antzeman du Luis Bartabururen zangarteari eskuak loturik, guziz santuak ez diren ukitu horiekin hatsanturik. Fite ezkutatu da Luro, hobe kasu ez ematea deitua

izan ez den lekuan. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, hasi dira zenbait egunentzat etxerat joateko permisioneak ematen soldaduei; berriak eragin du poz bat gaitza, aste batzuen buruan epeltzen joan dena, permisioneak ez direlako nahi bezain fite heltzen, erreximendua ez hustekotan soldadu guti batzuek baino ez dutelako hartzen ahal permisionea aldi berean, eta nehork ez dakielako segurki zein irizpideren arabera ematen dituzten permisione horiek. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Leon Iturri kapitainak galdegin ditu bi gizon, Manex Donetxek eta Martin Etxegaraik eskaini baitute beren burua. Gauez errekatik jalgi. Herrestan. Alemanen erreketarat gerturatu. Aliketekin. Hari batzuk eten eta. Obus zulo. Handi. Batetarat. Heldu dira. Erran liteke etsaiarengandik. Hiru metrotarat. Izanen direla. Guti goiti. Beheiti. Bortz orenen. Buruan. Itzuli. Dira. Gibelerat. Informazio. Mikorik ere gabe. Baina hilik gabe ere. Zorionez. Errekan sartu eta. Manex Donetx ohartu da gerla hasi zenetik urratu duen laugarren zapata parea duela eskuen arteko hau. Lotsa zen oinetakoen eranzteko; hotzarekin zangoak hanpatuak ditu, eta badaki behin oinetakoak kenduz gero beharko dituela bi oren bederen berriz jaunzteko. Baina zapata hauek lau tokitarik zulatuak

daude eta zola guziz urratua dute, lokarriak etenak edukitzeaz gainera. Eskuratu ditu bertze bi pare, hein bat handiagoak. Jaunztea lortuko ote duen, indarka ari da, zangoak igurtzi eta ahal bezainbat berotuz. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Rene eta Joseph Ameztoi anaiek edan dute zipu bateko uretarik, eta biak eri larri egon dira, sukarretan. «Alemanek pozoitua izanen zen, hain segur», ebatzi du Silvain Tucoulet lotinantak. Aitzindariek manatu dute herritik iluntzeetan mandoetan eramandako zahagietarik baizik ez edateko ura. Ameztoi anaiak artatu dituzte behar zen tenorean, deus larririk gabe, eta astebeteko epean sendotu dira. Domingo Lopezek pentsatu du ez litzatekeela aitzakia txarra zipu horretarik ur zerbait edatea egun batzuen pausua irabazteko, baina zipua hesteko manatu dute aitzindariek berehala, Domingori gehiago gogoetatzeko astirik utzi gabe. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Poincare presidentea eta ministro batzuk izan dira soldaduen ikusten frontean. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, heldu da goreneko aitzindarien manu bat, debekatzen baititu permisioneak 49.eko gizonentzat: orai artean permisioneak erabili dituzten euskaldun zenbaitek iragan dutelako muga, gibelerat ez itzultzeko. Desertoreak direla

kausa, beraz, permisionerik gabe gelldituko da errexi-mendu guzia, eta tabu bilakatu da hitz hori, *desertorea*, ezin dena erran norbait irakiten ezarri gabe. Haserre dira batzuk, desertoreak traidoretzat joz. Haserre dira bertzeak ere, koronelek desertatzeko gogo handiagoak eman dituztela argudiatuz. Jean Etxandik aurtiki du, iraina balitz bezala: «Alemanek izanen dute, bai, permisionerik!». Soldaduek ikusiak baitituzte alemanen errekak, berenak baino anitzez txukun eta artoskiago eraikiak, ikusiak baitituzte ere haien arma azkarrak eta gerlako teknikak, frantses armada gutiz gehienean gibeletik doakiela uste dute zinez. Permisionetan ere finago behar dute alemanek, hala ondorioztatu du Etxandik beraz. Erranaldiak bazuen bigarren parte bat, –«Desertatzeko eta alemanen alderat pasatzeko gogoa bai, emanen digute»–, isilik gordetzea eta ez erratea erabaki duena azken unean. Larrazkenaz geroztik jendarme gero eta gehiago badira armadaren gibelean, arduratzen baitira soldaduek ez dezaten deserta. Eta badituzte manu zehatzak eta errebolberrak beren esku, zeregin hori betearazteko. «Isilik hobe, handiagorik erran gabe», pentsatu du beraz Etxandik. Jean Bordagaraik osatu ditu, zernahi gisaz, Etxandik boz goraz erran ez dituenak: «Liberté,

égalité, fraternité... Hiru gezur horiek egiak balira!». Eta sarde bat balu bezala inarrosi du zizpa airean, baioneta lohitan iltzatuz gero. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, martxoan hor nonbait, aitzurrekin erreka berriak eraikitzen ari zirela, hezur batzuk jo dituzte Janpierra Berruetek, Henri Gramrandek eta Jean Salaberrik. Silvain Tucoulet lotinantari galdegin diote soldadu frantsesik ba ote zen inguru horretan lurperaturik lehendik, hezur, ezpata eta traste bitxi zenbait atzeman baitituzte lur iraultze horretan. Lekua ikerturik, harritu da Silvain, xoko horretan nehor lurperatu izanaren berririk ez baita paperetan. Leon Iturri kapitaina ohartarazi eta inkesta abiatu dutelarik ezagutu dute inguru horietan berean erromatar inperioaren aldiko borroka gaitz batzuk izan zirela. «Soldadu erromatarrak dira, beraz», ebatzi du Silvain Tucoulet lotinantak. «Eta zer eginen dugu soldadu erromatar hauekin, jauna?», galdegin dio Henrik. Salbatu ahal izan dituzten hezurrak, armak eta trasteria hori guzia zaku batzuetan eman dute, Pariserat igortzeko. «Hobe duzue, zernahi gisaz, inguru horretan gehiago errekarik ez egin», manatu die lotinantak; soldaduek badute bertzelako lanik, arkeologiara jostatzen hasteko. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Battitta Garatek eka-

rri du solasera udaberrian izanen dela oldar bat alimalekoa alemanen kontra. Baina hori erran eta berehala, alemanak heldu dira bertze jukutria batekin: bitrioloz beteriko botilak aurtikitzen hasi dira frantsesen erreketarat. Eta zepelin lazgarri horietarik Paris bonbardatzen hasiak direla ere jakin dute. Lohitua eta itoa bezala da gerla, eta etsaiari ausiki bat egitekotan zerbait behar da pentsatu, alemanak ari direnez, futxo! Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Janpierra Berruet igorri dute mandatu batekin bigarren mailarat; alemanek zirtzikatua zuten erreka bat iragateko, patarrerat igan delarik, goititu behar izan du nahi baino gehiago, lotu zaio karraskan aleman mitrallus bat, epaitu dio tiroka beso bat, eta errematatu du lurrean. Xantiago Fourcadek berreskuratu du gorpua, berantegi ordea. Xantiagok berak izkiriatu dio hilberria Janpierraren familiari. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Etxeber erretoreari oroitu zaio ostegun santua dela apirilaren 1a, eta antolatu nahi izan du meza bat eder-ederra. Ogirik eta arnorik gabe, ordea. Galdatu eta galdatu, ezin nehondik atzeman. «Garizuma ederra eginen dugu aurten», zirikatu du Manex Donetxek. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Arno Suertegaraik erran du gibelatzen ari dela frantsesen oldar handi hori, udaberria ere jo-

anen dela martxa honetan, eta, hori erran eta bi orenetan, botxe malapartatu horiek egin dute oldar bat lur metro batzuk bereganatu nahirik. Gudu gaitzak izan dituzte maiatz guzian, eta berriz ere permisioneak eten dituzte aste batzuez. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, 49.eko gizonek jakin dute gas pozoitu batzuk isurtzen hasiak direla alemanak; Ieperko gerla tokietan gertatu da. Hil handirik ez bada ere, espantu eta gaitz lazgarriak eragiten dituzte gas horiek. Zer ote eta zer ote, fite ikasiko badute ere, oraino nehork ez daki zer diren gas horiek, eta lotsatu dira soldadu zenbait. Handik laster eman dizkiete maska batzuk, eta pausuan erakutsi diete nola behar dituzten jauntzi, baliatu beharko baitituzte gas horretarik zerbait atzemanez gero, denborarik ere galdu gabe. Mandoei ere nola ezarri, han berean erakutsi diete, mandoek ere badituzte eta beren maska bereziak. Jean Salaberri hasi da irri zoro bat egiten ikusiz eta soldadu lagunek zer-nolako itxura duten maska tzar horiek jauntzita, eta, irri zoro horren kausaz, aurpegian maska ezarri ezinean aritu da; sarjant batek behar izan dio lagundu behar den gisaz ezartzen. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, soldadu alemanek frantses erreketarat igorri dute harri bat airez, galdatuz zi-

garretak jakiaren truke. Filipe Lurok igorri die tabako belar zerbait, eta alemanek itzuli dituzte haragi zati bat eta ogi kozkor beltz bat, ikatz zati bat iduri duen ogi gogor bat, zatar paper batean bildurik. Tabakoa aldatzeaz damutu da Luro, trukean galtzaile gelditu delakoan. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, poztu dira 49.eko gizonak oro, Italiak erabaki baitu gerlan sartzea maiatz hondarrean, eta Luis Bartaburuk jo ditu arin-arin batzuk, Battitta Garatek eta Domingo Lopezek airoski dantzatu dituztenak. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, alemanek asmatu dute bertze jukutria bat, lurra zulatuz-zulatuz heldu baitira frantsesen erreketarat. Burua agertu duelarik sator malapartatu horietarik lehenak, burua agertu duelarik bere kasko zorrotz horrekin, granada bedera aurtiki dute Jean Etxandik eta Emile Intxauspe kaporalak sator zulorat. Burua agertu duen hori hil gogor utzi dute betbetan, eta gibelerat egin dute haren adiskideek. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, obus gehiago zapartatu dira oraino. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Etxeber erretoreak ez gainerateko guziek jakin dute emaztez beteriko karrosa bat heldu dela atzeguardiarat; ahoz aho hedatu da berria, ez dabil bertze konturik soldaduen artean, eta pausualdia ez zaie heldu

nahi bezain laster. Karrosa horren atarian, soldaduak metatu dira, aste osoko soldata oren erdi batean gastatzeko prest; hor dira Ameztoi anaiak, Clement Ibarrart, Filipe Luro, Emile Intxauspe kaporala... Manex Donetxek nahiago izan du soldata arnoarentzat gorde, eta Domingo Lopezen gonbita errefusatu du. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, uztaila heltzearekin, permisioneak indarrean eman dituzte 49.eko soldaduentzat ere. Baina sekulako matrikulak eta paperak behar dira egin baimen baten eskuratzeko, eta, gainera, herriko bi jaunek behar dute bermea eman permisionea galdegin duen soldaduarentzat; desertatuko balu, jaun horiek eginen lirateke zigorraren kargu. Oraino permisionerik izan ez dutenek egin dute lehen txanda, eta sei hilabete baino gehiago gerlan daramatzatenek, hurrengoa. Lur lanentzat baimen bereziak ere galda ditzakete soldaduek, hiru txandatan, hamabortz egunentzat delarik txanda bedera: uztailaren 1etik agorrilaren 15era. Paskal Mutrustegik baliatu du permisione berezi horietarik bat, bi semeak galdu eta lur lanen egiteko kuraiaz gabetua den amaren bihotza ferekatzeko bulta batez. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Henri Gramrandek bizikletaz herrirat itzulia eginik, jakin du Xikito Kanbokoa zaurtu dutela *crapuillot*

deabru horiekin. «Ez du xisterarekin ihardesteko astirik izan, beraz?». Errebantxa hartu du Lurok. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, uda partean, kasko berri batzuk eta uniforme berriak dizkiete eman soldaduei. Kasko berriek Adrian dute izena, eta RF hizkiak dituzte aitzinean. Obus zapartatuen berun pusketarik babesteko hautak direla erran diete aitzindariek. Urtebetez soinean erabili dituzten jauntziak eta kepiak gogotsu aldatu dituzte 49.eko soldaduek, ez baitzuten sinesten lohitan ibiltzeko eta etsaiari gordean pasatzeko galtza gorri horiek neholako baliorik bazuten. Arno Suertegarairen burua bai, errekan bete-bete jo duen Krupp etxeko obusetik babestu du kasko berriak, baina gorputzean sartu zaizkio obus horretarik zortzi burdin ziliporta bederen. Esperantza handirik gabe eraman dute andariek ospitalerat. Biharamunean itzuli da hilberria konpainiarat, ezen ez Arno. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Beaurieuxen beilari lanetan ari direla, Paskal Mutrustegik eta Jean Larrek ezagutu dute neskato gazte bat, begi blu argi batzuk dituena. Ile luzea motoan bildurik, esne marmita batekin heldu da etxerat bidean. Tentatu dute neskato hori, nork baino nork ausartzia handiagoak egin dituela su hegian, harroak hantzen, esne horretarik poxi bat iraba-

zi nahian. Irri bat egin batak eta esku bat heldu bertzeak, uros da hirukotea, baina handik harat agertu dira Rene eta Joseph anaiak, mozkor arraildurik. Kasailan hasi dira lau soldaduak, neskato hori izutuz eta esne marmita lurrerat aurtikiz. Ameztoitar batek pistola gerritik atera eta bertzeak besotik oraturik eraman du emazteño hori petril baten gibelerat. Paskalek eta Jeanek lekuak hustu dituzte; mingarriago zaizkie neskatoaren garrasiak, *crapuillot* deabru horien azantza bera baino. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, noiz izan den ezin asmatu, alemanak hasi zaizkie gas pozoitu horietarik igortzen; ezarri dituzte orok maskak aurpegietan; halere, bista trabaturik dutela itsuak iduri, eztulka oro, hatsa hartu ezinik, gibelerat egin nahi izan du zenbaitek, eta Silvain Tucoulet lotinantak izan du aski lan soldaduek ez ditzaten utz beren tokiak. Jean Salaberrik utzi du zirrikitu bat maska ezartzerakoan, edo ezarri du berantegi, eta maska barnerat sartu bide zaio gas horretarik; zintzurra erre beharrean, eztul tzar bat hasi zaio, eta maska kendu behar izan du ez itotzekotan. Maskarik gabe, ahoa mokanes batez zernahi gisaz estalirik, lurrean iraulka hasi da Salaberri, eta, orduan bai, gibelerat igorri dute azkenean, mukia eta malkoa zeriola baitzegoen gaizoa, zu-

titu ere ezin zuela egin. Egun batzuen buruan sendotu da, goitika hustu eta barrenak. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, larrazkenean segurki, soldadu aleman bat sartu zaie erreketan, bakarra, armarik gabea eta eskuak goiti, herrestan heldu, desertaturik. Battitta Garatek eta Xantiago Fourcadek atxiki dute. Galdekaturik, erran die asea dela gerlaz eta hilik baino nahiago duela preso. Alemanek ere hotza eta gosea dituztela pairatzen. Letra bat atzeman diote, familiari igortzeko galdegin baitu, erraten duena gerla hau sortu dutenek merezi luketela herronkan ezartzea, sail batean lerro-lerro, eta «bunba-bunba» tiratzea kanoiez, «azkeneraino guziak garbitu arte». Gibelerat eraman dute, ustez eta gainerateko presoenganat daramatela baina fusilatuko ote duten segur ez dakitela, desertorea baita azken buruan, alemanetarik bada ere. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, heldu da koronelaren manu bat, zer eta, zaurtuek ezin izanen dutela muga ondoan iragan pausualdia. Bertze toki batzuetarat eramanen dituzte, ezen ez Donibane Lohizunerat, Uztaritzerat, Ezpeletarat, Baigorrirat, Donibane Garazirat edo Atharratzerat, orai arte bezala. Muga gertuegi dela, eta tentazioari behar zaizkiola hormak eraiki erran du koronelak. Obus bat zapartatu eta, ber-

tze orduz, oroitzea neke bada ere, neguan izanen zen, eskalapoi berri batzuk eman dizkiete 49.eko gizonei; zango-aztalak ederki gerizatzen baitituzte hezetasunetik. Kolpatuen eta hilen altxatzeko anda berri batzuk ere agertu dituzte egun horietan. 49.eko soldaduek jakin dute, Etxeber erretoreak erranik, Dufau Senpereko jaun mediku gaztearen asmakizuna direla anda horiek. Orai arte erabili dituztenak zabalegiak ziren erreken barnean erabiltzeko, eta andariek sarri behar izaten zuten zeharka iragan erreketan, lan gaitza baitzitzaien gizonen gorpuak airean eramatea. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, Gabonak joan dira. Euskaldunek galdatu diete alemanei ea musikarik nahi ote duten, iaz bezala. Luis Bartabururen soinuarekin eman dituzte kantu batzuk, «Bravo! Bravo!», ihardesten dietela alemanek. Eta holetan urtats heldu da, zeinarentzat Joffre jeneralak izkiriatu baitu letra bat. Irakurri diete letra hori 49.eko soldaduei ere. Xingar zati konfitatu bat, sagar ustel batzuk eta zigarreta bedera eman dizkiete. Manex Donetx kontsolatu da, Champagneko arno onxko bat eman dietelako ere; botila, lau lagunentzat. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, euria egin du, bezperan bezala. Eta hurrengo egunean, berriz. Eta ondotik, elurra. Lainoek sekula ez

dutela hustu behar iduri du, lohi putzu bilakatu dira errekak. Obus bat zapartatu eta, bertze orduz, noiz gertatu ote den gogoan hartu ezina baita eguna egunaren gainerat jausten hasi zenez geroztik, sukar ustelaren kontra eman diete xixtako bat soldadu guziei. Eta obus bat zapartatu da bertze orduz berriz ere, otsaileko egun batez, eta eman diete permisionea, zortzi eguneko, Filipe Lurori, Etien Bonnati, Manex Donetxi eta Battitta Garati. Tabakoak eta jatekoak adiskideen artean partiturik, trasteria bildu eta abiatu dira hirugarren mailarat, Baionako Infanteriako 49. erreximendua han errotua utzirik, 1915eko urte guzia eta zerbait gehiago iragan duen toki beretan, Andereen Bideko Hurtebise, Oulches eta Vauclerc aldeko patar deabru horietan, bizi guzia han berean egin balute bezala laketzen ari diren gizonekin. Medikuaren aitzinean pikarrai ezarririk, buztanaren aztertzea izan dute lehen lana Lurok, Bonnatek, Manexek eta Battittak. Halakorik egokitu zaien lehen aldia dute, baina nehork ez duela sifilirik erran die eta, medikuaren baimenarekin uros, bizargilearenganat joan dira ileak eta bizarrak egin diezazkien. Utzi dituzte puskak zaintzapean, ikuzi dira erreka batean, bildu dituzte sosak, egunean bortz soseko soldata baitute, arno botila batzuen eros-

teko bidearentzat, eta partitu dira atzeman duten lehen trenean. Erreketarik landa bizirik ere badenik sinetsi ezinik doaz hasieran, baina etxerat gerturatu ahala iduri zaie ez dela gerlarik gehiago nehon. Nahiz eta bertze orduz zapartatuko diren obusak oraino.

3

> Eskualdunak ez duelarik sobera maite bera baino goragokoa, nahi du bizkitartean autoritatea.
>
> *Eskualduna*, 1887an

«Preces nostras. Exaudi, ut qui juste pro peccatis nostris affligimur, et hanc vermium persecutionem patimur». Leon Etxeberri erretorea, Heletako pentzerik handienean, ile bakanak haizeak harroturik, ihurtzuriari oihuka: «Liberemur!». Surpeliza zuri labur baten gainetik emanik estola blua, beleen karranken gainetik garrasika: «Tua potentia nobis peccatoribus concede». Liburu santuaren orriak inarrosten ditu neguko haize zakarrak: «Quatemus hos pestiferos vermes per nos». Har beltzen aurka predikuan ari: «Maledicendo maledicas, segregando segreges, exterminando extermines». Etxeberri erretorearekin, hogeiren bat herritar, haur, zahar eta emazte. Han dira ere Xan Errekalt gerlatik elbarri jina eta Dominika Zubiri, bi seme

gerlan galduak dagoeneko, bertze semea 49. errexi-menduan eta senarra 142. territorialean dituena orai-no, maingutu gabeak biak baina suan: «Exorcizo vos pestiferos vermes, ut confestim recedatis a campis, sed ad loca transeatis in quibus nemini nocere possi-tis». Har beltzek erreko dituzte pentzeak, Leon Etxe-berri erretorearen predikuak emaitzarik ez badu: «Ut, quocumque ieritis, sitis maledicti, deficientes de die in diem in vos ipsos et decrescentes». Otoitz bortitz bat da, indar handikoa, ez sakramentuaren parekoa, baina sakramentalen arteko bat. Erran ahal izateko, apezpikuaren baimena behar du erretoreak: «Quate-mus reliquiae ele vobis nullo in loco inveniantur, nisi necessariae ad salutem et usum humanum». Leon Etxeberri erretoreak finitu du predikua. Solemnitate handiz aurtiki dio ur benedikatua Heletako pentzerik handienari. Estola, surpeliza eta liburua bildu ditu. Kito. Otoitz bortitz bat da, indar handikoa, baina pre-dikua erran eta harrak beti suntsitzen direla uste iza-tea superstizioa baizik ez litzateke. Errana du erreto-reak predikua hasi aitzin: «Behar duzue jakin fedearen heinekoa dela emaitza». Fedearen karraren arabera-koa da emaitza, beraz. Harrak ez badira funditzen, he-letarrak arranguratuko dira, baina erretorea are

gehiago, pentsatuz eta fedea zein den ahula bere artaldean. «Amen», erran du Dominika Zubirik, gogoa halere Xan Errekalt mainguarenganat doakiola, har beltzenganat joan orde.

Miarritzeko hondartzan, Luzien Lavielleren hamabi urteko ilobaso bat, Dominique, tarteko dela, haur talde batek kausitu du botila bat itsasoko uretan, Irulegiko arno botilak bezain ontsa hetsia, paper puskila bat barnean. Dominiqueren aitari erakutsi eta jendarmeetarat eraman dute, zer dela ere. Sumaturik alemanez izkiriatua dela paper hori, itzultzerat eraman dute: «Otsailaren 13an. Ene ontziak zapart egin du Gibraltar alde hartan. Lagun guziak ito zaizkit. J. de Hildenthein aitzindaria ere ito da. Bakar-bakarra naiz bizirik gelditu, eta hauek izkiriatzen ditut, ene familiak jakinen dituelakoan. Biba Germania! Guzien gainetik Alemania! Biba Gillen gure enperadorea! Hans Hirsch, marinela U-11 urpekoan». Jendarmeen buruak deliberatu du suprefetari behar zaiola jakinarazi, eta jolasterat igorri ditu botila atzeman duten haurrak. Enoatuak doaz haurrak, uste baitzuten kausitu zutela altxor handi batetarat eramanen zituen mapa bat.

Sarako jaun merak jaso du letra bat goizean, hilberri batena. Lan dorpeagorik ez da, baizik eta familiari jakinaraztea semea, aita, anaia, hil diotela. Jauntzi eskalapoiak, ezarri boneta, hartu makila eta jaun mera badoa karrikari buruz, letra hits hori ekarri duen jendarmea lagun, Xuriko xakurra aitzinean harturik. Etxeko borta hesteko azantzak uxatu ditu atariko hesoletan bilduak ziren dozena erdi bat bele. Saran ez baitute lehen hila honezkero, herritarrek ikasia dute jaun meraren eta aldian aldiko jendarmearen promenadaren erranahia. Oro etxeko leihoetan biltzen dira, otoiztuz jaun merak eta jendarmeak bidean segi dezaten beren atarietarat sartu gabe. Isil-isila karrika, herriko etxe guziak jaun meraren, Xurikoren eta hedexuriaren pausoei beha. Komiteak aitzinerat egiten badu, betazalek bezala kliska egiten dute leihoetan gortinek, eta hatsa lasai hartzen dute gibelean gelditzen doazen etxeetako maizterrek. Arno Suertegarairen familiari suertatu zaio gaur komite hitsaren bisita. Xuriko etxeko atarirat bertaratzen sumatu duelarik, leiho hegian beha, kordea galdu du Arnoren emazteak. Xakurrari jarraiki zaio komitea, urratsez urrats. Seme gehienak

ireki die borta jaun merari eta jendarmeari, alabek amari hatsa ematen dioten artean, jarrarazi baitute sukaldeko zizeiluan, kordea itzuliko ote. Letra esku batean makila bertzean heldu da jaun mera, begiak ttipituak. Buztana higitzen du Xurikok. Semeak hartu du letra, atalondoan; ez du malkorik ageri masailetan. Jendarmeak atera du patrikatik medaila bat, Arno Suertegaraik erakutsi adoreagatik Gobernamenduaren esker ona adierazten duena. Jaun merak eskaini dio mutikoari. Xurikok ez dio uzten buztana higitzeari, ustez eta ogi puskaren bat jausiko ote zaion. Semeak hartu du medaila, atalondoan; ez du malkorik ageri masailetan. Esku batean letra, bertzean medaila, eskerrak bihurtu dizkie jaun horiei, eta hetsi du borta. Haur bat baizik ez izaki, ez zaio oroitu jaunak barnerat gomitatu beharrak zituela.

Baionako garan adiskideak utzirik Donibane Garazirateko trenaren zain, etxerat hartu du Etien Bonnatek. Zortzi egun pausuko. Amaren poz alimalekoa, alargun gaizoak seme bakarra izaki, etxeko borta ireki eta Etien atarian ikusi duelarik. Besarkada eta musuen ondotik datoz ganbera, ohatzea, armairua, eta

izpilikuaren usaina: armairua ireki eta... izpilikuaren usaina. Apairu bat ederra plantatuko dio amak semeari, baina lehenik beharko du merkaturat joan eta erosketa batzuk egin. Mantala kendu, saskia hartu, sos batzuk bildu, eta badoa, semea bakarrik utzirik etxean. Ohean etzanda, leihotik lainoak iparralderat igaten ikusi ditu Etienek. Txorien txioez bertzelako hotsik ez dela aditzen ohartu da. Han bezala, hemen ere, lainoak. Han ez bezala, hemen, txorien txioak. Eta izpilikuaren usaina. Lo hartu du gaizoak, eta komunerat altxatzeko ere beharrik gabe egin du lo hamalau orenez segidan. Esnatu denean, hor jarraitzen du izpilikuaren usainak.

Tokitan da Ezpeleta, eta tokitan etxerat itzultzeko esperantzak. Prudent Pikasarriri izena aldatu dio Doneztebeko osabak: Prudentzio hasieran, orai Pruden erraten diote lehen Pikasarri gaztea zenari. Eta Pruden izanen da bulta batez. Erraten zuten bada, bi asteko, gehienez ere hilabeteko, izanen zela gerla, kazeta guziak kalamatika berarekin. Tokitan da gerla bururatuko den azken eguna, tokitan Ezpeleta. Igandeetan, etxeko behiak jetzi eta alhatu ondotik, morroi la-

netarik libro uzten du osabak. Egun horiek baliatzen ditu adiskide berriekin pilota saio batzuen egiteko. Deus guti gehiago: meza nagusia, arno xorta bat ostatuan, dantza soltea, beharbada emazte gazteren baten behakoa xerkatzea. Holetan lurruntzen da iheslariaren bizia: lanaren eta igandeetako josteta ttipi horien artean. Bada emazte bat, Asentsi, sobera lotsatu gabe beha baratzen zaiona, eta badira aste batzuk Prudenek zurrunbilo bat darabilela sabelean, jateko gogoa ere urritu baitzaio. Prudenek ez luke sobera lerratu nahi: aitak gerlatik apartatu bazuen, izan zen arreben senargaiez sobera fio ez zelako, etxearen segida hartzea premuari dagokiolako, eta Pruden gerlan hil balitz ezinen zukeelako etxearen kargu egin. Baina tokitan dira Ezpeleta, eta tokitan aita. Abantzu bi urte badira gerla hasi zela, ez da sekula finituko; gezur galanta erran zuten kazetek, gazteei kaskoen berotzeko menturaz. Tokitan dira etxerat itzultzeko esperantzak, eta emazte gazte horri ile xerloak aurpegirat nola jausten zaizkion beha loriatzen da Pruden, gero eta gehiago loriatzen. Adiskideak ere hasi zaizkio ohartzen, eta ez daki luzaro gorde ahal izanen duen. Menturaz, ezkondu eta bortz urteren buruan eskuratu ahal izanen luke Espainiako naziotasuna. Eta paper berri

horiekin itzuli herrirat, etxearen kargu egiterat. Menturaz. Gerla nehoiz finituko balitz.

Hazparneko ostatu batetarat sarturik, behartsu batentzat ogi poxi bat badutenetz erregutu du gizon batek, guzia bizar eta piltzar dena. Ardo onenetik pegar bat eta bai ogitik ere eman, gasna zati batzuk mahai gainean utzi, eta jarrarazi dute gizon hori. Espainiako bide llaburrenarengatik galdegin du orduan. Anetta Oihanburu ostalersak utzi du gizon hori ontsa jaten, erranik apairuaren ondotik erakutsiko diola bidea. Eskalea ezin aseka ari den artean, Diesse jaun merarenganat jo du zuzen Anettak, ostatuan desertore bat dutela salatzeko. «Jaten eta edaten utzia dut, beharrean baita, guzia bizar eta piltzar. Ez da higituko bertze oren batean, fiteago eramaten ez baduzue». Semearekin presentatu da Diesse jaun mera ostatuan eta, semeak makila aitzinean duela badaezpada, paperak galdegin dizkiote. Amildu da arrotza, eta krimena aitortu du. Haur eta emazte zenbait ostatu aitzinerat bilduak baitira, leihoetarik beha, karrikarat jalgi delarik traidoreka hartu dute arrotz hori. Jaun mera aitzinean, haren semea gibelean, makila eskuan ba-

daezpada, zotinka eraman dute arrotza Herriko Etxerat. Ganbera batean giltzapetu, eta haur bat igorri dute jendarmeetarat. Arrotzari atzeman diote paper zati bat: «Bordeaux – direction Dax – Change Dax, direction Puyoo, direction Mauléon. Prendre le tram à Mauléon sans descendre jusqu'à Tardets, arrivé à Tardets, à pied continuer la route qui va à Lichans...». Tren aldaketarekin galdua bide da. Jendarmeek pusaka eta ostikoka eraman dute gaizoa Baionarat. Handik aitzina desertore arrotzari zer gertatu zaion nehork ez du jakin. Funditu da Hazparnetik, eta funditzearekin itzuli da bakea herrirat. Diesse aita-semeek jaso dute suprefetaren letra bat, esker ona adieraziz, kuraia goraipatuz eta milesker anitz igorriz. Anetta Oihanbururi apairua zorretan utzia dio Gobernamenduak.

Bidearen azken zatia bakarrik egin du Battitta Garatek, Ortzaizen utzirik Manex Donetx, Irisarrirateko bidean, Arnegirateko bidegurutzean despediturik Filipe Luro. Handik aitzinerat, arimarik ez bidean. Eztterenzubirat gerturatu ahala, gisuz zurituriko hormak eta teila gorriak, bele saldoak ogi soroetan, nehor guti lanean, eta gizonik ez horietan, salbu eta edadetu ba-

tzuk. Etxean aldaba jo; nehor ez. Ur benedikatuarekin zeinatuz, barnerat sartu da. Atarian aspaldiko kutxa handia, aterkiekin ondoan. Supazter handia, su harriarekin. Ote adarrak sutan intzirika. Pandero kobrezkoa zintzilik, garbi eta aratz. Aska handia, edalontzi zikin batzuekin. Xingar, lukainka eta piper gorriak zintzilik, eta haien itzal luzeak hedaturik. Ontzitegia, plater, gopor, ontzi zuri-zuriekin bistan, eta zazpi koloreko oilar ttipi bikotearekin gainean. Ama Birjinaren irudi bat haren gainean, flamenkoz izkiriatua bide den esaldi horrekin. Eta aitarena zen zizpa zaharra, tximiniaren gainean. Guzia bere lekuan, garbi, zehatz; guzia, Berlinen sartu nahiz partitu zen egunean utzi zuen leku berean, betiko usain eta kolore berberekin. Babak sentiturik egosten eltzean, lurrun horretan laketu da Battitta, eltzearen tapa altxaturik. Gero ezin izan dio eutsi lastozko kadira ttipian esertzeko tentazioari. Hor berean, kadiran jarririk atzeman du amak, sukalderat sartu delarik. Sustoarekin abantzu lurrerat jausi da emazte gaizoa, bihotzerat eraman du esku bat, eta negarrez hasi da, hori guzia batera eta semeari kadiratik zutitzeko astirik eman gabe. «Caroline! Caroline!», hasi da ama heiagoraka, alaba artaldea behatzerat joana baita barrukira, bezperan ihur-

tzuriak zapartatu zituenez dozena erdi bat ardi. Battitta Garati otu zaio ez dela hiltzeko toki hoberik, etxeko sukaldeko lastozko kadira ttipi hau baizik, baba eltzearen lurrina sentituz, ihurtzuriak zapartaturik hil behar badu ere.

Bertrand Riand koronelaren emaztea joan da, Angelun, tabako bulegorat, eta galdegin dio bulegariari bi sosen tabakoa, prisatzeko. Bulegoko nagusiak erran dio finituak direla prisatzeko tabakoak oro. «Ez da batere?». «Ez zeherik ere». Bertrand Riand koronelaren emazteak bulegariari galdegin dio, orduan, bere tabako poto ttipitik urrintzen uzteko. Bortz libera kobratuko dizkiola halere, bulegariak. Gogo onez ordainduko dituela, Riand andreak. Koronelaren emazteak urrindu du, beraz, bulegariaren tabako pototik, ordainduz bortz liberak, hitzartu duten maneran. Etxerateko bidean, Riand andrea gurutzatu da emazte ezagun batekin, hura ere tabako bulegorat baitoa. Tabakoak oro agortuak direla berriak aditurik, emazte horrek Riand andreari galdegin dio utz diezaion sudurraren sentitzen: «Ni kargatuko natzaizu gastuez». Eta hara nola Bertrand Riand koronelaren emazteak jaso duen bortz

liberatako paper bat, sudurra urrintzen uzteagatik bertze emazte horri. Baina bihotz handikoa baita koronelaren emaztea, Gurutze Gorriari emanen dizkio bortz libera horiek, eta bertze poxiren bat ere bai menturaz, alabarekin oroiturik. Eta beharbada antolatuko du karitate obraren bat ere, soldadu erientzat. Asmamen horietan ailegatu da etxerat, eta egunonak bihurtu dizkio atarian loreak ureztatzen ari den sehietarik bati, umore onez.

Laneko adinean diren gizonak gerla tokietan, aitatxi Tomasek eta amatxi Katerinak badute aski lan, Ziburun, Joanes etxeko jauna sarjant eginik baitabilkie gerlan. Behien azpiak, alhak, garbiketak, belar lanak, baratzekoak, etxea zutik atxikitzekoak, ez dira falta. Hiru ilobaso badituzte eta, haiek laguntzaile. Baina oro ez baita lana eta pleinua izanen, aitatxi Tomasek kontu eta kanta gozatzen ditu ilobasoak abantzu gau orotan: «Bertze orduz, bazen bele zahar-zahar bat, zahar okitu bele bat. Hegal bat bazuen luzea, biziki luzea; bertzea zuen aldiz laburra, biziki laburra. Bigarren hegal hori izan balitz lehenbizikoa bezain luzea, luzeago zitekeen, haurrak, gure belearen istorioa». Irriz

ezartzen ditu haurrak, eta bertze bat galdegiten diote atsedenik gabe, aitatxi Tomasek asmatzen duen arte bertze kontakizun bat: «Behin bazen errege bat. Errege hark bazituen bi alaba. Alaba haietarik bat beztitu zuen zuriz, bertzea gorriz... Nahi duzue berriz?». «Bai!», hiru ilobasoek batera, atsedenik gabe. «Behin bazen errege bat. Errege hark bazituen bi alaba. Alaba haietarik bat beztitu zuen zuriz, bertzea gorriz... Nahi duzue berriz?». «Bai!», hiru ilobasoek batera eta irriz, nahiz eta helduen lanez kargatuak diren, haurrak baitira oraino, eta haurrak nehoiz asetzen ez errepikaren errepiken errepikez. «Behin bazen errege bat...».

Donibane Lohizunen trena hartu du Julio Urkixok, Baionarat sardina saltzen doazen kaskaroten artean, eta adiskide zahar bat topo egin du. «¡Sardina fresca!», «Sardines frais!» garrasi eginez bagoietan, begiak ikatza bezain beltz eta bozak beleenak bezain latz dituzten emazte horiek badoaz besaulkiz besaulki, otzarak erakutsiz. «¡Sardina fresca!» eta «À l'antchois tout vivos!» garrasi horien artean, adiskide zaharrak kontatu dio Julio Urkixo jaunari Hendaiako ostatu batean espainieraz mintzo ziren bi gizon arrasta-

tu dituztela, susmo hitsak harturik. Espioitzan ari zirela egotzi. Zarratu jendarmeen etxean. Autoz eraman Baionarat. Sartu asisetan. Beti lotuak. Eta jujeak sarrarazi dituela sei hilabeterentzat itzalean. Julio Urkixo jaunak, orduan, zeinak bizilekua baitu Donibane Lohizunen joan diren azken hogei urteetan eta Baionan sortua baitu Circle d'Études Basques orai abantzu hamar urte, aitortu dio adiskide zaharrari Baionarat doala letra batekin moltsan, frantsesez izkiriatua letra hori, zalantzak uxatzera, alemanen aldekotzat salatzen duten zurrumurruak gezur alimaleko batzuk baizik ez direla fermuki erratera. Eta adiskide zaharrari entzunik Hendaiako kontu hori, Julio Urkixo jaunari oroitu zaio Agirre doktorea, Eibarko Círculo Republicano delako baten presidentea, Bernarat zihoalarik eritasun baten sendatzerat preso altxatu zutena, zer eta faltrikeran atzeman ziotelako letra bat alemanez izkiriatua. Eta zer larriagorik ez zela gertatu, Alfonso XIII.a Espainiako erregeak Agirre doktore errepublikanoaren aldez egin zuelako. Eta hola, Julio Urkixoren adiskide zaharrari oroitu zaizkio Bordeleko brigada batetarik ihes eginak ziren hiru soldadu, belgikarrak bi eta frantsesa bertzea, atzeman zituztela zenbait aste lehenago Itsasun, goizeko biak irian. Armada utzirik, Itsasu-

rat helduak ziren, eta muga zeharkatzeko zorian atzeman mugazainek. «Zenbat holako!». «Aro hitsa, gerla aroa». «Zer ez ote garen ikusi beharrak». Ondotik, mustatxa zuri sarria duen gizon batek, boneta kendurik eta elkarrizketa entzutea saihestezina izan zaiolako otoi barkamendu galdeginik, azaldu die joan den astean Baionan zela, eta emazte atzerritar bat nahasi zutela espioi batekin, delako emazte hori harat-honat zebilelako katedralaren aitzinean, eta nork edo nork ikusi ziolako bizarra kokotsean. «Gizonez mozorrotu emazte bat!» garrasika hasi ziren batzuk, «Emaztez mozorrotu gizon bat!» bertze batzuk, eta poliziak jin arte ez zuten auzia argitu. «Guti falta izan zen errabiatu batzuek kolpa zezaten, izan emazte edo izan gizon!». «Sardina freskoak nahi dituzue, jaunak? Sardines frais!».

Ortzaizetik goiti Irisarri. Etxerat heldu delarik Manex Donetx, hatua atarian utzirik, xoratzen diren zakurrei kasu eginik, supazterrean atzeman ditu etxekoak, afal aitzineko tenorean, barrukiko lanak eta oro finiturik, goiz iluntzen baitu oraino. Ama ile mozten ari zaie haurrei su aitzinean, eta guraizeak lurrerat jausi

zaizkio semea «Gabon» erranez sumatu duelarik atalondoan. Senideak oro loriatuak dira Manex etxean sartzen ikusirik, ez baitzuten espero. Besarka eta musuka, ito behar dute ttipienek, bai eta amak ere. Aitaren berririk ba ote duen galdegin diote segidan, hatsaren hartzeko ere astirik eman gabe, izanen baitira bortz hilabete letrarik igorri ez diela, edo igorriak baditu ez baita letrarik etxerat heldu bederen. Manexek, odola izozturik, ihardetsi die ez dela zertaz larritu; baduela 142. erreximenduaren berri, lanjerrik gabeko tokietan darabiltela beti, adineko jendea delako horietan, eta letrarik heldu ez bada izanen dela posta zerbitzua zangoz goiti emana delako gerla hasteaz geroztik. Estuago besarkatu du ama, galdeginez zer orenetan afaltzen den etxe honetan. Afalostean, aitona Ximunek berritu dizkio herriko kontuak Manexi: gazterik ez dela gehiago ikusten makilarekin; pilota jokoa ere galtzeko bidean dela lehenaz gainera, pilota utzi eta dantzarat eta ostatuetarat joaten hasiak baitziren gazteak lehenagotik, eta jada ez baita partidarik ikusten, ez herrien arteko lehiarik ez bertzelakorik; emazteak ari direla lan guzien egiten, bai eta igandez ere, josten eta lisatzen aritu beharrean baitira, aste egunez ezin izaten dutena egin lan guziez kargatuak dire-

nez gero. Guzia arrangura eta pleinu da aitona Ximun, eta malko pare bat ere xukatu ditu eskuarekin. Ilobasoari erran dio etxe handi eta ederrenak ere itaxurrekin hasten direla, eta, pittaka-pittaka, gero eta barnago jausten dela ura, zimenduetaraino sartzen, azkenekoz urratzen dituen arte hormak, eta etxe guzia amiltzen. Otoizteko tenorea dela oroitarazi du Manexen amak, zeinak orai berean finitu baititu sukaldeko lanak, eta eskuak garbituz heldu baita. Kadirak suari beha eman eta, belaunak harri gainean, tximiniaren horman dagoen Mariaren irudi horri buruz otoitzean eman dira senideak, ama gidari dutela. «Maria sortzez garbia, otoitz egizu gerlan gugatik diren soldaduengatik eta, batez ere, Mizelengatik. Ontsa gorde ezazu, ama maitea». Hortzak karraskan ari zaizkiola ohartu da Manex.

Otsailaren 3an izaten da San Bladi, laborarien patroia. Hil berean, Kanderailu. Martxoaren 19a San Joseperen eguna da, heriotza onaren patroia. Martxoaren 25ean Salbatore ospatu eta ondoko igandean, Jeanne d'Arc dohatsuaren besta izaten da. Ereiaroaren 23an Jondoni Joan, eta 29an, Jondoni Petri. Agorrilaren

15ean, Ama Birjina sortzez garbiaren eguna. Hazilaren 1ean, Omiasaindu, eta 25ean, Santa Katalina. Bestaberri egunez egiten dira prozesioak. Eta hor dira, beti eta beti diren bezala, Erramu Eguna, Aste Saindua, Pazko Astea, Mendekostea, Garizuma, misioak... Baina Jeanette Bordaxurik, Senperen, Eguberriko beila du gogokoen. Gaueko hamaiketan jateari utzi, lasto argiak hartu eta elizarat biltzen da herri guzia. Noelen kantatzeko eguna da, *Oi Eguberri gaua*, *Atzar gaiten*, *Oi Bethleem*, *Dugun alegrantzietan*, eta bertze. Gauerdia jotzearekin hasten da meza saindua, Gauberri meza, urte osoan egun oroz egiten diren gainerate-koak ez bezalakoa iduri zaiona Jeanette Bordaxuri alargunari, eliza osoa kandelaz argiztatua dela. Euskarazko ebanjelioa erraten du erretoreak, sinestunak oro zutik ezarririk, eta komunioa partitzen segidan. Gainera, eskerren bihurtzeko meza egin zuten azken aldi; han ziren Arnaud, zango bat galdurik; Piarres, besoa erreketan utzirik; Jean, itsuturik. Hantxe, gainerateko herritar guziak ere. Guziak, Paskal Etxekopar izan ezik. Guziak, Jeanette Bordaxurirentzat beharrena izan ezik. Orai engoitik urtea joan bada ere senarraren hilberria jakin zuenetik, Eguberri gauez justuki. Orai

engoitik bi Gauberri meza pasatuak baditu ere geroztik.

Helio Santos bizi ote den jakin nahiz, eta nori galdetu ez baitu, Avironen egoitzarat joan da Etien. «Silence!! Ne parlez pas de la guerre, nos ennemis vous écoutent» izkiriatua duen afixa egoitzaren bortan. Ireki eta, hor Jean Tondut, arduratzen baita garbiketaz, erratza pasatzen ari. «Santos? Funditua da». Xoko batetarat eraman du Etien, non baita borta bat: ganbera ttipi bat, oro traste eta hauts diren apalekin. Hor dituzte atxiki *punching ball*-a eta hondar zakua. «Hemen utzi zituen; jaso nahi badituzu, ez da nehor izanen horiez kargutzeko». Iaz, Baiona Ttipian izanen zen, gauerdi batez, jendarme batzuek karrikan horditurik atzeman zuten Santos. Frantziaz eta gerlaz sakreka hasi baitzitzaien, eraman zuten arrastaturik, eta jujatu zuen gerla kontseilu batek Bordelen. Sei hilabeteko kartzela zigorra eta 500 liberatako amanda ezarri zizkioten. «Zigorra bete, boxeo matxarentzat ezarriak zituen diruekin amanda ordaindu, eta Donostiarat joanen zela erran zuen, Frantzian oro erotuak gineIa erranik». *Punching ball* hori eta hondar zakua bizka-

rrean zamaturik sartu da Etien etxerat, eta, eztul artean, zer trasteria ekarri duen galdegin dio amak sukaldetik. «Amets baten hondarrak» pentsatu du Etienek, baina ez dio ihardetsi. Isil-isila, ganberarat sartu, eta han aurtiki ditu ametsen hondarrak. Orai, ganberan zutik, eskuak gerrian ezarriak, pentsatzen ari da gorde behar ote lituzkeen traste horiek, edo saldu. Menturaz, saltzea eta gerlatik itzuli ondotik Avironekoekin arraunean hastea izanen luke onena. Menturaz bai. Edo trasteria guzia gorde eta Parisen boxeo entrenatzaile on bat aurkitzea. Soldadu lagunek izanen dute norbaiten berri. Menturaz bai.

Kariotzen ari dira jateko guziak, eta urritzen baita ogia ere; irinak abantzu agorturik, okindegiek saltzen dituzte teila beltz bat bezalako ogi kozkor batzuk, ikatzez eginak baitirudite. Bixenta Larregaraik ikasi du lursagarrak haustarrian xehatzen, ogi irina gainetik ematen, eta ore horrekin ogi bat hauta egiten. Biziki on baita eta luzeago irauten baitu ogi arruntak baino. Eta beti badenez norbait beharrean, ogi zati horietarik bat magalean hartu eta Iholdiko sarrerarat joan da, non baita lizar gazte bat. Arbolaren oinetan utzirik ogi

zatia, Ellande Karrikiri agertu zaio orgabidean beheiti, galdetuz ea norentzat ote duen opari hori, ohartu ere gabe lizarraren ondoko sasitzan badituztela bi begi beha. Ezker-eskuin ikertu, Ellande besotik oratu, eta eraman du Bixentak orgabidean beheiti, herri alderat. Azaldu dio neskato bat nolatan gelditu den familiarik eta etxerik gabe, eta nolatan ibiltzen den bidez bide, nehoiz herrirat sartzera ausartu gabe, biloak sasien pare eginak, garbitzen ere ez dela, arropa zahar batzuk soinean, eta behako eri batekin. «Gaizoak ez baitu sei urteko haur baten arrazonamendua ere». Eta orai esperantzetan ezarria du ez jakin nork. «Irri ergel bat egiten dizu ikusten baduzu, baina ez du maite bere buruaren agertzea». Harrabots bat sentitu dute gibelean. Bele aldra bat aireratu da adaxketarik zerurat, eta Bixenta eta Ellande itzuli direlarik harrabots hori zer izan ote den behatzerat, basurde bat edo, ogia falta zen lizarraren ipurditik.

Cazenave jaunak antolatu du kontzertu bat Baigorrin, elizan, gerlako zaurtuen eta hilen senideen alde, Garazin, Kanbon eta bertze lekutan eginak dituztenen gisan. Jakes eta Kaiet Oihartzabalen aita han harat

joan da, Urdozetik partiturik. Seme biak erbestean, bata intsumiso, bertzea desertore, desohorea ahal bezala kargatzen du Oihartzabal aitak, nahiz eta atzerriratzeko bidean semeei lagun egin zien. Kaietek Argentinatik igorri frankoak moltsan harturik, beraz, badoa Baigorrirat, bidean goiti, Cazenave jaunak antolatu kontzerturat. Tenorean heldurik, aitzineko aulkietarik batean hartu du lekua. Eliza hutsa bazen oren horretan, Baigorriko eta auzo herrietako ehunka jendeek mukuru bete dute kontzertua hasteko orenean. Bortarik kanpo badira oraino entzule zenbait, kontzertua hasi delarik Debussyren obra batekin. Doinuak barreiatu dira elizan eta ez dira kandelak izan negar egin duten bakarrak. Moltsa pasatzeko orenean, Oihartzabal aita zutitu da, eskuetan ageri dituela frankoak, hustu ditu guzien agerian moltsarat, eta lekutu da elizatik, ekitaldia finitzera itxaron gabe, oro gibeletik beha dituela. Antolatzaileek erran dute 460 franko bildu dituztela. Larresoroko kolpatuen erietxearendako izanen da parte bat, eta bertze bat emanen diote Baionako Herriko Etxeari, su zelaietan diren soldaduentzat eros ditzan zigarreta eta bertze.

Ernest Fort jaunaren izenean letra bat, postontzian, Baionako Suprefeturatik igorria. Laneko mahaiaren ondoan, kirrimarra batzuk baino ez dituen koadro bat: ogien eta ikatz zatien bodegoi bat iduri du. Hari beha ireki du letra hori: Xoribil jaunak bere lanak utziko dituenez, Fort jaunari kargatua izan zaio Zentsura Batzordearentzat *Eskualduna* itzultzea eta gisakoak ez diren notiziei peladuren egiteko manatzea. Mila deabruen euskaldun horiez ez dira sobera fio Suprefeturan: auskalo zer notizia emanen dituzten mintzaira ulertezin horretan. Fort jaunak, ordea, neke handirik gabe ihardetsiko dio baiezkoarekin Suprefeturaren galdeari, baitaki beste kazetetan argitaratu berriak emanen dituela *Eskualduna*-k komunzki eta, beraz, aurrez zentsura pasatutakoak izanen direla artikulu gutiz gehienak. Eta, bertzenaz, herri ttipietako berri horietan deus ez da arranguratzekorik. Badakienez, gainera, kazeta horren jabeek ez dutela burugabekeriarik eginen, behar ez diren berriak emanez. Lan errazagorik. Mila deabruen euskaldun horiez ez dira sobera fio Suprefeturan, aski ontsa ezagutzen ez dituztelako. Ohoratuko lituzkete bertzela. Gero ihardetsiko dio letrari, baiezkoarekin beraz, baina lehenik ogien eta ikatzen bodegoi horri behar dio eman denbora bat:

iduri du konposizioa osatzen ari dela pittaka. Argiaren indarra eta itzalak non ezarriko dituen erabaki behar du orai.

Fortunatu da E. doktoreak jakitea alemanez, Baionan ez baitira anitz izanen hizkuntza hori dakitenak, edo, bederen, gaur den egunez hizkuntza hori badakitela aitortuko dizutenak. Baietz erran du E. doktoreak ordea, badakiela alemanez. Eta etxeko bortan gauez jo duten lau itsasgizon horiek sartu dute gorpu bat herrestan, hallean etzanda utzi dutena. Gazte bat da, beltzarana, baina ez sobera ere. Buhameen aire bat hartu dio doktoreak, baina aurpegiaren eitea, suduurra... Berdin izan zitekeen Getariako gazte bat. Airean ekarri eta hallean sartu duten itsasgizon horiek azaldu diote itsasontziko sotoan atzeman dutela porturat heldu aitzin, konortea abantzu galdurik, ustez eta alemanezko hitz batzuk egiten zituela arteka, eta fidatzekoa den gizon batek eman diela adreza. E. doktoreak eskerrak bihurturik eta libera poxi batzuk emanik agurtu ditu itsasgizonak. Alde egin dutelarik, atera du burua kanporat, segurtatzeko auzo etxeetan eta karrikan nehor ez dela ohartua: bele baten karranka soilik,

bertze hotsik ez. Gazteak badu pultsua eta behar den gisaz hartzen du hatsa; ahul egotea, hipotermia zantzuren bat beharbada, ez du larriagorik. A. emazteak eta M. sehiak lagundurik eraman dute gaztea sehiaren ganberarat. Hurrengo egunetan, sendotu den heinean, jakin dute armeniarra dela etxean hartu duten gazte hori, Levon Tehlirian duela izena, eta Alemaniatik ihesi heldua dela, nolazpait, E. doktorearen eta A. emaztearen etxeraino. Iaz armeniarrak hiltzen eta deportatzen hasi zenetik, Enver Pachak eta enparauek ez dute atsedenik izan, ez eta Alemanian ere, Gazte Turkoek hiltzen baitituzte armeniarrak arratoiak hiltzen diren baino gupida ttipiagoz. E. doktoreari eta A. emazteari kontatu die Amerikarat nahi lukeela joan, non baitu kusi bat. Letra maiztu bat erakutsi die. Gazteari paperen eskuratzeko burokrazia lanez kargatuko dela erran du E. doktoreak, nondik hasi beharko lukeen ere ez baitaki halere.

«Patuak beharko zuen». Pentsatu bai, baina ezin kontsolamendurik kausitu. Etien Bonnat Baionan eta Manex Donetx eta Battitta Garat bidean despediturik, azkenean Arnegirat heldu da Filipe Luro, tabakoa pi-

patuz eta kea pafatuz ausarki, harrabotsik gabeko tren geldo bat iduri duela bidean goiti. Etxekoekin gogo onez eta uros afaldu eta lo eginik, pentzean laukada bat belar epaitzea izan du lehen lana hurrengo goizean, eta hara non sentitu dituen bi xixtako, odola izoztua utzi diotenak. Belarra lurrerat aurtiki, eta dailuarekin erditik epaitu du suge bipera bat. Belar laukada, dailua eta guziak bet-betan utzirik itzuli da etxerat lasterka. Sukarretan da, ez baita nabari lasterraldiarengatik edo ausikiarengatik den. Fite etzateko eta anitz esne edateko erran dio amak. Aitak behiei jetziriko esnea edanez, amak prestaturiko enplastoak ezarriz, aise iragan du eguna, baina biharamunean hesola bezain gogor esnatu da, eta izerditan bero. «Patuak beharko zuen», pentsatzen du Lurok, leiho hegitik sartzen zaizkion goizeko ihintzari eta txorien kantuei beha. Estutu du bere burua Lurok, hil gogor gelditu behar ote duen orai, hemen etxean izanik, su hegian pairatu ankerkeria guziez eskapo egin eta. Halakoa izan du izerdiaren emana, ezen arrebek hirutan aldatu behar izan dizkioten izara izerdiz trenpatuak. Julien anaia gaztearekin, oraino gazteegi izaki mobilizatzeko, solasean eta kartetan joan zaizkio egunak Filiperi. Bizpahiru egunen buruko sendotu da azkenean. Zortzi

eguneko pausua, eta suge bipera deabru batek ausiki eginik pausuaren erdia ohean egin beharra. Eskerrak Belgikan hasi eta Suitza arteko lerro horretan guzian ez den sugerik: «Euskal Herrirat desertatuak izanen dira guziak. Mierda! Nihauri suertatu behar!». Lasaitzeko erran dio aitak, okerrago zukeela sugeak ausiki egin lekuan gogorturik baratzea, bele tzarren batzuk aterako zizkioketelako begiak, dabiltzan bezala ugarituak zernahiri eraso eginen baitiote martxa honetan. Filipek ez du jakin irri egin beharko ote lukeen aitaren arrapostuarekin, edo serioski ari ote zaion.

Igandeko besta egunak lehen zirena, ez da haietarik fitsik gaur egunean. Mezatik jalgi eta arbola azpietan gizonak elkartzen badira oraino, gizon zaharrak bertzerik ez dira orai ageri, arbola sutan balitz bezalako ke bat dariela, pipatzen oro, kardozko metxa sutuak eskuetan. Lekunberriko pilota plaza, hutsik. Partida amaitu ondoko txalo, irri algara eta purrustak, faltan. Ostatuan sartu da Mizel Irigarairen ama, arno xorta baten edaterat. Baina ostatuan ere harramantzak ttipi, eta ostalaria isil-isila. Muslari zahar batzuk, hitzik egin gabe ere ilar tantoren batzuk altxatzen ar-

teka, iduri baitu enbidorik jo beharrik ere ez dutela zenbat tanto irabazi dituzten jakiteko, egunero partida bera errepikatzen arituko balira bezala. Eguerdiko Angelusa baizik ez da salbatu lehen igandeetako besta egunak ziren hartarik. Ahapetik erran dute emazteek atarian, gizonek ostatu barnean eta arbolapean, txapelak erantzirik, baita Mizel Irigarairen amak ere, edalontzia eskuan duela. Mahai gainean geldi daude erregeak, andreak eta xangoak. Bertze mahaian ere bi gizon heldu, zahar okituak, ahapetik otoitzean, domino jokoa gelditurik. Mizel Irigarairen amari sartu zaio tristura bat hainbertzerainokoa hezurretan, oroituz semeak Bordelen soldadugoa finitua zuela gerlari hastea eman ziotelarik, ezen ezin izan baitu otoitza finitu, eta gelditu da isilik ostatuko gizon helduak berriz ere txapelak kaskoetan ezartzen hasi diren arte. Angelus hori otoizteko tenoreak iduri izan du gerla bat: guzia hain geldo, guzia hain bizirik gabea. Edalontzia hustu du Mizel Irigarairen amak. Herriko oihua eginen dute baitezpada, hura entzun eta etxerat itzultzeko. Kalostrapean bilduak dira emazteak kalakan. Gizonak ere arbolapean, beti pipatzen. Etxexuri agertu da azkenean, atabala joz: «Oihu eginarazten dute...!», hasi du predikua, ohi duenez: Herriko Etxea-

ren abisuak, zerga biltzaileenak, saltzaile zenbaiten dei batzuk eta bertze holako eman ditu oihuz, eta amaitu du ohar irrigarri batekin, irri egiteko kuraiarik badutenentzat oraino: «Claude Mendiburuk jakinarazten dizue bi eta lau zangotako azkonak mahastian dabilzkiola, eta beraz zepoak hedatuko dituela, nahi gabe nehork ez dezan herrenik egin!».

Espartzu hariei zolen forma ematen edo estekatzen, ehunak patroietan ezarri eta ebaki zein josten nola burdinaz lisatzen, edo espartzuzko zola horiei josten, Mauleko Cherbero lantegian zernahi lan egitea egokitzen zaie Marianne, Madeleine eta Graxianari. Badu nork bere espezializazioa, baina bertze langileen hutsegiteak ere bete behar izaten dituzte egun batzuetan, esku fineko langileak izaki. Lan orenak finitu eta, itxaroteko galdegin die Mariannek adiskideei. Atarian elkartu dira hirurak. Marianneren kusi batek muga iragan nahi du hegoalderat, hemezortzi urte eginen dituenez heldu den urtean, mobiliza dezaten zorian baita. «Zaude isilik, otoi! Erokeria duzu!». «Mugak hesten dizkizute noiznahi!». «Julia hori egun oso batez eduki zuten Santa Graziko kasernan». «Ba-

dituzu hogeita bi guarda bederen muga horren zaintzeko». «Eta zer eginen dizu kusiak bertze alde horretan? Atzemanen dizute, eta presondegirat eramanen». Graxiana eta Madeleine espantuka ari zaizkio Marianneri, baina kusia deliberatua da. Ez da zer eztabaidatu, etxean ere entseatuak dira, eta zernahi gisaz ihes eginen duela erran die kusiak. Beraz Juliarekin behar duela mintzatu erran die Mariannek adiskideei. Maiatzaren 1ean, espartinen lantegiko lanak finitu eta etxerat itzuliko da Julia delako hori, urtero ohi duenez, Erronkariko Bidankozerat. Kusia igorriko dute Juliarekin. Ezagutuko ditu bideak, mugako guardek atzeman ez dezaten. Holetan, Julien Cherbero lantegiaren jabea arrastatu zaie parean, galdetuz eta autoz norabait eraman ditzan nahi ote duten. Adiskide batzuen zain direla erranik uxatu dute; badira hilabete batzuk lantegiaren jabea Madeleinez ohartua dela, eta zernahi gisako faboreak eskaintzen dizkiola. Beti errefusatzen ditu Madeleine gazteak, baina dagoeneko ez dakiela zer egin erraten ari zaio adiskideei, lana galdu nahi ez badu onartu beharko ote dion txeraren bat, lanik gabea baratzen bada zer eginen duten etxean guraso zaharrekin, baina hara non datorren Julia delako hori, ile luzea moto batean bilduz gibelean, zapi

beltza buruan ezarri ahal izateko, bele baten irudi bizia baita zapi horrekin, zinez, halakoa baitu mokoa luzea eta okerra. Bele bisaia horri aieru txarra harturik, Graxianak galdegin dio Marianneri fidatzekoa izanen ote den Julia delako hori.

Herdoilak ahal bezainbat garbitu, eta pikatu du aizkoraren ahoa. Atorraren mahukak bildurik, suarentzat enborren zatitzen ari da orai Manex Donetx. Enbor zati osoak ezarri, aizkora altxa, eta amorru guziz askatzen ditu besoak beheiti; aizkora barnatzen da egur zatian, egiten du bidea, eta ebakitzen du bitan; goititzen du aizkora berriro, eta bi zati horiek ebakitzen ditu lautan; goititzen aizkora, eta zatitzen laurak zortzitan... Gurasoak seme-alabetan erdibitzen diren ber gisaz. Aizkora goititzen duen bakoitzean gogorat agertzen zaio Mizel aita Manexi: 142. erreximenduarekin auskalo zer xokotan izanen den orai, bizirik bada. Eta berriz ere amorru guziz askatzen dituelarik besoak beheiti, erraten dio bere buruari surat itzuli orduko behar dituela kudeaketa batzuk egin, argitzeko aita bizirik ote den. Izerditua da Manex Donetx, eta egurtegia betea

du jada. Aski izanen duela erran dio amak sukaldeko leihotik irriz, joateko bazkaltzera.

Kattalin Aizagerren etxean ez da azukrerik. Ez Kattalinenean, ez Garruzeko etxe gehienetan ere. Botiga atarian emazte aldra bat bildua da, saski erdi beteak besoetarik zintzilik dituztela gehienak, guziak arrangura eta pleinu. «Antilletan nahikoa azukre ba omen duzu bada», batek erran. «Itsasontziak eskas, ordea», bertzeak ihardetsi. «Gobernamenduak manatu dizu ekarraraziko duela», hurrengoak. «Kafea azukrez ez hartzeko aholku eman dizute kazetek», parekoak erantsi. «Kiloko kaxa hogeita hamar sosean saltzen ari direla entzuna nauzu». «Gerla deabru hau». Garruzeko emazteen iritziak eta intziriak isilik aditzen ditu Kattalinek, burua makur. «Eta esnea nola kariotu den! Litroak balio bazituen hamazazpi xentimo gerla aitzinean, ezarria da frankotik goiti orai». «Bo, eta ez baliote urik nahasiko bederen». «Basusarriko esneketari bati ezarri diote berrogeitan hamar liberatako amanda bat». «Eta berdin ostalariek, ez baitiote urik nahasten arnoari, urde horiek». «Helas!». «Eta ogia? Hogei xentimo zena, berdin kobratzen dizute zazpi franko-

tan!». «Eta arrautzak, oi, arrautzak! Nork jan litzakeen! Franko bat ere balio ez zutenak, bortz frankotik goiti sartzen dizkizute, eta erdiak ustelak!». «A, bo, eta zergak zer dira bada, hilabetez hilabete emendatzen!». Baina, zer eta zer, Herriko Etxeko idazkariak nardatzen du emazte saldo hori gehien: errazio txartelak partitzen dituelarik, zer-nolako larderiaz zaien mintzo, jainko bat balitz bezala, errazio txartelak bereak balitu bezala. «Eta mutu egon behar txartelak beretzat gordeko ez baditu!». «Uste duzu ez dituen gordetzen!». «Haren etxerat behar genuke partida bat antolatu, xokoen miatzeko! Izanen ditu azukre kozkorrak ontsa gordeak!». «Eta guti balitz, absenta debekatu!», intziri egin du karrikaburuko emazte batek. Guziek deitoratu dute, aho bat eta bakarrez, absenta debekatzea. Garruzeko emazteen arrangurak isilik aditzen ditu Kattalin Aizagerrek, pentsamenduak oro errateko lotsa. Gerla ez finitzeko beldurrez trenpatua baita Kattalin, bizitza nola kariotzen ari den ohartuz; baina gerla finitzeko beldurrez ere baita Kattalin, senarra osorik itzuliko ote zaion etxerat. Belgikan gerla izanen da, baina Kattalinen etxean bake ederrean baitira orai haurrak eta emaztea, bai eta ardiak eta xaku-

rrak ere, Clement Ibarrarten makilaren izurik batere gabe.

Alemaniatik anaiaren letra bat jaso du Elena Sistiagek Saran: «Gaizo arreba maitea, lerro hauek igortzen dizkizut, errateko ontsa garela, baina gose larriarekin. Hartuko genituzke gasna puska edo ilar zenbait, baina ilarrak igorri behar dituzu bortz minutuz egosiak, ez erein ahal izateko gisan. Goseak amorratuak dira aleman hauek, eta atzematen badituzte ilarrak ereiteko gisan, ez dira guganat helduko. Igorri ere galtza eta trikota pare batzuk, hotzak xifrituak baikara. Ontsa eta tinki behar duzu hetsi paketa hori, azken aldian bezala askatua eta zirtzikatua hel ez dadin. Eta, bertzalde, ahantzi behar dituzu gerlako denboran atera dituzten gutun-azal horiek, izkina batean bandera frantses multzo bat duten horiek. Alemanek ez dituzte onartzen, ez pasatzen uzten; *Retour à l'envoyeur* ezarririk zigiluarekin, gibelerat eramanen dituzte». Segitzen du letrak, errepikatuz bandera horiez ahanzteko eta igortzeko jauntziak eta jatekoak ere, eta erantsiz eguneroko otoitzetan oroitzen zaizkiola etxekoak, arrats guziez, lanak finitu eta salda hurru-

patu ondotik. Ontsa direla bertzenaz, laster finituko dela gerla, eta etsimenik ez hartzeko. «Goraintziak zure anaiaren partez». Eta Elena Sistiage lotu zaio gasna zatiez paketak egiteari, aurten egin duen eki poxiarekin eta baratzea bakean utziko ez duten bele eta mika saldo tzar horiekin ilarrak ez baitu ontzeko astirik izan oraino; gordinegi izanen da biltzen hasteko. Baina fite izanen dira horiek ere biltzeko gisan, eta orduan igorriko dio ilar paketa bat eder-ederra anaiari. Bortz minutuz eltzean egosirik. Paketa ontsa eta tinki estekaturik.

Urpeko aleman batek itsasoaren hondoraino urperatu ditu Donostiako bi arrantzontzi eta Donibane Lohizuneko bertze bat: *Mamelena 9*, *Mamelena 12* eta *Verdun*. Haiekin zen bertze ontzi bat, armatua azken hori, *Marne*, baina hura ere erditik kraskatu du urpekoak, defendatzeko aukerarik eman gabe. Baionako iparraldetik 25 miliatan arrantzan ari ziren ontziak, alemanek ezarri mugak zeharkaturik. Ontziak urperatzea aski ez, granadak ere aurtiki dizkiete urpekotik. *Verdun*-eko marinel batzuk hil dira, baita *Mamelena* bi ontzietakoak ere, patroiak barne. Kasailaren ondotik,

Frantziako Armadak igorri ditu ontzi armatu batzuk Bizkaiko golkorat. Capbreton inguruan atzeman dute ustez eta itsasontziak hondoratu dituen urpeko aleman hori. Bertan suntsitu dute. «Pertsonak izanen ziren horiek ere», erran du Maddi Karasatorrek urpeko alemanean zihoazenengatik, Donibane Lohizuneko portuan, kadira ttipietan jarri eta sareak josten ari den taldearen aitzinean. Anne Milliardek arrapostu: «Gerla da gerla; joan den astean gureak kalitu zituzten». Eta, korapilo bati puntada emanez, «Orai haien aldi».

Emazte dohakabe batek bere burua urkatu du Donibane Lohizunen. Senarra gerlan zuen. Bi haur utziak ditu haztekoak. Jaun erretoreak erran du emazte gaizoa ardoari emana bizi zela azken urteetan, eta liberalkeriek eramanen dutela Euskal Herria galbiderat. Emazteak galtzerdi bat baizik ez zuen soinean, gorpua aurkitu dutelarik. Haur bat sehaskan zuela, bertzeak atzeman du gorpua dingilizka ganberan. Jaun mera eta erretorea solasean ari dira, nork behar ote duen bi haur dohakabe horiez kargatu, eta gerlan den senarrari letraren bat igortzea zuzen edo kalte izanen ote den.

Sugearen ausikitik sendoturik, ohetik jalgitzen hasi berria, Filipe Lurok pentsatu du ezin duela Arnegi utzi Politeneko txokolategia bisitatu gabe. Gerla hasi denetik Gobernamenduak erraustu ditu Luzaide eta Arnegi arteko zubi gehienak. Bentakoa, Zubi Handikoa eta Balentinenekoa ez, horiek ofizialak baitira; zutik dira, eta jendarmeek ontsa zainduak. Bertzeak oro, Politenekoa bera, Berñardoinekoa, Marimaingianekoa eta Sinkotenekoa, erreka zolarat aurtiki dituzte. Politeneko txokolategiak badu gaitz bat, Espainiako partean izatea; baina etxearen bertze erdia du Frantzian. Filipe Lurok ez du lehen aldia izanen, lehenago ere muga deabru horren gurutzatzeko paperak erakusten ez hasteagatik behin baino sarriago egina baitu bide bera. Hortaz, etxetik sartu, Frantzian, eta txokolategirat heldu da, Espainian, musu batez agurtuz Marguerite Idiart, arras berotua dena Lukugarai andrearekin solasean. Solasa eten dute emazteek, Lurori zenbat hazi den errateko, bisaia ere aldatu zaiola, luxeagoa duela orai, planta ederreko ageri dela, eta hartuko duela txokolate bero eder bat bizkotxa zati batez. Baina Lurok kuriostasuna du, zertaz ari ote ziren

emazteak. «Bo, deus berririk ez». «Badakizu, betiko kontuak». «Amerikano jaun bat atzeman dutela mugan, abantzu bi mila liberarekin urretan». «Ez badakizu, debekatua da urrea ateratzea Frantziatik». «Baionan jujatu dute; urreak oro kendu, eta amanda ezarri». «Presondegian hilabetez eduki, bertzalde». «Eta Margueriteri ari nintzaion erraten gerla haste hartan tituluak saldu eta diruak Argentinarat igorri zituztenek asmatu zutela». «Badira ere Belgikarat edo Suitzarat igorri dituztenak». «A, bo, baina erretore jaunak errana du urrea alemanei ematea dela hori; horregatik erran dizut hobeki dela diruak Argentinarat igortzea», zuzendu zaio Lukugarai andrea Margueriteri. «Zernahi gisaz, finitu dira hemen urreak». «Hala izanen da, bai». «Iazko udan egin zuten urre biltze bat gaitza». «Bai, Gobernamenduak eman manua». «Banque de France horretarat urre garraio arituak dira guziak; ez da gehiago urre gorririk etxeetan». «Fundituak dira esterlin guziak; bankuetan dira guziak». «Lehen bazen urrea etxe gehienetan, orai paper puskila horiek hedatu dituzte, diru ere iduri ez duten horiek». Bi atsoen arteko solasak iduri baitu mika baten eta bele baten arteko elkarrizketa, erdi zorabiaturik da Luro, eta moltsa ireki du: «Paper puskila horietarik

batekin beharko dizut ordaindu bada». Nolanahi den ere, Margueritek arrangura handirik gabe hartu du Lurok eman paper zatia, oroituz eta espainiar batzuk ibili zirela iazko udan etxez etxe, zer eta urre zatiengatik paper deabru batzuk ematen. Salatuak izan ziren gizon haiek, alemanentzat lanean ari zirela. Atzeman zituzten ez jakin, baina urrea trukatzeko burugabekeria egin zutenak paperekin gelditu, eta urrerik gabe. «Badakizu Ambroise Goitino erretorea hil dela?». Margueritek mahai gainean utzi txanponak bildu ditu Lurok, baietz ihardetsiz, erran diotela etxean, non eta buru ttipi bat agertu baita kozinatik: hatsarrean ez du ezagutu Maitena ttipia, haur zeneko trentza haien orde ile luzea gibelean lotu eta zapi zuri batez estalia daramana, eta irri zabal batez agurtzen ari zaiona kozinatik aterata. Lukugarai andrea eta Marguerite beren solasetan utzirik, bi hitz eginen dituzte Frantziako partean, eta Lurok erranen dio Maitenari Belgikako su guziak baino arrisku handiagoa dutela, zera, Arnegiko sugeek.

Sukaldean eltzeak kal-kal-kal ari dira, eztei prestakuntzei doinua emanez. Santa Graziko erretorearekin

mintzatuak ziren bezperan Mari Jeanne Errekalt eta Charles Fourcade. Bai eta Herriko Etxerat joanak ere, jaun merak legea irakur ziezaien. Paperak sinatu eta ezkondu zituen jaun merak. Arratsean afari gisako bat ere egin zuten, lau lekukoekin. Jaun meraren aitzinean paperak egin bai, baina Jainkoaren begien aitzinean esposatzekoak ziren oraino, eta argia gabe ernatu dira gaur goizean. Soinekoak, urreria eta bertze beharrekoak erosiak zituzten gurasoek iragan astean, bai eta ganbera eder bat eginarazia ere. Gerla hasteko ezteiak hitzartuak zituzten bi familiek. Ezkontzeko baimena erdietsirik, pausurat igorri dute Charles, eta hamabortz eguneko jina da su lerrotik Santa Grazirat, jaun meraren izenpearekin. Muga gertu da, eta tentazioak behar dira saihestu; jaun mera izanen da berme. Kontresposak, bi gizon gazte, joan dira Mari Jeanneren xerka haren etxerat, eta plazan bildu dira esposgaiak, soineko eta jauntzi beltzez biak. Aitaren besotik heldu da Mari Jeanne, amarenetik Charles. Bi lerrotan abiatu dira elizarat. Gazte batzuek lehertu dituzte suziriak gibelean, eta agure zenbait oihuka ezarri. Elizkizuna finitu delarik musukatu dute elkar lehen aldiz haurretarik esposgai ziren horiek. Ostatuan hamaiketakoa egin dute, kafe, txokolate, bizkotxa, arno zuri eta

gorri. Charlesen etxerat bildu dira gero, bazkaltzera. Erretoreak benedikatu die ganbera; bazkaltzera geldi dadin otoiztu diote, bai erretoreak onetsi ere. Bazkalostean izan dira kantuak, *Maitia nun zira*, «Ezkondu eta zerbait banintzen, ezkondu eta deusik ez» dioen bertze hori eta gisakoak. Otoitz bat egin diete eta bibak oihukatu Kalixtro, Pierre Agerre eta gerlan funditu adiskideei. Haurrek pottakurrian jostatu dute, helduen gisara ondokoari pott emanez matelan. Dantza ere egin dute, eta solasean arizan dira, eta iluntzearekin muturrak beroturik itzuli dira gomitatu gehienak euren etxeetarat. Eta orai ezkonberriak sartu dira ganberarat, erretoreak benedikatu ganbera horretarat. Jauntziak eranzten hasi dira, elkarri bizkarra emanez, pikarrai gelditu diren arte.

Achille Venmasek hamalau urte ditu, baina beti erran izan diote bizpahiru gehiago iduri dituela. Achille Venmasek tinko oratzen dio barrari ezker eskuaz; ber eran balizari, eskuin eskuaz. Lehen lerroan da, trena ziztu eginez Mauleko gararat sartu eta arrastatu delarik. Zangoa luzatu du, lur berri horretan tinkatzeko; gibeletik segitu zaizkio bertze 149 belgikar. Baio-

narat sartu zirelarik 400 baino gehiago baziren, banan-banan zenbatuak. Belgikar ez baizik frantsesak zirela aldarrikatu bazuten ere, paperak eskatu zizkieten, azterketak egin, galdeketak. Askatu zituzten. Diru eskean aritzeko baimena eman zien Herriko Etxeak. Amerikako txartelak erosi ahal izan zituzten zenbaitek, diru zerbait bazutenak ere baziren artean eta. Pariserat itzuli ziren bertze batzuk, bizibiderik ezin atzemanez. Karrikan eskean ari zirela, gezurretan, lanarentzat funtsik gabeak zirela. Fite hedatu ziren zurrumurruak: lapurretan arizan zaleak, buhameen pareko edo txarrago. Han harat zebiltzan. Eta gerora gehiago heldu, gerlatik ihesean batzuk, beren etxeetarik jalgiaraziak bertzeak. Enplegua atzeman zuten guti batzuek. Guziak Baionan hartzea ezinezko zela ebatzirik, Maulerat igorri dituzte dozenaka batzuk. Eta garan hor dira harrera prestatu dutenak, jaun mera, jaun erretorea, emazte handi batzuk, jendarmeak, etxeko jaun batzuk. Azken horietarik bat hurbildu zaio Achilleri, besotik heldu, giharrak aztertu, bazter batetarat eraman, eta «Aimez-vous travailler?» galdegin dio. Achillek ez daki flamenkoz baizik; euskaraz ikasteko denborarik ez du izan, eta frantsesez doi bat bertzerik ez jakin. «Travailler» ulertu uste dio etxeko jaun horri,

eta baietz egin dio buruarekin, baietz, nola erraten zen baietz frantsesez? «Oui?». Gerlatik ihesi joan direnentzat badira laguntzak, eguneko 25 sos; baina eskainia izan bazaie lan bat eta uko egin badiote, fite erretiratuko diete laguntza hori, ez badute frogatzen ahal gaizki pagatua zela. Jende arrotzak atxikitzen edo haien haurrak hazi edo begiratzen dituztenek ere badituzte laguntzak; Herriko Etxean galdegin beharrak dira. Achille besotik heldu duen gizon honek Pierre Hegoburu du izena; jaun merari erran dio Achille hautatu duela etxaldeko lanentzat, hitz eginen dutela laguntzei buruz, joanen dela Herriko Etxerat heldu den astean. «Goazen», erran dio Pierre Hegoburuk Achille Venmasi, besotik oratu eta kanporat daramala, orga utzi duen tokirat. «Goazen», errepikatu du Achillek, baliza tinko atxikiz bi eskuez.

Bertze istorio bat nahi du Caroline Garatek, eta bertze bat kontatuko dio beraz Battitta Garatek. Sutegiko ezko kandela goititzeko erran dio arrebari, ez itzaltzeko, eta zigarreta bat bildurik lotu zaio Pattin artzainaren istorioa kontatzeari, nola eskuratu zuen alimaleko gasna bat Garaziko jaun erretorearen etxetik. Alegia,

oroiturik apez paga eman gabea zuela oraino, artaldeak eta oro utzirik joan zen Pattin herrirat. Erretorearen gelari xaharrak ireki zion borta, eta jakinarazi jaun erretorea ez zela etxean. Sukalderat sarrarazi eta gelari xaharrak mahairat atera zizkion arno eta salda Pattin artzainari. Kilimiliklik irentsi zituen Pattinek, bai eta esker onak eman ere. Ogia eta gasna mahaian utzirik orduan, emeki-emeki basoa arnoz betetzen hasi zitzaion gelari xaharra, Pattinek noizbait, ez berehala, erran zion arte aski zuela. Ganibeta atera eta, gasna horri lotu zitzaion gero Pattin, «Zer gasna hauta!», «Hori gasna!», «Izugarria gasna hau!», erraten zuela ganibetaz bertze zati bat ebakitzen zuen artetan. Jaun erretorea ez agertzen, leihotik beha ezarria zen gelari xaharra, pentsatuz Pattinek gasna guzia behar zuela irentsi jaun erretorea heldu aitzin. Halako batean heldu zela sumatu zuelarik, karrikarat egin zuen jauzi gelariak, bai eta jaun erretoreari kontatu ere zer gertatzen ari zen etxe barne hartan. Samurtu zen jaun erretorea eta lauko batean igan, Pattin xaharrak janen zizkiola etxean zirenak oro. Sukalderat sartu eta, erdiraino murriztua zuen gasna Pattinek, tabakoa mahai gainerat aterea, piparen pizteko lanean ari. Apez paga axuri eder batekin eginen ziola erraten

hasi zitzaion Pattin jaun erretoreari, eta biziki goratu zuen erdira murriztua zuen gasna alimaleko hura. «Biziki ona, bai, Pattin. Baina eman kasu, joan den astean mediku jaunak erran baitit gasna horretarik sobera jaten duena mutu gelditzen dela». «Ba ote?», zalantza izpirik gabe, Pattinek: «Jaun erretorea, absolutuki eman behar didazu gasna hondar hori, etxerat eraman dezadan, ene emazte kalakaria ez baitut isilarazten ahal nehondik ere». Eta hara non zutitzen den Pattin, gasna ezartzen mokanes gorri batean bildurik, eta etxerat partitzen, milesker anitz emanez jaun erretoreari. Irriz aritu dira Caroline eta Battitta, aspaldi ez bezala. Gero, itzali dira ezko kandela eta Battittaren zigarreta, eta lotarat joan dira anai-arrebak.

Larunbat arratsa. Debidart erretorea Maulerat joana da Ainharbetik, Pierre Lhande aita gaztearen mintzaldiaren aditzera, atzo eta gaur euskaldunek gerletan izan duten ausartziaz eginen baitu disertazio bat, Mauleko eta Zuberoako eliteen aitzinean. Hiru franko, lehen mailako sarrerek; bi franko, bigarren mailakoek; 0,75, hirugarrenekoek. Bigarren mailako sarrera hartu du Debidart erretoreak. Gibelerainoko

aulkiak oro beteak dira Dudoy trinketean. Harat bilduak dira Maulen nor diren guziak, Julien Cherbero eta bertze espartingileak, elektrika eiheren jabeak, botigariak, ostalariak, jaun mera, lurjabe handiak. Bi orenez aritu da hizlari Lhande gaztea, oren laurden bateko etena baizik ez duela egin, halakoa du karra. Euskaldunen arbasoak, zernahi hipotesi hartzen dela ere –Alaskatik Kaspiar itsasorat eta handik Iberiako penintsularat heldu zirela erraten duena; edo, bertzela, Afrika hegoaldetik Pirinioetarat igan zirela defendatzen duena–, beti «gerlari fierrak» izan direla argi da, Lhande aitak erran duenez. Gogora ekarri du Atlantikoa ere bereganatu zutela eta Anibalen eta Zesarren legioen aurka defendatu zirela, bai eta V. eta VI. mendeetako barbaroen inbasioetarik ere, eta are frankoen IX. mendeko oldarretarik. Handik aitzina, euskaldunak izan dira gurutzada guzietan. Jeanne d'Arc berak euskaldun bati zion eman bere estandartea. Eta Bonaparterekin izan dira gudu guzietan. Baita Harispe marexalarekin ere, Iraultzaren eta Inperioaren gerletan. «Eta halarik ere aurpegiratzen digute iragan mendeko epe batean izan zen intsumiso kasuen gehiengoa! Ez da hor gaitasun gabeziarik edo nazkarik, ez borrokarentzat, ez eta armen ofizioarentzat ere. Merkatu arratse-

tan makila jokoak ikusi dituenak aise onartuko luke hori». Trinketak txaloka ihardetsi dio apez gaztearen erranei. Euskaraz baizik ez zekiten haiek frantsesen artera eramanik galdu zirela azaldu du segidan: «Haien berezko independentziak eta halako tratua ez zutela merezi uste izateak eraman ditu, nehoiztik behin, intsumiso egiterat, ez ordea desertore. Desertzio oldeei buruzko zurrumurru horiek guziek, sinets iezadazue, jatorri teutonikoa dute, eta funtsez biluziak dira. Bat edo bertze soilik segurta litezke». Eta 1914ko gerlan ere Frantziako aberri handiak egin deiari grina paregabez ihardetsi diote Euskal Herriko aberri ttipiko gazteek. «Euskaldunena, garai guziez, soldadu herria izan da». Eta historiaren joan-jin eta zoko-moko guziak arakatu ondotik, euskaldunek gerla honetan, gerla handian, Charleroiko, Marneko, Yserko, Lorrenako... batailetan egin dituzten ausartziak agertu ditu Lhandek. Gero harro aurkeztu ditu Xaro apaiz lotinanta, Euskal Gazteria Katolikoko presidente Carty lotinanta, Igiñiz lotinanta, *Eskualduna*-ko administratzaile Monge soldadu soila, eta gazte katolikoen zerrenda luze bat, entzuleek neke izanen baitute guziak atxikitzea oroimenean. «Biktima saindu eta aratz horiek dira pizkunde zoragarri baten froga, bai eta garaipen

betiko eta handiarena ere. Heroi hauen adibidearekin, soldadu euskaldunak onenen artean sailkatzen dira». Euskaldunak berezko duen adoreari laguntzen baitio fede sakonak. «Badakite aberriagatik immolatzea karitate obra handiena dela. Gudukatzen dira, eta heroi hiltzen». Eta memento horretan txalo luze eta gogotsu batzuk lehertu dira Dudoy trinketean, Lhande aitak baliatu dituenak mintzaldia finitzeko, eskerrak bihurtuz. Eta Debidart erretoreak, zinez irentsi baitu hizlari trebe eta xarmagarriaren solasa, bulta luze baterako ahantziko ditu Ainharben «le corbeau» deika arituak zitzaizkion bertze gazte haiek, eta loriatuko da apezpikuari herriz aldatzeko ez eskatu izanagatik. Eskuak gorritu arte txalo egin, eta zintzurraren bustitzera joanen da Bidegain hotelerat. Harat bidean, apez adiskide batek, erraten baitiote Mindurri, jakinarazi du joan den hilean preso aleman batek eskapo egin zuela Garaziko gaztelutik; zer eginen eta, Mindurri berari ebasten saiatu ganibeta batez! Ukabil ukaldi bat emanik, han berean utzi zuen, lurrean etzanda. Zer nolako irriak, Mindurriren ateraldiarekin. Jendarmeei salaturik arrastatu zuten presoa. Irri artean, Debidart erretoreak erran dio Mindurriri behar dutela Lhande apez gazte hori atzeman, hurrengo aldi emanen duen min-

tzaldian Mindurriren balentria ere aipa dezan euskal gerlariek Historian egin dituzten azaña handien zerrendan. Irri karkailak.

Etien Petitek ere jakin du, azkenean, nondik heldu den tripot zahar hori, tipula eta gatz baizik ez dena. Urtero auzi bera: auzo etxetik ekartzen diete tripot tzar bat, jateko baino zintzilik edukitzeko ederragoa dena. Jean Cazauxekin hitzartu, eta inkesta egin du Etienek. Inkestak argia eman du auziaren gainerat: Kanboko bertze auzo etxeetan ere bisitan izana da tripot zahar hori, Etienen etxerat sartu aitzin. Agerrenian egiten dute urtero jukutria; auzo etxerat igortzen dute tripot mehe bat, oro tipulaz egina, zerriki partitzea egokitzen zaielarik. Baina auzoak, tripot tzar hori ezaguna baitzaio jada, urtero apartatzen du, dingilizka uzten kakoan, eta zerriki partitzea berehala antolatzen, Agerreniako tripot hori igortzeko auzo etxerat. Urtea joan, urtea jin, auzo etxeak bederazka ohartu dira Agerreniakoek egiten duten jukutriaz, tripot hori heldu den arte Etien Petiten etxerat. Eta Etien Petitek zerria hil beharra suertatu; eta Etien Petitek zerriki partitzea egin behar Agerreniakoei. Hartu du, bada, ti-

pula eta gatz baizik ez den tripot zirtzil hori, eta igorri Agerreniarat, nondik partitua baitzen duela zenbait aste. Eta Agerrenian irentsi dute tripot zahar hori, hasi eta buka, kilimiliklik, gogotik irentsi gainera, etxekoa zutela batere ohartu ere gabe, hatzak milikatuz.

Badira zortzi hilabete Helene Bordagarai eta Luhusoko bertze hiruzpalau emazte arrats guziez elkartzen hasi zirela, orai baten etxean, gero bertzearenean, solas zenbaiten egitera, kafe eta bizkotxen hartzera, eta frontean dituzten senarrentzat trikoten eta galtzerdien jostera. Batailoi bat osoa jaunzteko adina trikotatu dute honezkero, baina ezin utzizkoa zaie arrats guzietako zita hori, ez kafe-bizkotxengatik, ez trikotatzeagatik ere, ez bada solasarengatik. Horregatik, estonatuak dira guziak, ikusiz eta Helene Bordagarai ez dela heldu tenorean gaur arratsean. «Eritasunen bat atzeman izanen du». «Bitxi da abisurik ez igortzea ordea». «Orenean puntuan izan ohi da arrats guziez». Auzo batek eman die berria: auto batek jo du Heleneren semeetarik zaharrena, bide bazterrerat aurtiki, eta hezurrik gehienak hautsi. Jaun medikuak ikusirik, erretoreari dei egin diote, oliodura sainduak eman die-

zazkion haurrari. Hamar urte baizik ez ditu. Aitarenetasemearenka eta enejesuska eta gurutze santuaren zeinuaren egiten hasi dira hiru emazteak, behin, bitan, hirutan. «Auto tzar horiek». «Erraten dizuet bada asurantzak behar dituzuela egin, guk etxeko guziei egin diegun bezala», erran behar izan du emazteetarik batek, ezin isildurik. Erran behar izan diote ez dela asurantzez mintzatzeko tenore egokiena.

Karrikan hotz da oraino. Negua ez da finitu. Betiko negu hotz horietarik bat, aurten ere. Adiskide apurrak su zelaietan, lanik ez etxean, gutiago karrikan, terraza batean eseri da Etien Bonnat, kafe bat hurrupatzeko asmoz; baina ondoko mahaiko hiru gizon helduen solasak aditzen ditu. Ingelesak arras gizon bitxiak direla, gerlarentzat kaburik ez dutenak, ez zain, ez odol, eta frantsesei laguntza urria eman dietela gerla hastetik; hara zer duen gizon horietarik batek erran. Bertzeak errusiarrekin du tema: ez dakitela gudu galtzen baizik, uko egiten dietela nagusiei, buruzagiak bertze alderat beha hasi orduko ihesi doazela harat honat. Hirugarrenak italiarrak ditu begietan hartuak, funts ttipiko gizonak baitira, ez arras fidatzekoak, ez baitu-

te gerlan hasi nahi izan hartaratuak izan diren arte, haiek gabe ere aise moldatuko bailirateke frantsesak. Adiskide apurrak frontean, lanik ez etxean... Kafe bat hurrupatzea, bertzerik ez zuen nahi Etienek, baina hiru gizon heldu horien solasak zaizkio heltzen, hain segur kazetak irakurtzez aseak diren hiru gizon helduren solasak. Eta zer egin Baionan, adiskide apurrak frontean, eta kafea patxadaz hartzerik ere ez delarik? Atsegin handirik ez da Baionan. Soldadu atzerritar batzuk heldu berriak, armadaren biltegian soldadu gazte berriak instrukzioen egiten, intendentziako soldadu zahar batzuk su lerroetarik urrun. Bizigarri handirik ez beraz. Gizon talde bat, Herriko Etxearen aitzinean, idazkariak bortan ezarririko partearen irakurtzen. Emazte talde bat, oihal zati batzuk harturik, Herriko Etxerat sartzen. Entzuna du bai, soldaduentzat atorrak josten dituztela hor berean, jaun merak atelierra ezarri diela emazte batzuei herriko etxean berean. Erakutsiko lieke, bada, su lerrotik ekarria duen atorra, ea balen arrastatzeko asmakizunen bat ezartzen ahal lioketen. Eta oinez badoala Baionan gaindi, Le Grand Cirque Rancy, afixa handi bat arbola tantai bati estekatua: Eldid bizikletaren erregea, Kitta japoniarraren antipodetako ikuskizuna, Weberly akrobatak, clow-

nak, Auguste Benedetti eta haren kanguru boxeolaria, M. Houke hezitzaile famatua eta haren zaldi arabiarrak, Handaniren ikuskizuna eta, sustut, Andre Rancy jaunaren Far Westeko jokoak, bertze hamaika ikusgarri apartekoz gainera. Olaciseko eremuan ezarria dute txapitula; Angelutik eta Miarritzetik badira tranbia zerbitzu bereziak. «Zirkua, beraz...», erran dio Etien Bonnatek bere buruari. «Ikusi behar dugu, bada, zer den kanguru boxeolari hori. Menturaz *punching ball*-a sal niezaioke zirkuari». Irri egin du bere kautan. «Menturaz neure burua ere sal niezaieke, kanguru boxeolari horren kontra egiteko matx bat!». Santos hemen balitz, irri eginen luke hark ere, hain segur.

Forges de l'Adour lantegia zapartatu da gau batez. Harramantza hedatu da Itsasuraino. Su hartu du lantegiak. Bi langile hil dira. Hogei kolpatu ere badira, tartean Auguste Perrin. Azalean ditu erredura arin batzuk, ezker eskuan batez ere. «Gerla iduri zuen», erran dute suhiltzaileek, lana finitu dutelarik. Fite egin behar dira konponketa lanak. Lantegiak martxan behar du. Frantziak inoiz baino beharrago ditu burdinbideak, eta horretan ari dira burdina lantegiak, gau

eta egun, gerla hastetik inoiz baino langile gehiagorekin. Bi mila emazte eta gizon, haurrak ere bai, ari dira lanean defentsa nazionalarentzat. Sota jaunak Bilbotik igortzen dituen burdina ontziketak ez dira amaituko, labe garaiek martxan behar dute. Auguste Perrin ere eskua guziz sendotu gabe itzuli da lanerat. Urpeko alemanek ere badute lantegiaren berri. Bizkaiko Golkotik zelatatzen dituzte burdinaz zamaturik doazen ontziak, Baionako portua, Bokaleko lantegiak. Bertze orduz igorri dituzte bonba batzuk lantegirat xuxenxuxen, lau langile kolpatuz. Suak egin zuena baino kalte ttipiagoa egin dute urpekoaren bonba hauek. Fite beteko dituzte lanpostuak berriz, emendatu ere bai, eta Gobernamenduak ezarriko ditu hegazkin batzuk lantegia begiratzeko. Defentsa nazionaleko lantegiak ezin dira gelditu urpeko baten bonbak goiti edo beheiti. Henry Roussell zinemagilea igorriko dute ere Bokalerat, *L'Âme du Bronze* filmarentzat irudiak har ditzan. Mundu guzian ezagutuko dituzte Bokaleko langile hauek. Auguste Perrin izan ezik: txapelaz estaltzen du aurpegia inguruan kamera bat sumatu orduko.

Idiek balukete ferratzeko beharrik, baina Gaxuxa eta Janamari Ugarte ama-alabek ez dute idia norat eraman. Gerla aitzinean Jean Larrek gustu handiz ferratuko ziekeen. Larretarrek ezarriko zuketen idia lau paldo biribilen erdian, eta adar ondoetarik uztarri bati estekatuko burua. Zingila batzuekin goititu, eta idiaren zangoa paldoari estekatu gero. Ihes egiteko imintzio eginen zukeen idiak, baina ez zen lanjerrik izanen. «Ho! Ho!», erranen ziokeen Jean Larrek, eta arotz nagusiak idiaren aztaparra miatuko zukeen. Aztaparrak garbitu, ingudearen gainean ferra zuzendu, eta bortz paxamanta hondoratuko zizkiokeen marteilu ukaldiz. Janamarik atseginez eramanen zukeen idia ferratzera, hori da egia. Ezagutu ere, hola ezagutu zuen Jean Larre. Euli bat ere ferratuko zuketela erraten zuten Larretarrengatik Urruñan. Baina aita bakarra zen orai etxean, seme guziak gerlan izaki. Eta gizon bakarrak ezin idirik ferratu.

Gerlako izugarrikeriak aski ez, euri eraso, haize zirimola eta babazuza gaitzekoak egin ditu negu guzian, itsas hegian batik bat. Uxatu ere ditu larrazkenean oraino uros zebiltzan bele saldoak gordegietarat.

Baionan, San Leoneko ospitaletik Miarritzerateko bidean egin ditu desmasia handienak. Biderat aurtiki berrehun arbola bai gutienez. Andeatu teilatuak, berinak, tximiniak, zernahi. Baionako katedraleko ezkilak jotzeaz erretreta harturik, nahi bertze denboraz hornitua baita Bettiri, Miarritzerateko bidea hartu du astelehen goizean, denboraleak itsas hegian egin dituen desmasiak ikusiz. Lizeorateko bidean ikusi du arbola batek lehertu eta azpian hartu duela hamalau urteko mutiko bat, aita duena kapitain gerlan. Hezurrak hautsiak ditu mutikoak, hala erran diote Bettiriri, eta Miarritzerat bidean segitu du, otoitz isilean barnaturik, pentsatuz eta aitak zer gisako atsekabea behar duen hartu semearen berri emanen diotelarik. Oroitu zaio Miarritzeko kasinoa klinika bilakatua dutela soldadu erientzat, eta pentsatu du harat behar duela joan bisitan, denboraz asea baita, eta hitz batzuk egin soldadu horiekin, eta bihotza poxi batez alaitzen saiatu kanturen batekin, edo hil hurren direnei otoitz xume batzuk egin. Baina luiziak badira Miarritzerateko bidean, arbola jausiak eta adaxkak bazter guzietan, ekaitzak ontsa kimatu baititu arbolak. Tranbiarik ez karrosarik ez nehon, eta oinezkoak ere guti. Deliberatu du beraz gibelerat egitea; joanen zaie bisitan heldu den astean,

edo hurrengoan. Gerla ez da finituko bihar, eta gero ere izanen da bisiten beharrik erietxeetan. Enboradaxkak saihestuz badoa etxerat, beraz, Bettiri: «Futxo, egia izanen ote da bada Belgikan gaindi aurtiki obus horiek lehertzen dituztela hodeiak hemen berean? Zerua behar ote zaigu gainerat jausi?». Pausoa bizkortu du badaezpada, otoitzari utzi gabe.

Manex Donetx partitu da Irisarritik, asmoz eta Baionan eguna egiteko Etien Bonnatekin, surat partitu aitzin. Baiona ez batere ezagutzen, Manex Donetx loriatua da terrazetan kafe edaten ari diren neskatxa gazteekin, aurpegiak irris irin eta tinduz ederturik, panpinkeria guziak on dituztela. Ikusi ditu ere bertze emazte batzuk auto gidatzen, ezpainak gorri bizi batez tindaturik, zigarreta erretzen ari, galtza zabal batzuk eta bonetak beztiturik, gizonak iduri. Katedralaren aitzinean ikusi dituzte, berriz, kongregazioko neskak diru biltzen, «Pour nos soldats. Pour nos combattants. Pour nos poilus». Eman dizkiete sos batzuk, katedral barnetik heldu diren *Libera me* doinuak entzutera gelditu z, mantelinak buruan mezetarat doazen emazteei so. Gero, Manexek zinema zer den eza-

gutu behar duela tematu da Etien, eta han harat eraman du airean Manex, sekula irudi bizi horiek ikusi gabea izaki. Eta zinema deabru horretan ikusi dituzte pertsonak iduri duten zer batzuk, pertsonak bezala higitzen ere, baina fitsik erraten ez dutenak, harat honat dabiltzanak espantu eta keinu hanpatu batzuk eginez. Gaur ez da Johnsonen eta Jeffriesen arteko matxik zineman; horren orde, ikusi dituzte Gillen kaiserra edo haren gisako bat, behako zatar eta gaizto batekin, eta deabrua, azken hori sarde eta guzi, ontzi batean sartzen eta itsasoaren bertze aldean diren emazteak eta haurrak hiltzen. Barrabaskeria gaitzak egin dituzte kaiserrak eta deabruak, eta azken buruan hil da kaiserra iduri duen gizon hori, mendi kasko batetarik jausirik. Zernahi gisako deabrukeriak eginagatik lurrean, igan da kaiser hori zerurat eta, orduan, ilargiak, izarrek eta enparauek hartu dute kanoi eta mitrallus ukaldiz, zerurateko bidea trabatu nahiz; kaiserrak atera du orduan kanoi luze-luze bat eta zirtzikatu ditu ilargiak eta izarrak eta enparauak, eta heldu da zeruetako bortarat; baina San Pedro iduri duen bizar luzeko gizon batek eman dio ostiko bat gaitza, eta igorri du kaiserra pentzean beheiti, deabruaren galdaretan jausi den arte. Infernuan deabruak eta kai-

ser horrek egin dute janaldi bat gaitza eta besta bat harrigarria. Eta finitu da film hori, kaiserrak deabruari medaila bat ezarri diolarik, zakur kate handi batez loturik. Filma ikustera jin diren gutiz gehienek irri karkailekin ospatu dituzte horma zuri horretan bata bertzearen gibeletik higitu diren irudi horiek, bai Etienek berak ere, baina filma finitu eta argiak piztu dituztelarik Manexek oraino ez du ulertu zer gertatu den areto horretan. Manexek baitarabil, izan ere, bertzelako burutazio bat, ikuskizuna behar zen gisaz ulertzen utzi ez diona: baldin eta Mizel Donetx aita hila bada han gerla tokian, eta baldin eta gerla honetan nehoiz garaituko badituzte alemanak... Gillen kaiser deabru hori hilko dutelarik... «Ez da bada gure aitarekin batera iganen zerurat? Ezta?», galdegin dio azkenean Etieni.

Zaron lehena izan zen. Gero bertze batzuk jarraikitu zitzaizkion. Katixa Bonetbeltzek amari erran zion pentzean belarrak hazten ari zirela eta epaitu ezean laharrak nagusituko zirela fite, eta ez zela gehiago pentzerik izanen, txara gaitz bat baizik. Etxeko atarian ezarri zuen ingudea eta gonak trenkaturik hasi zen dailua pikatzen. Ikusi zutelarik gizon batzuek, fite hedatu zen

berria, Bonetbeltzeneko Katixa gizon lanetan hasia zela. Katixa ez baitzen asperrean zain egotekoa, belar epaitzen ere ikusi zuten berant baino lehen, eta emazte zenbait imitatzen hasi zitzaizkion. Amak erraten dio Ingalaterrako emazte tzar eroxka horien gisara diputatu izateko deretxoaren galde hasiko ote den, ez duela gizonik erakarriko lan horietan hasten bada. Isil-isila, lanean segitu du Katixak, eta, gizonen besoen indarrik gabe ere, emazte gehiago hasi dira pittaka lur lanetan, azienden gobernatzen, tratuan ere bai batzuk. Haietako zenbait, titiko haurrak zakutoan zintzilik harturik lur lanetan. Eta egunez lur lanetan ariturik gauez aritzen dira oraino etxean, kozina lanetan, edo goizean goiz jaikirik pegarrarekin urketan, eta errekan zuriketetan. Eta igandea heldurik segitzen dute lanean, atsedenik gabe, elizgizon zaharrak guziz asaldatzen dituena. Gobernamenduak, aldiz, sariztatu ditu emazte horietarik zenbait, lur lanak geroratzen ez uzteagatik. Filipe Luro ere loriatua da emazte horien lanekin; Politeneko Maitena ttipia ikusia du dailuarekin belar epaitzen. Hain zuzen, begietarik irudi hori ezin kendua du Arnegitik partitu eta Baionarateko bide guzian, oinez lehenik eta trenez gero, Battitta Garat ondoan duela. Battittak eteten du Filiperen pentsamen-

dua arteka, eztul hits bat egiten duelarik; nonbait hoztua izanen da. Baionako trenaren garan Etienekin eta Manexekin elkartzeko esperantzetan doaz. Beharbada, guziak elkartzean emanen die Filipek Maitenaren berri soldadu adiskideei. Gozoki bat nahi ote duen galdegin dio Battittari, eztulka ito behar duela iduri baitu orai berriz

Battitta Garat eta haren ama Inesa, etxeko supazterrean solasean. Zortzi eguneko pausua funditurik, gopor bat esne hartzen ari da Battitta, semearendako galtzerdien josten Inesa. «Gertu da muga lerro mehe hori, eta urrun, gerlako lehen lerroa...», iradoki, azkenean, Battitta Garatek. Ama kuraiatu, josteari utziz: «Hago isilik, seme! Joan hadi surat, eta hil behar baduk han baratuko haiz, baina hire eginbidea betez». Gurutzearen zeinua egin du amak hiru bider, gorputz ttipia osorik dardarikatzen zaiola. «Hire ahalke izanen gaituk muga hori iragaten baduk». Halakoren seme gehiena joan dela, eta zer gertatu zaion, jendarmeek atzeman dutela, Tolosako presondegi batean giltzapetu, arratoiekin partekatu behar jateko apurrak. «Ihar beldurtzekoa omen duk». Gobernamenduak deserto-

reen ondasun guziak bahitzeko manua emanen duela. Semearen soldadugoarengatik jasotzen duen sari ttipia ere kendu eginen diotela, bertzalde. «Eta nola behar diagu bizi, etxean gizonik gabe, ondasunak bahiturik, eta sari hori gabe, emazte xahar bat eta haren alaba urrikalgarria?». Hainbertze arrazoirekin, Battitta Garatek isil-isila amaitu du gopor esnea, amari batere erran gabe su lerroan ere arratoien artean beharko duela gau guziez lo egin. Partituko da hurrengo goizean Filipe Lurorekin, eta hartuko dute Baionarateko trena. Battitta Garat ez da, ordea, su zelairat sartuko. Bordelerat heltzean eri handi izanen da, sukarrak harturik. Soldaduen eritegirat joanik, manatuko diote ohean etzateko egun zenbaitez. Emanen dizkiote botika eta jarabe, baina, eztulez eta sukarrez itoa, laugarren egunean suntsituko da Battitta Garat, su hegian hiltzearen loriarik gabe eta desterrurat ihes egitearen afronturik gabe. Amak ez du berriro semearen izenik aipatuko.

4

> Ils savent que l'immolation pour la Patrie est l'acte suprême de charité, ils se battent, ils meurent en héros.
>
> PIERRE LHANDE

Verdun. Itsasoko ur handien gisan higitzen da lurra hemen, harat-honat hegaldatuz, zerurat altxatu eta lurrerat jausiz, lurrezko olatuak iduri. Osoki erreak dira bazter guziak, larrutuak, biluziak, belar mikorik ere gabe, irentsiak oihanak oro, xehakatuak enborrak, mututuak hots guziak, lehergailuen harrabots hau izan ezik, iduri duena ihurtzurien besta etenik gabe bat. Lurren uzkailtzeko ez baita golde hoberik Fritz deabru horien 105eko eta 420ko obusen ukaldiak baino. Lur mokorrak, hesolak, burdinazko hariak, oholak; harkaitzak, harri kozkorrak eta harri xeheak; hormak, patarrak eta kare zakuak; parean aurkituak oro inarrosten dituzte alemanen obusek, zerurat altxatzen

eta guziz zirtzikaturik lurrerat aurtikitzen. Mando eta zaldien zango-buruak, gizonen beso eta erraiak birrintzen eta itzulipurdikatzen. Alemanen erreketako soldaduei zer zaien iruditzen, zoaz zu jakitera. Agian ez dira frantsesek igorri 75eko obus herbal horiez beldurtuko, frantsesek aurtiki obusek urtzintzak baitirudite alemanek igorri orroen aldean. Egia izanen da Helmut deabru horiek trebatuagoak direla gerlako jukutria eta jakintzetan. Behatu bertzerik ez da botxeek aurtiki obus bederak zer lurketak aireratzen dituen, lurrezko olatuak iduri. Obus batek ireki duen eta erdia ur eta erdia lohi den zulo hauetarik batean kukutuak dira Filipe Luro eta Etien Bonnat, lehenago Kruppen obus horietarik batek jo eta zapartatzen ez baditu, lurrak azpian hobiraturik hilko direla sinetsiak bi-biak. Ez da zizparik goititzen ahal ere. Gerla irabaztea, hemen Verdunen, zulo honetan kukutu eta irautea da. Zulo batean edozeinetan, dagoeneko errekarik ere ez baita, obusek guziak suntsitu eta birrindu dituztenez gero; su zelai bat bertzerik ez baita soldaduek parean dutena, begiak heda ahala; su zelai bat, putzuz eta lohiz eta kez eta lur tontorrez eta obusek eraiki hobiz egina. Kukutu eta iraun, beraz. Luis Bartaburuk, Jean Bordagaraik eta Martin Etxegaraik egiten asmatu ez

dutena; finitu dira soinu ttipiak Luisentzat eta mus partidak Jean eta Martinentzat, zer eta Leon Iturri kapitainari itsuki obeditu eta obus su izugarri horren pean zuloa utzi eta menturatu direlako urrats batzuen egitera, ordu arte aitzinatu dituzten berrehun metroak aski ez eta. Obus bakar batek erdiz erdi jo eta suntsiturik utzi ditu bet-betan, hirurak batera, begiak leherturik, muinak barreiaturik, beso-zangoak epaiturik, gorputz erdiak errausturik eta zizpak funditurik. Bordagarairentzat kontsolamendu izanen da beharbada, semea autoak jota hil zaiola jakin duenetik ez duenez bere buruaren kabu egin. Zernahi gisaz, Lurok eta Etienek bezala ulertu balute zuloan kakoturik irautea dela gaur Verduneko gerla honetan irabaztea, bizirik izanen lirateke oraino. Beharbada. Baina debalde da negar egitea tenore honetan. Alferrik, hildako lagunen gorpuen xerka abiatzea. Kukutu eta egon, menturaz belarriak lehertzen ez bazaizkie harramantza honekin, fortuna poxi batez ez badituzte bizirik lurperatzen lur olatu horiek. Noizbait beharko dute aitzindariek manatu gibelerat egiteko, noizbait beharko du atertu obus erauntsi honek. Baina, anartean, lotinantek eta sarjantek, metro batzuk gibelago, «En garde!» manatzen segitzen dute garrasika, obusen, zizpen eta mitrallu-

sen zarta, ziztu eta karraska guzien azantzarekin lehian. Duela zenbait aste erreka ziren eta orai gerri parerainoko babesa justuki egiten duten lur ebaki horietan ezker-eskuin dabil Silvain Tucoulet lotinanta, Star pistola zahar bat harturik eskuan, soldaduak eta soldadu gehiago su zelairat igorri nahian, alde guzietarik metaka pilatzen doazen hilotzen kinoari ezaxola, ezker-eskuinetako konpainiekin loturak ez galtzea arrangura bakar. Igortzen ditu soldadu batzuk aitzinerat, bertze batzuk ezker hegalerat, «En garde!», bertze batzuk eskuinerat, «En avant!», Star pistola zaharra soldaduei gerrietan sakatuz beharrezko bada. Urratsik ez gibelerat. Maiatz hondar honetan uharka jausten den euriari ere ezaxola. Zizpak kargatuak eta baionetak zuzen kakotuak dituzten aztertu, eta soldaduak eta soldadu gehiago igortzen aitzinerat, obusen erauntsiaren erdirat, heriotza segur den lekuetarat, nehoiz ez erretretan. Badira kuraios partitzen diren soldaduak, badira ero haize batez itsutuak bezala granada aurtikitzen ari direnak, eta badira ohetik jalgiarazi haurrak diruditenak, oka ari direnak, edo otoitzean, txiza eta kaka gainean eginik ere fitsik sentitzen ez dutenak, lurraren eta euriaren lixiba lohiak disimulaturik. Erreka zaharraren gibeleko hormaren

kontra emana den hori, adibidez, soldadu berrietarik da, apiril hatsarrean heldua 49.eko hildakoen orde, ez ditu hogei urte ere izanen. Paparretik heldu eta oraino tente diren lur zaku batzuen kontra bermatu du Silvain Tucoulet lotinantak, otoitzak biharamunarentzat uzteko eta aitzinerat ontsa behatzeko manatuz. Gibelean, aitzinean, ezkerrean, eskuinean, lehertzen diren bonba, granada eta *crapuillot* horiez ohartuago da soldadu gaizoa ordea, eta lurrerat labaindu zaio zizpa. Ur lohien putzurat makurtu eta jaso du lotinantak, soldadu gaizoari saihetseko bat alimalekoa emanez zizparen ipurdiarekin. Lurrerat jausi da soldadua, belaunak lohietan eta esku bat saihetsean. Belarrian oihu egitera kukutu da lotinanta, eta oren zehatz horretan zartatu da 105eko bertze obus bat errekaren gibeleko patarrean, azantza handitan. Txistu luze bat belarrietaratu zaie soldaduei, lotinanten eta sarjanten manuak ez entzuteko maneran. «Gaitzerdi!», pentsatu du Manex Donetxek, «Entzun beharreko sinfonia honentzat!». Ez baita golde hoberik, errana da: lur mokor gaitzak jausi zaizkie soldaduei, eta obusa lehertu den patarretik hurran zirenei burdin ziliportak haragi barneetaraino sartu. Lurpetik atera dituzte hiru soldadu, bizirik oraino. Andariek eraman dituzte bertze lau sol-

dadu, azken *crapuillot* horren burdin ziliportez zaurtuak, haien artean dela Paskal Mutrustegi, hiru haurrideetarik mementoko bizi den bakarra. Zaurtuak errekatik atera eta, «En garde aux boches!», manatu diete berriz soldaduei. Hortzen artean sakreka hasiak dira usatuenak, Henri Gramrand, Jean Etxandi eta bertze, baitakite botxeek erreka antzeman badute jausiko direla oraino obus gehiago lerro-lerro leku berean. Oren honetan eta erauntsi honen pean, izter batean obus horien burdin ziliporta batzuk sartzeko otoizten duenik bada, osasun posturat, atzeguardiarat, erietxerat, herrirat joateko bide lasterrena igurikiz. Bana bertze, lotinantak osasun posturat igorri dituen horiekin lardeariatsu dira gehienak, gibelatzeko eta pausatzeko manua bertzerik ez baitute desio. Badira bi egun surat igorri zituztela, eta arte horretan lorik abantzu ez dute egin, ur poxi zikin bat baizik ez dute edan, eta bizpalau sardinarekin jateko guziak egin dituzte 49.eko soldaduek, segundo miko batez ere aleman obusak eta mitrallusak mututu ez direnez. Honezkero, goldea pasatu eta alemanek guziak lurperatu edo suntsitu arteko bakerik ez dutela izanen pentsatzen dute gutiz gehienek, han berean lurperaturik hilen direla, lehergailu ugari horietarik batek xifritzen ez baditu lehena-

go. Ez, leku honek ez du Oulcheseko patar haien antzik. Pilota partida bati emanak ziren han,

orai su handik, orai su hemendik, orai granada ukaldi batzuk handik, orai granada ukaldi batzuk hemendik: horra zer ziren bilakatuak Oulcheseko gudu haiek. Lohitua zen gerla hura, ezusteko handietarik gabetua, nor bere tokian, aitzinamendurik eta erretretarik gabe. Apirilean zituzten jalgiarazi erreka haietarik, urte eta erdiz hain ontsa ezaguturiko lekuetarik. Pausuan eduki zituzten hiru astez, exerzizio gogorrak egiten eta jakintza berrien ikasten. Orok bazekitena zen Verdunerat igorri behar zituztela; nehork irudika ez zezakeena, ordea, Verdun zer izanen zen. Bada, hau da Verdun: kukutu eta iraun, aterrik gabeko obus eta mitrallus erauntsiaren erdian, Lebel zizpa hori galtzera utzi gabe ahal dela, tiro egiteko gorputza zehe bat ere goititzea ezinezko denez, eta burua doi bat ere goititu gabe badaezpada. Maiatzaren 22arekin heldu dira 49.eko gizonak su lerrorat, harat eraman dituzten kamioiak utzirik. Su lerrorat gerturatu ahala kargatu dituzte aitzur, pala eta granada ugariz. Etxeber erretorearen benedikazioa harturik, berehala hedatu di-

tuzte batailoiak, manu bederarekin. Baina manuak nahasiak dira, maiz berant heltzen dira, eta bidean hartu behar dira erabakiak, hainbertzekoa da botxeak eragiten ari diren anabasa eta sarraskia. Lehen batailoia, non baitira Manex, Luro eta Etien, igorri dute hastapenean 274.eko batailoi bat aldizkatzera. Bazileko arroilatik abiatu dira hilaren 23ko gauean, Aubriseko basorat bidean. Su handi baten pean iragan eta han galdu dute Rene Ameztoi, mitrallus ukaldi batek hesteak zirtzikaturik arrastatu baitute botxeek. Bertze batzuk ere jausi dira, baina izenik ezagutzen ere ez; azken hilabeteetan 49.eko hilak aldizkatzera igorri gizonak, gazteak gehienak, usu ez dira Euskal Herrikoak, eta izen berrien ikasteko tenorerik edo gogorik ere ez dute izan. Rene Ameztoi eta ezagutzen ez dituzten bertze gorputz horiek mitrallus eta granada su hartan utzi, kilometroren bat aitzinatu eta, oraino aski ez, gas itogarriak askatzen dituzten obusak igorri dizkiete botxeek. Exerzizioetan ikasi bezala maska tzar horiek aurpegietan ezarririk nolazpait heldu dira burdinbiderat, eta harat orduko aldatu diete manua: Charlier erreka behar dute hartu lehen bi konpainiek. Hartu dute 74.eko gidari bat, anitz alditan tronpatu dena bidea atzeman ezinik. Lotinant batek ez badu jo eta bertan

kalitu izan da bertze nehork ez dakielako eremu hauen berri. Noizbait atzeman dute manatu leku hori, eta konpontze lanetan ezarri dituzte soldaduak, errekak garbitzen eta sakontzen, metro erdi eskaseko garaiera baizik ez baitute eremu honetan, botxeen lehergailuek holetan desitxuraturik. Hilez eta kolpatuz emokatuak dira bazterrak bertzalde. Erdi hilik erdi bizirik diren soldaduak atzematen dituzte arteka, ahal bezala gibelerat igortzen andariekin. Pezoi, jende, arma zatiak nolazpait garbitu, eta aitzindariek egin dituzte loturak ezker-eskuinetan diren konpainiekin, alemanak non diren argitu ahal izateko. Lekuak arraberritzen amaitu ez eta, argia egin gabe, Douaumonteko gotorlekua hartzeko manua heldu zaie. Batailoiko komandanteek bilera egin dute erasoa antolatzeko, granadak eta ahal izan dituzten guziak eman soldaduei, eta bi konpainia partitu dira. Errekak zirtzikatuak badira, erreketarat heltzeko arroilak ez dira ildo txar batzuk baizik, eta botxeek atsegin handiz metrailatzen dituzte 49.eko gizonak arteka horietan. Hor berean hil dute Clement Ibarrart. Istanteko heriotza bat izan du. Paretik iragatekotan, Lurok behar izan du gorpua bazterrerat aurtiki, Clementen gorpuak berak gelditu duen tiro tarrapata baten pean, non eta kaskoa

jausi eta Clementen aurpegi desitxuratua agerian gelditu baita, ke eta laino baizik ez den zerurat beha begi zabalak. Aitak beleez errana gomutatu zaio Lurori, eta eskerrak eman ditu su zelai horretan belerik ez dabilen begi horien ebasteko. Manatu lekurat heldu direlarik bi konpainiak, aitzindariak kexu dira ezin dutelako eremua ezagutu, erasoa gaitza delako eta botxeen lerroak non diren ere ezin dutelako ezagutu, nahiz mapak zehaztu 500 metrotan behar luketela. Manuak eta espantuak nahastekatzen dituzte aitzindariek: ez dela baldintzarik atakadarentzat, sorpresaz eraso egiteko baldintza guziak galduak dituztela, norat jo behar duten ere ezin igarria dela, 129.eko gizonen arrastorik ez dela, ustez eta haiek sostengatu behar baitzuten erasoa gibeletik, goizaldean partitu diren erreketarat obus sorta gaitz bat igorri dutela alemanek, gibelatzeko bidea ere segurtamenik gabe utziz, eta frantsesen artilleriak ez duela erasoa prestatzeko lanik egin batere. Soldaduak beldurtuak dira, mututuak, pipatzera ere ausartzen ez direla, batailoiko aitzindariak noraezean sumatuz, baina erasoko manua berretsi dute atzeguardiatik, eta batailoiko aitzindariek ezarri dituzte sarjantak eta lotinantak, Star pistola zaharrak eskuetan, «En garde!» oihuka. 07:30ean kleronek jo

dute eta partitu dira su zelairat bi konpainia, «En avant!», lau bagatan. Aitzinatu dituzte 200 metro inguru, baina hortik aitzinerat infernuko bortekin topo egin dute. Eta hor daude Filipe Luro eta Etien Bonnat, obus batek ireki duen eta erdia ur eta erdia lohi den zulo horretan elkarren kontra kurubilkaturik, irauten. Gibeltxoago, Henri Gramrand, Jean Etxandi, Manex Donetx eta bertzek, sakreka, kapitainari ikusarazi diote lekua behar dela antolatu, ezinezko dela gehiago aitzinatzea. Ezker-eskuin loturak bermaturik, aitzinatuak diren soldaduei elkartzeko manua heldu zaie azken buruan. Zenbait beilari bermaturik, erreka konpondu eta sakonera handitzea dute orai lehentasunezko lana, konpainiak elkarturik. Zenbait egunez hor usteltzen ari diren gizon, mando eta zaldi hilen gorpuak aitzinean, ez lore bat, ez arbola bat, ez txori bat ere. Babesteko burdin hariak zirtzikatuak, eta telefonorik gabe atzeguardiarekin mintzatzeko. Mitrallus bat ezartzea lortu dute, eta eskerrak, ezker hegitik heldu zen aleman saldo bat fueratzea lortu baitute horri esker. 129.eko gizonak ere heldu dira noizbait, lurra hilez estalia dela erranez, ezinezko dela arroiletarik iragatea halako gorpu metekin. Gibelago, 49.eko lehen batailoiko bertze bi konpainiak su gogorrean

lotu dira, aitzinean diren adiskideei lana erraztuz. Nolazpait iragan dute eguna, lo handirik egin gabe haatik, ez baitu iduri botxe tzar horiek atsedenik hartzeko asmorik dutenik, eta errekak konpontzen amaitzea sekuletako lana baita. Goizaldean heldu da bertze manu bat, Boneff erreka har dezaten, alemanak sartu baitira bretxa batetarik, eta han harat abiatu dira 49.eko bi konpainia, erreka estuetan aitzina. Mitrallusez egin diete harrera, berriz ere, alemanek. Bertze hegitik agertu dira 218.eko frantses soldadu batzuk, eta haiekin indar bat eginik fueratu dituzte botxeak, ez aise, bi orenez su batean aritu baitira, eta ez debaldetan, Jean Etxandi eta bertze zenbait atakada horretan kalitu baitituzte. Etxandi gaizoari zangoak baratu zaizkio lohietan sarturik, eta Helmutendako helburu errazegi gelditu da su zelaiaren erdian, lurrari arras estekaturik, zangorik ezin atera lohietarik: berehala kalitu dute. Txorimalo bat bezala jausi da lohietarat. Zernahi gisaz, alemanak fueraturik, gorpu batzuk erreketarik atera eta bertan egokitu dira, 218.eko konpainia bat aldizkatzera heldu zaien arte. Armak hoztu gabeak oraino, alemanen bertze konpainia batek eraso die ezker hegaletik. Haiek ere nolazpait uxatu dituzte, granada ukaldika. Anartean, Etien ari baitzen «Nehork

ez du mitrallus bat? Ostia!» erran eta erran, Emile Intxauspe sarjantak eman behar izan dio zaplastako bat, isil zedin. Alemanak fueratu eta 218.eko soldaduak lekuaren kargu utzirik, partitu lekurat itzuli dira goizaldean, jakin gabe han utzi dituzten adiskideak oraino han izanen ote diren, anabasa hutsa baita Verdun, etenik gabe aitzinatzen eta gibelatzen den su lerro infinitu bat, bretxak irekiz etsaiari edo etsaiak irekiz bretxak, hain da behin-behinekoa egoera. Fortunaz, 49.eko bertze bi batailoiek eutsi diete beren lekuei, ez neke gutirekin, eta lortu dute Douaumonteko erreka poxi bat sakontzea, geriza hobetuz, auskalo zenbat denborarentzat. Eta gauari egunak jarraiki dio, eta egunari gauak, eta gauari obusak, eta obusari egunak, eta maiatzaren 29an atera dituzte eromen horretarik azkenean. Verdunen berean elkartu dituzte sakabanaturik erabili dituzten 49.eko hamabi konpainiak. Biloak eta bizarrak lohiz beteak, begitarte akituak, zizpak justuki atxikitzen dituzten beso jausiak, pauso motel dorpeak, listurik ere ez dutela aurtikitzeko, egarriak itoak: tonbetarik jalgi mamuak iduri dute 49.eko soldaduek, su hegitik gibelerat heldu, bide bazterretan lurperaturiko soldaduen hilobien artetik oinez heldu,

gurutze uzkailien artetik oinez heldu, nonbait etzan eta loak hartzen ditu etzan ahala, xifrituak diren bezala. Falta diren soldaduez ohartzeko kuraia bildu eta zenbaketa egiteko eguna da biharamuna. Silvain Tucoulet lotinantaren berririk ez du nehork, baina hain segur ez dute preso atxiki. Haren orde, Emile Intxauspe sarjant egin dute lotinant. Etien Bonnatek aitzindarien idazkari ari den adiskide bat kausitu du: hilen artean emana dute Silvainen izena, gorpua nehork berreskuratu ez badu ere. Astebeteko suan, 158 gizon hil dizkiote botxeek 49. erreximenduari, abantzu 800 kolpatu. Galtze handia da. «Baina moral izugarria du tropak», ihardetsi dio idazkariak Etieni. Aitzindariak uros dira: garaipen handia izan da 200 metro horiek eskuratzea eta lerroen arteko loturak bermatzea. Zenbat denborarentzat izanen den, bihar-etziko galdea da. Nork bere arrangurak dituenez, Manex Donetxek Etieni eskatu dio aitaren berri galdatzeko idazkari horri. «Nola zuen izena?». «Mizel. Mizel Donetx». Berriz ikusterik badu, galde eginen diola beraz, Etienek arrapostu. Bertzenaz, bizirik dauden 49.eko gizonik gehienak uros dira, aski uros, nola erran, eta botila

arno zenbait irekitzeaz arduratzen dira, listuaren berregiteko. Lan horretan indarka ari da Xantiago Fourcade, ganibeta batez aleman bati lepoa eginen balio baino neke gehiagoz halere. Bizarrak egiten eta ileak mozten emanak dira zenbait, Jean Salaberri adibidez, Jauregiberri Zibozeko barberuarekin. Kolpatu eta eri handiak sartzen dituzte karrosa batzuetan, oihaletan bandera xuri-gorriak dituzten horietan, ospitaletarat eramateko. Sufrimenduak ito beharrean marrumaka ari direnei edo haguna dariela daudenei ematen diete koilarakada bat kokaina, minak nolazpait arintzeko. Bertan hil dira zenbait, karrosetarat sartzeko zain zirela. Horien lurperatzeko tenorea ere badenez, zurezko gurutzeak egiten ezarriak dituzte Henri Gramrand eta Faustin Oihanburu. Etxeber erretorea banan-banan pasatzen da eriekin mintzatzera, azken oliodurak ematera, absoluzioa eskaintzera, kofesioak hartzera. Kolpatu arinagoak ere, dozenaka baitira, ilaran zain daude, Joseph Ameztoi horien artean, bala etsaiek esku bat urraturik. Permanganatoz zauriak garbitu eta iodoa emanen diete gainetik, bendak ezarri, burdin ziliportak atera. Pipatuz, beren txandaren zain dira eri arinak, markaren egiteko zain egoten ohi diren animaliak nola. Argi errateko, tenore honetan 49.eko solda-

duek ez dute astirik Voltaire kabaretean sortu berri diren dadaista horien ekarpenari buruz gogoetatzeko, joan den neguan Franz Kafka delako gazte batek argitaratu *Die Verwandlung* nobela hori zeren sinbolo ote den eztabaidatzeko, are gutiago komandantearen axuant bat soldaduen artean tabako partitzeari eman zaionez geroztik. Beren zereginak utzirik, erien herronka abandonaturik, botila arnoak eta gurutze egiteko oholak ahantzirik, badoaz guziak axuantarenganat, eskuak luze; baina axuantak baztertzen ditu, tabakoa partitu behar baitu, lehenik, oraino erretzeko gai diren kolpatuen artean, orok ulertu eta errespetatzen dutena. Baina, zaurtuekin finitu duelarik, hil ala bizi, axuanta inguratu dute berriz soldaduek, bakoitzak bere partea eskuratu eta tabakoak finitu diren arte. «Mozkor hutsa izanen da gure komandante hau, baina eskerrak bihurtu beharko dizkiogu tabako honengatik bederen», erran dio Etienek Lurori, bai baitaki komandantearen joerak ez dituela begiko Lurok, lehenago ere salatu izan dionez. «Bo. Bai. Naski». Baina eskuratu berri duen tabakoari usain eginik, «Urde horiek!» eskapatu zaio Lurori. «Zer duzu orai?». «Berriro ere tabako lodi botiga horretarik eman ez digute bada! Aitzindarientzat gordetzen xanpainak eta tabako finak!

Eta guretzat, biltzen ere ahal ez den belar tzar hau!». Harrika aurtiki du Lurok. Baina gero damutu eta jaso du, Etienek barre egiten dion artean: «Nahi duzu paperik?». Sakreka onartu dio Lurok. Eskuak dardarika, tabakoa bildu ezinik ari direla jin zaie Etxeber erretorea, kofesatu nahi dutenetz galdezka. «Badaki berorrek gure bekatuen berri, egunero berak direnez», ihardetsi dio Etienek. «Zenbat kalitu dituzue?». Ezin jakina dela ihardetsi diote; bien artean zazpi bai bederen, gehiago ote diren ezin segurtatu. *Ave Maria* dozena batzuk manaturik, «Ego te absolvo a peccatis tuis» eta «Ontsa egin duzue» erranik eskua buruan ezartzen diela Etieni lehenik eta Lurori ondoren, badoa Etxeber erretorea bertze arima urratu batzuenganat, baina ezin aitzinatua da: Manex Donetx azaldu da xoko batetarik, eta arrastatu du erretorea besotik helduz: «Mizel gure aitaren berririk baduzu? Hilabeteak dira letrarik igorri ez duela etxerat...». Deus ez dakiela, baina galdeginen duela. Manex lasaitu eta berriz partitzera zihoala, Domingo Lopez jin zaio erretoreari, ahapeka galdeginez ba ote dakien nor den soldaduekin hizketan ari den gizon lerden hura, jauntzia lohi fitsik ere gabea baitu, Kodak kamera bat lepotik zintzilik, oharren hartzen ari paper mutur batean. «Uste dut

Manuel Aznar duela izena. 22 urte baizik ez ditu, eta *Euzkadi* kazetarentzat ari da kronika batzuen idazten eta potreten egiten». Kazetariez ez da sobera fio Domingo. Etienek, aldiz, potreta bat eginen lukeela erran dio erretoreari, galdeginen ote liokeen kazetari gazte horri. Emile Intxauspe lotinanta agertu da, ordea, trasteria bildurik kamioietarat igateko manatuz, pausurat daramatzatela. Zutitu eta traste guziak biltzen hasi dira soldaduak, begien bistatik galduz kazetari gazte hura. Kamioirat igaten ari direla salatu die berria Jean Larrek: Paskal Mutrustegi erietxean hil da, odolusturik. Izterra burdin ziliportaz josia zuen, eta epaitu beharra, baina berantegi hasi dute ebakuntza. Hiru haurrideetan bizi zen bakarra, hilik hura ere. Potretak ahantzirik, kamioirat isil-isilak sartu dira zauri ttipi bat ez luketela gaitz izanen pentsatzen ari zirenak zenbait oren lehenago, etxerat itzultzeko aitzakia izanen luketela bederen. Engoitik atzeguardiako pausu egunek eztituko dizkiete barneko eta kanpoko zauriak: hiru aste eginen dituzte Bienvillen, su lerrotik urrun. Isilik doaz kamioietan, batzuek Bienvilleko emazteen bular oparoetan ezarririk dutela gogoa,

besteek botila arno freskoentzat baizik pentsatzen ez dutela. Baina heldu dira eta, harrezkero exerzizio gogorrak eginarazten baitizkie Emile Intxauspe lotinantak, herraz asea mintzo da Filipe Luro azken aldi luzean, bular oparoez eta botila arno freskoez gozatu ezinik: «Urdekume horri tiro eginen diot azkenean!». Herra horretan zerikusirik izanen du, baita ere, zorri alimaleko batzuk lotu zaizkiola Luro gaizoari, eta erreximendu gehienari bide batez. Zorri lodi eta handi batzuk, marra beltz bat dutenak bizkarrean, ausartak. Lotako kamantzetako lasto gainean etzan, eta guziak bereganatzen dituzte, ezbairik gabe. Debalde da zorri deabru horiek hiltzen entseatzea, arropak ikuztea, pikarrai jarririk uretan sartzea, larruhaseko berriak beztitzea. Berehala egiten dituzte arrautzak, azpildura eta jostura guziei lotzen, eta fite sortzen berriak. «Zorri deabru horiek behar dute gerla irabazi azken buruan», Faustin Oihanburuk erratea maite duen gisaz errateko. Hazka eta hazka badabil, beraz, Luro gaizoa, eta Intxausperen exerzizioek ez diote atsegin handirik sortzen, lehenaz gainera. Manex Donetxek ere bat egin du Luroren proposamenarekin, garondoa atsedenik gabe hazkatzen ari dela hura ere: «Ez orai beharbada, baina su hegian tiro bat emanen bagenio,

nehor guti jabetuko litzatekeela, segur da». Martxa luzea dute gaurkoa, 40 kilometrokoa bai bederen, gorputzei lokartzen eta nasaitzen ez uzteko. 500 gizon berri baino gehiago jaso ditu 49.ak, bertzalde, eta gizon gazte horiek gerlako arteetan trebatu beharrak dira. Exerzizioak alde batera utzirik, lasaiak eta atseginak dira Bienvilleko egunak, eta 49.eko soldadu gaizoak fite usatuko lirateke bizi honetara: jateko badute arrautza eta patata anitz, arraina, arnoa ere sobera; zuriketak egiteko, arrantzarat joateko, musean aritzeko eta pipatzeko astirik badute, bai eta ostatuan nahi adina pinta husteko ere, eta, igandez, promenadak egiteko, Etxeber erretorearen mezetarat joateko eta horma tzarren baten kontra pilotan aritzeko. Elodiek eta Gertrudek besoak zabalik hartzen dituzte, bertzalde, pausuko lanetarik eta exerzizioetarik libro uzten dituzten iluntzeetan. Burdin hariak konpontzea, guardian egotea, arroilak sakontzea, komun zuloak egitea, patatak zuritzea... Badirenez lanak atzeguardian ere, aski aise burutzen dituzte zeregin horiek, Bienvilletik urrun entzuten baitira obusen azantzak. Filipe Lurok eta Etien Bonnatek patata zuritzeko lan horietan ari direla ezagutu dute muntrak oren batez aitzinatu beharrak dituztela, Frantziako Asanbleak manaturik:

ereiaroaren 14ko 23:00etan gauerdi izanen da. «To! Oren bat gutiago eginen dugu gerlan!». Irriak eta barreak eta karkailak merkeago baitira pausualdian. Baina pausualdiak ez dira fantasiazko memento batzuk baizik, gerlarik ez dela gehiago eta munduak Parisetik harago ere bizirik segitzen duela pentsatzera eramaten duten fantasia batzuk, 49.eko soldaduei nahi baino arinago lurruntzen zaizkienak zorigaitzez. Elodieri eta Gertruderi adio erranik,

berriro Argonan dira 49.eko gizonak. Abantaila bakarra? Verdunetik bizirik jalgi direnentzat gerlaren antzik ere ez dutela Argonako su hauek. Verdun aitzineko guduak iduri dute hemengo josteta hauek: to obus batzuk, aurtiki granada ukaldi batzuk, eman tiro batzuk, zelatatu etsaia beilan, segi arrantxoaren xerka, iragan egun batzuk su hegian, joan erresalburat, eta itxaron hurrengo aldia noiz helduko. Erreximendurat ereiaroan heldu ziren soldadu gazteentzat, biltegietarik 200 gehiago hartu baititu erreximenduak hil hondarrean, oro da lazgarri oraino, baina fite usatuko dira, eta egunak eginen dituzte su beraren eta musker argi beraren pean, bizi guzian hori baizik egin ez balu-

te bezala. Faustin Oihanburuk ez, ez du gehiago loriatzerik izanen alemanek zerurat gauez aurtikitzen dituzten musker argi horiekin. Uztailaren 20an, argia gabe –aroa lasaia zen, alemanek ez zuten eraso gaitzik egin zenbait egunez–, patruila bat abiatu zen alemanen errekak ezagutzera. Boluntario aurkeztu zen Faustin. Aleman gerizpe batetarat aurtiki zituzten bederatzi granada, udare batzuk baino handiago ez diren horietarik. Zelatari aleman bat karraskan lotu zitzaien mitrallusarekin, aitzinatu zen Faustin erreka barnerat, eta bi metro garai zen idi baten adinako morroi hura ganibet ukaldi bakarraz kalitu zuen. Baina han berean atzeman zuten botxeek Faustin, eta tiroz suntsitu. Patruilak justuki ihes egin zuen, eta granadaz kolpaturik itzuli ziren hiru lagun bederen. Zernahi gisaz, egunero kolpatu arinen bat eta arteka hilen bat edo bertze baldin badira ere, galtze handirik ez da Argonako gudu hauetan; deus ikustekorik ez Verduneko infernu harekin. Bertzenaz, fite igortzen dituzte han galdu gizonen ordezkoak: agorrilean heldu zaizkie bertze 400 soldadu gazte. Aitzindarien begietara Faustin halako 400, erran nahi baita. Badira, ttipiago izanagatik mingarriago diren galtzeak: Renaud deitu soldadu batek desertatu du alemanen lerroetarat. Bil-

tegietarik heldu berria zen. Zizpa beilari postuan utzirik alde egin zuen agorrilaren 5eko gauean. Etienek, Lurok eta Manexek oren luzeak egin dituzte auziari buruz solasean. Agorrilean berean irakurri diete boz goraz letra bat Espainiako erregearena, hitz emanez frantsesak kanporatuko dituztela beren lurretarik. Jakin dute, bertzalde, Donostian zortzi frantses preso hartu eta mugarat eraman dituztela, epaitu ere egin gabe. Lurok bai baitu kusi bat desertore, arranguraturik da Espainiatik kanporatuko ote duten. Martxoan joan zen bertze alderat, Bankakoa izanik aise iragan baitzuen muga, jendarmeen postuan utzirik soldadu arropak, ontsa plegatuak, horrek balizko kondena arinduko ziolakoan; desertatuen familiei lurrak kenduko dizkietela ere erraten baita. Zernahi den ere, Manexek argi du Espainiako erregearen letra hori propaganda baizik ez dela, desertatzeko asmoak oro lurperatzeko. Propagandak alde batera baizik ez duela helburua lortuko uste du, aldiz, Etienek. Renaud gazte horrek alemanen lerroetarat desertatzeko asmoa horregatik baitu hartu, dudarik ez dena: Espainia alderat ezin bada desertatu, Alemaniarat. Bizia atxikiko duela ihardetsi dio Lurok, bederen bizia atxikiko duela. Manexek oroitarazi dio, orduan, Kruppen lantegi horieta-

rat igortzen dituztela preso atxikiak, frantses soldadu gaizoak fundituko dituzten obusak eta balak egiterat: «Alemanen alderat desertatuko zinateke, jakinik ezarriko zintuzketela Etien edo nihaur fundituko gaituzten obusen fabrikatzen? Desertatuko zinateke?». Galdera horretan aienatu dira eztabaidak. Beraz, itxaropen bakarra da hurrengo pausualdia heldu arte bizia atxikitzea, edo beharbada bertze permisione aldi bat igurikitzea. Otsailean permisioneak jasota, segur baita Gabonak aitzin ez dutela berriro ere aldi izanen. Eta, bertzalde, hobe halakoetan gehiegi ez pentsatzea, Etienek erran ohi duenez. Agorrila fite bururatuko da eta gero buruila jinen da, eta segidan urria, sartuko da negua, eta hotzak eta elurrak berriz baretuko dute gerla, segur da. Eta anartean jasoko dituzte sari batzuk ere, erreximenduko soldadu anitz sariztatuak izan baitira azken asteetan, Verdunen eta geroko guduetan egin balentriengatik. Hala nola, Manexek eta Etienek jaso dute zitazio bedera, etsaiari mitrallus bateria bat desmuntatzeagatik. Manexek ez du aukera galdu komandanteari galdetzeko Mizel Donetx aitarengatik, hilabeteak baitituzte haren berririk gabe. Jakitera entseatuko dela erran dio aitzindari horrek, eta segitu du medailen ezartzen, Domingo Lopezi hurren-

goa, sariak jasotzen ari direnen lerroan Manexen alboan baita, papoa tente. Lehendik ere usatua baitzen lehergailuekin Gixuneko harrobian, eta granada aurtikitzaile hauta dela frogatu baitu, Domingok izar bakarra falta du medaila militar horietarik baten eskuratzeko. Hamabi eguneko pausua izanen du sari. Joan den astean boluntario aurkeztu zuen bere burua bertze patruila batean, eta granadaz zapartatu alemanen arma biltegi ttipi bat. Beraz, abantzu aste batzuen buruan emanen diote medaila militarraren osatzeko falta zaion hirugarren izarra. Agorril hondarrean eman dizkie jeneralak azken sari horiek, ohore handitan, 49.eko musika banda joka dela. Bandak finitu dituelarik musikak, jeneralak egin die mintzaldi bat soldaduei, serios, nabarmenduz kanpoko etsaia bezain gogorra, edo anitzez gogorrago, dela barneko etsaia. Oroitarazi die prostituta horien artean espiak ere direla askotan ezkutatzen, dela informazioa eskuratzeko, dela Frantziaren Armadan sifilia ereiteko. Alkoholaren kalteez ere ditu abisatu, gizona zein heinetan gal dezakeen salatuz boz larriz. Etsai horietarik begiratzeko manatu die beraz soldaduei, galdeginez su zelaian botxeen kontra agertu duten kuraia beraz oldartzeko barneko etsaiari, eta higienea soldaduaren diziplina-

ren zeregin gorenetarik bat dela ohartaraziz. Gero autoetan sartu eta lekuz higitu dituzte, eta berriz haste su zelaiko jolasetan, eta buruil erditan Hirschauer jeneralak errebista pasatu eta eman dizkie sari gehiago, Menehoulden. Hor du bereganatu medaila desiratua Domingok. Etieni erran dio, zaplada on bat emanez bizkarrean, etxerateko bidean Parisen eginen duela egonaldi bat, bi egun eta bi gau oso, hiriko burdel guziak korritu arte lorik egiteko asmorik ere ez baitu. Domingo Pariserat lehenik eta Gixunerat ondoren hamabi egunendako pausuarekin joaten utzi eta, berriz surat igorri dituzte 49.eko gizonak. Larrazkenarekin heldu zaie pausualdia: lehen eta hirugarren batailoiak Dosnonen kantonatu dituzte, instrukzioaldi luze bat egiteko han, goizetan teoria ikasiz, arratsetan praktikak eginez: gimnasia eta ariketa fisikoak, antolaketa defentsiboa, eremuen azterketa, hurbiltze ariketak, erreken antolaketa, erasoak konpainian eta erasoak talde handi zein ttipiagoetan, krokisen irakurketa, okupazio planak, eraso eta defentsa ekintzen antolaketa orobat, eta tiro probak, mitrallusekin, zizpekin, granadekin, soldadu bat eta bederak bere espezialitate horrekin alegia, eta baioneta esgrima, eta maniobrak, eta martxa militarrak. Baita instrukzio morala

ere oraino. Funtsean, Emile Intxauspe lotinanta, zeina merituak metatzen ari baita kapitaingorat heltzeko, atsegin handiarekin arizan da soldaduei jokoak eta ariketak manatzen, eta Filipe Luro gero eta herra handiagoa hartzen ari zaio exerzizioei. Etien eta Manex adiskideek lasaitzen dute, gogoratuz eta exerzizioek eta instrukzioek iraun artean ez direla su zelaian izanen, gozatzeko pausualdiaz. Lurok menturaz ez hainbeste, baina esne mamitan dabil Henri Gramrand, ezagutu baitu emazte gazte bat Dosnon berekoa. Okindegi bat gobernatzen du berak bakarrik, senarra gerlan izaki. Elkarren ezagutza egin dutenetik, gauetan ez dute Henriren berri handirik izaten soldaduendako etxoletan. Goizetan agertzen baita betzulo handi batzuekin instrukzio orenarentzat, Emile Intxauspe lotinantak galdegin dio zer gertatzen zaion, eta eri dela ihardetsi dio Henrik, azkenean egia bilakatu baita: entzun behar izan ditu lotinantaren sinfonia ederrak, zer eta buztanaren azterketan antzeman diotelako sifilia. Eskoletan jasotzen dituzten formazio moralek fitsik ez al duten balio galdegin dio Intxauspe lotinantak, Henri gaizoa utzi baitu irri egiteko gogo handirik gabe, lehendik aski arranguratua ez bazen gaitz lotsemangarri horren ondorioekin,

itsu edo paralitiko geldituko zela pentsatzen ari baitzen Henri Gramrand egun guziz. Ukendu zenbaitez eta pazientzia handiz kontrolatu du gaitza, medikuak erran baitio ez dela segura berriz ez agertzea, eta tentuz ibiltzeko. Zernahi gisaz, sifiliarekin edo sifilirik gabe geldi egoterik ez baitu, berriz ere partitu da 49.a hazil hondarrean, aldi honetan lurrezko bideetarik oinez, eta han da Henri Gramrand ere. «Martxan trebatuak baikaituzu!», erran dio Jean Salaberrik, adiskidearen umorea goititu nahirik. Egin dute egun bat bidean, eta gero bertze bi, eta gero bertze lau, artekatuz pausu egun batzuk, eta gero bertze bi egun oinez, eta gero bertze hiru, eta abendua badoa, eta iduri du gerla guzian harat-honat eramanen dituztela, su lerrorat hurbildu ere gabe, Jean Salaberriren beraren umorea ere histeraino. Holetan, egun batez, Etxeber erretorea jin da soldaduei adio erratera. Ibarnegarai diputatu jaun gaztearekin eta Baudillart kardinalarekin hasi beharra du itzuli bat. «Atzeguardiako gerla!», erran die boz fermuz. Frantziako Gobernamenduak igorriko ditu espainiarrak konbentzitzera, eta hasiko dute mintzaldi sorta hori Donostian, gero bertze hiri

handiago batzuetarat joateko. Espainian alemanen aldeko kolonia bat azpilanean ari denez, Frantziak erabaki du espainiarrak kartu behar dituela, neutraltasuna aliatuen alde hautsiko ez badute, bederen neutraltasuna zorrotz bete dezaten, eta alemanek ez dezaten ahultasun hori baliatu beren alde indar baten pusatzeko. Mendiburu bikarioa ordezko izendaturik, auto batean sartu eta soldaduak utzi ditu Etxeber erretoreak, ez aitzinetik hala nahi izan duten soldadu guziak kofesatu eta benedikatu gabe. Erretorearekin edo erretorerik gabe, itzulika segitu dute 49.eko soldaduek, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartzearen balizko aukerez solasean entreteniturik bederen, baina hainbertze ibilaldiren xedea antzeman ezinik oraino, aitzindariek argibiderik batere ematen ez dietenez. Eta Gabonak heldu aitzin, hara oparia eta argibidea, etxerat joateko permisionerik ez, baina igorri dituzte surat, Harbonnieresen. Bigarren batailoia Gabon gauean, eta gaineratekoak, Eguberri bigarrenean. Su zelairat gerturatu ahala hasi dira obusak entzuten, aspaldiko partez, eta Henri Gramrandek irri karkaila ero batez hartu ditu: «To! Adiskideak, hemen dira gure postari maiteak!». Etxekoen bertze letrarik ez du jasoko Henrik. Urtarrilaren 31n hilen du berunezko postari horie-

tarik batek, erreleboa egiteko gibelatzen ari zirela. Neke handiz, andariek jasoko dituzte haren gorputz atal gehienak, salbu eta eskuko hatz bat edo bertze. Manex Donetxek lan horretan lagunduko ditu andariak, zer eta, badakielako andari horien artean badela bat 142. territorialean aritua. Mizel Donetx aitaren berririk baduenetz galdetu nahi lioke. Baina andariekin Henriren hatzak lurrean xerkatzen hasi delarik erran diote haietan ez dela nehor 142. territorialean arizana. Bizpalau egunen buruko, nolanahi den ere, ikaragarriko aro ederra egin duen egun batez, andari horietarik bat bihurtuko da konpainiarat Manexengatik galde eginez. Igorriko dute izkiriatzen eta uroski pipatzen ari den talde batenganat, han ezagutuko du Manex, eta esertzeko erranen dio. Erranen dio. Bretoia baita, Manexi bitxi eginen zaion azentu batez erranen dio andari horrek. Mediku batekin hitz egin duela. Mizel Donetx gizon handia zela. Ebakuntzaren azken orenera arte kuraia handia agertu zuela. Hori nabarmentzeko eskatu diola medikuak. Erranen dio. Bere esku zen guzia egin zuela medikuak. Bi eskuak aurpegirat eramanen ditu Manexek eta etxekoei izkiriatzen ari zen paperean malkoen mezua itsatsiko du oharkabean;

ez da ausartuko familiari aitaren berri letraz ematen, halere. «Permisionea eskuraturik itzulitakoan kontatuko diet», geroratu du erabakia. «Hobe aurrez aurre erraten badiet». Eguberri iragan eta, Manex Donetxek etxekoei izkiriatu aitzin, urtarril erditan heldu dira soldaduendako letrak. Lehen batailoia Harbonniereseko hirugarren lerroan bildua dela baliatu du sarjantak letren partitzeko. Bolboraren suak zerbait berotzen badu, behar den gisako su on baten berorat atsegin handiagoz biltzen dira soldaduak, eta suaren ondoan deskantsuan dira tenore honetan, baselina emanez zangoen berotzen, aizkora ttipiez jaki hormatuen zatitzen, kutxot arno baten edaten, pipatzen orobat, kapota karroindatuen pean artilezko estalkien tinkatzen beti, hotza alimalekoa baita urte hasiera honetan, baita zementuzko gerizpe honen barnean ere. Letrak jaso ahala, makur bakarra dute soldaduek, mukiak ziri bilakatzen dizkien hotz horretaz aparte: letren irakurtzeko eskuak izozten zaizkiela. Gordegian direla orai, egur ikatz baten su apalak epeltzen duela barrukia, atsegin handiz irakurtzen dituzte letra heldu berriak, hatsarekin berotuz esku hormatuak. Gixunetik, Do-

mingo Lopezi senideek erran diote Duhalde jaunaren belartegiari sua lotu zaiola eta lurrerat aurtiki duela, baina ez dutela sua herriko etxeetarat hedatzen utzi eta han berean ito dela zorionez. Urruñatik, Jean Larreri familiak kontatu dio Juan Gaston ohoina garrotean hil dutela Irungo presondegian, Sarako etxe batean bi gizon hiltzeaz eta haietako baten emaztea bortxatzeaz akusaturik. Bozkario handitan ospatu dute herritarrek. Baina Jean Larrek bi letra jaso baititu gaur, Janamari Ugarterenak egin dio poz handiena; etxekoen letra utzi eta andregaiarena irakurri du behin eta berriz, papera ere hormatzen hasi zaion arte. Senperetik, Xantiago Fourcaderi emazteak azaldu dio Terese Etxegoien esperantzetan ezarria dutela, zer eta senarra gerlan galdua den edo ez argitu gabe delarik oraino, eskandalu handi bat herri guzian. Irisarritik, Manex Donetxi izkiriatu diote aitona Ximun osagarri onean dela, baina aitaren berririk gabe segitzen dutela, eta ea ba ote duen Mizel aitaren berririk batere. Hor utzi du letra Manexek, irakurtzen segitu ezinik, begiak malkoz bete baitzaizkio. Baionatik, Etien Bonnati izeba batek izkiriatu dio, ama gaixo handi duela jakinarazteko; badira eta hiru aste etxetik atera ez dela, eztulak ito behar duela iduri du, medikuek ez

dute aitzinamendurik ikusten. Arnegitik, Filipe Lurori jakinarazi diote Julien anaia mobilizatua izanen dela laster, hemezortzi urteak aurten bete behar. Bihotzaren iluntzeko baizik balio ez duen albiste horrekin tristatu da Luro, baina, holakoetako gordetzen baititu Maitenak azken hilabeteetan igorri dizkion letrak, mokanes ttipi batean bildurik, atera ditu barneko patrikatik, eta horiek irakurtzera eman da, zigarreta bat piztuz, anaiarengatiko zorigaitza Maitenarekiko zorionarekin ordezkatu nahiko balu bezala. Aldi honetan ez du letrarik jaso Joseph Ameztoik, familia oraino anaiaren heriotzaz inarrosia izanen delako segurki, eta ez dutelako asmatuko zer erran Joseph gaizoari. Jean Salaberrik ere ez du etxekoen berririk gaur, eta arratoi ehizara emana da, Josephekin eta bertze hiru soldadurekin. «Arratoi baten atzemateko bortz gizon, alafede!», zirikatu ditu Xantiago Fourcadek. «Ausiki egiten baitu kotxino horrek». Atzemandako arratoi bakoitzeko sos bedera manatu dute aitzindariek, halako karrarekin hedatu baitira karraskari deabru horiek xoko guzietan, jaten dituztela eztainuzko platerak eta soldaduen oinetakoak ere. Sosen kobratzeko, ordea, arratoiak behar dira legez ehizatu: aitzindari bati arratoiaren gorpu hila erakutsi, eta hark egindako paperarekin

erreximenduko moltseroarenganat joan sosa kobratzerat. Ez du balio buztana soilik eramateak, eta bertan suntsitu behar da arratoia, bertze soldadu batek ez dezan gorpu bera baliatu bertze sos baten kobratzeko. «Pozoirik ez duzue bada?», Fourcaderen galdea. «Zaude. Arratoiendako pozoia eman eta katua lehertu zuten mando hauek azken aldian». Jean Salaberrik katakume bat hazi baitu joan diren asteetan, pozoi hori irentsirik zapartatu den arte. «Entzun dut bada ingelesen aldean aire pozoituek erraustu dituztela arratoi guziak». Fourcaderi ihardetsi behar zion Jean Salaberrik, gordegiaren atariko manta gris latza ireki dutelarik. Lotinant batek galdegin die lekurik ba dutenetz bi soldadu berrirentzat. Zortzi metroko zuloan guzira hamabortz lagunendako lekua badenez, baietz ihardetsi dute, badela lekua oraino. Hotzetik begiratzeko kautxuzko oihal gehiago hedatu dituzte lurrean, eta lasto amiñi bat barreiatu haien gainerat, heldu berrientzat kamantzak atonduz. Sartu dira soldadu berri horiek; ez dira gazteak ere, gerizpean direnen adintsukoak, iduriz; jin izanen dira bertze erreximendu batetarik, hain segur. «Piarres?», atera zaio Filipe Lurori, Maitenaren letrak mokanes ttipian bilduz: «Piarres Hasket?». «Luro zara?», galdegin dio Piarre-

sek Lurori, indar handirik gabe zinez, baina begi niniak poxi bat pizten zaizkiola. Piarresen hazpegiak haztatu eta osorik besarkatu du Lurok; besoak indarge ditu Piarresek, justuki eman dio zaflako bat bizkarrean Lurori. «Atera arno xorta bat, ostia! Haur ginenetik adiskide dut Piarres. Arnegikoa berekoa duzue», presentatu die gainerateko soldaduei. Bizkarretik oratu eta bazter batetarat eraman du Lurok Piarres, arno xorta bat eskuratuz eta tabakoa eskainiz, lasai mintzatzeko. Artillarietan arizana da Piarres Hasket, baina, bertze egun batez, buxatua zen kanoi bat garbitzen ari, su hartu eta eskuak kiskali zitzaizkion. Deus larririk ez, baina ospitalean egon behar izan du hilabetez, eta orai infanteriarat igorri dute. Beldurtua da arrunt, zer eta ez duelako infanteriako arauen berri zehatzik, hiru urtez abantzu artillarien axuant izanik. Ez arrangura-tzeko ihardetsi dio Lurok, ondoan izanen duela beti. Begitartea hits du ordea, Piarresek, neke handiz jalgitzen zaizkio hitzak, mihia korapilatzen zaio solasean hasten delarik, eta dardara egiten diote eskuek. Zigarreta ere Lurok bildu behar izan dio. Azkenean, totelka galdegin dio Lurori: «Noiz uste duzu finituko den ankerkeria hau?». Luro orduan baizik ez da ohartu adiskidearen betzuloez eta begitarte hitsaz. Piarrese-

kin heldu den bertze soldaduak, Mizel Irigarai baitu izena, guziz bertzelakoa du aldartea. Musean hasia da Salaberri eta horiekin, betiko adiskidantza bat balute bezala solasean: «Entzun duzue zerbait amerikanoei buruz?

Horiek gerlan sartuko diren egunean, aise fundituko ditugu botxe tzar horiek!». Mizel Irigarairi esperantza ematen diona hori baita: amerikanoak gerlan sartzea. Badira lau hilabete Irigarai 49. erreximendurat heldu zenetik, eta lau hilabete dira gauza bera erran eta erran ari dela. Azkenean, heldu da berria, gerlan sartuko dira Amerikako Estatu Batuak, eta Irigaraik, pozez zoraturik, eman dio zaflako bat Jean Salaberriri sorbaldan, abantzu lurrerat aurtiki baitu. «Orain bai, adiskideak. Orai bai». Aguardient botila bat ireki du, eta gaineratekoei eskaini. Pozik dira konpainiako soldadu gutiz gehienak, egia erran. Ez amerikanoengatik bakarrik: urtebeteko harat-honatak, suak eta pausuak, hilak eta kolpatuak, errefortzuak eta instrukzioak, apiril erditan Craonnerat heldu baita 49.a. «Maizyn berriz», pentsatu dute lekua iazko alditik ezagutzen dutenek. Eremua duela urtebete baino suntsituago

dela, begien bistan da, baina soldadu zaharrenek badute nolazpaiteko poz bat, eremu ezagunerat itzultzearena. Esamesa badabil soldaduen artean, aitzindariek oldar bat egin asmo ote duten Craonne aldean; amerikanoak gerlan sarturik, gainera, pentsatzen dute oldar handi bat eginez gero berehala suntsituko dituztela alemanak. Oldar hori noiz helduko igurikitzen dute azken aldi honetan, beraz. Eta, egia dena, mugimendu handiak badabiltza Maizy honetan harat eta honat, munizioak, kanoiak, mandoak, zapadoreak... Lehen lerro horretan erreka berri baten eraikitzen ari direla entzun dute Etien Bonnatek eta Filipe Lurok. Egia denetz, fite frogatuko dute beren begiez. Bo, Manex Donetxek ez, ezin izanen du frogatu deus gehiago bere begiez. Apirilaren 20an, lan batzuk eginik goizean, Emile Intxauspe lotinantak ezarri ditu soldaduak ariketa zenbaiten egiten arratsean. Lotinantak granada berrietarik bat eman, eta eskuan lehertu zaio Manex Donetxi, zartagailua askatu ezinik ari zela, buruaren zati bat deseginez eta kaskoa hamabortz bat metro airean aurtikiz. Etien Bonnat errabiak hisiaturik eta itsuturik oldartu zaio Intxauspe lotinantari, oro marruma eta intziri, idi baten indarrez. Lotinanta azpian hartu eta muturrean eta urdailean kolpeka hasi

zaio Etien. Aspaldi erabili gabeko ukaldiak erabili ditu Etienek, Santos azti harekin ontsa entseaturiko kolpeak Avironen egoitza hartan: *jab*-ak, *cross*-ak, *crochet*-ak... Mila deabruen ukaldi sorta bat askatu du Intxauspe lotinantaren bururat, besoak ihurtzuriaren abiadan inarrosiz. Filipe Luro, Domingo Lopez eta Mizel Irigarai, hiru lagun, beharrezko izan dira Etien lotinantaren gainetik altxatzeko. Bertze bik ere heldu behar izan dute fite, askatzen hasia baitzen berriz ere lotinanta azpian hartzeko. «Urdekume hori hil eginen dut! Hil eginen dut urdekume hori! Muturra xehatuko diot!», segitu zaio Etien garrasika, haguna dariola ahotik, bortz lagunen artean ere atxiki ezin dutela. Hatz bat ere higitzeko gai ez dela utzi du lotinanta, begiak handituak eta sudurra odoletan zurrustaka. Presondegirat eraman dute, baina ez luzaz atxikitzeko; baretu arte bertzerik ez. Intxauspe lotinantak oren erdi bat egin du lurrean oraino, kordea itzuli ezinik. Ez dira anitz luzatu exerzizio horiek, istripuarengatik batetik, lotinantaren egoerarengatik bertzetik,

eta hilaren 23tik aitzina su zelairat manatu dituztelako, gainera. Abantzu hiru hilabetez dastatu gabeak zi-

tuzten josteta horietan hasi dira berriz, beraz, duela urtebete utzi zituzten Craonneko erreketan berriz. Aitzinamendu batzuk eginak dituzte erreketan, berrien eraikitzen ari, bertzalde. 49.eko soldaduak ezarri dituzte lehen lerro horretan, hain justu, Bourgignon izena emana izan zaion erreka berri baten eraikitzen. Obus erauntsi handien pean egin beharreko lana dute, frantsesak atakada bat prestatzen ari direla susmaturik alemanak oldar gaitzean ari baitzaizkie bonbekin, eta gizonak jausten baitira larrazkenean hostoak bezala. Hiru hildako izan dituzte hilaren 26an, bertze bat 27an, bertze zazpi 29an, bertze lau 30ean. Eta handik aitzina biderkatu dira aleman obusak, eta bertze hiru hil izan dituzte maiatzaren 1ean, eta bertze hamabi oraino maiatzaren 2an; berrogei kolpatu, bertzalde. Maiatzaren 3an, su beraren pean beti, Kaliforniako mendi kaskorat beha ezarri dute 49. erreximendua, Craonnetik mendebalderat. Bourgignon, Roy eta Balcon erreketan sartu da lehen batailoia. Brunosiloffen da bigarrena, erresalbuan, eta Montmirailen hirugarrena, erresalbuan hori ere. Munizioak eta granadak garraiatzen eman dute eguna, ustez eta maiatzaren 5ean eginen duten oldarraren prestatzen. Gauean lekuak ezagutzerat igorri dituzte patruila zenbait, eta

bertze hiru hildako eta hiru desagertu zenbatu ditu erreximenduak. Erasoa prestatzeko eta alemanen nahasteko atakada faltsuak egiten hasi dira batailoi batzuk, eta bertze hogeita zazpi hildako zenbatu dituzte hilaren 4an, horien artean dela Domingo Lopez. Gorputz erdia pezoiaren gainetik erakutsiz arizan da granadak besagainka aurtikitzen, eromen batean, irrintzika, mitrallus ukaldi batek gorputz osoa tarratatu eta lurrerat jausarazi duen arte. Ahotik odol xorta bat dariola eta sabelalde guzia zulaturik utzi du botxeen tirokaldiak, lepotik zintzilik medaila militarra, eta aurpegian begiak arras irekiak, jalgi beharrak balitu bezala. Eskuetan gelditu zaion granada ziztu batean aurtiki behar izan du Jean Larrek errekatik kanporat, lekuan berean ez zartatzekotan. Suzko egunari suzko gauak jarraikitzen diola, maiatzaren 5eko goizaldeko bi orenetan hirugarren batailoia joan da Thuin errekatik Balcon errekako soldaduen indartzera. Lehen batailoiko bi konpainia erasoko prest dira tenore horretan, ezkerrean 57.eko eta 35.eko gizonak eta eskuinean 34.ekoak dituztela. Bi mitrallus sekzio ezarri dituzte lehen lerroan, bertze bat gibeltxoago, eta laugarren bat erresalbuan. Lehen batailoiaren gibelean dira hirugarren batailoiko soldaduak, beraz, eta ingeniari

eta zapadoreak prest dira haiekin, irabazi asmo dituzten aleman erreka horien arraberritzeko eta lotura berrien eraikitzeko haiekin, palak eta aitzurrak eskuetan. Argia hastearekin jo dute kleronek erasora, aitzindariek «En avant! En avant! En avant aux boches!» oihukatzen dietela soldaduei, pezoi gainetarat iganik. Eta 09:02etan Von Felt eta Harlock errekak okupatu dituzte soldaduek, alemanak fueraturik. Hogei bat aitzindari hartu dituzte preso, eta fite lotu dira erreken moldatzen, alemanen eraso lerroa zena alemanei eraso egiteko lerro bilakaturik. Aitzinatu ahala, gibeletik soldadu baga berriak heldu dira, larrazkenean Dosnon aldean ikasiriko taktika militar guziak zolitasunez gauzatuz. Hamar minuturen buruan Fribourg aleman erreka ere bereganatu dute 49.eko soldaduek, manu taktiko guziak zehaztasun handiz bururatuz. Alemanen erresalbuko errekak zirenak dituzte aitzinean orai, baina gerizpeetarik granadekin oldartzen segitzen dute botxe tzar horiek. Gibeletik ekarri mitrallusek errendiarazten edo ihes igortzen dituzte halere. Han harat erretretan lasterka doazenak frantsesen mitrallusek jo eta errausten dituzte, lurra hilez ereinez. Minutu batzuk arte frantsesen lehen lerroko erreka zen Bourgignon hura alemanen lehen lerroko erreka ziren

Von Felt eta Harlock erreka hauekin lotzeko arroila berrien eraikitzen ari dira hirugarren batailoiarekin heldu diren soldadu eta zapadoreak. Suaren lehen lerro horrentzat armak, munizioa, ura eta bertze bermatzen ari, bertzalde. 11:00etan ezarria dute gerizpea Fribourg errekaren ipar alderat, alemanei buruz, eta antolatua dute oinarrizko azpiegitura. Loturak onak dira erreken ezker alderat 57.eko gizonekin eta eskuin alderat 34.ekoekin, nahiz eskuratu dituzten eremu berriak itsuski kolpatu dituzten aleman obusek. Horietarik batek epaitu dizkio bi zangoak Xantiago Fourcaderi, bet-betan odolustu baita segundo gutiren buruan, eta hogei bat metro airean igorri du Etien Bonnat, burua itsuski kolpaturik eta lohitan etzanda baratu dena. Bourgignon eta haren gibeleko erreken loturak ere porroskatu dituzte obus horiek, baina gibeleko loturak atxiki dituzte konpainiek. Gaueko bederatzietan alemanak berrantolatu dira infanteria eraso baten egiteko Fribourg errekari. Granada eta mitrallus ukaldiz lehenik eta artilleriaren laguntzarekin gero, uxatu dituzte. Eguna finitzeko, hogeita hamabi hildako badira 49. erreximenduan, eta bederatzi desagertu, preso atxikiak segurki; ehun kolpatu baino gehiago, bertzalde. Andariak hasi direlarik hilak eta kolpatuak altxa-

tzen, orduan atzeman dute Emile Intxauspe lotinantaren gorpua, buruan tiro bakar bat garbia duela, hori ere kapitaingorat heldu aitzin xifritua. Sudurra hautsirik zuen oraino, eta begi ondoak, handiturik, Etienek eman zafralditik guziz sendotu gabe. Hainbertze galerarekin ofizier baten heriotzak ez ditu nahigabetu aitzindariak, loriatuak baitira atakadaren emaitzarekin eta soldaduek egin oldar aratz eta ontsa antolatuarekin. Erreketan bibak eta kantuak badituzte soldaduek ere, eta 49.eko gizonek erabaki dute konkistatu berri duten Fribourg erreka honi behar diotela izena aldatu, Baiona ezartzeko,

baina Baiona errekan ez dira jostetak finitu, maiatzaren 6ko goizeko zazpietarik aitzina berritu baitituzte bonbardaketak alemanek, argia hastearekin, eta bederatzietan heldu baitzaie bertze infanteria eraso gaitz bat gainerat. 57. eta 34. erreximenduetako gizonak, ezker-eskuinetan, larri eta estu dira atakada horiei ihardetsi ezinik. Baina 49.eko soldaduek hortzez eta azazkalez babestu dute Baiona izendatu nahia duten erreka hori, eta hilaren 7ko goizaldeko lauretan hasi dira gibelerat itzultzen, aldizkatzeko indarrak igo-

rri dizkietelarik. 414.eko soldaduei manatu diete lan hori. Gibelatzeko mugimendua finki egin beharra da, alemanen erasoen pean oraino, eta lotura guziak ontsa eginak direla segurtatuz. Lehen batailoiak eginen du beraz bertze egun bat suaren lehen lerroan, aldizkatzeko indarrak heldu artean. Lanak bururaturik eta kontuak eginik, ohartuko dira erreximenduak atxiki dituela laurehun eta lautan hogei soldadu aleman preso, eta bereganatu dituela lau obus aurtikitzaile, bederatzi mitrallus, berrehun zizpa eta mosketoi, ehun obus inguru, hirurehun bat granada –engoitik etsaiaren aurka erabili dituztenak han berean–, eta munizio ugari. 49.eko soldaduak loriaturik datoz gibelerat, beraz, garaipen handi baten aparretan, eta han aitzinean, Kaliforniako mendi kasko horretan, ohoragarri, Baiona izeneko erreka bat badela oroituz beti. Maizyn elkartu dute 49. erreximendua, Banlieux-les-Fismesera eramateko, gerlariek har dezaten atseden. Ez dute alferrik garaitu Prusiarren Guardia famatua. Prentsa arduratuko da berri loriosak hedatzeaz Baionako erreximenduari buruz. Mozkorraldi bat gaitza eta tolerantzia etxeko emazteekin oren gozo batzuen egitea merezi duen garaipena, dudarik ez dena. Biharamunean ez dute exerziziorik izanen, eta arnoa ausar-

ki partitzeko manatu du Leon Iturri kapitainak. Aldarte horrekin nehork ez du gogoan, nehork ez du gogoan atxiki nahi, Piarres Hasketek tiro batez zulatu duela bere garezurra. Sarjant batek kendu dio ahoan barna sartua zuen Lebel fusila, begiak hetsi ere. Nehork ez du gogoan atxiki nahi, baina Filipe Lurok ezin ahantzia du; begiak hesten dituelarik agertzen zaio Piarres, irriz, Arnegiko plazan pilota jokoan. Eskerrak ez duen gorpua ikusi. Trago bat arno eskaini diote: botila hartu eta erdiraino hustu du Lurok tanpez. Eta gero bertze erdia hustu du. Eta gero arno botila gehiago ireki ditu Lurok, eta esna bezala egin ditu amets gaitz batzuk, bere buruarekin bakarrizketan: «Tiro zalapartaka ari ginen odola gibelaldeetan soldadu batek kanoietarik argi hastean bake denboran bezain trankil oihuka zaintzeko etsaiak gogoan: Craonnelle itzulika-itzulika gauez nolazpait kepi bat ihesari hastean: hobeki edo guzia esperantza txar batek berehala kasik lañoki fueratu: bihozmin onik: bi orenetan zapartatzen mila bederatziehun eta hamalaua: soldadu bat tiro batez zainak jauzika segur: pipatzeko etsaiak gerlako pilota bidean: tiro xehetasunetan ez ditugu gure kontra egin arras: koronela kasik burutik beheiti hasian hasi kostako zena kosta ere satorra laguntzera: horra hazila-

ren dohakabeak han gaindi: oihanartean zitzaigun gertatu kontseilu bat: zertako behar dugu Plateau de Vauclerc bidea moztu frantses batzuk oldartu ziren bezala: halere hitz politak aleman eta frantses kilometrotan urrunago: laster eta erdaraz gu baino lehenago amore eman zuen koronelarenak ederki: ustekabeko jauzi eta bertze gainera: esku kolpe hondatua miletan handiagoa dugu biharamunean: mila aldiz lehen tresnak bizkarrean: zazpi orenetan». Zazpi orenetan iratzarri dituzte. Esnatu beharrik ere ez du izan Lurok, lokamuts gisako horretan segitu baitu gau guzian. Trasteria bildurik ezarri dute erreximendua martxan, lurrezko bideetarik oinez aldi honetan. Buruko min gaitzekin partitu dira soldaduak. Etienengatik galdezka zoro baten gisa ari baita Luro, eta ezin izan baitute zutik ezarri, andariek altxatu eta erizaindegirat eraman dute, non artatu baitute egun batzuez

eta, azkenean, permisionearekin igorri etxerat. Egun horietan Baionako Infanteriako 49. erreximenduari ohorezko aipamen bat egin diote, Craonnen maiatzaren 28an irabazi lekuengatik. Baina ez dira han izan ez Filipe Luro, permisionearekin Arnegirat bidean baita

oren horretan, ez Etien Bonnat, mirakuluz bada ere ospitalean baita, eskuin besoko hezur bat pitzaturik eta garezurrean kolpe bat bortitza harturik, baina osorik. Batailoiari sariaren emateko tenore horretan Limogeseko gerlako ospitale batean artatzen ari dira Etien beraz: arropa guziak erantzi eta garbitzerat igorriak, pikarrai lurrean zabal-zabala ezarri eta, Gurutze Gorriko neska gazteek ikuzten dute, xaboiak eta usain onak emanez eta ur beroz bustiz. Buruan sentitzen duen minagatik ez balitz zeruan litzatekeela pentsatzea bertze lanik ez du Etienek. Ohe buruan badu orri bat zintzilik, gizon baten gorpuaren marrazkia ageri duena bi aldeetarik, non ezarri baitizkiote marka batzuk garezurrean eta eskuin besoko hezurraren lekuan. Sarrera eguna eta orena ere agertzen ditu ohe buruko orriak, tratamenduari buruzko ohar batzuk, eta handik joateko eguna idazteko leku bat ere bai, zurian dena oraino. Buruko mina luzatzen uztea eta errehabilitazioa luzea izatea baizik ez du igurikitzen Etienek: ikuzketak egunero, janari freskoak egunero, mihise zuri aratzak egunero, Gurutze Gorriko neska gazteak egunero. Emazte horiek guziak aski ederrak izanagatik gehienak mojak baitira, tristezia poxi bat izan du Etienek hasieran, hasieran baizik ez, ezagutu

duen arte haien artean badela bat, Marie Riand izena duena eta Miarritzeko koronel zahar baten alaba dena, moja ez dena. «Hara! Miarritzekoa zu, Baionakoa ni, eta Limogesen elkar ezagutu behar!», erran dio Etienek lehen hitzetik. Handik aitzina aise ezartzen du barrez Etienek; erran nahi baita Mariek bisitatzen duelarik irria aiseago sortzen zaiola Etieni ere. Hain da txeratsua erizain gaztea berarekin. Eta oraino ohe buruko orri horretan medikuek joate egunari buruzko oharrik izkiriatu ez diotenez, aukera profitatzea erabaki du Etienek, buruko minak uzten dion heinean. Gaur goizean buruko zapia kendu eta motoa askaturik ilea ikusten eta ukitzen utzi dio Mariek: ile labur ilun kizkur bat badu. Eskuak sartu ditu Etienek oihan basa horretan, eta hatzak korapilatu zaizkio. Mariek hartu behar izan dio eskua, oihan basa hortarik ateratzen laguntzeko. Irri egin dute. Eta zorion handi horrekin denez, eta bertze lan edo exerziziorik ez duenez egiteko, gaueko mahaiaren gainean dituen zigarreta, pilula, su pizteko, karta, identitate medaila eta abarren artean miatu, papera eta luma hartu, eta Filipe Lurori letra bat izkiriatu behar diola otu zaio Etieni. Ezagutu duen neska horren berri emanen dio. Arnegiko txokolategiko bere Maitena hori baino aise ederragoa dela aurpe-

giratzeko. Eta baita Aviron Bayonnaiseko errugbilari baten ezagumendua egin duela kontatzeko ere. Gerla hasi aitzineko urte hartan, 1913ko apirilaren 20 hartan, Frantziako errugbi txapelketa irabazi zuen taldean arizan zen gazte bat. SCUF Paris taldeari 31 eta 8 irabazi zionetarik bat, alafede! Aviron erdia baino gehiago xifritua da su zelaietan, kontatu dionez: Emmanuel Iginitz, Julien Dufau, Albert Chateau... «Gerla nehoiz bururatzen bada ez da errugbi talderik gehiago izanen Baionan», kexatzen zaio Etieni, negarretan urtuz. Aldartea ere halakoa baitu. Eldarniotan maiz, zoro bat iduri du marrumaka hasten delarik. Bertzela mutil lasai eta isila da. Horien berri emanik, osagarri onean dela eta fite sendotzea espero duela izkiriatu dio Etienek Lurori, zentsuratzaileek irakur ez diezaioten eritasuna luzatzea dela desio duen bakarra, Marie Riandengandik urrundu ez dezaten gehiago. Etien letra hori izkiriatzen hasi den oren berean Arnegitik Craonnerateko bidean abiatu da Luro. Etxean ikusi, entzun eta egin dituenak oro –Maitenarekin egondako une gozoak batez ere: ezkontzeko elkarri hitza ematea, gurasoen oniritzia jasotzea, gordeka elkarri lehen pott herabea ematea– nori erran behar ote dizkion pentsatuz abiatu da Luro, hain justu Etien Limogesen

letra horren idazten hasi den oren berean. Su hegian izanen dira oraino Joseph Ameztoi edo Jean Salaberri? Bizi ote dira? Eta menturaz nehor ezagutzen ez badu? Hilak badira guziak, edo kolpatuak? Eta Etien, non ote da? Zainak airean ezarri zaizkio, bat-batean ohartu baita azken hilabeteetan erreximendurat heldu diren soldadu berrietarik ez duela nehor ezagutzen, baina solaserako oren handirik ez da Craonne aldean Luro harat heldu deneko,

azken egunetan botxe tzar horiek entseatu direlako, behin eta berriz, galduriko lekuak berreskuratzen. Lurrez bezala airez entseatu ere, airetako deabru horietarik metrailatzen aritu baitira Baiona erreka, han berean hil gogor utziz Jean Larre ferratzailea, mitrallus tiroz xehakatua. Galtze larririk gabe, halere, irabazi lekuei eutsi die erreximenduak, baina ez da hori makurrena: Paueko 18. erreximenduko soldadu batzuek uko egin diote su lerrorat joateari; *Internazionala* kantatzen hasi eta besoak gurutzatu dituzte, zizpak utzirik. Arrastatu dute andana bat. Galde eta galde, euskaldunik ez dela tarteko jakin du Lurok, ez 49. erreximenduko nehor ere, nahiz Paueko 18. erreximendu

horrek 36. dibisioa osatzen duen 49.eko soldaduekin. Giroa arrarotua da soldaduen artean, nehork ez du hitz argirik erraten, saihesten dute afera, edo lurrerat behatzen, burua hazkatzen kaskoaren pean, edo «Ufa!» egiten gehienez ere. Jean Salaberri baino ez zaio ausartu ahapeka zerbait erratera gau batez, gerizpean, eta kaporala itzulia egiterat atera delarik: altxamenduaren buruzagi guziak preso atxiki eta epaitu dituztela, eta hiru bederen hiltzera kondenatu. Nork edo nork *Craonneko kantua* izeneko bat ere sortu duela, *Adieu la vie, adieu l'amour, adieu toutes les femmes, c'est pas fini, c'est pour toujours de cette guerre infâme* dioen bat, aitzindariek kantatzea ere debekatu dutena hiltzeko mehatxu eginez, eta soldaduak izutuak direla, nehork ez duela hitzik erran nahi, zurrumurruak baizik ez direla heltzen. Errusian ere tsarrak abdikatu ote duen, bazter nahastaile batzuek hango gobernamendua uzkailiko ote duten, sozialisten jukutria bat ote den guzia, Frantzia Alemaniaren meneko ezartzeko eta Errepublikak gerla galtzeko, bi aldeak hitzartuak ote diren nehoiz gerlarik ez bururatzeko... Zurrumurruak anitz, eta kontu segurik ez batere. «Joan zinenetik, nahasiak dira bazter hauek. Eta gainera», Lurori gibeletik heldu zaion gizona seinala-

tuz hatzarekin, «lotinant berria dugu, Capdevielle, hor gibeletik heldu zaizun hori». «Filipe Luro?», galdegin du lotinant berriak, gerizpean sartuz: «Letra bat dut hemen zuretzat, Limogesetik heldua». Hilabete eta erdiz, Etien sendotu arte, Maitenaren letren ondoan eramanen ditu Lurok Etienen hitz horiek,

Alsazian, Guewenheim aldeko su hegian, Etienek berriro erreximenduarekin bat egin arte. Etien jin eta bertze hilabete eta erdi eginen dute toki horietan, Suitzatik 50 kilometrorat. Orai, su hegia utzi eta, kantonamenduetarat daramate 49. erreximendua, eta Lurok ezin du ahantzi zeinen gertu duten Suitzako muga: han ez da gerlarik izanen batere. Pentsatzea ere. 50 kilometrora. Estutuz gero egun bakarrean oinez joateko gisan. Oinez beti, herri ttipi batetarat heldu dira, baina ez Suitzarako bidean, Rammersmatt eta Roderen alderat baizik, han kantonatzekoak baitira. Herrira ttipi horretarat sartu, zizpak airean eta, karrika erdian, jaberik gabeko zakurrak, hezurrak agerian dituztela saihetsetan. Gidariek ez dute adosten ahal zein herri den hau eta nondik norat aitzinatu behar duten. «Halte-là!», manatu dute aitzindariek,

«Halte-là!», «Halte-là!», ofizier menekoek lerroz lerro errepikatu duten manua. Armak lurrean utzirik, esertzen edo etzaten eta pipatzen hasi dira soldaduak. Jaberik gabeko zakur horietarik bati segika, guziz suntsitua, zapartatua eta sakeatua izan den jauregi batetarat joan zaizkie begiak Filipe Lurori, Joseph Ameztoiri eta Etien Bonnati. Begiekin ezker segituz, oheetako matalazak, sukaldeetako jarleku, arasa eta mahaiak, era guzietako altzariak, guziak metan emanak barrikada batean, karrosa uzkailien zatiekin, harriekin, oholekin nahastekaturik; ezker hegalean suntsitua da barrikada hori. Capdevielle lotinantak zutiarazi ditu Luro, Etien eta Joseph, bazterrak mia ditzaten, tentuz jokatzeko manatuz, alemanek barreiaturiko minak edo lehergailuak izan daitezkeelako xokoetan. Gidariak ezin adosturik ari direnez, aitzinerat eginen dituzte urrats batzuk, bidearen ikertzeko, eta anartean segurtatu behar dute herrian ez dela arriskurik. Herri ttipia denez, patruilak fite miatu ditu bazterrak. Ez da ikusteko handirik, bertzalde: horma tzar batzuk baizik ez dira etxe gutiz gehienak, teilatuez gabetuak, jausiak; garretan dira oraino batzuk, eta kiskaliak gaineratekoak. Lorategi eta baratzeetan, lubakiak. Arbolak, obusek erdibiturik. Ekialdeko etxeen hormak, mitrallu-

sez zulatuak. Berina zartatuak, altzari hautsiak, mosaiko zirtzikatuak, zaborra. Bide bazterretan, zaldi hilak eta karrosa uzkailiak eta klase guzietako eremintak; katu baten gorpua usteltzen eta bi arratoi haren usnatzen. Hildako pertsonen arrastorik ez ordea; herritarrak lasterka ihes eginak izanen dira. Giza arrasto bakarra, etxe batetarat sartu eta, kaka mordoilo bat, jausiriko soliba baten ondoan. Berria da. Eurak bezala zainak airean ibiliko zen soldaduren baten estutasunaren ikur, hain segur. Lurok ere sabelaldea arindu behar duela erran die adiskideei, eta bazter batetarat apartatu da. Salbatu den etxeko leku bakarra, bi metro koadro eskaseko eremu bat, eta han komoda bat, gainean duela neguko lore bat, ihartu gabea oraino. Komodaren ondoan jautsi ditu galtzak Lurok. Hormaren bertze aldeko gelan sumatzen du Etien, Josephi erraten «Oraino sentitzen dut min bat besoan, indar egin behar dudalarik, edo zamatzen dudalarik, baina gero eta ttipiagoa da». «Ez duzu lehen bezalako ukaldirik askatzen ahalko, beraz?». Kukuturik, lan erditan ari dela sumatu du Lurok marraka ttipi bat, aire pozoituen obusek egiten dutena bezalakoa, ttartt!, eta jauzi batean zutitu da, galtzen beztitzeko astirik gabe, «Gasa! Gasa!» oihu eginez. Jausiriko so-

libarekin tupust egin, eta gutigatik ez da jausi lurrerat, maskaren xerka eta galtza oraino jausiekin lehian zutitu baita, guzia aldi berean. Soldadu adiskideek estonaturik behatu dute, eta maskak ezartzeari lotu dira haiek ere. Etxe ondoko lorategian izan da hots hori eta, ke zuririk nehondik heldu ez denez, kuraiatu dira, zerri mutur horiek soinetik kendu gabe badaezpada ere, Lurok entzun marraka hori zerk sortu duen miatzera. Zizpak airean gerturatu eta: jendarme baten gorpua, erdi erraustua den adaxka batetarik zintzilik, eta bi bele hari beha. Ttartt! egin du adaxkak, marraka ttipi bat, adaxka pitzatzen doanez pittaka. Maskak erantzirik beraz, itzuli dira erreximendua arrastatua den karrikarat, lehergailuen ez alemanen arrasto mendrenik ere ez dela jakinarazteko Capdevielle lotinantari. Urkaturiko jendarmeari buruzko informerik ez dute emanen, baitakite ezarriko dituztela palekin hobi zulatzen gorpua hobiratzeko. «Ustel dadila bertan», ebatzi du Josephek. Anartean, dragoien pelotoi bat sartu da herrian, eta zaldietarik jautsi gabe erakutsi diete gidariei Rammersmatterat joateko bidea. Iparmendebalderat hartu dute, beraz, formazioan ezarririk. Ontsa joan dira bulta batez, baina, kantonatzeko lekuetarat heldu aitzin, hiru airetako sumatu dituzte

gerturatzen, eta soldaduek herio batean eman dituzte beren buruak bide bazterrerat, zizpak airerat ezarriz eta mitrallus posizio pare bat antolatuz badaezpada ere. Baina airetakoek badute aski gudu euren artean lurreko narrasti gaizo horietaz arduratzeko. Identifikatu dituzte airetakoak: frantsesa da bat, gibeleko hegal zutean ageri duen begi blu-xuri-gorriak salatzen duenez; alemanak dira bertze biak, ontsa ikusi dizkietenez gurutze beltzak. Ekialdeko ibarretik jin dira, alemanek frantsesa metrailatzen dutela. Sigi-sagak eginez heldu da airetako frantsesa, alemanetarik bat ezkerretik aitzinatzen saiatzen zaiola, frantsesak eskuinerat har dezan gero eta gehiago, eta atera dadin bere bidetik. Zernahi gisaz, abiadurari eusten dio airetako frantsesak, bidea galdu gabe, eta ziztu batean iragan da 49.eko gizonak gordeak diren bidearen gainetik, beheretik, abantzu zuhaitzen adaburuak laztanduz. Gibeletik jarraiki zaizkio airetako alemanak, 49.eko soldaduez ohartzeke. Mitrallusak isilik eduki dituzte soldaduek, pentsatuz eta airetako tzar horietarik bat bira litekeela haienganat. Urrundu direlarik, ofizierrek presatu dituzte soldaduak, airetako alemanek gibelerat eginez gero ez ditzaten berriz bide bazterrean kausitu. Rammersmatten medikuen azterketak pasa-

tu eta astebetez instrukzioa jaso ondotik, trenetan sartu dute 49.a, Champagne aldeko su eremuetarat bidean. Trenerat igan baino oren batzuk lehenago jaso du Julien anaiaren letra bat Filipe Lurok, erran baitio letra hori jasoko duen orenean armadan izanen dela bera ere, Bordelen jaso behar instrukzioa. Julienek hemezortzi urte eginen baititu fite, hilabeteren buruan, nahiz eta Filipek abantzu ahantzirik zuen. Tanta batzuek busti dute letra hori, derrepente

euria pesiaka eta haizea ukaldika hasi baitu, eta berun ekaitza ere orduan askatu baitute botxe tzar horiek. Justu oren horretan partitu dira su hegirat. Birazka ezarriak, herrestaka, ahuspez, hamar metroz, hogei metroz, zakuak bizkarrean, zortzi-hamar eguneko jatekoak barnean, aguardientak, txokolateak, azukreak, sardinak, galtzoinak eta larruhasekoak, garbiketendako eskuilak, armen garbitzeko grasa, arropen arraberritzeko botoi, hari eta jostekoak, aposito, xaboi, orrazi, tabako eta ostia benedikatuen eramateko ontziñoak zakuen barnean, kantinplora, aitzur, pala ttipi, zizpa, kartutxo eta estalkiak zintzilik bizkar zakuen kanpotik, herrestaka, ahuspez, ehun metroz, be-

rrehun metroz, botxeen mitrallusek minutuko 600 bala husten dizkietela buruen gainerat, fiu-fiu, ezker hegaleko pezoi urrunetan lehertzen direla 105eko obus batzuk arteka, bunba-bunba, zerua ke ubera beltz batez urratzen dutela airetakoek arteka, rrruuu-rrruuu, azantza horren guziaren pean, herrestaka, ahuspez, kilometro erdi batez, kilometro oso batez agian, hola aitzinatzen dira 49.eko gizonak lehen lerrorat, gizon batek herrestan joateari utzi eta, bide batez, hatsa hartzeari ere uzten diola arteka, Mizel Irigaraik utzi dion bezala. Ondotik pasatu zaio Filipe Luro, herrestan, ahuspez: iduri du lurra bazkatzera gelditu dela Mizel tripandi hori, ahoa irekirik lurrari ausikika ari zaiola. Besotik heldu, eta, deus ez. Hila da, segi aitzinerat, Mizel lurra bazkatzen utzirik. Debalde litzateke gorpua itzultzea; heste lehertuak agerian uzteko bertzerik ez luke balioko, segi aitzinerat beraz, herrestaka, ahuspez, hola aitzinatzen baitira 49.eko gizonak su hegirat, gerturatzen doazen heinean herronka hausten dutela amiñi bat arteka, eskuan paper zati bat duela hil gogor baratu den soldadu horren gorpua saihesteko, eta segidan berriz osatzen dutela herronka, herrestaka, ahuspez, eta gero berriz hausten bertze amiñi bat, errekaren patarrean beheiti jausi

den zaldi baten buruarekin tupust ez egiteko orai, Jean Salaberrik erraten duen artean «Arratoiek fite bururatuko dute lana», zaldi buruari ostiko bat emanez paretik kentzeko, eta gero berriz osatzeko herronka, herrestaka, ahuspez, aitzinatzen segitzeko su zelairat heldu arte. Eta han soldaduak bederazka gelditzen doaz beila postuetan eta lurrari irekiriko katakonben barneetan. Hola, pittaka-pittaka, aitzineko zortzihamar egunetan su hegian egon diren gizonak aldizkatuko dituzte azkenean, zeinak honezkero itzultzen hasiak baitira gibelerat, herrestaka, ahuspez, hamar metroz, hogei metroz, zakuak bizkarrean, soin higatuak, betzulo handiak. Iduri du haiek gibelatzearekin batera isildu direla obusak gaurkoz, euria atertu ere duen bezala. Gauza bitxia, kanoien harramantzarik gabeko neguko gau hau. Buruak goititu dituzte beilan ezarriak diren gizonek. Burua goititu du Filipe Lurok ere, eta izarrak ikusi, han goian. Bi oreneko guardia hasi berria, gaua argi, izarrak ageri, karroina izanen du etsairik handiena Champagneko eremu zabal hauetan. Goiz albarako karroinak beretu eta zurituko du lur guzia, eta kapota ziri bat baino gogorrago izanen du Lurok, bera ere izozturik hil gogor uzten ez badu hotz alimaleko honek. Ez litzateke hotzak xifritu-

rik hil lehen soldadua, mukiak ere ziri bilakatzen baititu mila deabruen karroin honek. Beraz, estalkia eskuekin gorputzean bildu eta pipa piztera prestatu da, alemanek errekaren arteketarik sua ez sumatzeko maneran, Fritz batek edo Helmut batek ez dezan antzik eman non den beilariaren postua. Etien Bonnat jin zaio, loak hartu ezina, tabako galdeginez. «Entzun duzu Mata Hariri gertatua? Bordeleko soldadu horrek kontatu berri du». Ez, Lurok ez daki ezer; ez daki nor den Mata Hari hori, ez zer egin dioten, ez nor den Bordeleko soldadu hori ere. «Espia tzar bat. Donostiatik itzuli berritan arrastatu zuten Parisen, otsailean. Fusilatu dute», Etienen azalpenak, kea biriketarik fueratuz pafaka, kea barreiatuz airean. «Pikarrai jarri bide zen. Soinekoa erantzi! Pentsatuko zuen soldaduak limurtuko zituela hola!», irriz Etienek, kea barreiatzen airean. «Erran dizut erizaindegian pikarrai jarrita zer nolako...». «Xitun!», Filipek, pipa itzaltzen duela. Bada zerbait errekaren bertze aldeko zelai horretan. Sumatu du hots bat. Ixo, keinu egin dio eskuaz Lurok, hotsik egin gabe. Mitrallusa oratu du. Distira ttipi bat atzeman du, kasko batena menturaz. Tiroka lotu zaio eta aldi berean granadak jausten hasi zaizkie errekarat. Lasterka lekutu da Etien, gordegiatik jalgiarazi ditu

gaineratekoak. Mitrallusarekin karraska batean ari da Luro. Kaxetatik granadak atera eta itsumustuan aurtikitzen hasi dira erasotzaileei. «En garde! En garde!» garrasika Capdevielle lotinanta. Tiroka lotu dira ondoko beilariak ere. Gaineratekoek baionetak tinkatu dituzte. Baina hamar minuturen buruan deliberatu dute ihes eginak direla alemanak, hutsari tiroka ari direla, eta lotinantak berak arrastarazi du sua. Segurtasuna bermatu eta itzuli dira soldaduak gordegietarat, kamantza epeletarat, Luro beila postuan bakarrik utzirik berriz. Zer nolako pipatzeko gogoa! Oren laurdenik ere ez da iragan aleman patruilaren erasoa fueratu dutela, eta soldadu aleman bat agertu zaie, frantses baldar batean mintzo, tirorik ez egiteko galdeginez eta mokanes zuri bat erakutsiz. Errekarat sartu da Luro ohartzeko, eta eskuak goititu ditu. Pistola atera du Lurok, kartutxoak soinean ditu alemanak, baina zizparik ez granadarik ez agerian. Kaskoa ere galdua du. Bi metro garai izanen da gutienik, kankailu bat, eta pilotan aritzeko gisakoak diren bi beso luzeren jabe da. «Ezker edo eskuin ote da?», pentsatu du Lurok. Pistolarekin mehatxu eginez eraman, eta ofizier baten esku utzi du; komandantziarat igorri dute. Desertore bat. Ofizier alemanek sumatuko dute haren

falta gau hotz honetan, su zelaiaren bertze alde horretan. Bat eta bertze, uste baino lehenago finitu zaio guardia Lurori; guziak halakoak balira! Zortzi-hamar egunetan gibelerat, zortzi-hamar egunetan aitzinerat, guardiak bi orenetik behin artekatuz, urritik martxo arteko negu guzia, laugarren negua su zelaietan, gisa horretan egin dute 49.eko gizonek. Eta azkenean igorri dituzte instrukzioen egitera, eta sariak hartzera. Martxoaren 25ean, ohore handitan ezarri dizkiete medaila militar eta gerlako gurutze eta zera horietarik gehiago. Lau urte gerlan egin eta armadaren zitazio bakar bat ere eskuratu ez duen bakanetarik izanen da Luro. Arrangura handirik ez horregatik, armada segituko bazaio arnoaren zein tabako belarren erosteko heinean sosak ematen eta Julien anaiaren letrak entregatzen. Joseph Ameztoik galdetu dio Lurori, ez ote den arrangura zitaziorik eskuratzen ez duelako. Ez duela arranguratzeko astirik ihardetsi dio Lurok;

nola izanen du bada arranguratzeko astirik, biharamunean berean trenetarat igan, egun osoa bidean egin, eta trenetarik jautsi ahala auto eta kamioietan sartu badituzte? Ingelesek utzi berri dituzten etxola

batzuetan sartu dituzte, baina ez luzaz. Martxoaren 28ko gauean ezarri dituzte alertan. 05:30ean, argi hastearekin, herrestaka, ahuspez, lehen lerrorat abiatu dira. Hiru gizon hil eta bertze hamasei zauritu dizkiete alemanek. Joseph Ameztoik erran du aitzindari bati entzun diola atakadarat igorriko dituztela. «Euskaldun mando horiek igorriko ditugu», hori entzun duela zin egin du. Alemanek indar handi bat egin eta gibelerat igorri dituztela zenbait eremutan, behar litzatekeela indar bat egin oldar horren atxikitzeko. Berantetsi da manua, baina heldu da azken finean, Josephek erran bezala: hirugarren batailoiak irekiko du bidea, hegaletan 18. eta 34. erreximenduak dituela, eta gaineratekoak gibeletik. Goizeko zortzietan kleronek jo eta abiatu dira atakadan soldaduak, orroka, aleman mitrallusen heriozko suaren pean, zizpen kulatarekin sabelak babestuz, ustekabeko tiro txar batek kalitu ez ditzan. Egunaren buruan, trenbidea iragan eta Rubescourterat heldu dira. Lehen batailoiak aldizkatu du hirugarrena suaren hegian, eta aldizkatze horretan galdu dute Joseph Ameztoi. Obus zulo baten hegian babesten saiatu da, baina harat heldu aitzin atzeman eta tiroz xifritu dute botxeek; bahe batek baino zulo gehiago zituen gorpuak. Han utzi behar izan dute

Ameztoiren gorpua, ezin altxaturik, eta aitzinerat egin du batailoiak. Goizean kalapita handiak badira lehen orenetik, alemanen oldar anitzei ihardetsi beharrez: bigarren batailoia igorri dute Rubescourt hegoalderat; hamargarren konpainia guzia eta hamaikagarren konpainiako batailoi bat, 18.ekoak indartzera; hamaikagarren konpainiako pelotoi bat eta mitrallus sekzio bat, 18.eko bertze batailoi bat indartzera; bigarren batailoiko bertze konpainia bat, 56.ekoekin lotura egitera. 07:45ean heldu da berri durduzagarri bat: zauritu batek jakinarazi du alemanak bretxa batetarik uharka sartzen ari direla Monchel aldean. Zazpigarren konpainia igorri dute harat, gibelago duela borzgarren konpainia. Mendi kasko batetarat heldu direla lotu zaizkie alemanak karraskan. 56.ak hasi behar duen atakada sostengatzeko manatu diote borzgarren konpainiari arratsean. Orduan agertu dira automitrallusak, soldaduek bibaka hartu dituztenak. Haien gibeletik partitu dira erasoan, eskuratu dituzte eremu zenbait, eta bigarren batailoiko soldaduek atxiki dituzte botxeen mitrallus guziak eta dozenaka soldadu preso hartu. Anartean, seigarren konpainiak jaso du Royaumort iparra defendatzeko manua. Arratsean hasi dute erasoa, eta bai lekua hartu ere Monchel hego-mendebal-

dean, alemanak gibelatuz doazela sumatuz gainera. Iluntzean patruilak igorri dituzte Monchel alderat; alemanak lekutuak dira. Eskuratu eremuak zabalak dira, eta haien atontzeko, loturen bermatzeko eta defentsaren antolatzeko eguna da biharamuna. 49.eko batailoiak, konpainiak, sekzioak eta pelotoiak barreiatuak dira guziz. Batzuk 34.ekoekin nahastekatuak dabiltza; bertzeak, 18.ekoekin; bertzeak herrian dira; bertzeak, erresalbuan; bertzeak, airetakoen aurkako mitrallus postuen antolatzen. Apirilaren 3an igorri dute lehen batailoia su hegirat, lekuak antolatzen segitzeko. Gau batez, baso baten ertzean kolpatua aieneka ari zen soldadu bat ikusi du Lurok. Kartutxoak eta kapota soinetik erantzirik, harat abiatu da, nahiz Etien saiatu den Luro arrastatzen, ofizierren baimenik gabe erreketarik jalgitzea garesti ordain litekeenez. Etienen besoak askaturik partitu da Luro, herrestaka, ahuspez. Hogei metrotan da basoa, erreketarik ez sobera urrun; alemanen lerroa gutienez 500 metrotarat izanen da eremu honetan. Arriskua nondik hel litekeen ezin jakin ordea. Senegaldar bat da kolpatua, izter batean du bala zauri bat, ez sobera sakona, ez du odol gehiegi galdu. Mokanes batez ahoa estalirik hotsik egin ez dezan, bizkarrean lotu eta gibelerat ekarri

du Lurok. Etienek lagundu du errekarat sartzen, non eta agertu baita Capdevielle lotinanta. Sekulako matrikulak erran dizkio lotinantak Lurori, eta lau eguneko giltzapetu dute gela estu batean, etxoletan. Lau egun zorigaitzeko izan dira Lurorentzat, anaiarenganat eta Maitenarenganat ihes egiten baitio gogoak, nehorekin solasean aritzeko gogorik ere ez duela. «Hasi arras hasi nahi: nehor ez lo: su ematen lasterka: tropa batzuk inarrosi gure lagun gaixoak: igorri gau batez berehala». Nahiago luke suan balitz, sua eman, sua hartu, suan erre, suan xifritu, suan hil. Sufritu hau baino hobea litzateke. «Xehatua oraino: kantatzen musikak lur puska franko: iduri nola osatu bezain aspaldi: hain zuzen oraino». Animalia lotsatu batek lohi putzu batean baino marruma larriagoak egiten ditu arteka, zaindariek ez baitakite zer egin harekin. «Eguerdi gainean traba handia: bederatzi egun higitu: jada elkar lotuak besarkatu: kanoiak pisaturik elizan guri buruz: atxik oraino egun batez». Azkenean askatu dute, bizarra egin, jaten eman salda hits bat eta ikatza iduri duen ogi zati beltz bat, itzuli erreximendurat: berriz ere zerbitzuko. Arte horretan aldizkatu dituzte 49.eko gizonak, eta pausurat igorri. Luro itzuli deneko, pausuan dira beraz, eta aski uros. Jean Salaberrik, lo-

riatua baita azken guduetan irabazi eremuekin eta alemanen erretreta bertatik bertara ikusirik, fite gerla bururatuko dela erran dio Lurori. «Uxa ameskeria horiek!», ihardetsi dio Lurok, eta bortxaz askatu du Salaberriren besoa sorbaldatik. «Inozo hori», pentsatu du Lurok bere kautarako, «Gaizoak anitzetan azpian iraganik gudu horietan: ez urteak: lotsa zikin batean». Zernahi gisaz, pausualdia laburra izanen da aldi honetan, laburregia,

hamar egunen buruko Courcelleseko su hegian baitira berriz 49.eko soldaduak, gasaren aurkako maska horiek jauntzita egun oroz, alemanek noiznahi igortzen dizkietenez gas pozoitu horietarik, ttartt! egiten duten obus deabru horiek, abantzu harrabotsik ere egin gabe ke zuri bat igortzen hasten direnak. Fite keak hartzen du eremu guzia, itsutzen zaie bista soldaduei, eta ez dute metro batean deus ikusten ahal; maskak jauntzirik ere, begiak erretzen zaizkie, zintzurrak urratzen, azala kiskaltzen. Azken mementoa heldu zaiela sinetsirik, gibelerat joan nahi dute zenbaitek; aitzindariak lotzen zaizkie ukabilka eta ostikoka, nehork ez dezan bere lekua utzi; garrasika, lurrerat

jausten dira soldadu zenbait; zutik ematen dituzte aitzindariek, «À votre place!» oihu eginez. Eta hori guzia *shrapnell*, granada handi eta ttipi, *crapuillot*, mitrallus eta obus erauntsi eder batez lagundurik. Egunero erizaindegirat igortzen dute soldadu bat edo bertze, batzuetan dozena erdi bat ere bai, gas pozoituen eraso horiek eriturik, kolore itsusi bat aurpegian. Errusiar sozialista traidore horiekin bakea sinaturik alemanak heldu baitira indar guziz mendebaldeko su zelaietarat, beren gas pozoitu eta Kruppen lantegietako berun guziak isurtzeko asmoetan. Apirilaren 22ko gauean partitu dira Filipe Luro eta Etien Bonnat, bertze sei soldadurekin, xokoen miatzeko patruila batean, alemanen errekei bretxa bat nondik zulatuko. Isiltasun handiz, herrestaka, ahuspez, erreken aitzinerat hartu eta partitu dira alemanen alderat. Ustekabean topo egin dute haiek ere xoko miatzen ari ziren sei soldadu alemanekin. Lotu dira kasailan ganibet eta pistolekin, eta hil dituzte botxe gehienak, baina gibelatu behar izan dute fite, aleman beilariak haietaz ohartu aitzin. Berriz errekaren zola zapaldu duten arte ez dira ohartu Etien galdu dutela. Kapitain batek atzeman du haren gorpua largabistarekin, obus zulo batean, eta idazkariari erran dio hildakoen zerrendan emateko Etien Bonnat,

bi *n*-rekin. Erotu bezala da Luro, entseatu da errekatik jalgitzen gorpuaren ekartzeko, baina bi soldaduren artean menderatu dute azken buruan, eta, erizain batek lasaigarri bat emanik, igorri dute pausurat, zainak sosega ditzan.

«Gaizo Etien: hemen usteltzen ari ziren errekak: bi frantses eta bi aleman beren baionetekin oraino elkarri josiak beribil handi batzuetan eta bertze franko: hoberenak ororen lehertzen arizan ondoan berrogeita hamasei hilabeteren buruan: azeri batzuk bezala erreketarat: hainbertze hil bazen: xehatu gintuzten tiroengatik lotsatuak heriotza ederra egiten genuen haatik: erran horren izenik baden: zizpa puntaraino kargatua nor nondik agertuko zen debaldetan: ez du iduri anitz lotsatu ginela eta ez genuen denbora ikusiko zuhaitz ttipietan etzanik: oro esku joka hasi ginen zernahirengatik galdu genituen hogeita hamaika lagun gaixo hotzak korapilatuak: galdu: baina begitartea zuri oraino: Craonneko malda hilez emokatua: egiak edo gezurrak: hainbertze kalapita ukan eta nonbait kukutu ginen oihuka ingelesak zirela tiro tarrapata eder batzuk: ikasi ote genuen deusik? Denboraren buruan

baionetak zizpen puntan tiroka hasi eta hasian hasi gogoz edo bortxaz ez ginen harritu etsaiei buruan tiro uros: granada bat eskuan gau beltzaren aitzinean infernua dastatua genuen: beren euliekin utzi irri tzar bat ezpainetan haragi puska haiei: otoitz baten egitera: *Nach Paris* eta *Nach Paris*: eskualdunek besagainka zuzen eta apal: galdetu ote genuen maiatzaren lehen egunetan: Andereen Bide inguruetako sator ausiki eder bat: min handirik gabe *Flammenwerfer* kontuak egin genituelarik tiroak mustupilka lurrerat aurtiki baikintuzten landatuak: alde guzietarik: eta zenbat: gu bezala ibili denak haatik tiro batek kopetaren erdian atzemanik: baina bide guziak harat eta honat urrats batean bizpahiru egunen buruan arratseko hamar orenetan hamaika-hamabietan manu berri bat: ez zuen haatik luzaz iraun behar: beharrik arratsaldeko bi orenak arte jausten ikusi genuen mendixka bat garrasika *Franzosen kaputt!* Gorderik ere ez genuen aise iragan: oren batez gure tiroek beren lurrari iltzatu zituzten gehienak hantxe gelditu ziren lurrean ahoz goiti: arras ez zela argia gabe: mando batzuk bezala kargatuak lotu bideari eta hamahiru egunez sospetxatu ondoan gaizo Etien! Zulo egiten herri horretan pausatu paper mutur ttipi batzuen laguntzarekin zorrien

erdian hain oro: jarri ginen tirokatuz Jeanne d'Arc saindu gerlaria errabia handiagoan: bipil eta deabruak: hartu gintuzten *Minenwerfer* guzietan: ehun ardiz goiti kontra genituen eta orok hilka gogotik joan ginen Verdun zuloetarik: adiskide erdiak hil genituen hemen gaindi *Ligne Hindenbourg* zer zen behin ere begiak irekitzeko: azken hamar gizonekin koronelak eskuetako bortz eriak urruntzeko tiro: han behar genuen lur Plateau de Vauclerc horietan: Alemaniako enperadoreak jakiteko hil behar zuela: bertzeak manatua egin behar: zizpen puntan han gaindi utzi behar genituen oraino gerlako lagunetarik anitz: Lurdeseko Ama Onari oldarra hasteko lasterka joan ginen beraz baina ez etsaiaren alanbreetan bide bat eginik: behin baino gehiagotan hurbiltzen zituzten seiehun kolpatu: ez dira ausartzen alde guzietarik hemendik goiti: ez du balioko alemanak karraska begitartea ateratzen: arras egia da: han baitziren eta luzez iraun Verdunen: herrestan bi tiroz bidean traban ikusi genituen oi lagun maiteak: kartsuki haizea norat zihoan beha geundelarik harago igorriak: bat ez da beti erraz burutik joanarazten nehon gelditu gabe: gaizo Etien!».

Aise eginen zuen bada: Politenean sartu Frantziatik, eta Politenetik jalgi Espainian. Metro batzuk ibili, bertzerik ez. «Espainian ez da gerlarik, futxo!», erraten zion Lurok. Bertze aldean fite aurkituko zituen laguntzaileak leku segura xerkatzeko, eta gero elkartuko ziren. Baina Maitenak ez zuen segurantzarik. «Nola utz nezake ama bakarrik, ordea? Tristuraz hilko da gaizoa. Txokolategia hetsi beharko du!». Aitzakiak; zer dira ba, aitzakiak ez eta? Filipek ez du Julien anaia aitzakia gisa erabiltzen. «Maitenaren ama beharbada hilko da tristuraz, ez da segur; Julien anaia hain segur hilen da, eta ez tristuraz». Aitzakiak direla erraten dio Maitenari, eta negarretan ezartzen. Hola eztabaidatzea eta beti haserre ibiltzea ez dela senar-emazteen bizia ihardesten dio Maitenak. Beltzez ezkonduak dira, fite eginik aitzineko lanak, profitatuz eta Filipe Lurori permisione luze bat emana diotela burua bere tokirat itzultzeko; Etien Bonnaten heriotzaren ondotik astebete egin baitzuen erizaindegian, lasaigarriak hartu eta hartu, ezin onerat itzuli. Lurok galdegin zuen herrirat joaten uztea, azalduz emaztegaia bazuela, eta harekin ezkontzeak sosegatuko zuela zerbait menturaz. Arnegirat heldu orduko, beraz, zer lan egin beharrak zituzten aise asmatu zuten Lurok eta Maitenak, den-

borarik galdu gabe. Igande hartan bertan ezkondu, eta suharra izan zen eztei gaua. Fite histu ordea. Orai su zelairat itzultzeko kuraiarik ez du sentitzen Lurok. Baina Espainiarat ihes eginik ama bakarrik uzteko erraririk ez du Maitenak. Eta horregatik, trenean sarturik, hemen heldu da Luro surat berriz, maiatz hondar honetan, noiz eta bi soldadu, arnoz zeharo arrailduak, hasi baitira kasailan, eta bietarik batek tiratu baitio trenaren arrastatzeko zirrintari. Jendarmeak eta soldaduak baizik ez dira trenetan, eta fite agertu dira hedexuriak, pistolak eskuetan dituztela. Zaintzapean ezarri dituzte bi soldadu mozkor horiek. Presondegian hetsiko dituztela erran diete soldaduei, bederen astebetez. «Mozkorra pasatzeko asti izanen dute». «Ez litzateke txarrena, menturaz». «Kalapita bat antolatu». «Zortzi eguneko presondegia». «Su hegitik urrun». «Zortzi egun gehiago bizirik». «Baina ez da sekula jakiten ahal hedexuri hauekin». «Zigor handiagoren bat ezarriko didate beharbada». «Oroit, ziegan egin zenuen aldiaz, Filipe!». «Erotuko zara zortzi egunez hor hetsita, bakarrik». «Aise eginen nukeen bada, Politenean sartu Frantziatik eta... Espainian atera». Luro pentsamendu horietan galdua den arte horretan ezarri dute berriro trena martxan, eta deus erabakitzeko astirik

gabe heldu dira helmugarat. Zizpekin eta pistolekin mehatxu eginez eraman dituzte soldadu arrailduak. Kontrako bidetik, su hegirateko bidea hartu du Lurok, komandantzian berri emateko, heldu dela pausutik. Entseatu da oinetako berri batzuen eskuratzen, baina irri egin dio logistikaren kargu den kaporalak, beso batean apaiz baten tatuajea eta haren pean hitz zatar batzuk izkiriatuak dituen morroi gizen batek. «Parisen garela uste duzu?». Eskuetan duen urdai zatiari ausiki egin eta haragi hori murtxikatzen segitu du kaporalak, eta Lurok pentsatu du kozinetarik egitea itzuli bat, ogi zatiren bat sobera izanen ote duten. Baina azak jorratzera igorri dute han ere. Armada beltzeko pelotoi bat gurutzatu du kanpoan. Baionetak oraino odolez bero dituztela heldu dira, beren lengoaia triste horretan kantu bat emanez garrasika. «Salbai hutsak, zer dira bada?». Egunen batean botxeekikoak eginez gero, Luro segur da frantsesak kalitzeari emanen zaizkiola, beren ganibetekin sastaka, gauez, alemanekin egiten ohi dutenez. Ez baitute nehoiz ere aski odol isurtzen, beti gehiago nahi. Kapitaingoaren ondotik iragan eta atzeman du soldadu bat uso zuriz eta nabarrez inguratua; ura ematen ari zaie. 49. erreximendurat doala eta bide egokia hartu ote duen galdegin dio Lurok.

«Euskalduna zaitugu?», arrapostua. Pilotari uztariztar bat da Lurok usoen kargu atzeman duen hori: Gey. Okertu dela, baina han aitzinean ezkerrerat hartuz gero, oihan bat gurutzatu eta helduko dela, 49.a han dela, ontsa uste badu. Luro harritua baita uso horiekin guziekin, gerla denbora osoan halakorik ikusi gabea denez, Geyk azaldu dio uso berriketariak direla, minutuan bi kilometroko bidea egin dezaketela, eta mezuen igortzeko erabiltzen dituztela. Tabakoa partekatu dute, Lurok ekarria baitu Julien anaiak etxean egin azken tabakotik. Hitz batzuk eginik, erreximenduaren xerka segitu du Lurok, eskerrak bihurtuz pilotariari, ogi zerbait eman diolako tabakoaren orde. Han aitzinean ezkerrerat hartu eta oihana gurutzatu du Lurok, eta Etxeber erretorearekin topo egin, kontrako bidean heldu baita, ile kizkurrak kaskopetik ageri, sotana gerrian trenkaturik, lehen eraman ohi zuen gisa berean. Espainian eman mintzaldien berri azaldu dio Etxeberrek, zenbat areto bete dituzten, zenbat espainiarren bihotzak hunkitu, zenbat babes eskuratu, zenbat pezeta bildu frantses soldaduentzat. «Hitz eder politik entzunak gara!». Solasean ari direla gerturatu zaie apez luze zimel bat, Etxeberren aspaldiko adiskide bide dena, eta Lurok hasieran ezagutu ez duena. Hiz-

ketan hasi delarik ohartu da Mendiburu bikarioa duela aitzinean. Ez du ezagutu ere, ileak guziz urdinduak baititu. Zenbat denbora zen ez zuela ikusi? Aski uros dabil azken aldian, erreumatismoak eta minak oro suntsitu zaizkionez. Erran die ezagutu zituela hamabi soldadu euskaldun hamabi apostolu bezalakoak, fede handi baten jabeak. Soldadu horiek aldare bat eskuratu zuten, eta toki guzietarat berekin garraiatzen. Ez zuten atsedenik hartzen ahal apezak meza eman eta komunioa partitzen zien artean. «Zer nolako gizonak!». Bertze orduz, apezak aitortu zien akiturik zela, su hegian bezala erresalbuan, eta erresalbuan bezala pausuan, egun oroz komunioa eman beharraz soldadu haiei; proposamena egin baitzien komunio hartze horiek noizbehinkatzeko, nolako erresumina soldaduentzat. «Onartzen dut gerla honen ankerkeriekin akitzen hasia nintzela», aitortu du Mendiburu bikarioak. Fite arranguratu zitzaizkion hamabi soldadu horiek: «Zer? Utziko gaituzula komunioaren eskasean?». «Begiak handiturik galdera hori egin zidatelarik uxatu nituen neke eta lotsa guziak». Konbentzitu zuten Mendiburu bikarioa, eta segitu zitzaizkion eguneroko liturgiari. Baina egun batez atakada batean kalitu zituzten hamabi soldaduak. Guziak egun berean. Aldarea bera

ere xifriturik gelditu bide zen. Uros zebilen beraz Mendiburu, hamabi soldadu horiek errana baitzioten hamabietarik hiltzen zen lehenak Jainkoari galdatuko ziola bikarioaren osasunagatik, eta hamabiak batean hil zirenez segur baitzen hamabiek batera galdeginen zutela bere alde. «So egizue, harrezkero ez dut izan erreumatismorik ez bertze gaitzen den mendrenik ere. Nehoiz baino osagarri hobearekin nauzue absolutuki!». Mendiburu bikarioaren solasarekin asperturik, berantesten ari zaiola aitzakia emanik, aitzinerat segitu du Lurok, eta hor non ikusi duen erreximenduaren bandera, lurrean landatua, iazko uztailaren 5ean jeneralak eman gerlako gurutzea agerian. Utzi lekuetan segitzen du erreximenduak, beti su hegian, aldaketa handirik gabe. Pelotoi batean sartu dute Luro; oro jende gaztea, nehor ezagunik ez. Dartemont deitu batekin egin du adiskidantza. Ostalari da Parisen, eta irri gozo bat badu. Gaineratekoak lotsatuak dira gehienak, hilabete batzuk baino ez daramatzate biziendako hilobi hauetan guduan; begitarteak histeko aski, halere. Ez du haiek ezagutzeko asti handirik izan Lurok, maiatzaren 28ko gauerdian antolatu baitute aitzindariek esku kolpe bat. Errekak utzirik partitu dira gauean, eta botxeen erreketarat heldu baino 400

metro aitzinago zatitu da konpainia lau taldetan. Artillariek sua hasi eta ireki dute bretxa bat botxeen erreketan. Frantses mitrallusak ere hasi dira kasailan. Atakada bat egin du konpainiak: pistolaz dozena bat soldadu aleman kalitu dituzte, presorik atzemateko astirik ere gabe. Hamaika soldadu zauritu dituzte alemanek; Luroren pelotoikoak, bi. Itzuleran atzeman du Jean Salaberri. Haren pelotoirat aldatzea galdegin du Lurok, han ere zaurtuak izan dituztela baliatuz. Aroa gozatzen eta epeltzen ari du, eta udan berriz ere oldar handiak hasiko direlako ernegatua da Salaberri. Gas horiekin pozoiturik erizaindegian hiru egun egin ditu. Baionatik «À Berlin!» partitu ziren lau adiskideetarik bera baizik ez dela bizirik gelditzen erran dio Lurori. «Zer uste duzu zuk?», galdegin dio bertze egun batez: «Hemen hiltzen diren arima hauek guziak zerurat iganen dira?». Ez daki zer ihardetsi Lurok: «Baietz erraten dute apezek». «Bortxaz hilak purgatoriorat joaten direla entzuna dut nik bada». Eta handik poxi batetarat berriz ere, Salaberrik: «Arimaz betea izanen da purgatorioa». Eta handik bertze poxi batetarat, berriz oraino: «Purgatorioan lekurik ez bada, infernurat igorriko ote dituzte arimak?». Gau batez, sardina lata baten jaten ari zirela bien artean, Lurori proposatu dio

sardina lataren olioa sutan berotu eta edatea. «Ikterizia atzemateko bide segura da. Astebete bederen erizaindegian». «Jean», ihardetsi dio Lurok, «egiazko purgatoriora joango ginateke hori eginen bagenu». Jean Salaberrirekin estonatua da Luro, eta eskerrak ereiaroaren 6arekin desertore alsaziar bat heldu zaien erreka barnerat, eskuak goiti. Aztoramen apur bat, Salaberriren galde astunez ahanzteko. Alemanek indarrez alistatu dutela erran die. Ez ditu hamazazpi urte baino gehiago izanen. Aitzindarien esku utzi dute eta ez dute haren berri gehiago izan. Betiko obusaldiez bertzalde, kalma handi samarrean egon dira hurrengo egunetan,

baina ereiaroaren 8ko gauean Courcelleseko sektorean hedatu dute erreximendua, kostea kosta defendatzeko eta ez uzteko manuarekin. Aitzindariak susmaturik dira etsaiak oldartzeko prestatzen ari ote diren. Gauerdirako hamar minutu aitzin hasi da alemana Courcelles bonbardatzen, bortizki, obus pozoituak eta mitrallus tiroak igortzen norabide guzietarik. Gauean eta goizaldean handitu dute bonbardaketen azantza. Musker argi horiekin argitzen dute su zelaia,

eta pozoia eta kea hedatzen dituzten obusak igortzen atsedenik gabe. Laino sendo eta trinko bat altxatu da leherketa horiekin guziekin, deus ikusten uzten ez duena. Tiro barreiatuak eskatzen ari dira komandanteak, pentsatuz eta botxeak noiznahi agertuko direla erreken aitzinean, laino sendo hori ebaki eta barnerat jauzi egin nahiz. Goizaldeko hiruretan, obus ttipietarik bat zartatu da Luroren eta Salaberriren gibeleko pezoian, fiu-fiu-fiu igorriz metalezko ziliportak bazter guzietarat. Ahuspez eman da Luro, pezoiaren kontra, baina Jean Salaberri bete-betean harrapatu dute dozenaka burdin ziliportek, eta zango bat epaitu diote holetan; aurpegitik maska jausi ere zaio bertzalde. Ketan dira ziliporta horiek eta Salaberriren gorpua. Bero handi bat hedatu du leherketak. Lur olde batek gorputz erdia hobiratu dio Lurori, baina lortu du zangoak askatzea eta zizpa berreskuratzea. Baioneta falta du, auskalo non zirtzikatua izanen duen. Zorabiaturik oraino, belarriak astindu ditu ziztu zorrotz hori barnetik aterako ote duen, baina ezin; belarriak lehertu behar zaizkiola iduri zaio. Salaberri hor da, bospasei metrotan, zango bat falta eta bertzea tar-tar-tar higitzen zaiola, borondatetik aske. Odol purrusta bat galdua du eta musker kolorea hartua dio aurpegiak. Besoetarik

tiraka baztertzen saiatu da Luro, baitaki bertze obus ttipi horietarik bat jaus litekeela fite inguruan. Salaberriren gorputza hamar bat metro higitzea lortu du, odol arrasto larri bat utziz bidean, zementuzko gerizperat bidean, baina ezinean ari da, obusekin erreken suntsitzen ari baitira aleman tzar horiek. «Putza! Non dira erizain deabru horiek?!». Sarjant batek gurutzatu du erreka, eta gorpua utzirik bere lekurat itzultzeko manatu dio Lurori. Oldarra badatorrela eta hilzorian direnak salbatzeko denborarik ez dela oihu egin dio: lan alferra dela. Kasaila ttipi bat izan dute, baina pistola zorrotik atera eta konpondu du sarjantak, ezpainak estutu eta mustatxa ezker-eskuin higituz. Salaberriren besoak askatuz, obusak abantzu lurperatu duen lekurat itzuli da Luro. Fite heldu dira lehen granada erasoak eta tiroka hasi da beraz Luro. Bakarrik geldi-tu dela ohartu da orduan. Alemanen oldarra konpainien arteko loturak hausten ari da. Zizpa eta munizioak harturik gibelatu da beraz Luro, pelotoiarekin bat egin duen arte. Berriz aitzinerat igorri dituzte, eta lau aleman kalitu dituzte erreketan bertan; ukaldika hil du haietako bat Lurok, errabia gorrian. Aitzin-gibelatze horietan egin dute gau guzia, 09:25ean berreskuratu duten arte erreka osorik, 18.eko soldadu batzuekin lo-

tura eginik. Eguna nolazpait iragan dute holetan, erreken konpontzen eta hildakoen zein kolpatuen gibelerat igortzen. Baina botxeak ez daude asmoari uzteko, eta hurrengo goizaldean berriz oldartu dira. Gau guzia bezperan bezala suan egin eta, gibelerat egiteko manua jaso dute 10:00ak irian. Munizio bihirik ere gabe baratuak dira pelotoi anitz eta, ezin eutsiz, gibelatzen hasiak dira. Bizkarreko zakutik palak eta aitzurrak harturik defendatu dituzte leku batzuk, bertzerik eskura ez eta. Gauerdian beretu dute erreka, hemeretzi soldadu hilik dituztela, ehun eta bat zaurturik, eta hirutan hogeita lau desagerturik. Hilen izenen artean eman dute Jean Salaberri ere. Orai ezagutuko du, hain segur, su zelaian hilak purgatoriorat edo nora deabrurat igortzen dituzten. Baina, oi aro makurra, hurrengo goizaldean berriro hasi dira alemanak xixtaka, Courcelles ipar-mendebaldetik aldi honetan. Kontraeraso bat prestatu dute frantsesek, baina alemanek berriz atakatu dute goizeko zortzietan. Bertze hogeita lau soldadu hil dizkiote 49.ari. Eta hurrengo egunean gisa berean segitu zaizkio, lau eguneko infernua eta gero ereiaroaren 13an oihan batetarat eraman dituzten arte. Munizioz hornitu eta oihan horretan antolatu dute defentsa. Handik aitzinerat kalmatzen hasi da

gerla. Ereiaroaren 23tik aitzina hartu dute pausua. Gutienez astebeteko deskantsua izanen dute orai.

Bertze ordu batez erreximenduko erizain bat bortxatu dute, hogeita bat urteko Tolosako gizon gazte bat. Galtzak jautsirik eta ipurbegia odoletan zuela antzeman du mediku batek, erizaindegian berean. Inkesta bat hasi dute, baina soldaduen artean ustea da aitzindari bat izan ote den. Hilabeteren buruan nehor arrastatu ez dutenez, susmoa indartu baizik ez da egin. Lurori oroitu zaizkio Dosnonen entzun zituen bertze aitzindari haiek, Pariseko mutiko gazteen ipurmasail guriak goratzen ari baitziren.

Bortzehun soldadu berri heldu dira biltegietarik erreximendurat uztail-agorriletan, bere ipurmasail oraino guriekin, eta, Jean Salaberri hilik eta Dartemont galdurik –axuant hartua baitu komandante batek, bere irri gozoarekin–, ezagunik gabe gelditu da berriz Luro. Soldadu gazteen konpainiak ez du erakartzen, zaharrekin ez ontsa moldatzen. Pentsamenduetara emana da, nehorekin sobera mintzatu gabe. Anaia eta

Maitena bertzerik ez ditu gogoan, eta nehoiz baino gehiago izkiriatzen die, arrapostuen zain egon gabe abantzu gehienetan. Orain berean erabaki du emazteari bertze letra baten igortzeko tenorea duela, konkistatu berri duten patar horretan erreken eraikitzeko lanak gelditu eta oren batez atseden hartzeko manatu baitiete. Zementuzko gerizpearen estalkia goititu eta, kinoa heldu zaio sudurretarat lehenik, gizon usain nardagarri bat kearekin nahastekaturik, eta gero pittaka ohitu zaizkio begiak kandelen argi apalera. Hor dira pelotoiko ezezagun horiek: alemanen balak biltzen dituen ilegorri zurbil bat, bilduma garbitzen ari; bi gaskoi, karta jokoan; bertze mutur hits hori, bizarretan atzeman zorrien kraskatzen azazkalen artean; Parisekoa omen den bertze gazte bat xoko batean kurubilkatua, ezkilak jotzen, gaineratekoei bizkarra emanik. Karta jokoan ari direnak mintzo dira Bordeleko emazteen edertasunaz, baina bake handian dira une honetan, bertzela ardaila zaleak baitira. Ez die deus handirik erraten, eta haiek ere bakean uzten dute. Xoko batean eman da Luro, kandela mutur batez. Hartu du postal bat, eta Maitenari erran dio alemanen Hindenbourg lerro hori setiatua dela alde orotarik, gerlaren laugarren urte hau izanen dela erabakigarria,

dudarik gabe, hala diotenez aitzindariek. Kirrimarratu du beraz postal hori, tentu handiz aukeratuz hitz bakoitza, zer erran eta zer ez, azken buruan hitz batzuk bertzerik ez baitira sartzen ahal paper mutur horretan, ontsa dela errateko eta umekia zertan den galdatzeko nahikoak. Orai ez zaio kontatzen hasiko buruilaren erdian hasi duten gerla bortitza. Hilaren 16an lotu zitzaizkion erasoari, Allemant herriaren inguruetan. Zerbait aitzinatu zuten, baina trukean botxeak indar handiz oldartu zaizkie hurrengo egunetan. Oihan batetarik fueratu dituzte alemanak, eta han eutsi diote hurrengo oldarrei, airetik ere heldu zaizkien atakadei ihardetsiz. Irabaziriko lekua zerbait atondu dutelarik jausi zaie alemanen bertze artilleria eraso bat, iperita obusekin lehenik eta tiroka gero, 105eko eta 150eko obus erauntsi gaitz batekin segitzeko ondotik. Lehen lerroa antolatzeko lan gutiz gehienak suntsitu dizkie atakada horrek. Bezperan airetakoetarik potretak egiten arituko zirela erran du lotinant batek, artilleriari informazio zehatza pasatzeko. Zernahi gisaz, erasoari kontraeraso batekin eutsi diote. Mendi patarrean bertzela dira kontuak. Alemanen oldarrak gibelerat igorri ditu hirugarren batailoiko soldaduak; bretxa bat ireki eta aleman batzuk sartu dira lehen lerro horretan.

Frantses artilleriak lagundu behar zuen kontraerasoa prestatzen, baina zazpi minutuz baizik ez du iraun haren suak. Gauean prestatu dute bertze kontraeraso bat. Artilleria ganoraz aritu da, zuzen-zuzen tiroka ari zaizkien mitrallus aleman batzuk porroskatuz, eta no-lazpait fueratu dituzte botxe tzar horiek. Egun osoz lu-zatu dira erasoak eta kontraerasoak, eta gisa berean segitu du hurrengo egunak ere. Buruilaren 16tik 27rat erreximenduak galdu ditu lautan hogeita hamabortz gizon, zaurtu dizkiote bertze berrehun eta berrogeita hamaika, eta desagertu oraino bertze berrogeita lau. «Zer hamar egun... Eta ezin deus erran», pentsatu du Lurok, Maitenarendako letra sinatuz. Biratu du posta-la, potretaren ikusteko: poilu bat ageri da, frantses soldadu suhar horietarik bat bere mustatxarekin, dama gazte bat konkistatzeko gerlan ari aldi honetan. Emaztea gibeletik oraturik, musu bat galdegiten du delako poiluak, eta emazteak doi bat errefusatzen, baina geroxeago musu hori emanen diola adierazten duen irriño batez. *Aimer c'est vivre* izkiriatua du ertz batean, letra ederretan. Halako letra ederrik ez duela nehoiz...

Aitzindari batek ireki du gerizpearen borta, surako prestatzeko manatuz barnean diren gizonei. Goizaldeko lauretan jaso dute telefono dei bat: preso batek erran du alemanak gibelatzen ari direla. Patruilak igorri dituzte, eta hamargarren konpainia sartu da aleman erreka baten barnerat. Botxeak defendatu dira, baina handik fite gibelerat egiten hasi direla ohartu dira beilariak largabistekin. *Aimer c'est vivre*: Maitenarendako postala mokanes ttipi batean bildu eta barneko patrika batean gorderik, bizkar zakua prestatu du Lurok, pala, aitzurra, kantinplora, platera, edalontzia, munizioak, granadak, kaskoa, zizpa, baioneta... Lurok bezala egin dute ilegorriak, gaskoiek, mutur hitsak eta ezkila jotzaileak, mukiak mahuka muturrarekin garbitzea bezain ohiko bilakatu diren keinuak errepikatuz. Trasteria guzia bildu, eta prestatu dira alemanei gibeletik xixtako on batzuen emateko. Erreketarik jalgi eta, aitzinatu dira aski ontsa, arteka Fritz bat edo Helmut bat bakarka atzematen dutela. Bet-betan kalituri biderat ateratzen zaizkienak oro, segitu dute aitzinerat eta aitzinerat. Alemanen erreketan barneratu eta horiek gibelean utzi ahala ohartu dira buruileko azken eraso horietan pentsatu baino kalte handiagoak egin dizkietela: suntsituriko armak eta kaskoak badira

zernahi xokotan, eta gerizpe gutiz gehienak fundituak; bi hilotz gogor, oihaletan bilduak eta oraino hilobiratzeko, alemanek presaka ihes egin duten seinale; frantses granada eta obusekin zatituriko gorpuak patarretan; obus zulo bakar batean sei gorpu. Poiluak kuraiatzen dira irudi horiek ikusiz, orai ari baitira sentitzen pentsatu baino min handiago egiten dietela Helmut eta Fritz deabru horiei, eta segitzen dute aitzinerat kar handiagoz oraino. Lehen batailoia abangoardian dutela, aitzinatuz eta aitzinatuz badoa erreximendua, lau urte hauetan nehoiz ez bezalako metro andanak irabaziz esku kolpe bakarrean. Gaztelu batean indarrak harturik gordeak ziren botxe batzuek eutsi diete zenbait orenez, baina oihan batetarat hartu du lehen batailoiak: Pinon, gidariek mapetan irakurri dutenez. Basoko bide guziak trabaturik dira burdin hariz eta jausiriko arbolaz. Biharamunean lortu dute Pinon oihan hori gurutzatzea, eta heldu dira ur kanal baten ertzerat. Kanalak badu iraganbide bat, baina iduri du alemanak bertze alde horretan indar hartu nahian ari direla. Iraganbidea gurutzatzen hasten diren frantses soldaduak oro zafratzen dituzte mitrallus eta granada ukaldiz. Botxeek ez dute astirik izan, zernahi gisaz, iraganbide hori suntsitzeko. Azken

egunetan desagertua zen aleman artilleria ere orai hasi da obusak aurtikitzen. Leku horretan egonkortu dira zenbait egunez, beraz, eta Maitenarendako postala oroitu zaio Lurori, beti aitzinerat doazenez posta zerbitzuak gibelean utzi baitituzte, eta ez baitu paradarik izan zigilua ezarri eta postal hori igortzeko. Postala igor ote lezakeen galdegitera joan da, baina oso lanpetuak dira axuant guziak, erretreta eman baitiote jeneral bati, sukar handitan eta gripe larri batekin zutik egon ezina zenez, eta gibelerat igortzeko manatu dutenez medikuek. Badira eztul itsusi bat egiten hasi diren soldaduak ere, nahiz oraino larrazkeneko oren hitsenak ez diren heldu. Anartean, frantsesek igortzen dituzte patruilak, eta saiatzen dira alemanek kanalaren gainean zutik utzi iraganbide hori baliatzen, baina alemanek gogor eusten diote bertze aldetik. Berriz hasi dira gas pozoitu horietarik sorta batzuk igortzen bertzalde. Ahalegin anitzen ondotik, patruila batek lortu du kanalaren bertze alde horretarat iragatea, urriaren 12an, eta ez du etsairik atzeman: gibelago joanak dira alemanak. Patruila horretan da Luro, eta guziz trenpaturik da tenore honetan, kanala uretarik iragan baitute. Eztul itsusi bat hasi zaio beraz. Alemanak joanak direla abisu emanik, bigarren batailoia

Pinon oihanean erresalbuan utzirik, aitzinerat egin du 49. erreximenduak. Eta segitu dute alemanak urrunago pusatzen, 1914ko gerla haste hartan alemanek frantsesak Marnerat pusatu zituzten ber gisan. «À Berlin!» oihu batzuk artekatzen hasi dira soldaduak, eta harrotzen ere ari dira zenbait. Ez Luro. Eztulak gero eta lan gehiago ematen dizkio, hatsa hartzeko ere lanak baititu eta sukar handi bat jabetzen hasi baitzaio,

gauetan atseden hartzen uzten ez dion sukar bat, jenerala balitz gibelatzeko aski aitzakia izanen zena. Baina, soldadu soila denez, segitu behar dio bi eguneko martxari, 18. erreximendua abangoardian eta 49. erreximendua hegal baten buru doazela. Holetan heldu dira Barenton-Bugnyrat. Futxo! Mitrallus su gaitzeko bat jausi zaie herritik eta 18. erreximendua arrastatu dute lekuan, gehiago aitzinatu ezinik. 49.eko bigarren konpainiak gainditu du 18. erreximendua baga batean eta, mitrallusen suaren pean, ehun bat metro aitzinatu. Sukarretan heldu baita Luro, bertze soldadu batek erran dion arte ez da jabetu ezker saihetsetik odol zurrustaka ari dela. Erizain

batek lotu dio zauria nolazpait. Baina, saihetsetik odol zurrustaka segitzen duenez halere, gibelerat joateko manatu dio. Sua alde guzietarik, sukarra bertzalde, zorabiaturik bezala abiatu da Luro pentzean beheiti. Mitrallus tiroak ezker, mitrallus tiroak eskuin, mitrallus tiroak bazter guzietan. Etxeber erretorea ikusi uste du, nahiz berehala ohartu ezinezko dela. Burua goititu du zehe bat, halere, hobeki ikusteko, eta belarri bat xifritu dio mitrallus tiro barreiatu horietarik batek, ezker eskua zulatu bertzalde. Hilgarria ez, baina mingarria da belarriko zauri hori, eta zurrustaka segitzen du saihetseko zauriak, sukarrarekin bat eginik Luro zorabiatzen ari baita. Etzatea eta herrestan segitzea erabaki du. Han aitzinean behar du bada 18. erreximenduak. Lehentxeago baga batean gainditu dutela ontsa gogoan du: ez ziren erretretan joanen, hor behar dute. Aitzinatu nahi lituzke metro batzuk, baina gogoa alderrai dabilkio Lurori, inguruan dantzan ari zaizkion belar ahoetarat joaten zaio, edo lainoei beha lausotzen. Aitzinatu behar du ordea; ez dira ehun metro ere izanen; aitzinatu ahal balitz, herrestan, burua goititu gabe badaezpada ere, ezin du postala galdu, Etienek errieta eginen lioke, eta anaia irri karkailaz hasi zaio. «Orok bezala baioneten gudu batean zafratzeko:

amore emateaz: ez ziola beilariak lekuaren gainean oihu eginik: azkenean emeki-emeki». Honat ekartzen saiatzen da, baina gogoa badoakio bertze toki batzuetarat Lurori. Zertan ari da hemen? Hauek ez dute Arnegiko basoak iduri. Burua goititzen badu, etxeko bidea ikusi nahirik, segur da tiroren bat emanen diotela. Lurrean ahuspez etzana dagoen bezala, hila dela pentsatuko dute menturaz, eta bakean utziko. Baratu, eta amore eman, hila balitz bezala egin. Egon, Arnegiko basoetako orbelen gainean etzanda balego bezala, etzanda. «Edo amore emateko orde: oro kanoiek irauliak bidea hilez emokatu: ez gaua galtza motz batzuk: uso xuria errazu haatik arrats batez maiteak erreka beretan Andereen Bidea zaintzeko erauntsi guziengatik: menturaz bertze behin kantuz eta irrintzika: hilak berehala altxatzen ahal izan balira kanoiek hala itzulipurdikatuak ziren arratseko laurak alderat: oro odol errekak zihoazen aitzinean baina beti ikaran bizi behar delarik ez da bizirik: trufaka etsaia aski urrun fueratu gibelerat nagusitzen ari direla gosez: guk gerla egin nahi eta zangoak beti bustiak: egundaino bezala tiroka ari ginen argi hastean ez beti lurpean: beldurtzeko da gehiago erran: eta halere hilabeteak kasik higitu gabe egoteko lautan hogeita hamar bat

soldadu hilak: kasik ehun urratsetan tropa troparen gainean: handiena gurutze batzuk izenik gabe: agertu guziak kalitu eta eremu eder bat: bere soldaduen erdian gerla batean beti ter-ter-ter: granada partida bat». Loak hartzen ari dela ohartu da Luro. Begiak ireki eta hetsi, eta ireki eta hetsi ditu indar handiz. Odol zurrustaka segitzen du saihetseko zauriak, apalago bada ere, eta ezker eskua zulaturik duela orai ohartu da, hortik ere odol galtzen ari. Belarria oraino osorik, nahiz hori ere odoldurik. Mokanes batez esku zaurtua bildu, behakoa zehe bat aitzinatu, eta harriarte bat ikusi uste du. Harat gerturatu ahal balitz, beharbada keinuak egin ahal izanen lizkieke gibeleko soldaduei, xerka hel dakizkion. Su hegian utziak ditu batailoiko adiskideak, mitrallus karraska gogor baten pean, haien esperantzarik ez du izanen. Herrestaka egin ditu hamar bat metro nolazpait, eta eskuratu ditu harri horiek. Bizitu egin zaio saihetseko zauria, eta eztulak ez dio arnasa hartzen uzten. 18.eko gizonak aitzinean ikusten ditu orai, han beherean. Esku bat altxatu die, baina sukarrak astundu egiten dio gogoa, eta begiak hetsarazten. Ez daki eskua goititzea lortu duen. Eskua goititzerik balu, han beherean ikusiko lukete soldadu bat badela zaurtua harriarte honetan.

Eskua goititzerik balu... Esku zaurtu hori? Edo osorik duen bertze hori? Zein goititu? Estonaturik behatzen die Lurok bere bi eskuei, osorik duen eskuinari, zulaturik eta mokanes batez bildurik duen ezkerrari: estonaturik behatzen die, bereak ez balitu bezala. Izerdi larri bat hasi zaio kopetan beheiti. «Gain-gainetik armatuak zer izerdiak isuri genituen zangoen gainean: berrogeita hamar bat orenen buruan aise ageri zen noizbait gudu ederrik izan zela han ere bi pinta arnoren aitzinean: ez zen gurutzerik baizik ageri: taulazko gurutze ttipi jateko higuingarri bat eginarazi: eta maite zuten eskuak altxatzea beldurra eta gose-egarriak lagun: ez dugu gerlako aski jakitate: hirurehun hilez goiti Beaurieux deritzan herrixkan elur erauntsien azpian errabian arizanik tiroka pausatzera jautsarazi: beribil handi batzuk: eskorga batean etzanik urrunago: denbora horretan hola atzeman genituen hurbiltzen ziren guziak lurrerat orroaz hasirik: oroitzapenik handiena hondatu genuen eta gibelerat igorri: haatik etsaiari oro hilen ginela zin eginik elkarri nahi duten bezainbat lur irauli: odol zurrustek gehiago balio zuten». Saihetsean odol zurrusta bat ote duen edo ametsetan ari ote den duda izan du Lurok. Izerdi hau. «Bai da: argi zuri bat zeruetan eta izenak galdu

ditugun bertze batzuk: baina gure eriek maiteari igorri ferekaldi bat arras ontsa eman ziguten: erauntsi ikaragarrienaren jaterat eta edaterat joan behar: ez zen urrunago joaterik trufaz elurpean iraganik: oihu egin zuelarik pur-pur-pur: urrun: punta-puntan hala-hala gertatu zen: bi negar xorta handi mateletan gure odol gorrienaz busti aitzurra: aitzindari odola bakearentzat isuri: txori batzuk bezala orok bat eginez ere bada zulo bat nonbait: gau guzia bidean hedatu hamalau aleman alimale non zer ikusiko zuten: zenbait orro bospasei egunez». Lurok geriza hartu duen harriarte horren aitzinean lehertu da granada bat, eta horrek ernarazi du eldarniotik. «Futxo, ez banaiz higitzen nehork ez nau leku honetarik aterako», erran dio bere buruari, eztulka ito beharrean. 18. erreximenduko gizonak gordeak diren zulo horietaraino hirutan hogeita hamar bat metro izanen ditu. Bertze orduz jauzi batean iraganen zituen, baina egoera honetan... Indar bat egitea deliberaturik, ezker-eskuin miatu du eremua. Bizpahiru jauzitan helduko dela uste du. Begiak lausotzen zaizkio ordea. Zerbait bada hor, zeraren meta bat, hogeita hamar bat metrotan, ezin argi antzeman zer den. Urrunegi. Eskuinerat badira sasi gisako batzuk. Ez da geriza segura, baina menturaz botxe

tzar horiek ez dira jabetuko haien gibelean nehor gordeko denik. Berriz ere ahuspez ezarririk, berebiziko indar bat egin du sasitza horretarat herrestan hurbiltzeko. Ezker saihetsa eta eskua zaurturik, eskuin alderat kargatzen du pisua, eta alde horrekin egiten indar, zangoekin pusatuz gorputza aitzinerat. Eztulka birikak ahotik aurtiki behar dituela iduri, nolazpait lortu du sasi horietarat heltzea eta haien gibelean gordetzea. Hatsanka larrian ari, Maitenarendako postala oroitu zaio, eta segurtatu nahi izan du barneko patrikan duela oraino. Botxe tzar horiek Alemaniarat pusatu beharrez aritu baitira, ez du zigilua ezarri eta igortzeko paradarik izan. Eskuetan hartu eta, postalari beha hasi da negarrez, *Aimer c'est vivre*, sasitza horren gibelean kurubilkaturik, saihetseko zauria gero eta minago duela. Hatsa hartzea ere kostatzen zaio, pleinuak eta zotinak korapilatzen zaizkio eztulekin eztarrian, abantzu ito behar duela pentsatzeraino: Maitena, Maitena, Maitena, Maitena... «Bizi berri baten argia genuen oro debaldetan: jende on bat abiatu ginen: gurutze beltz bat nola hondatua lagun gehienekin eta beha geunden: jeneralari balio ote du hau ere? Jo ederki lehen han ziren bi ihurtzurik: guri buruz heldu ziren bi orenetan: alanbre sailetaraino: sinetsi

balituzte herrestan: granadak azken denboretan baino gehiago baino gehiago atxikitzen ohorezko aipamena: bele tzar bat tiroka». Ez daki amestu ote duen, edo egiaz iragan diren bi airetako aleman zeruan; ez daki zerua dagoen laino, edo begiak dituen lauso; ez daki; ez. «Laurehun eta hogeita hemezortzi egun azkenekoz: airetako aleman franko azkenean joan joan: eta joan joan zen ondoko egun batez etsaiak ikusten: atzaparka agur eginik hitz bat debaldetan bizpahiru egunez: gogoan hartzeko kantu maite horrek: *Franzosen kaputt* soldaduak gehiago ez zutitzeko goizeko zortzi orenetan oldarrarentzat: eta hau eta hura eta sobera menturatzeko: horra non aski goiz hil ziren soldadu gutiz gehienen izenak inarrosi eta ehortzi: tematu lokartu ginela gure zizpak elkarrekin kaput! Jainkoak koronelak harat-honat zeruetan goiti asmo berak su ikaragarriari loriaren loriaz: beti ateratzen *Minenwerfer* azpian zulo guziak: ezindua arratsari bezala zalapartaka ari ziren eta frantses ederrenean begitarte argiz aireari: sua zeriela doi-doia: gizon gazte beharko zuten gerlan abiatu: baionetekin ihesi gure zakuak bizkarrean: herrestaka bertze orduz abiatu ziren: ez dute zutik obusa behar». Eztul gero eta larriagoek itzuli dute onerat Luro, eta eskerrak eman

ditu gripe tzar horrengatik, bertzela loak hartuko baitzukeen, nekeak gainez eginik. Eta eskerrak eman ditu ere alemanak ez direlako obusak igortzen ari. Korritu nahi duen eremu hori laster zulatuko zuketen. Mitrallusekin, aldiz, zorte poxi bat izanen du menturaz, ez dute ehizatuko menturaz; su hegiko soldaduei lotuko zaizkie menturaz. Hor beherean, ezkerrerat, lehen ikusi duen meta horretarat gerturatzerik balu, berrogei metrotan izanen luke salbazioa, bide erdiak eginik, baina ez daki; ez daki; ez. «Amore gauean intzirien elizkizun gaizoa gerlako denboran eta granada meta zutik: Plateau de Vauclerc kentzen ahal diote funtsean orori joateko: zizpek baionetak eskuan trenek euriak kalapita andana bat: urrun gau beltzak eskuak gurutzatu bertzalde: ez ez zen aise egiten eskuin eta ezker! Zigarreta erdi bat bagenuen oraino ahoan: zer errabia beltzak argi handi urrats ttipi: hiltzeko bezpera arratsean Frantziako hirur koloreekin etsaiari kentzeko hogei aldiz irabazia: tiro tarrapata batzuk manu berri bat: biharamunean jauzi egin zuen hitz bakar batek: gorde txara hartan fidos oraino bide guzia emokaturik odolezko hitzez: egiazko Ama Birjina baten ikusi: sufrikarioen sufrikarioa badakigu aleman gerlako liburu batean irakurririk: erratea bezain erraz balitz

hamar lagunetarik zortzi ez ziren eroriko: ez dute izenik! Jazarri argia gabe: oihu egin beren tokietarat: baionetekin urrundu alemanak: jo handik jo hemendik amore emanik oren pare batez: jan-edanak baino indar gehiago atzeman: suaren erdian porroskatu ez balitu: eulia bezala zihoan gizona lurrerat: hil edo kolpa: Ibarnegarai beldurtzeko atrebitzen ziren etsai guziak han gaindi han goiti berriz gainean: mila holako: lohiz belaunetaraino nola elkar besarkatu zuten kanoiek: bururik gabe gorputzik ederrena deus ez da: noizetik noizerat karraskan soldadu hura doi-doia abiatu eta orduan tiro tarrapatak hamazazpi hilabetez: gehiago ez bihozminik: aireetan zebiltzan paper mutur batzuk harri batzuei loturik». Harri batzuei ez, mando bati lotua da Luro. Nola ez dakiela heldu da meta horretarat, eta, zer deabru izanen meta hori, eta... zer deabru eta... mando hil bat. Leku okerragorik ez leukake. Segur da aleman mitrallus guziak zuzenduko direla mando horrenganat, pentsatuz eta, ontsa pentsatuz gainera, mando horren gibelean soldaduren bat gorde litekeela. Xifritu, suntsitu eta birrinduko dute animalia, hezurretan utziz, eta segidan Luro gaizoa lehertu arte tirokatuko dute. Eztul bederak saihets hezur bat kraskatzen diola sentitzen du,

minak ez baitio lasai pentsatzen uzten gainera. Minutu batzuk baino ez ditu izanen. Kausituko dute, eta kalituko. Bertze orduz berrogei jauzi baino gutiagotan eginen lituzke berrogei metro horiek, orai ikusten baititu frantses soldadu batzuk hor beherean; 18. errezimenduaren estandartearen punta ere bai, han harat. Zangoak aztertu ditu: osorik dira. Lasterraldi bat aski izanen luke. Baina bortz minutu behar ditu, atseden hartu, eztula baretu, bortz minutu bertzerik ez; bortz minutu; bortz. «Verdunen amodioarekin jauzika-jauzika: begiak hetsi bideari lotu malda hari konplimenduen egiten: *la géographie* handirik ez: bihotza harresiari buruz goiz batez: egia kolpatu xingar eta arrautzaz mihiaren puntan: Verdunen funditu bihotz eskuetan negar eta garrasiak pentze bat: ehun metro: sekulan ez zuela odol xorta ttipiena debaldetan isurarazi-ko: zuzen hilak ez zitezkeen berehala altxa mila granada bederen alde guzietarat zapartaka: ehun metro ginen: birikak bere lekuan: gaineratekoak hil ote ziren? Hamaika negar: egia hau da: gau hartan bezperan bezala tente odoletan tiroka lurrean ala zeruan: handi eta ttipi beraz: euri eta babazuzak ero batzuk bezala bideez jabetzeko zutituak oro: Ama Birjinari etsaien tiro tarrapatak triparen erdian: erokeria sei

egunez nondik agertuko: Ligne Hindenbourg hartzera joateko den mendreneko bidean tiroka ukondoa ukondoari: baina laster norbaitek nonbaitetik erran hartzeko eta hartzeko oihu eta garrasiak: obus erauntsi bat ederra: jeneralak zango bat airean: kostako zena kosta: euriak euriari: gerlan ibili direnek badakite ilunari buruz punta-puntan frantses banderaren landatzen: gau hartan sarraski ederrik ikusi genuela itzulipurdika: tupina guziak ostikoka uzkaili genituen hain zuzen: negarrez abiatu orduko lehertuak guri buruz odol guzia belaunetarainoko saltsa ikaragarri batean: derrepente bihotzak *Flammenwerfer* ezarri: oi deabru errorik menturaz eskas? Ez eskas: iraun baitezpada oharkabean eta aise lore bat: ekia zen arras atxikia munduko irri besta eta argia urratu arte: Lurdeseko Ama Birjinak ez zuela aski botere: oro amore emanik hautsiko ziren gure hitz harresi honetan baino ederragorik goiz batez antolatzeko gerla: ez ehun metrotan: zizpa kargatua gorputzari hil hurren: kaskako bat bilatu eta eman ederki! Orai bezala iragana izanen gara». Bortz minutu iragan diren edo ez, mandoari herio batean tiroka lotuak dira botxe tzar horiek mitrallusekin eta zizpekin. Tiro tarrapata horiek mandoaren gorpua inarrosten dute, eta Luro pusatzen alde batetarat eta

bertzerat, bere buruaren eusteko ere ezgai. Kaskoa jausi zaio. Jaso du nolazpait. Arrastatu dute tirokaldia. Orai ez du zutitu behar, hau du oren txarrena: beha izanen du etsaia, zafraldiaren ondotik ea nor zutituko mandoaren gibeletik. «Sugearen ausikiak kalitu ez banau, botxe tzar horiek ez naute kalituko bada!». Itxaron behar du bizpalau minutu gehiagoz. Eta gero, lasterraldi bat, berrogei jauzi berrogei metrorentzat, eta gero pausua. Berrogei metroren lasterraldi bat bertzerik ez; bertzerik ez; ez. «Obus erauntsi batek ehorzten duen lurpetik hats bahi: Verduneko infernuan elizetan deabru batzuk bezala: lurretik marrumaka hasten: debaldetan Jainkoaren begien bistan menturatu: gauean gau beltzean zalapartaka lasterka baionetek ez zituzten utzi: kaka: zer ikusi izan zen: saihetsetik bi granada eskuan ardiak: ez zekiten eta hola tiro bat gibelean gero eta egundaino bezala orai: igorri gintuztelarik ez dakigu zertako gizon hiltzen nehork manatu gabe ero batzuk lorietan leherturik itzulipurdikatzen zortzi orenetan zizpa muturrekin bozkatuz banderak haizeari: txori errebelatu batzuk *Minenwerfer* guziak leherturik gizon edan batzuk bezala! Ez du legerik baina badoa lur puska bat zirurikan». Bizkar zakua bertan utziko du. Askatu du, mandoaren kontra

utzi, bururik goititu gabe. Tenorea izanen du goititzeko; tenorea izanen du orai; orai. «Kolpatua dar-dar-dar pipa eta muntra gizagaixoak pusaka etsaia han etsaiei etsaia zaintzea arrosario batzuk eskuan: berriz manua bertze mundutik: ezpainetan bihotzeko zenbait fabore atxikiko zituela orok». Kito. Zutitu da Luro. Honezkero mandoarekin ahantziak dira botxe tzar horiek. Zutitu da? Bai. Zutik. Berrogei urrats: berrogei jauzi. «Tiroka hasi orduko hilak zerbaiti oharturik bidean galdu behar atseginarekin anitzen artean hilak lokartzea nahi beti eta behin iratzarriak usuago». Badoa Luro andarka. Badoa? Bai, aitzinatzen ari da. Baina buruak manatzen eta pentsatzen duena baino mantsoago doazkio zangoak; mantsoago zangoak; zangoak. «Aitzinerat laborari gehiago Hilen Eguna ere beraz bizkarrean harturik leherturik oro ausikika elurrak bortan: hilik jauzi batek ihes egin eta ihesi zihoan kolpatua». Zenbat metro egin ditu? Hamar? Hamalau? Han harateko patar bati karraskan ari zen aleman mitrallus bat ohartu da andarka doan Luroren gorputz horrekin, eta fite lotu zaio tiroka. «Mila intziri harat eta honat odol oren ikaragarriak txondorrari su ematen hastean». Tiroak dira horiek? Bai, tiroak dira. Ezkerretik eskuinerat lehenik, eta eskuinetik ezkerrerat gero, eremua arras

garbitzen dute mitrallusek. Lurrerat jausi da Luro, zangoak bahe bat bezala zulatuak. «Nola gudu bat ez duen bere azken orenak lehertu etsaiak irriak aski halere garrasika manatu zuten luzez iraun bide haietan galdu ikatz zaku batekin». Zangoetan min, saihetsa odoletan, tiro zafraldiaren erdian ezin aitzinatu, eta eztula ez ote zaion isilduko pentsatzen hasia da Luro. Eskua barneko patrikarat sartuz nolazpait, hor da Maitenarendako postala. «Birikak egiazko dilindan isilka: derrepentean ezin xutik egon: bideak pentzeak: kaka: errabiaren zeruan kantatzen ogi eremuetan eta oro sutan *Andre Madalen* futxo! Iluna hurbilago eta etxeko oinetako hoberenen higatzeko mendixka haren puntan Craonnelle: hezur eri punttez ikatzarekin eta ogia: bizkitartean zerua gainerat erori burutik beheiti!». Behin soldadua lurrerat jausirik, ez bada gehiago higitzen ere, berriz ezkerretik eskuinerat eta gero eskuinetik ezkerrerat tiroak barreiatuz segitu behar du mitrallusak, bururat destatuz ahal dela, gorputzerat bertzela. Eta bi alditan aski ez bada, hirutan barreiatu behar ditu mitrallusak tiroak, etsaia ontsa hila dela segurtatzeko. Luro ere hila dela segurtatzeko. Helmut izena duen soldadu horrek, zeinak okindegi bat baitzuen gerla haste hartan Munichen, ganibeta hartuko

du gauean, eta bertze marra bat kirrimarratuko dio mitrallusari saihets batean.

Collage honen josteko, ezinbesteko iturri izan da *Eskualduna*. 1914tik 1916rako egunkari guztiak osorik eta handik aurrerakoak jauzika kontsultatu ahal izan nituen Hemeroketari esker: http://www.hemeroketa.com

Zorte handia izan zen ere Baionako Infanteriako 49. Erreximenduaren Martxa eta Operazioen Egunkaria eskuratzea, 1914ko agorrilaren 7tik 1918ko abenduaren 31 bitarteko egunez eguneko ibilera guztiak jarraitu ahal izan nituelako haren bidez: http://www.memoiredeshommes.sga.defense.gouv.fr/fr/arkotheque/inventaires/ead_ir_consult.php?fam=3&id_ark_ead_les_irs=6

Inspirazio bide izan ziren, gainera, Jacques Tardiren ikerketak eta ilustrazioak, Domingo Ouret soldaduaren egunerokoa: http://aitatxi.free.fr. Eta hemen aipatzea luzeegi litzatekeen bertze anitz erreferentzia.

Euskaldunek maisuki kontatu zieten gerla handia zer izan zen euskaldunei. Jean Saint Pierre *Anxuberro*ren kronikak (*14eko gerla handia*. Piarres Xarritonen edizioa. 1998. Klasikoak) eta Jean Elizalde *Zerbitzari*ren oroitzapenak (*LVIIa gerlan*. Patri Urkizuren edizioa.

1995. Alberdania) liburutan bilduak dira: hor dira lehen eskuko lekukotzak. Gure egunetan, Eneko Bidegainen ikerketak (*Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria*. 2014. Elkar) eta Xabier Montoiaren *Hezur gabeko hilak* nobela (1999. Susa) ezinbesteko erreferentzia dira.

Eskerrak bihurtu nahi dizkizuet, Gorka, Eneko, Isa, Ixabel, Iñaki, Oier, Amagoia, Unai, Patxi, Ainhoa, Harkaitz, proposamenengatik, kritikengatik eta emandako konfiantzarengatik.

Bukatzeko: liburu hau ez zen den gisakoa izanen Fugaziren indarra eta Lisabören dentsitatea gabe. Eskerrik asko zuei ere.

2014ko buruilaren 24an, Hernanin